


Joxemari Iriondo

# **Basarri**

## **Gerraurrean kazetari**

### **1931-1935**



Bere mendeurreneko ospakizunetan behin eta berriz aipatu genuenez, Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian jaio zen Basarri, 1913ko azaroaren 27an, eta Zarautzen hil, 1999ko azaroaren 3an.

**Basarri I – Bat-batean** (bat-bateko bertsoak, Auspoa 296), **Basarri II – Jarritako bertsoak** (Auspoa 319), eta **Basarri – Zarauzko berriak 1931–1936** (Auspoa 327) bertso eta kronika-bildumak lehenago argitara emanak ditu *Auspoa* sail honek. Eta oraingoan, 1931tik 1943 arte argitara eman zituen laurehun idazlan inguru bildu ditugu, irakurlea ohartuko denez.

Berriro 1946an hasi eta 1993ra arte argitara eman zuen beste hainbat eta hainbat idazlan hor gelditzen da oraindik ere, herri kirolak (aizkolariak, harri-jasotzaileak, segariak, korrikalariak, estropadak, pilota...), bertsolariak eta bertsolari-tza, euskara eta euskal kultura eta abar aipatuz.

**Basarri gerraurrean kazetari** (Auspoa 328) eta **Basarri gerratean kazetari** (Auspoa 329) bikotx honekin amaitutzat emango dugu gure bilketa lana oraingoz, inoiz norbaitek jarraituko duen itxaropenez, iturriak oso eskura daude-eta, zorionez.

Joxemari Iriondo  
2014ko uztaila

Joxemari Iriondo

**Basarri**  
**Gerraurrean kazetari**  
**1931-1935**

---

Auspoa Liburutegia  
328

BASARRI (1913-1999)

Basarri : gerraurrean kazetari : 1931-1935 / [biltzailea], Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2014.

401 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 328)

Aurkibidea

LG SS 948-2014. - ISBN 978-84-7907-716-7

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deporte. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-43"19"

*Argazkiak:* Zarauzko Udal-artxiboa, Gure Gipuzkoa (I. Ojanguren, J. Elozegi) (Gipuzkoako Foru Aldundia), J.M. Iriondo, Kutxa Fototeka.

*Idazketa, zuzenketa, edizio arduraduna:* J.M. Iriondo.

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-716-7

Legezko Gordailua: SS-948/2014

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Gertu inprimategia. Oñati (Gipuzkoa)

Joxemari Iriondo

# **Basarri**

## **Gerraurrean kazetari**

### **1931-1935**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Donostia/San Sebastián, 2014

## Hitzaurrea

---

Honen aurrekoan (Auspoa 327) esan genizkizunak berritu beharko ditugu orain ere, nahi eta nahi ez, han agindutako zorra betetzera baitator *Auspoa* liburu berri hau, gure irakurleak gustura hartuko duen itxaropenez, beti bezalaxe.

Iaz bete zen Basarri bertsolaria, idazlea eta irrati-esataria jaiο zeneko mendeurrena; Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian jaiο baitzen 2013ko azaroaren 27an. Hil, berriz, Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, laurogeita sei urte betetzear zegoela.

Zarauzko herriak eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten mendeurrenako jaietan, *Auspoa* ere partaide izan zen, omen eta ohore eginez bertsolaritza eta euskararen alde hainbat lan egin zuenari bertsoz, idatziz eta hitzez. **Zarauzko berriak 1931-1936** liburua argitara eman genuen 2013ko abenduan. Eta 1931 – 1943 artean egunkari eta aldizkarietan idatzitako beste sorta bat laster argitaratuko genuela agindu.

### Gerraurrean kazetari

Eskuan duzun idazlan-bilduma honetan, 1931–1935 artean Basarri gazteak egindako lehen kazetaritza-lanak jaso ditugu. Izan ere, garai hartako bertso eta olerkiak lehenago argitara emanak dira *Auspoa* sail honetan.

Basarri 1931ko abenduaren 13an hasi zen idazten. Bertsolari, hizlari eta idazle ez ezik, kazetari ere bazela erakutsi nahi zuen, gero hirurogeita bost urte luzean egin zuen bezala.

Ezin esango dugu bere idazlan denak jaso ditugunik; garai hartan argitara emandakoren bat geldituko baitzitzaigun bazterren batean jasotzeke. Baina bilketan ahalegin berezia egin dugula esango dizugu, Deustun emandako hitzaldiaren ondoren (1999) Antonio Zavalari emandako hitza bete nahi-eta.

**Gerraurrean kazetari, 1931–1935** (Auspoa 328) liburu honetan bildu direnak non eta noiz argitara eman ziren:

\**EUZKADI*, 1931-XII-10etik 1935-VIII-13ra,

\**EL DÍA*, 1932-II-24tik 1935-XII-20ra, eta

\**ARGIA*, 1932-V-22tik 1935-XI-17ra arte.

Hortik aurrera 1936 eta 1943 bitartean idatzitakoak, berriaz, honen ondorengoan (Auspoa 329) aurkitu dituzu, nolabaiteko banaketa egin behar genuen-eta liburua gehiegi ez gizentzearren.

## **Gaiak eta estiloa**

Idazteko gaiak bere senaren arabera aukeratzen zituen Basarriek, eta arrazoiak inolako konplexurik gabe ematen:

Gu idaztera jartzen geranean, geienean gai berdiña izaten degu. Au da, abertzaletasunari buruz eskeñitako gaia. Eta gai onetzaz len lan asko egin dala ta, gai onetzaz asko idatzi dala ta, geure burua gauza berri zale azalduta beste zerbaiten billa joango ote gera? Au baztertuta, beste zerbaiti elduko ote diogu?

Ai, ortarako moduan bagende!

Orduan gure gogaiak bestelakoak lirake. Gure asmoak goi mallara iritsiak; orduan, ainbeste aldiz aitatzen degun Askatasun eguzkiaren printza dizdizlaritan gozatzen euzkotar guztiak. Baña, ez, ez gera orrenbestera iritsi. Gure itzak amesgai dira oraindik. Ezagutzen degu ori guztia, baña laster, al dan lasterren egiztazera saiatu bear degu, ludi guztiaren aurrera gure lan egiñaren emaitzak agertzera. (**Artu erredutzat**, *El Día* 1933-I-24 – *Euzkadi*, 1033-I-28).

Lehenago ere esan eta idatzia dugu ez zela hotz-hotzean idazten zuen kazetari horietakoa. Albistea ez ezik, iritzia ere argi eman nahi izaten zuen idatzietan, albistea eta iritzia biak lotu, eta baten edo bestearen aldeko partidua argi hartuz. Horrela ikusiko duzu sorta honetan ere.

Bestalde, Basarriren garai hartako idatziak irakurriz, berehala ohartuko zera Madrilekin eta hango ordezkariekin tira-

bira eta borroka bizia zela Euskal Herrian gerra aurretik ere. Borroka bizia euskaltzale eta hala ez zirenen artean; hauteskunde-garaia heltzen zenean, batez ere. Borroka, Basarritarren elkartea, Euzko Langilleen elkartea, Euskal Idazle Batza, Aberri Egunak, Euskal Estatutua eta abar serio defendatu behar zirenean; eta borroka bizia, bereziki, EUSKARA bera aldarrikatu eta defendatu behar zenean.

Beste gaien artean, Euskal Herriko lanik eza, bizimodu georoz garestiagoa, langile jendearen irabazien urritasuna, eguraldiaren gorabeherak, kosta-herrietako udatiarren gorakoa, edota Zarautza uda pasatzera etortzen ziren *señoritoen* handinahikeria, euskal nekazari eta arrantzaleen ezin bizia, ohitura zaharren aldaketak, gazteria... erabili zituen. Horiez gainera, argitara emandako euskal liburuen aipamenak, bertsolariak, Santa Engraziko baselizaren kontuak, nazioarteko politikarenak eta abar.

Horrelakoxe mila buruhauste zuen, egunero edo aldioro gaiak hautatzekoan, bere kasa hasi zen kazetari gazteak.

Hala ere, inork ez zuen behartzen kronika edo idazlanak egunero euskaraz eta gazteleraz idaztera, azkenengo urteetan behartu zuten bezala. Nahi zuen gaia aukeratu eta idazteko astia zuen gehienetan, egunerokotasunak sortzen duen itomenik gabe, lasai samar idatzi eta barrenean zeraman sugarra azaleratuz.

Kazetari hasiberriaren akatsak ikusiko ditu norbaitek; beste batek, freskotasunez jantzita agertu den kazetari berri baten gardentasuna.

## **Edizioa**

Aurrekoan bezala, oraingo honetan ere aurkituko duzu aldaketa txiki bat baino gehiago jatorrizkoetatik hona. Izan ere, ez daude beti berdin argitara emanak aipatutako egunkarrietan Basarriren idazlan berberak. Bakoitzak bere zuzenketa edo konponketak egiten zituen, aldi bakoitzean bere arauak



ezarriz. Guk, aldakietatik lehenengoa hartu dugu hemen, eta gaur eguneko arauetara hurbiltzen ahalegindu askotan, irakurketa leundu eta errazteko asmoz.

\*Orduko ohituren arabera, apostrofe eta kakotx asko dago jatorrizko idatzietan. Kendu egin ditugu. Hala nola:

*Eizmendi'tar* (Eizmenditar), *Ayerdi'tar* (Ayerditar), *Monzon'tar* (Monzontar), *Agirre'tar* (Agirretar), *Alberdi'tar* (Alberditar), *Enbeita'tar Kepa'ren* (Enbeitar Keparen).

*Zarautz'en*, *Zarautz'tik*, *Zarautz'ko* (Zarautzen, Zarautzik, Zarauzko), *Euzkadi'ko*, *Euzko Etxea'ko* (Euzkadiko, Euzko Etxeako), eta abar, eta abar.

\*S, Z, X, TS, TZ eta TX. Argitalpen bakoitzak bere irizpidearen arabera erabiltzen zituen: *Euzko*, *eusko*; *euzkera*, *euskera*; *euzkal*, *euskal*, *euzkel*, *euskel*; *arratzalde*, *arratsalde*; *atzegin*, *atsegin*; *laxter*, *laixter*, *laster*; *eleiz*, *eleiza*; *itxaso*, *itxu*, *itxusi* eta abar. Denak batu ditugu: *euskera*, *euskal*, *arratsalde*, *atsegin*, *eliza*, *laster*, *itsaso*, *itsu*, *itsusi*.

Alabaina, *Euzko*, *Euzkadi*, *auzkotar*, *euzkoak* bere horretan errespetatu ditugu, gehienetan horrela agertzen baitira.

\*Antzslari, antzeglari, antzestu, antzeztu... Antzeglari, antzeztu utzi dugu guztietan. Eta *antzerki jaia*, *antzerki-jaia* delakoetan dena batu eta *antzerki-jaia* jarri dugu. *Aberri eguna*, *Aberri-eguna* delakoan, *Aberri-eguna*.

\*Y grekoa. Denetik dago jatorrizko idatzietan: *geiyago*, *geyago*, *geyen*, *geiyenera*, *geyenera*, *geienera*; *goyen*, *goyeneko*; *egiya*, *egia*; *erriya*, *erria*; *Aberriya*, *Aberria*; *aberkoya*, *aberkoiya*; *etsaiya*; *anaya*; *aiyek*; *oyek*, *oriyek*, *oryek*, *oiyek*, *oyetzaz*; *garaiyan*, *garayan*; *Zumaya*, *Zumaia*; *Aya*, *Aia*; *byotzetik*, *biyotzetik*, *biotzetik*; *piyo*, *deyogun*, *zayon*... Horrelakoetan *y* kendu eta *i* ipini dugu, zenbait abizen eta izenetan izan ezik: *Ayerdi*, *Iruretagoyena*, *Zelaya*, *Goya*, *Zendoya*, *Euzko Deya*...

\*Era batera nahiz bestera erabili zuen ñ, hitzaren azkeanean: *egiñ*, *eziñ*, *edozeiñ*, *alegiñ*, *zanakiñ*, *laiñ*, *dediñ*, *aiñ*, *oraiñ*, *ikurriñ*, *eragiñ*, *berdiñ*, *gaiñ*, *apaiñ*... Horrelakoetan, *n*

ipini dugu. Baina *egiña, alegiña, aña, ikurriña, eragiña, gaña, apaña* eta abar.

\**Prantzi, Prantzia, Frantzi; Abisini, Abisinia; Itali, Italia; Errusi, Errusia* eta abar, aldatu eta *Frantzia, Abisinia, Italia, Errusia* berdinu ditugu.

\**Noiz nai, noiz-nai; nun nai, nun-nai; nora nai, nora-nai; gaxo aldi; jai aldi; udal-etxe, udal etxe; pelota leku, pelota-leku; diamun, biamun; izen abizenak* eta holakoetan, denak berdinu, eta *noiznai, nunai, noranai, gaxoaldi, jaialdi, udaletxe, pelletaleku, biamun, izen-abizenak jarri* dugu.

\**Askorek* eta *askok* kasuetan, beti *askok jarri* dugu.

\**Aldunak, alduna, altzan, altzuan* eta holakoetan, *al dunak al duna, al zan, al zuan* irakurriko dituzu.

\*Oraingoan ere aldiari behin azaltzen dira *oñengo* eta *oñengoan* (Errezilen, *oañenguan* esaten dute), *orain hurrengo, orain hurrengoan* esateko. Bere horretan utzi ditugu.

Hauek eta beste aldiaketa txikiren batzuk ere aurkituko dituzu; baina, lehenago esan bezala, irakurketa erraztu eta Basarriren onerako izango dela pentsatuta egin dugu dena.

## **Azkenik**

Honen aurreko Basarriren idazlanak gustura irakurri bazenituen, ziur gera oraingoak gusturago irakurriko dituzula, Euskal Herriaren aldi bateko historia gordina hementxe aurkituko baituzu.

Joxemari Iriondo  
2014ko ekaina

**Basarri**  
**Gerraurrean kazetari**  
**1931-1935**

## Aurkibidea

---

Hitzaurrea .....	7
Anaitasuna erakutsi. <i>Euzkadi</i> , 1931-12-10.....	21
Basarritarrak, erne. <i>El Día</i> , 1932-02-24.....	22
Abertzaletasuna Zarautzen. <i>Euzkadi</i> , 1932-03-03/ <i>El Día</i> , 1932-03-06 .....	24
Igandean Zumaian. <i>El Día</i> , 1932-04-28 .....	27
Zarauzko Emakume Abertzale Batza. <i>El Día</i> , 1932-05-03 .....	30
Zarauzko Emakume Abertzale Batza. <i>El Día</i> , 1932-05-06 .....	32
Itzaldiak euskeraz. <i>El Día</i> , 1932-05-15 .....	35
Gipuzkoako nekazaritza. <i>Argia</i> , 1932-05-22 .....	38
Aberri-deia. Azpeitira. <i>El Día</i> , 1932-06-08.....	40
Euskal olerkariei. <i>El Día</i> , 1932-06-14 .....	41
Igandez Azpeitin. <i>El Día</i> , 1932-06-14 .....	42
Etsaien esanak. <i>Argia</i> , 1932-06-26.....	45
Esaeraren indarra. <i>El Día</i> , 1932-07-06 .....	47
Gipuzkoako nekazariak. <i>El Día</i> , 1932-07-24 .....	49
Gipuzkoako nekazariak. <i>Argia</i> , 1932-08-07 .....	52
Euzko-erri jakintza. Bertso zarrak. <i>Euzkadi</i> , 1932-09-02.....	54
Urdaneta ballaran. <i>El Día</i> , 1932-09-03 .....	58
Askatasun billa. <i>El Día</i> , 1932-09-15/ <i>Euzkadi</i> , 1932-09-20 / <i>Argia</i> 1932-10-09 .....	61
Atsedean artu dezagun. <i>Euzkadi</i> , 1932-10-22 .....	63
Bai, arrigarria! <i>El Día</i> , 1932-12-08.....	66
Laguntza eske! <i>Argia</i> , 1932-12-18 .....	69
Zarauztarrak, entzun. <i>El Día</i> , 1932-12-21 .....	71
Aurrera goaz! <i>El Día</i> , 1933-01-08/ <i>Euzkadi</i> , 1933-01-13 .....	73
Yakintza Ibiltaldiak. <i>El Día</i> , 1933-01-15 .....	77
Artu eredutzat. <i>El Día</i> , 1933-01-24/ <i>Euzkadi</i> , 1933-01-28.....	80
Aizarnako jai aberkoia. <i>El Día</i> , 1933-02-22/ <i>Euzkadi</i> , 1933-02-23.	83
Basatiak lanean. <i>Argia</i> , 1933-02-26 .....	86
Joan zaigu! <i>Euzkadi</i> , 1933-03-16 .....	88
Zein aundia zan! <i>Euzkadi</i> , 1933-04-06 .....	91
Aberri-deia. <i>Euzkadi</i> , 1933-04-13.....	95
Donostiko billera. <i>El Día</i> , 1933-04-24 .....	98

Donostiko billera. <i>Euzkadi</i> , 1933-04-25.....	101
Donostiko billera. <i>Euzkadi</i> , 1933-04-29.....	104
Auteskunde ondoren. <i>Euzkadi</i> , 1933-05-10.....	107
Ongi etorri. <i>El Día</i> , 1933-06-06.....	110
Ez dago eskubiderik. <i>El Día</i> , 1933-06-13/ <i>Euzkadi</i> , 1933-06-15.	111
Ayerditar Mikel, zarauztar bulartsua. <i>El Día</i> , 1933-06-15 .....	113
Ez dago eskubiderik. <i>El Día</i> , 1933-06-16 .....	114
Txit bearrekoa da Nezakari Alkartasuna. <i>El Día</i> , 1933-06-23 .....	117
Ori oztasuna! <i>El Día</i> , 1933-07-13.....	120
Ori oztasuna! Ori oztasuna! <i>El Día</i> , 1933-07-20.....	122
Dantza lotua. <i>El Día</i> , 1933-07-22.....	124
Zarauztarrak Sukarrietan. <i>El Día</i> , 1933-08-12.....	126
Poxpoliñak Zarautzen. <i>El Día</i> , 1933-09-13.....	130
Oporqueta ondoren. <i>El Día</i> , 1933-10-02 / <i>Euzkadi</i> , 1933-10-06 ...	132
Udazken, udazken. <i>Euzkadi</i> , 1933-10-05/ <i>El Día</i> , 1933-10-11 ...	135
Udazken, udazken. <i>Euzkadi</i> , 1933-10-12/ <i>El Día</i> , 1933-10-11 ...	137
Udazken, udazken (amaia). <i>El Día</i> , 1933-10-19 .....	139
Euzko araudia eta euskera. <i>El Día</i> , 1933-10-26/ <i>Euzkadi</i> , 1933-10-27 .....	142
Eldu da ordua. <i>El Día</i> , 1933-11-05 .....	144
Igande gogoangarria. <i>El Día</i> , 1933-11-11 .....	145
Aiako nekazari edo basarritarrai... <i>El Día</i> , 1933-11-12.....	147
Eskerrak emanez. <i>El Día</i> , 1933-11-23/ <i>Euzkadi</i> , 1933-11-24 .....	148
Basarritarra ta abertzaletasuna. <i>Argia</i> , 1933-12-10.....	150
Basarritarra ta abertzaletasuna (Amaia). <i>Argia</i> , 1933-12-17 .....	152
Bertsolariak. <i>El Día</i> , 1933-12-22.....	155
Gero gertatu egite omen dira. <i>Argia</i> , 1934-01-04 .....	158
Euskal-irratsaioak. <i>Euzkadi</i> , 1934-01-13 .....	160
Euskal-irratsaioak. <i>Euzkadi</i> , 1934-01-18 .....	162
Euskal-irratsaioak. <i>Euzkadi</i> , 1934-01-23 .....	164
Zarauzko Udaletxean. <i>Euzkadi</i> , 1934-02-09 .....	167
“Ama”. <i>Euzkadi</i> , 1934-02-22 .....	171
Guk uste bezela. <i>El Día</i> , 1934-03-03.....	174
Aitona gizagaxoa. <i>Euzkadi</i> , 1934-03-14 .....	176
Asi ezkerro, gauzak zuzen! <i>Euzkadi</i> , 1934-03-31.....	182
Aberri-Egunaren ondorenak. <i>El Día</i> , 1934-04-08 .....	184
Aberri-Egunaren ondorena (jarraipena). <i>El Día</i> , 1934-04-13 .....	186

Aberri-Eguna. <i>Euzkadi</i> , 1934-04-21 .....	190
Euzko Abesbatzari. <i>Euzkadi</i> , 1934-04-22 .....	193
Idiakezen auzia. <i>El Día</i> , 1934-04-26 .....	195
Gure ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-05-10 .....	197
Gure ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-05-16 .....	201
Gure ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-05-23 .....	204
Gure ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-05-26 .....	207
Gure ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-06-01 .....	211
Igandez Zarautzen. Bostgarren Olerti-Eguna. <i>El Día</i> , 1934-06-06/ <i>Euzkadi (El Día-tik)</i> , 1934-06-07.....	215
Gure Ibiltaldiko berriak (jarraitzeko). <i>El Día</i> , 1934-06-15 .....	218
Gure Ibiltaldiko berriak (amaia). <i>El Día</i> , 1934-06-22.....	221
Pelaio Donea, Zarauzko Zaindari. <i>El Día</i> , 1934-06-26 .....	224
Aundinaikeria! <i>El Día</i> , 1934-07-13.....	227
Iñaki Deuna ta Zarauztar abertzaleak. <i>El Día</i> , 1934-08-03 .....	230
Euzko Basetxea. <i>El Día</i> , 1934-08-04/ <i>Euzkadi</i> , 1934-08-05 .....	233
Euzko Basetxea. <i>El Día</i> , 1934-08-05/ <i>Euzkadi</i> , 1934-08-07 .....	235
Okerrak zuzentzen. <i>El Día</i> , 1934-08-12 .....	237
Bukatu zala uste ta orain asiera. <i>Euzkadi</i> , 1934-08-25/ <i>El Día</i> , 1934-08-28 .....	238
Ai zer nolako egia auxe. <i>Euzkadi</i> , 1934-09-01/ <i>El Día</i> , 1934-09-02 .....	240
Zizka-mizka. <i>El Día</i> , 1934-09-07/ <i>Euzkadi</i> , 1934-09-08 .....	242
Zizka-mizka. <i>El Día</i> , 1934-09-11/ <i>Euzkadi</i> , 1934-09-12 .....	246
Euzko Idazle Batzarra dalata. <i>El Día</i> , 1934-09-16.....	248
Joan da. <i>Euzkadi</i> , 1934-09-23.....	250
Alderdi ederra zeukagu! <i>Euzkadi</i> , 1934-09-30 .....	252
Eldu egiñari. <i>Argia</i> , 1934-10-28.....	254
Egizko bidea. <i>Argia</i> , 1934-11-11 .....	255
Asmo txalogarri bat. <i>Argia</i> , 1934-11-18 .....	257
Il ote? <i>Argia</i> , 1934-11-25.....	260
Euzko Abesbatza Zarautzen. <i>El Día</i> , 1934-12-05 .....	261
Euzko Abesbatza. <i>El Día</i> , 1934-12-08 .....	263
Euzko Abesbatza Zarautzen. <i>El Día</i> , 1934-12-09 .....	266
Asmo zuzenak. <i>Argia</i> , 1934-12-16 .....	267
Euzko Emakumea. <i>Argia</i> , 1934-12-25 .....	269
Zubimenditar Joseba. <i>Argia</i> , 1934-12-30.....	272

Polonia ta Euzkadi. <i>Argia</i> , 1935-01-06 .....	273
Eguneroko berriak. <i>Argia</i> , 1935-01-13.....	276
Bertsolari eguna. <i>Argia</i> , 1935-01-20.....	278
Ladislao Rieger. <i>Argia</i> , 1935-02-17.....	284
Ladislao Rieger - II. <i>Argia</i> , 1935-02-24.....	286
Gure zorionak. <i>Argia</i> , 1935-03-03 .....	288
Ladislao Rieger - III. <i>Argia</i> , 1935-03-10.....	291
Ladislao Rieger - IV. <i>Argia</i> , 1935-03-17 .....	293
Ladislao Rieger - V. <i>Argia</i> , 1935-03-24.....	295
Bakarrizketa sariketa Zarautzen. <i>Argia</i> , 1935-03-31.....	297
Txomin Olano. <i>El Día</i> , 1935-04-05.....	299
Igandean "Pedro Mari" Donostian. <i>Euzkadi</i> , 1935-04-07.....	301
Ateraldi paboa. <i>El Día</i> , 1935-04-14.....	302
Jaunaren Berpizkundera. <i>Argia</i> , 1935-04-21 .....	304
Agur adiskide. <i>El Día</i> , 1935-04-26 .....	306
Eman zizkion ederrak. <i>El Día</i> , 1935-04-28.....	308
Ereintza. <i>Argia</i> , 1935-05-12.....	310
Pagoetako gurutzeta. <i>El Día</i> , 1935-05-28 .....	312
Adiskidetasuneko izketaldi antzera (jarraitzeko).	
<i>Euzkadi</i> , 1935-05-29.....	314
Adiskidetasuneko izketaldi antzera (amaia). <i>Euzkadi</i> ,	
1935-05-30 .....	316
Pagoetako jaialdiak. <i>El Día</i> , 1935-06-07/ <i>Euzkadi</i> , 1935-06-08..	318
Pagoetako jaialdiak. <i>El Día</i> , 1935-06-08/ <i>Euzkadi</i> , 1935-06-08...	320
Zerbait ikaragarria (NB). <i>El Día</i> , 1935-06-20.....	322
Agur, Otaegi zintzoa (NB). <i>El Día</i> , 1935-06-25.....	324
Bai, joango gera (NB). <i>El Día</i> , 1935-06-30 .....	327
Ziaurritzar Doroteo (NB). <i>El Día</i> , 1935-07-07 .....	330
Azkenean ere (NB). <i>Argia</i> , 1935-07-07 .....	333
Ez dago eskubiderik (NB). <i>Argia</i> , 1935-07-14.....	336
Oraintxe lertu bearrean (NB). <i>Argia</i> , 1935-07-21 .....	338
Geiegi arrotzea (NB). <i>Argia</i> , 1935-07-28.....	341
Santa Engrazi tontorrean. <i>Argia</i> , 1935-08-04 .....	344
Txantxak utzi (NB). <i>Euzkadi</i> , 1935-08-13 .....	351
Euskal gaiak. Itzegiteko era. <i>El Día</i> , 1935-08-18.....	355
Lauaxetari. <i>El Día</i> , 1935-08-23.....	359
Igandez Iruran (NB). <i>Argia</i> , 1935-09-01 .....	361

Berri pozgarria (NB). <i>Argia</i> , 1935-09-01 .....	364
Beljika-ko berri itunak (NB). <i>Argia</i> , 1935-09-15 .....	365
Euskaltzaleen Biltzarrak (NB). <i>Argia</i> , 1935-09-22 .....	369
Gipuzkoako erri txiki batean (NB). <i>El Día</i> , 1935-09-29.....	373
Mujikatar Nikola. <i>Argia</i> , 1935-10-06 .....	375
Tarte txiki batean (NB). <i>Argia</i> , 1935-10-18.....	379
Mujika margolaria ta Amerikako euskaldunak (amaia). <i>Argia</i> , 1935-10-27 .....	382
Urumeako pelotatokiak (NB). <i>El Día</i> , 1935-11-12.....	387
Iruretagoyenatar Patxi Zaporra (NB). <i>Argia</i> , 1935-11-17.....	390
Milla bederatzireun da irugarren (NB). <i>El Día</i> , 1935-11-24.....	393
Urumean egin zun (NB). <i>El Día</i> , 1935-12-14 .....	396
Berako seme Pio Baroja (NB). <i>El Día</i> , 1935-12-20 .....	399





## **Anaitasuna erakutsi**

**Euzkadi, 1931-12-30**

---

Erakusbide ederra benetan aurtengo negu illun eta naigabetsu onetan euzko abertzale zintzoak azaldu dutena. Gizonik maitatuen ta gogozkuena izan oi da bere lan egite ederrez edo bere maitasunez beste batzuek ondo jartzen dituana, eta ez itza eta pitza erabilli, oritasunezko gauza asko agindu eta ondorenian ezer ez. Gaurko egunian garbi ikusten dan gauza ori da, guztiok dakizuten bezela. Sozolistuen itzaldi bat naikua da, or entzungo dezute "langilientzat maitasuna guk degu eta ez bestek, nai ta naiez langile guztiok onera etorri bear dute beren buruak lasaitzeko bear dan neurrijan lana egin eta ontasunian bizitzeko eta bear diran aginteak artzeko". Orrela beste gauza asko.

Gu euzkotarrok bertako bazkide ez geradenok omen gero "kabernikolas", atzeratuak noski, ta besterik ez bezelakuak. Egia aitortuko diogu, gu besterik ez bezelakoak gera abendaz, izkuntzaz, oituraz, jolasez eta guztira. Baña kabernikolas nortzuk diran ikusten guri pakian utzi ta beste batzun billa asi biarko dute.

Zein erakusbide ederra euzkotarrok eman dutena! Alkarrenganako maitetasuna garbi erakutsi da Euzkadiko abertzalien artian; negu beltz eta mingotz onetan ogirik gabe era txarrean gelditu diran gure anaiak zoritxarra ta istillu gorria ikusten daude. Baña gogoratu Sabin aundiak ziona.

Abertzaletasuna maitetasuna da, ta ala izan ere une ontan garbi ikusten dan bezela. Anaienganako maitetasunagatik Euzkadiko abertzaliak zabaldu dituzte arpideak, eta baita txindia pranko batu ere.

Gauza ederra benetan Euzkadiko emakumiok azaldu dutena eta egin duten lana.

Nork du langillienaganako maitetasuna eta nork egiten dio laguntza langilliar, sozolistuak ala abertzaleak? Zabaldu begiak.

# Basarritarrak, erne

*El Día, 1932-02-24*

---

Ementxe nator, irakurle, lerro auen bidez dei esnakor bat egiteko asmoz.

Dei au pozez eta alaitasunez entzun bear degu gaurko neka-zariak. Eta ondo entzun, eta zertarako dan ikusi ondoren, berari gogoz eta apaltasunez erantzun bear diogu.



Eguna juan eta eguna etorri, geure burua gero ta estuago ikusten degu, nola kaletarrak ala basarritarrak. Kaletarrenak ez nua ni mintzatzera, baizikan nekazariagatik, edo geuk ikusten degunagatik.

Zer da guri gertatzen zaiguna? Errexa da ulertzen. Pioi bateri argiñak egiten diona, guri, baserritarroi egiten digute; edo ala egin digute orain artian beintzat. Pioiak askotan, agintzen ari zaion ura eztu nagusia izaten. Bera bezelaxe langille bat baita argiña ere; baña nagusiak bezela agintzen dio, eta bestiak zintzo zintzo bete egin bear berak esan bezela. Pioia beti pioi!



Ori gertatzen da gurekin ere. Basarritarrai agintzeko edozein izan oi da; eta gu, txarrrik oldoztu gabe, beti besteren mende. Beti mutil!

Zeñena da errua? Ez dago esan bearrik: Geuria!



Ori baño geiago! Zerga andik eta zerga emendik. Batean au dala, bestian ura, au dek burubidea! Pentsua gora, zekorra bera. Eztena an, eztena emen. Zer egin?



Iñungo ardandegitan biltzen geranian, erdika batzuk ustuta, esaten degu: –Au dek bizi eziña! Neri au kendu zidatek. –Neri berri onenbeste. Au ta ori, lantua ta ixillua degula jarduten gera. –Au egin bear giñukek, batzuek. –Ori egin bear giñukek, bestiak eta orrela,... esanak esan ta biar arte.

Biamunian, atxurra bizkarrian artu ta sorora guazen orduan ezta orrelakorik. Orduan ez gera gogoratzen gauza oietzaz.

Ez degu ulertzen atxurrekin egindako alegin aiek alperrik dirala. Gure neke ta izerdiak ez dutela ezer balio; danak besterentzat dirala. Ez degu ulertzen guztien morroi geu gerala; ta ezurre-tarañoکو guztia txupatuko digutela. Au burubidea!

Bizi eziña dago alde guzitan, eta gerora zer datorren garbi ikusten da.

Eztena geiago luzatzen ez diogu utzi bear iñori. Garaia da geu esnatzeko ere. Basarritarra, zabaldu begiak!



Gu basarritar geranok asko egin gentzake oraindik. Besteren mende beti egon gabetandik, geroni zerbait bagerala erakutsi gentzake, eta geure buruan jabe izan giñezke.

Ta ori nola? Anaitasunez, senditarrak bezela guztiok alkarturikan batasun sendo eta indartsu bat egiñik.

Ortarako bide egokia degu aitazen deguna.

Basarritarrak, bazkidetu gaitezen Gipuzkoako Nekazarien alkartasunian.



Euzkadi ontan zoriontsu eta pakean bizi gaitezen. Gipuzkoako Nekazarien alkartasunera guztiok!

# Abertzaletasuna Zarautzen

Euzkadi, 1932-03-03 / El Día, 1932-03-06

---

Bai, irakurle, bai, abertzaletasunak Zarautzen aurrerako aundia damaki.

Gure irakasle Sabin aundiaren azia ederki ari da ernetzen, eta bere garaian igali mardulak emango ditu. Zorionekua igali oiengan jabetzen dan erria.

Abertzaletasunan bidez dator uzkurtzarenanako maitetasuna; Abertzaletasunan bidez dator alkarrenganako naitasun sendoa; Abertzaletasunan bidez gizarteko pakea; Abertzaletasunan bidez gure erriaren askatasuna eta zorion utsa.

Garbi ikusten da zein bearrekua dan azi ori zabaltzea. Zarauzko gaztediak ere garbi ikusi du, eta beragatik, etengabeko lanean gogor alegintzen da, euzkotar guztiok alegindu bear degun bezela.



Zarauzko Euzko Gaztediak, aberriarenganako gose ori ase eziñik, itzaldi aberkoi eta atsegingarriak antolatzen ditu.

Igaro diran lau edo bost illabete auetan izlari trebea pranko izan degu, amaika egi mardul entzuteko diña izan gera.

Baña igaro dan larunbatekuak ez dira beingoz aztutzeko! Ez gera damutu juan dan larunbatez batzokiratu giñanak.



Tolosako Euzko Gaztediko eletari trebea dan Leundatar Pausa gaztea izan zan itza zuzendu ziguna. Bere aurkezpena Ayerditar Mikelek egin zuan apain eta dotore. Oso txalotua izan zan.



Berialaxe altxa zan bere eserlekutik abertzale bikain eta trebe ura, eta... bai itzegin ere!

Tolosatik anai zarauztarrenaganako zekarren agurra edo be-sarkada gozua agertu zuan lenengo. Ondoren euzko izaera bide onean jartzeko nundik jo bear degun garbi agertu zigun. Gure irakaslearen jarraitzalle izan bear degula zion.



Euzkotar guztiok anaiak geran bezela alkarrenganako maite-tasun arrastua badegula esan zuan; naiz asmo bat izan da naiz bestia.

Egun artan bertan, larunbatez, Tolosan gertatu zanakin, atze-ritar petral baten ausardiz, gizon tankera ura gorputz ikustiak kupitu gabeko gutxi zala zion, Tolosa negarrez zegola aditzera eman zuan.

Beste gertakizun asko azaldurik, alkartasuna zein bearra dan garbi ikusi genduan.



Gu baño Jaungoikozaleago diran oietzaz ere zerbait mintza-tu zan. Oien asmuak nola diraden aditzera eman zigun. Madri-den errege jarrita askatasun osua izango omen degu, gañuntzeko araudi edo estatuto onek ez omen du balio. Elizaren etsaia noski!



Araudiaren gain zerbait esan ondoren, emakumeai zuzendu zizkien itz legun eta samur batzukin amaitu zuan bere itzaldi ederra, txalo ta gorantzan artian.



Euzko ereserkia danok zutiñik abestu genduan. An bildu zan gaztediaren erreguz bertso batzukin neronek eman nion jaiari az-kena.

Itzaldia entzutera etorrita emen agurtu genduan Uzturre to-losar idazle azkarra ere. Geroztik gogoratu giñan zorrak ez giñula bear bezela ordaindu.

Urrengoan konponduko al gera, noski. Zorionak.



Beren diakanpoko egunak aberritik kanpo igaro ta etxeratu dira Arregitar Abeline ta Alberditar Emilen ezkonberriak. Zorionak.

Zoragarria Zarauzko E. A. Batzak antolatzen duana!

Agur arratsaldeko 4:30etan Zarauztar antzezleri trebeak berriro aurkeztuko dira bere antzeztokiro.

Antzeztuko dute "Garbiñe" antzerki zoragarria.

Lerro auen bidez jakiñian uzten zaituztet: Zumaia, Getaria, Orio auzo erriak.

Arratsalde atsegin bat igaro nai duna Zarauzko E.A. Batzaren aretora igandean.

# Igandean Zumaian

El Día, 1932-04-28

---

Anai zumaiar abertzaleak egiten ziguten deiari zintzo ta leial eran-tzun nairik, igaro dan igandez auzo erri orretara bira bat egitea oldoztuak etziran gutxi gure Zarautz onetan

Aspalditik gure izparringi maite onek zekarkin agerkai ede-rrak gure biotzak alaitasunez betetzen zituan.

Gure poza egunetik egunera geitzen zijuan egun ori noiz iri-tsiko.

Azkenik orregatik etorri zan artaño zaitzen genduan igande goiza.

Gure biotzak lenago alai baziran, denboran aldarte ura ikusi-ta naigabetuta utzi giñuan.

Goizeko jaupara inguratu bear, ta euria goian da beian; ura entzun da etxerakuan ere berdin. Zer da au?, egiten nion neure buruari.

Lagunengana ere inguratu nai nuan zer asmo zeukaten jaki-teko.

Amaikak alde ortan inguratu nitzan batzoki aldera nere amo-rru bizian. Gaztedi aundia zegon, ta ni itun da naigabetsu bani-tzan, an barrenen zeudenak ere denboran tankera zeukaten.

–Nik otoi egin diot ba Jaungoikoari gaur denbora ona egin dezan –dio batek.

–Ni ere jardun naiz ba –besteak. Etzan ba komeniko ta, kitto! Orrekin bukatu zan gure izketa.



Gure itxaropenak etziran ordea ziara galdu. Denboraren ika-ra aundi gabeak ere baziran. Mendigoizale bulartsu bikañak gure kaletan barrena ikusteak berriro alaitasunera biurtu giñuzen.

Gure dantzarien trebetasunezko irtera arek poztasun bat ematen zuan.



Denbora txarrakin goizetik egin ziran irterak arratsaldeko itxaropena zekarkin gugana.



Noizbait bultzirako ordua iritsi zan da, ateri! Ura zan poza. Eta Zarauzko geltokiko norantza artuko bazan, Donostitik zetorrenaz gañera, bertatik beste bat jarri bearra izan zuten. Alakorik!



Iritsi gera Zumaiara, iritsi gera abertzalez josita arkitzen zan uri apañera.

Batzokia ere ikusi bear gendula ta abiatu gera. Baña zein sartu an? Etzan errez. Etsipena artu genduanean, batera ta bestera ibilliaz denbora igaro zan da, aurrera!

Pelotariak zirala baña zein sartu an?

Bitarte orretan, bi edo iru erki auetako anai abertzaleak besarkatzea zan gure eginkizuna. Abertzaletasunaren alderdi aundia ori da, maitasuna berekin duala beti.



Eta azkenik iritsi zan itzaldirako ordua. Goiko itz-tokia apaintzen zuten ikurriñak etziran zenbatzen errezak. Ura edertasuna!

Euskeraz sarrera gozo maitekor bat egin ondoren, erderaz ekin zion Kareagatar Eskarne Eibartar emakume sutsuak. Bere trebetasuna txalotua izan zala esan bearrik ez dago.

Ondoren, Altzeta ospetsuak Enbeitatar Keparen olerki batekin ematen dio asiera.



–Monzon bergarar eletari trebea ezta etorri –dio urrengo, eta an zegon notintzak erantzuten dio: coco!

Eta gure aurreko asaben izkuntzan zarrean jarraitzen du bere itzaldian. Nola tartetan ala azkenean, bapo txalotua izan zan. Bapo, Altzeta!

Eta azkenik gure aldun kementsuak ekiten dio lanari.

Onengan ez det uste ezer esan bearrik dagonik, guztiok dakizute nor dan-eta...



Monzon ez azaltzeak naigabetu ninduan, ikusirikan Zumai dan bezelako uri batian bi erderaz mintzatzen zirala ta bat euskeraz. Iragarritakoa etzan azaldu eta guztia ezagutua gelditu zan.

Monzonen gogoa au zala ezta zer esanik. Urrengoari itxoin deiogun.



Eta azkenik nor bere txokora asi giñanean esku luzatzea pranko egin genduan. Ta gure abotsa jakiña zan. Agur, anaiak!

Olaxe bukatu genduan egun paketsu alaia. Beste bat arte.

# Zarauzko Emakume Abertzale Batza

El Día, 1932-05-03

---

Euzkotarrok eup! Egun aundi eta gogoangarri bat urreratzen ari dala derizkiot. Egun aundi eta gogoangarria orrillaren zortzia zarauztar abertzalenzat.

Irakurle begiko orrek, irakurri arren egun orretan egingo diran jaialdiak, eta ondo irakurri ondoren, erantzun zintzo bere deiari.



Zarauzko Emakume Abertzale Batzak bere zabalkundea eta ikurrin onespena ospatzeko eraldu dituan jaiak:

## EGITARAUA

1932ko orrillaren 7an

Arratseko zortziretan, Euzko Etxeako txistularian biribilketa.

Zortzi ta erditan, euzko antzerki jaia Euzko Etxean, eta E.A.B.-ko antzokian. "Jauntxuba" bi ataleko antzerkia, "Etxietan" eta "Nagarez igaro zan atsua" antzeztuko dituzte.

Orrillaren 8an.

Goizeko zazpiretan, Jaupa ixilla ta jaunartzea.

Zortziretan, Goiz eresia, Euzko Etxeako txistulariak.

Amarretan, Jaupa nagusia. Donostiar Aba bururdiñak egingo du txonitza. Eta ondoren ikurrin onespena izango da.

Au amaitzean, E.A.B.-ren etxean Josuren Biotzaren jaureskundea.

Amabietan, Ezpatadantzarien dantzaldia ta erestaldia.

Ordubatean otoruntza.

Lauretan, itzaldi bikain eta aberkoiak. Itz egingo dute: Kareagatar Eskarne andereñoak, Lazkanotar Miren andereñoak aurkeztuta; Al-

tzeta sutsuak, Monzontar Telesfor ta Agirretar Joseba Andoni aldun gazte trebeak.

Ondoren, euzko erromeria illuntze arte.



Beraz irakurle, badakizu egun orretan nora etorri. Esan zeure lagunai ere, eta etorri aberriaren itza entzutera. Mendigoizale! Etorri, etorri Zarauzko abertzaleak besarkatzera! Etorri itsas-ertzean abertzalez ornituta dagan kabi polit au ikertatzera!



Emakumeak botoa ematen, 1933ko estatuttoa (I. Ojanguren)

# Zarauzko Emakume Abertzale Batza

*El Día*, 1932-05-06

---

Gure irakaslean azia ernetzen ederki ari dala argiro ikusten degu.

Urtebete onetan gogor indartu da. Inoiz aztuko etzait, nik barrenen abertzaletasun garra nabarituta, neure izen abizenak adiskide bati emanda, Euzko Etxeako bazkide nitzala agertu nuen eguna.

Berrogeita amar etziran artian gure batzokian. Nik ondo eza-gutzen nuen Alderdi Jeltzalea baño indartsuagoak bazirala Zarautzen. Baña ez nebillen gizonen ondoren, ez nebillen indarra-ren ondoren, barrenean nabaritzen nuan abertzaletasunangana nijuan.

Eta olaxe piskabanaka, zarauztar abertzale zintzoak asi ziran noizik beñikan itzaldi batzuk antolatzen.

Bertako bazkide etziran asko eta asko igotzen ziran goruntz gure izlarien egi mardulak entzutera. Eta beren garbo bizi ta entzutetsuak abertzaletasun printza bat sartzen zuan an biltzen zan gaztediaren barrenean.

Jaunari eskerrak, urtebete barruan ia berreuna iritsi gera.

Gudari talde gogorra gaudela, au irakurtzen duanen batek esango du. Zorionez ontaraño iritsi gera eta ezta gutxi poztekoa.



Baña erronka aundirik ezin joko degu. Emakumeak aurrea artu ez digute ba?

Artzai onak artaldeakin asko lezake, eta gizonetan bezela emakumetan, artzai onak dauzkagu gure Zarautz onetan. Gaurkoz emakumeak bakarrik aitatu nai nituzke.

Eta beren izenak agertzea etzait gaizki iruditzen, gordeta edukitzeko eztira onak-eta. Nork ukatu aberri alde z egiten ari diran

lan onurakorra Etxabetar Miren bati, Barrenatar Arantxa “D.Z.” idazle azkarrari?

Oriek eta beste batzuen laguntzaz abertzaletasuna aurrera ta aurrera dijua gure txoko polit onetan.



Eta orain beren zabalkunde eta ikurriñaren onespena dalata antolatu dituzten jaialdiak ez dira nolanaikoak.

Aurreko idazkian esaten nuen lez, irakurri gogoz eta erantzun zintzo bere deiari.

#### EGITARAUA:

1932garrengo orrillaren 7an:

Arratsaldeko zortziretan, Euzko Etxeako txistulariak biribilketa.

Zortzi ta erditan, euzko antzerki jai. Euzko Etxea ta E. A. Batzako antzezlariak “Jauntxuba” bi ataleko antzerkia, “Etxietan” eta “Negarrez igaro zan atsua” antzeztuko dituzte.

Orrillaren 8an:

Goizeko zazpiretan, jaupa ixilla ta jaunartzea.

Zortziretan, Goiz eresia Euzko Etxeako txistulariak.

Amarretan, Jaupa nagusia, Donostiar Aba bururdiñak egingo du txonitza. Ondoren ikurrin onespena izango da.

Au amaitzean E. A. Batzaren etxean Josuren Biotzaren jaureskunda.

Amabietan, Ezpatadantzarien dantzaldia ta eresaldia.

Ordu batian, oturuntza.

Lauretan, itzaldi bikain ta aberkoia. Itzegingo dute: Kareagatar Eskarne andereñoak, Altzeta sutsuak, Monzontar Telesfor ta Agirretar Joseba Andoni aldun gazte trebeak.

Ondoren, euzko erromeria illuntze arte.

Ara or, irakurle, Zarauzko Emakume Abertzale Batzak eraldu dituan jaiak. Betiko ibilliak merma asko badu berekin, baña al dezutenok

zer galdurik ez daukazutenok, etorri beintzat. Lenengoz Zarautzen egindako batzar ura etzala alperrikakoa, Luzear.

Igande arte!



Euskal festa Zarautzen, 1915 (M. Behaeghe)

## Itzaldiak euskeraz

*El Día*, 1932-05-15

---

Oraindik denbora asko ez tala gertatu zitzaidana edestu nai nizeuteke.

E.A. Batza ta Jel-batzokiaren askundea zalata, sekulako itzaldiak antolatuta zeuden auzo erri batean (aitortzen zertan lotsatu? Zumaian).

Egun ortarako itz asko esana negon neroni, batez ere basarritarren artian.

Etxian ardandegia daukagu, eta kalera jaisten diran basarritarrak bertan sartu-irten bat egin gabeko onik ez dute izaten.

Eta ni ere, adiskidien artean beti onela aritua nitzan: "Motillak! Zumaian ai zer jaiak antolatu dituzten! Zortzi txakur aundigatik bertaratu gabe ezin gelditu beintzat!"

Eta ni bezelaxe basarritarrak ere, eguna zenbat eta urrerago, berak orduan da alaiago, orduan poz geiago Zumairatzeko.

Amrika aldiz goxo asko itzegin didate neri esanaz..."Zenbat pozten gaituan gu, euskera besterik ez dakigunak, ikustean aberzaleak egiten ari diran lan izugarria. Ikusirik gaur kaletarrak ere inoiz baño maiteago dutela euskera. Eta beren itzaldiak euskeraz egiten dituztela. Ikusirik ingi edo papel guztia euskeraz ateratzen dutela", eta beste milla gauza.

Baña ez uste izan baserritar danok alakoak diranik, ez! Beselakoak askoz geiago dira oraindik; baña, zorionez, gauzari taju ematen diotenak ere txamar txamar badaude.

Oriek ola dirala, iritsi zan azkenik Zumairako eguna. Menditik, basarritik, amar amabi lagun jaitsi ziran arratsaldeko bultzia artzeko.

Amar, amabi lagun oriek, nere adiskideak ziran, nerekin zi joaztenak. Gañontzean ere izango zirala ez dago zer esanik.

Iritsi gera Zumaira ta bagabiltza batera ta bestera, baña ez bakarrik. Arraiok ezpadu, bazan jendea!



Eta nere lagun oriek ura poza zerabiltena! Alakorik, noski!  
Ango soñu ta ango abesti! Alde guztitatik zetozen lagunak ikusirik berriz zoraturik uzten giñuzen. Sarri sarritan galdetzen zidaten lagunak.

–Noiz degu itzaldia?

–Itxogin dezagun beintzat piska batian, nortanaire laxter izango data.

Bere garaian igo ziran beren itz-tokira gure eletari trebeak eta ekin zioten lanari.

Lenengo erderazkua igarota, gure Altzeta aundia izketan asi zanean etziran asarre gure lagunak. Alako sermoigilerik, noski! Bai gustora txalotu genduala uraxe!

Ondoren jaiki zan gure aldun trebe Agirre eta unerik gogor eta garbotsuenian ari zala, ala dio batek:

–Goazen erdika bana edatera!

Eta nik erantzuten diot ixilka:

–Baña gizona, Agirre bat izketan ari dala aldegin egingo al degu ordea?

Eta danak batera erantzun zidaten:

–Agirre jardun ala beste edozin jardun berdin berdin zaigu guri, ez degu ezer ulertzen.

Alaxe, beste guztiak aldegin bakarra bakarrik gelditu nitzan.



Eta illuntzean berriro bildu giñanean, itz auek ziran:

–Menditik jaitsi alajaña, Zumairaño abertzalien itzaldira, ta erdera gaillen? Ori al da gizatasuna?

Guztia asarre gabea zan, baña matrallak gorrituta, lotsaz erantzun nien:

–Ez, ezta ori gure bidea!

Zuek jakingo dezute, noski, Monzon jauna zegon euskeraz itzegiteko, baña Altzetak esan duan bezela, ezta etorri.

Alaz guztiz ere ezagutzen det nik erdera geiegi dabilhela, baña onezkero olaxe bearko du gaurkoak, eta urrengoari itxoin deio-gun!



Tamalgarria benetan! Lau edo bost milla biztanle dituan erri batean erdera gallen izatea!

Baña, irakurle maiteak, poztu gaitean. Poztu, bai, bada orain arte erderaz egin dutenak ere euskeraz asi dira-ta.

Igaro dan igandez Zarautzen ikusi genduanaz poztu giñan gu ere. Monzonen itzaldi labur eta egokiak argi ta garbi erakusten zuan erderaz bezin trebe ta bulartsu azaldu litekela euskerakin ere. Noiznai eta nunai!

Eta zer esango nuke Lazkano bategatik? Zoratuta utzi giñuzela bere mintzo gozoak, besterik ez.

Arrebatxo maitea, zure igandeko itzaldiak guztiz indarberritu ninduan, eta atzera begira luzaro egon gabe, Zumaian nituan lagun basarritarrai esan nien: Lenago aitortu nuan bezela berriro aitortzen det erdera geitxo dabilhela oraindik ere, baña euskerganako maitasuna zeñek duan ondo begitu.

Eta gure basarritarrak zoraturik, eskuak luzatu zizkidaten.

Ori da gaur bidea eta jarrai deio-gun zintzo berari. Eta orain, "Euzko" idazle azkarrakin batean diot: Agirre euskeraz asten dan eguna ere eguna izango dala.

Laxter datorren eguna.

# Gipuzkoako nekazaritza

Argia, 1932-05-22

---

Izen auxe damakin bazkun berri bikain bat sortu zaigu orain dala denbora gutxi. Eta gaur, Napar, Arabar ta Bizkaitarrak bezelaxe Gipuzkoarrak ere istilu gorriak ikusten gaude. Nekazari edo basarritarren artean neurriak estutu dira. Pentsu edo jaki guztia egunetik egunera garestitzen gora dioa, okelari begitu nola dagan, txerri ta gañuntzeko. Zerga emendik eta zerga ortik etengabe daukagu. Etxe-nagusiakin edo beste norbaitekin oker bat degula, bear bada ez aundirik; autarki edo botorik ez diogula eman bere aldera, edo beste edozer txatxukeri dala, etxetik kanpora agintzeko ez dute luzaro oldozten, pentsatzen egon bearrik; oñengo\* auteskundetan gure erri inguru ontan gertatu zan bezela.

Eta olaxe milla oker edo nasketa gertatzen dira. Basarritarrak oituak gaude lendikan burua makurtuta jauntxo batzun mendean izaten, naizta gaizkirik aundiña berak egin gutxiena uste degunian.

Zorigaitzean gauzak aldakuntza aundia egin dute; lenago erdi ipurdi zana gaur beia jota dago. Gauzak txartzen dijoaz; garai bateko lasaitasunak aldegin zuten, estuasuna eta lantu mingotza inguratu da gugana.

Gaur arte ondora zerbaiten eske datorrenari zorrotz begiratzten zaio. Bere eskaria ordaintzen degu, baña, zer ematen degun dakigula.

Gero sutondoan biltzen geranian elkarrizketa jakiña. Onen-beste kendu didate neri! Au neri! Ori ari! Basarriko sendietan izketa bakarra dago, negar berdiña guzitan. Bizi eziña!



Baña guk basarritarrok beste edozeñek ainbateko eskubi-dia degu bizi izateko; beti besteren ostikopean egon gabe, ge-

---

\* Oñengo (Oañenguan, Errezilen) = Orain hurrengo

roni zerbait bagerala agertzeko; geure onerako dijoazen gauzak aldezteko, defenditzeko; geure etxeak txukundu edo apaintzeko; auteskundetan ziñegotziak, kontzejalak ateratzeko; errian agintari izateko; geuk bear ditugun bide, argi ta gañuntzeko gauzak iristeko; ikastolak egin azitzeko; itz batean, geure onerako diran gauza guziak iristeko, ta txarrak lurperatzeko bear dan denboran ortzak erakutsiaz.

Ta ori guzia nola? Ez ardi galduak bezela, bata an da bestia emen sakabanatuta ibiliaz, ez!, alkartuta baizik.

Basarritarra, zabaldu begiak. Bildu zaitte anaiengana, bildu gizatasunera. Alkartu! Alkartasunak du indarra! Gipuzkoako Nekazariak bazkunean eman zeure izen-abizenak. Ez biarko utzi. Gaurtik.

## **Aberri-deia. Azpeitira**

*El Día*, 1932-06-08

---

Bai, irakurle, aberriak dei dagigu guztioi; eta dei orri, abertzale geranak eta ez geranak, guztiok zintzo erantzun bear diogu.

Berritzen det itza: Euskaldun guztiok, alegia! Aberria ez baita gizatalde batena, euzkotar danena baizik.

Irakurle begiko orri, Bepizkunde egunean, aberriak Bilbora deitu bazizun, garagarillan 12an, edo datorren igandean, Azpeitira deitzen dizu.

Anai azpeitiarrak iñoren deiari erantzuten iñor zintzorik izan bada lenengo mallan sartu bear ditugu. Eta gu, abertzale ta euzkotar bezela, zintzo jokatzea itxura litzake.

Gogoan izango dezu gañera, irakurle biotzeko orrek, oñengo Azpeitiko zezen enparantzan itza zuzendu zutenen sustrai bat.

Ondo dakizuten lez, an ziran izlariak “España da euzkotarren aberria” esanda guztiz txalotuak izan ziran.

“Euzkadi da euzkotarren aberria!” –entzundakoan guk txalotuko ditugu. Gogoz txalotu ere.

Beraz irakurle, azpeitiar anaiak besoak zabalik daude datorren igandean beren artean artzeko. Ikertatu ditzagun gozoro.

Zintzotasuna Jel aldez.

# Euskal olerkariei

*El Día*, 1932-06-14

---

Ernaniko Olerki guduan zillarrezko Aritz-abarra bere larruzko gordalluan irabazi nairik lenengo mallako sariketara lanen bat bialdu nai dezutenai, ta berdin bigarren mallakoei, erri-tankeraz egindako olerkia bialtzeko epea garagarrillaren 30ean betetzen dala berriro adierazten zaizue.

Ta erri-olerki, abesti edo itz neurtuz egindako alegi ta bertso-berri biltzailleei ere, egun orrexetarako.

Garagarrillaren 30erako  
Euskaltzaleak Idazkaritza  
Gipuzkoar Aldundi Jauregia  
Donostia.

OARRA – Egun oetakoren batean artuko dute, lengo urteko sariketara aurkeztutako olerkiak *Euzko Olerkiak* bigarren idazkitxoa.

Agur guztiori.

# Igandez Azpeitin

*El Día*, 1932-06-14

---

Aurrez iragartzen genduan bezela, zarauztar abertzaleak eginkizun bearreko bat genduan igaro dan igandez Azpeitiratzea. Eta zarauztarrak, Orion, Zumaian, Donostin ta gañontzekotan kontaduri aundia azaldu badira, igandekoa ezin utsegin; eta guztiok gogo biziaz ta asmo berdiñaz, Iñaki aundiaren jaioterrian bildu giñan.

Oitura duten bezela zintzo ta leial jokatu dute emengo abertzale bikañak. Ez giñan deborak bildurtzeko!



Eta goazen aurrera.

Aspalditxoan bere zai giñanda, alako batez argitu zuan goiza.

Argitu esan det baña, alako izenik etzuan merezi. Tamalgarrria benetan! Beste oldozpen asko ez nuan nik ere ta, esnatu nintzanakin batera denborai begira jarri nitzan. Euria goi ta be, atertzeko itxurik ez gañera. Bai naigabetsua!

Iritsi zitzaigun belbillera biltzeko ordua. Bederatzi ta erditan eman genion asiera.

Jakiña, jaupa nagusia entzun nai ba.

Amarretatik laxter an giñan txadon nagusian. Guk bear genduan ainbat toki lortu genduan nolabait ere.

Bertan itza zuzendu zigun jaun agurgarria zerbait oroimen irabazia zan. Itzaldia baizan zan ura!

Entzun giñuzen abots ederrak, benetan zoragarri! Laborda an baizan tartean!

Bukatu zan azkenik elizkizun eder ura, "Iñaki" Sabiñen izkiaz abesturik eliztar guztien artian.



Ondoren Euzko Etxea ikusi bear genduala ta asi giñanean goiko leiotara begiratuta, ura edertasuna! Margo ederreko ikurriñak estaltzen zuten goi alde ura, gure begien pozgarri.

Denbora txarragorik etzegon izaterik eta, iragarrita zeguen pelota jokorik ez genduan ikusi.

Baña bai dantzari ederrak! Gure gazte bulartsuak erakutsi zuten beren trebetasuna ta arintasuna. Bai gogoz txalotu giñuzela!



Ondoren Debako Abesbatzak bere saioa egin zigun. Guztiok adi adi egon giñan berai entzuten eta azkenik ordañez txalo be-roak jo genizkion.

Geroztik jan-edanerako asmoak artu zituan notintzak, eta azoka zeian sekulako taldea bildu zan. Neroni ez nitzan an baña alaitasuna buru izan zala ez dago esan bearrik.

Bitarte artan Azpeitira iritsi ziran bultziak, eguardikoak alegia, sekulako jendetza bildu zuten. Belbillak ere etengabe sartzen ziran.

Ni bazkaitara eldu nitzan garaian Iñakin jaioterria abertzalien biltoki berezia zan. Egundo alakorik!



Maitik jaikita berriro kaleruntz egin genduanean, Euzkadi-ko bazter guztietatik zetorren senide taldea besarkatzea zan gure eginkizuna.

Berriro biurtu giñan debar abeslariak entzutera, eta ondo irabaziak zeudelako txalotzen jarraitu genduan.

Eta geroztik ikusi genduana bai zala atsegingarri! Abertzale-tasuna bero nabaritzen dala argi ikusi genduan igaro dan igan-dez.

Aterrune aundirik ez bazan ere, gure mendigoizale bulartsuak etziran atzendu. Aberrian deia izan nunbait!

Beren ikurrin eta txistulariakin bat eginda, toki izendatu batean bildu ziran danak.

Eta oraintxe enparantza nagusia notiñez estalia dago, emen datoz danak artalde batean Loiola kaletik barrena. Ura zan guda-ri taldea! Alakorik!





Euzko Etxean zeuden ikurriñak artuta txistu doñu alaitan zezen enparantzara urbildu zan oste guztia.

Artetxe sendagille ospetsuak zuzendu zuan lenengo itza; bai aurkezpen egokia! Izparringiak ederki esango dute ondorenguak nola aritu ziran ere; beraz nik ez daukat eze esan bearrik. Goguangarri itzaldiak! Goguangarri eguna!

Zeztuako eresbatzakin batera, Euzko Abendaren Ereserkia ta Itxarkundia abestu giñuzen guztiok zutiñik.



Unamuno ta lagundia, jakintsuak izango dira, baña zoratu ote diran ere oraintxe! Euskerak ardi zaitzeko bestetako ez duala balio? Ura dan bezelako artzaiakin artaldeak ezin luzaro iraun; ta ura dan bezelako arerioak izate ezkerro gure izkuntzagana, ezin iraun euskerak! Baña, ez! Euskaldunak esnatu gera, euskaldunak jaiki gera ta euskera ere jaikitzen dijoa.

Beste iñongo izkuntzen lotsa gabea eman zigun Jaungoikoak guk dabilkigun euskera ederra. Orain arte oinperatzen da azpiratzen jardun diran asko gaur, ta ziur egon, len antxiñan zan bezela oso goien ere denboraz ikusiko dala.

Igaro dan igandez Unamuno txatxua gure artean izan balitz, ai zer tripa miñak! Txatxua esan det, bere izkuntza ta izatea ukatzen dituan gizonak eztu besterik merezita.



Eta orain azkenik zorionak jaialdi orien eratzalleari. Etengabeko lana erabili dezuten Goenaga, Iturri txiki, Igerra eta gogorazten ez naizen askori.

Zorionak bai aberkide oieri ta egun ori moldezko izkiaz idatzita gorde zeuen denborako ezaugarri ta pozgarritzat.

Agur guztiori.

# Etsaien esanak

Argia, 1932-06-26

---

Irakurle biotzeko ori, lerro auek idazten dituana bezela, euskera bakarrik dakizuna bazera, amaika gizatxar areriuen iritzi zitalak entzuteko sortu ziñan ludira.

Beste iñongo izkuntzan zorrik gabea eman bazigun Jaungoikoak, zeñek uste olakorik?

Euskaldun jaiο, euskaldun bizi, euskera ikasi, ta euskerai jarraitu; alaz guztiz ere lotsak artuaz bizi bearra, nun da, Euskalerrian, ez al da lotsagarri?

Orain arte euskera azpiratua ta baztertua egon dala ez gaude ukatzeko. Aspalditxoko urtetan beintzat!

Baña gaur euskaldun geranak poztu bearrian gera, gure izkuntza poztu ta alaitu dan lez.

Gaur, moldokeriak alde bat utzita, euskera garbi ta txukunak gure belarritan toki dualako.

Gaur, euskal idazleak egunetik egunera geituak, iñoiz ez bezelako euskera dabilkitelako.

Gaur, euzko olerkari bikañak beren erreztasun ta jakinduria idazti ederretan agertzen dutelako.

Gaur, irratsaio ta gogoratzen etzaizkidan alderdi askotara, gure antxiñako asabak, iñoiz kutsu txar gabe gorde izan zuten izkuntza gozo berdingabea dabillelako.

Eta oraintxe gure izatea, gure edestia, goruntz indartzen asi dan garaian, guztientzat ez dator ondo nunbait au ere ta... etsaiak mintzatzen asi zaizkigu.

Jakiñan gañean egongo zera irakurle zintzo ori, gure anaiak izan arren, zañetan odol berdiña eraman arren, Unamuno ta la-gundiak atzerri aldean esan dituzten barrabaskeriak.

Beste gauza askoren artean, euskerak ez duala balio ardi zaitzeko ezpada.

Eta lengo egunez *El Día*-ko Euskal Orritik nion bezela diot orain ere: Unamuno dan bezelako artzaiakin artaldeak ez lukela luzaro iraungo. Baña euskerak artzai on asko duala ta ludian azkena arte iraungo duala.

Igaro dan igandez Azpeitin izan balitz, zer esango ote zuan?



Baserri Zarauzko kantariekin, irratian, 1933.01.25ean. (R.M.)

# Esajeraren indarra

*El Día*, 1932-07-06

---

Jaungoikoaren doaiz, Beama deritzaion ballaraxto batian jaioa nazu, irakurle.

Eta gure jaiotetxia, gure basetxia, erreka zulo batian aurkitzen da.

Jai arratsaldea iritsita, ezta emen bezelako alaitasunik izaten.

Nere gurasoak an ziran bitartean, jendea pixka bat jolastu edo gozatu zedin, ardoa salgai eduki oi zuten.

Eta jakiña, jaiegunean beste inñun nola eze ezbaizegon, ballarako jendea bertara bildu oi zan.

Amorraia ere inguru auetan ezta izango an aña. Bai arrapatzalle azkarrak ere! Oitura zuten sarritan, larunbat illunabarrian edo jai eguardi artean mordoska bat arrapatu, eta surtan banatzera bertara erama oi zituzten.

Aiek janez alditxo bat igaro eta beriala musean ekiten zioten.

Gure auzoko mutil gazte bat ere sartua joko ortan eta geieanean an izan oi zan.

Museko kontua badakizu, irakurle, batzuetan galdu ta besietan irabazi. Gure mutillak egundo etzuan galtzerik oldozten (pentsatzen), irabaztea baño.

Eta galtzeko era iristen zitzaionean, erderaz eraso oi zion; eta esaldi berdiña izaten zuan beti: Mekauen la Tetuan! Mekauen la Tetuan!

Jakiña, an beste erderik etzan da, jendeak oso gogozko zituian itz oriek ta entzundako bakoitzean parre ta algara egin oi genduan gogotik.

Arraiuan oitura! Beste itzik etzuan ordea, bere Tetuanekin zebilen beti.



Azkenik, iritsi zitzaien gure mutillari gudaritzarako, soldadutzarako ordua, eta norako izango zozketa edo suertea ta Tetuanako irten zan.

Iru urte bertan igaro eta or etorri zan serio serio lengo txoko zarrera.

Adi adi egon izan gera, baña geroztik apenas aitatzen duan.

# Gipuzkoako nekazariak

El Día, 1932-07-24

---

Ez idazle egoki bat izanda, baña gogoz eta asmo onez eltzen diot gai oni.

Gaurko egunari dagokion bezela, alde guztitik datorren oju edo irrintzia berdiña degu: Alkartasuna! Ori da belarritan sarritan toki duan itza. Banaka nor bere gixa dabillenentzat alderdi gutxi ta koxkorrak baidaude.

Alkartasuna! Nagusiak izan arren beren onerako aukeratu dutena.

Alkartasuna! Milla motetako klasetako langilleak iñora agertze ezkeru, edo ta komeni zaien gauzik iriste ezkeru derrior bear dutena.

Alkartasuna! Ikasle edo estudiantiak dabilkitena.

Alkartasuna! Beren sendi edo pamili paketsuak utzita, kaia ertzetik agur egiñaz, txapelak eskutan artuta potzu zabalean urrun aldentzen diran itsasgizon trebeak ontzat artu dutena ta bear bearrezkoa zaiena.

Itz batean: Alkartasuna, gaurko egunean lanetik edo egiñetik bear duanak bururik ezer jasotze ezkeru derrior artu bear duan bidea.

Gogoan izan gero: Alkartasuna!



Baña langille guztiak alkartuak ote gaude? Ez, irakurle, ez; artaldetik sakabanatzen diran ardiak bezela, bat batera ta bestia bestera gabiltzanak ere bagera. Nekazarien bizitzari begira jarrita, negar zotinka bezela diot neure buruari: Alkartasuna! Alkartasuna! Itz ederra benetan ondo beteko bagendu. Gaur basarrian ikusten diran gauzakin ez ote gera esnatuko? Ate ondotik kendu gabe dauzkagun eskaleak ez ote gaituzte zerbait oldozten, pentsatzen jarriko? Gure lan da izerdiaren txupatzalle diranari ez ote

diogu arpegira esango? Gure ballara paketsutan ikustol edo botaziotan ziñegotzi edo kontzejalik ez ote degu jarriko? Lenez gañera ondamendira joko ote degu?



Nere ustez ezta arritzeko. Lasaitasunez bizi izan giñaneko ametsak aldegin zuten. Gaurko gertakizunari begiratuta, zerbait egin bear gendukela derizkiot. Ardandegitan lantu ta istilluak izateak ezer gutxi balio duala atera kontu. Geuk alkarri laguntzen ezpadiogu, zer ikusirik ez dago emen. Iñor etzaigu errukituko, bakoitzak berak baidute lanik asko!



Lengo batean Nekazarien ingi edo papelak zabaltzen ari nitza-la batek ala galdeko zidan:

–Zer ari aiz, motel?

–Ementxe, papel batzuk zabaldu edo...

–Zer papel dituk ordia?

–Nekazarienak, Joxe, nekazarienak. Beste toki guztitan ari dirata, emen ere nekazariak alkartuko ote geran edo, ola.

–Nekazariak alkartu? Basarritar danok batu? Ago ixillik, motel, ago ixillik. Iñolako moduz alkar ikusi ezin diagu ta zera, danok batuko gaituk, etziok toki txarrian!



Berari esan nion da, alde batera arrazoi zeukan, bestera aundirik ez. Alkar ikusi ezin ori aspaldiko gaitza degu, Pernandon astuak bezelaxe.

Baña, ezin ote giñezke ba bildu? Erredi edo mueble nagusiak ere makiña bat denboran egon dira alkarri arpegirik eman gabe. Batek merkeago ematen duala, au dala ta ori dala, beti izaten zuten zerbait.

Baña, orain langilleak jaiki diran ontan ederki alkartuak dau-dela garbi azaldu dute.



Basarritarra! Nekazaria! Zabaldu begiak, garaia data!  
Arren, alkartu, alkartu danok.  
Gipuzkoako Nekazarien bazkunean eman zuen izenak.  
Lenbailen ibilli!



# Gipuzkoako nekazariak

Argia, 1932-08-07

---

Ainbeste aitamen ematen diogun gai oni sakonkiro eldu bearrian naiz gaur ere. Ikusten ditugunak ikusita, ontara beartzia ez derizkiot gauza aundi bat. Neroni beintzat ez nago ixillik egoteko, eta besten batzuk lanean astea ere ez nuke gaizki artuko.

Eta goazen arira. Aspaldiko une auetan gugana iristen dan oju edo irrintzia degu au: Alkartasuna! Alkartasuna!

Ai zer itz ederra! Ai zer gauza bearrekoa!

Milla motetako (klasetako) langilleak izan arren, alkartasuna da ontzat artu dutena. Gaur argi ta garbi ikusten dan bezela, langille guztiak alkartuak daudelako, ta iñora agertze ezkerero, artara biartzen dituztelako. Alkartasuna! Ola edo fabrika nagusiak bururik jasotze ezkerero derrior aukeratu bear izan dutena, ta gaur gorrotu ta zitalkeriak utzita, anaitasunera biltzen diran alderdia. Ta bearko gañera!

Alkartasuna! Ikasle edo estudianteak dabilkitena. Alkartasuna! Etxeko sendi pamily paketsuengandik aldentuta, kaia ertzetik agur egiñaz, ta Ama Karmenguari otoitza zuzenduaz, itsasoan urrun dijoazen mariñel zarrak beren artian daukatena.

Itz batean, alkartasuna, lanetik edo egiñetik bear duan guztiak, komeni zaizkan alderdiak bereganatzeko, edo ta itxura antzian azaltze ezkerero, nai eta nai ez artu bear duan bidea. Gogoan izan gero: Alkartasuna!

Baña langille guztiak alkartuak ote gaude? Goraxiago ala esaten det, baña, ez!, ezta orrela. Asketsi utsegiña.

Zoritzarrez, alkartzetikan oldozten (pentsatzen) ez dutenak asko dira oraindik. Langille kontua aitutzen dedan ezkerero, esan bear det alkartu gabe daudenak ez dirala zazpi ta zortzi orduan lana egiten dutenak, amalau edo amaseian baizik. Gañera dirala alkartasuna bearren-bearren zaienak.

Begiratu bestela baserritarren, nekazarien izaerari. Eta bate-re zentzurik duanak denboraz esango du berak dirala alkartue-nak egon bear lutekenak.

Gaur kaletar langilleak, era txar batez lanik gabe gelditzen danari ere, alkartasunan bidez danak zerbait emanez lagundu egiten zaio goseak galdu ez dedin. Auteskunde edo botazio egu-na iritsita, langilleak alkartasunan bidez, berak ateratzen dituzte ziñegotzi edo kontzejalak.

Zer ondoren ekarriko dun ez dakigu, baña alkartasunan bi-dez dauzkate gaur olako irabaziak. Alkartasunan bidez kontatu ezin ditezken alderdi asko ta asko.

Eta guk nekazariok, zer egiten degu? Ardi galduen gixa ibilli ta ondo ote gera? Ardandegian negarra ta lantua jotzeak ezta balio. Geuk egiten ezpadegu, besterik etzaigu errukituko.

Noiz aterako ote ditugu aurrerapen oriek, ta noiz esnatuko ote gera? Aurten ere urte txarra dala ta, arriak bazterrak txikitu di-tuala; ara or, bada, len erdipurdi zan nekazaria beia jota. Alkarta-sunezko laguntzik ezpada, nork zuzendu oker ori? Nork eskaliak bakandu? Nork gure kaletan eskolak jaso? Nor erri-gizon atera? Nork lanerako poza eman? Zer egin?

Alkartu, Gipuzkuako Nekazariak deritzaion bazkunean eman zuen izenak.

# Euzko erri-jakintza

*Euzkadi, 1932-09-02*

---

## Bertso zarrak

Emen natorkizu, irakurle, errien jakintza ez ezik gizonena ere agertzera. Ikusi dezagun zenbaterañoکو zuten gure aurreko zarrak. Euskaldunen artean gauzarik gogozkoena bezela bertsoa izan da beti. Gure aurrekoak itsuak ziran, da oraintxe ere base-rritar jendeari galde eginda bertsozale purrukatuak dira; neroni ere ala naiz-eta.

Bein batean erriko jaitarako, Amasara Billabona bertsolariari deitu zioten. Beren saioak eginda eguna igaro ondoren, lotaratu ziran geienak, baña danak ez. Urrengo goizean ardandegian sei bertsolari bildu ziran. Astiasuko Pello Errota ere an zan, lo gutxi eginda. Ura baizan oieratu gabea! Seirak alkarren biran zeudela, Pellok abestu zuan:

Bertsolariak gera  
geure kalidaden;  
esplikatuko ditut  
zer nola diraden.  
Gezurra esatiak  
eztu balio emen,  
gu bost erritaturan  
sei lagun giñaden.  
Ondo konpondu gera  
ezetz ustearren.

Lenengotik iñork etzion jaramonik egin, eta berriro abestu zuan:

Bost erritatiek giñan  
gu sei bertsolari:  
Errekalde zarra ta  
Juan Jose Udarregi.  
Errenteriakoa  
Senpelar jaun ori;  
Bernardo Zizurkilko,  
Gazteluko Gorri.  
Au Astiasukoa  
Pello Errotari.

Ori esaten dute autik-aura abestutako bertsorik onena. Dannon izenak esaten ditu, eta nungoak diran ere bai. Ori da jakinduria!

Gero beste bertsolariak danak bana abestutzea oldoztu zuten, Pello zirikatuz.

Errekaldek aurrena:

Biyok izandu giñan  
egiten Pazkuaz,  
aundiyenak utziko  
ziñuzen bentuaz.  
Inpernuko ondarrarian  
omen dago Judas;  
ez dizut lagunduko  
argana bazuaz.

Udarregik urrena:

Pello onek badauka  
errota lasaya,  
datorren aliari  
alegiña saya.  
Erdia baño geiago  
badabilki zaya.  
Utsa litzake alare  
ezpalu usaya.

Bernardo Zizurkilek:

Tabakua eskatzen  
Pello onen gala,  
pardel izugarria  
eginda beriala.  
Nik ere erre naia  
nola edo ala;  
piska bat ostu diyot  
lotan daguala.

Gazteluko Gorrik:

Pello mantendutzen du  
errotako txangak,  
doblatuan kenduaz  
zakuari lakak.  
Egunik gaiztoena  
pasatzeko daukak:  
inpernura juatian,  
ai zer mutur-jokak!

Xenpelarrek azkena:

Pormal itzegingo det  
gizonaren gixan;  
diferentzi aundirik  
ez gentzake izan  
zu errotari eta  
ni tabernaritzan,  
nork beria bear du,  
Juan Debalde iltzan.

Emen agertzen da zenbaterañoako argitasuna zuten lengo bertsolariak. Euskera mordolloa dagoala? Bai, orduan etzan oraingo konturik. Euzko izaera galtzen baizijoan.

Uarra: Bertsolari orreik egin ebena, oraintsu egin gura ixan dabe  
Españako zazpi idazlarik. Guztijak irakurgai bat idazteko asmuetan  
ziran. Bakotxak atal bat.

Francen bere argitaldu dabez idaztiño batzuk idazlari askoren  
artian idatzita.

Orreik baño lenago geure bertsolarijak asmatu ebezan kontu  
oneik. –L [Lauaxeta]



Joxe Miel artzaina Pagoetan, 1936 (J. Elosegi)

# Urdaneta ballaran

*El Día*, 1932-09-03

---

Iragartzen genduan lez, igaro dan igandean giñuzen baztertxo artako jai aberkoiak.

Ormaiztegin, Astigarragan, Lekunberrin da gañuntzeko tokitan izan diran ikuskizun ta jaialdi ederren onduan, bear bada, txiki emango zuten emengoak, baña uste det, amabost edo ogei etxe dituan ballaratxo baterako zerbait ikusgarria zala. An oraindik ikusi eztan bezelakoa beintzat.



Larunbateko denbora trakets asarreak mendigoizale gaztedia, ta berakin batean goruntz igotzeko asmotan giñan asko ta asko kopetillun utzi giñuzen, eta izketa jakin xamarra genduan alkarren artean:

–Ez ote du biarko atertuko?

Ikusten dan lez, gogo izugarria zegon emengo abertzalien artian goiko aize osasuntsuakin gorputzari toki emateko.

Geure garaian oeratu giñan ba, ta biaramuneko jaikiera bizkorrak leioruntz bultza zigun. Zoragarria!

Eguzki printza gozoa nere gelatxoraño eldu da. Goiak garbi dira gogotik. Au poza!

Badaezpadare goizeko meza entzun bear diat. San Prantziskura lasterka batez. Aldra izugarria mendira abieran. Oiekin joan bear diat ba! Baña... bai zera!

Bederatzi ta erditako bultzirako geltokira erten nadilla agintzen dit mendigoizale lendakariak.

Suziri ta txistu alaitan aldendu dira erritik. “Gero arte” esanda utzi ditut.



Bere orduan inguratu da bultzia. Zarautzen ostetza aundia gelditu da. Nik ez ezagutzen izlaririk eta an nabil eruan gisan batera ta bestera begira.

Euzko ikurra zemakin eredutzat, ta, nere kolkorako nion: Onetxek izan bear likek! Aurkeztu naiz bere aurrean eta galde-tzen diot:

–Asketsi ausardia; zu al zaitugu Irizar?

–Bai, alaxe nazu ba –erantzun dit apalki.

–Goazemazu emendik –esanda, aurretik giari naizela eldu gera Azken Porturaño.

Saldatxo bana artu ta makil sastar biren modua egin da, sar-tu gera geure bidean. Izetako zelai gaña artu genduanean, lagu-nari ala nion:

–Ia begiratu bat or beko ordeka ortara...

Gure erriaren edertasuna ederki nabaritzen da andik begira-tuta.

Irizar aberkide zintzoa arritu zan, eta une atsegin ura igaro ondoren, aurrera egin genduan bear zan tokira iritsi arte.

Bi zumaiar bidean topo. Alkarri itza eman genion eta arrituta aiek ere. Ango meza noski. Amestitar Peli ta Izetatar Maren an zirala esan ezkerero oldoztuko dezute zerbait gauza aundia zala. Oien abotsa! Gañuntzeko abeslariak ere toki gutxitan bezelakoak ziran. Bertako apaiz jaun agurgarriak txonitza berriz guztien atsegingarri. Artu bitzate idazle txiro onen eskerrik sutsuenak; ori guztia erakusten buru ta belarri alegindu dan On Pernando azkarrak, Erretore, txoneuzkindari, abeslari ta elizara eldu ziña-ten kistar zintzo guztiok.

Elizkizuna bukatuta, sekulako pelota jokua izan zan. Lau aberkide zintzok jokatu zuten da bai txaloe pranko entzun ere. Bapo mutillak!

Ori guztia ikusita enparantzan gaudela, jotzen gaitu beste ol-dozmen batek beriala.

Zaldibarko jaiia alegia angoo anaitasuna ere benetakoa izango zala genizkion. *El Día*-n lenengo orrian On Bitorren irudia.



Otoitz dagiot... Aita gurea, zeruetan zaudena.



Geren bazkari pasara eginda, batzuk bolatan da besteak pelotan alegintzen dira.

Olaxe aldi bat igarota, iru margodun ikurrin garbia urrutira ikusi degu. Dantzariak aurretik. Nola leike au guztia Urdanetara? Beren loalditxo egin da, aliz aldera inguratzen ari da basarritar jendea.

Gure dantzari trebeak ekin diote lanari. Euzko ikurriña buzuruz gain. Ura Urdanetan ikusi bear zala amestzat artu bear. Ango txalo otsak!

Ondoren bertso batzuk abestu ditut nik ere ta, oso ondo artu naute. Bertsozaleak izaki basarritarrak.

Urrena ekin dio Irizar donostiar trebeak izketan. Eta bai itze-gin ere! Euzkadin izate guztia edestu zigun, ta irugarren guda edo gerra abertzaleagatik jaiki ez dala esan zuanean, ango txaloak ugariak ziran. Zorionak berriro ere.

Geure ustetan abertzale azia lur sendoan erori da, ta bere garaian igali mardulak emango dituan itxaropena degu.

Ala gerta dedilla. Zorionik biozkorrenak jai orren eratzalleai.

## Askatasun billa

*El Dia*, 1932-09-15 / *Euzkadi*, 1932-09-20 / *Argia*, 1932-10-09

---

Jeltzale Alderdiaren aurrerakuntza sinistu ezin alakoa da.

Egunetik egunera gurenda berriak lortzen dario.

Gipuzkoan urtebetean egin duan aldakuntza gezurtzat bota diteke. Batzoki bat zabaldu gabeko erririk ez litzake zenbatuko esate baterako. Neronek ez det barrundatzen beintzat.

Emakumeak gizonezkoak baño gogotsuago dagoite lanari. Mendigoizale aldrak egunetik egunera ugaltzen dijoaz.

Euskera toki aundia artzen ari da alde guztitan. Izparringi geienak beren *Euskal Orria* badakarkite. Irratsaioak euskera dagoite.

Len erdera utsean mintzaten ziran eletariak, jatorrizko izkuntza ezagutu, ikasi ta itzegiten dute. Gure jolas-oiurak berrialdi dute; euskaldun jendeak gozoko dauzka.

Igandero izaten diran lez batzoki baten zabalkundea dala, itzaldi aberkoiak dirala, Euzkadi zear zabaltzen da susmoa.

Mendigoizale gartsuak, jakiña, mendiruntz jo dute. Goiko basetxetako sendi paketsuari egun argierako agur gozoa, jaramon bearrekoa, euskal oiurakoa, "Jaunak egunon deieia".

Gaztediaren gozamina, alaitasuna nunbait. Irrintzi ta abesti ederrik bai malda zear. Anaitasuna! Abenda eskea! Batasuna!

Danon onerako goiko gallurretan gure gaztediak zabaltzen duan erakusbidea. Ooo, euzko izate zoragarria!

Gure bide txabalak utsunerik ez dute. Ikurrin zuri-gorri-orgegia begien pozgarri ta ostetzaren ezaugarri.

Paketsu dijoaz belbil ederretan. Dear itsusirik ez, gizatasuna edonun.

Gure geltokietan, ori jendearen emana! Bultzi bereziak lepozgain dijoaz. Zer gertakizun ote?



Nun jai aberkoiak, an abertzaleak. Nun abertzaleak, an giza-tasuna, an kristautasuna, an alaitasuna, an pakea, an euskera, an jolas-oiturak, an dantza garbiak, an olerkariak, an elizgizonak, an jaunartze ederrak, an jaupa nagusi bikañak, an emakume zintzoak, an soñu alaiak, an izlari trebeak, an abendaren ezaubidea, an aberri bakarraren aitortza.



Euzkadiren aurrepan onek, Ama egiazkoa bera dala euzko seme geientsunok ao batez aitortzen degun aldi onek oldozmenera nakar.

Ameslari erdi zoro naiz gaur. Baña... gaurko nere ametsak biarko egiak dira.

Euskaltzale bazkunaren lan egite ikaragarriak, etorkizunagan oldoztera naramaki.

Euskera izaki gure oñarri bikaña. Eta ori zabaltzen, sendotu ta indartzen beti dagion da geldiuenerik eztuan bazkun onuragarriari nere txaloak zuzendu gabe ezin utzi.

Bai, irakurle, euskaltzalien lanketa aundiak amets gordiñak dakazki nigana.

Berbizkunde egunean, Aberri-egunean, Bilbaoratu zanak ere etorkizunagan amets egingo du.

Ordura ezkerro, erri askotan izan diran jai aberkoitara iritsi danak ere, naiz nere asmoa ez izan, amets egingo du etorkizunagan. Igaro dan igandez Durangora eldu zanak ere zerbait bai. Kataluñak askatasun izpiak beregan ditu. Euzkadik ere itxaropen oraindik Jeltzale Alderdiaren gurenda izugarriak bat bateko abeslari nauka:

Jagi, jagi, euzkotarrak,  
laxter dator eguna...

# Atseden artu dezagun

*Euzkadi, 1932-10-22*

---

Abertzaletasunan aurrerakada sinistuezin alako au, lan egite ugariaren bidez sortu da. Abertzalien lan egite onek berriz, milla modutako izketak askoren artean jarri ditu.

Jeltzale Alderdiak bere azi onurakorra zabaltzera iritsi dan toki askotan era askotako oste edo jendea arkitu du.

Sarritan gertatu dira abertzaleak, beste inongo alderditako gizonak, beren erriketa edo politika alde ezer egin ez duten baztarretan. Sarritan arkitu dira abertzaleak beren alderdia jaun eta nagusi dan lekutan ere, aberkide zintzoak indarberritzearren. Sarritan arkitu dira abertzaleak baitare, alde guztira arerio edo etsaia besterik ez dutela ere; naiz jo ezker da naiz jo eskubi, beren aurkakoak beintzat guztiak.

Arrazoi orrek azalgarri asko dauzka, ta urrutira gabe.

Ementxe bertan (Zarautzen, alegia) Aberri-eguneko kontutxo bat ez daukat beingoz aztutzeko.

Aitatu dedan egun orretan Bilbaora joateko emen neure auzoko basarritar gazte batzuk artu nituan. Oietako lagun baten amak urte batzuk badauzka, zartzaroa bereganatua.

Beti bezela, Berbizkunde-egunez, Aberri-egunez, jaitsi zan kalera, bere esneak banatu, ta bere lanak egitera.

Bere esneakin etxe jakin batera eldu zanean, Bilbaoko jaiatzaz izketan asi ziran. Senar-emazteak ekin diote andre gaxuari: Ikaragarriak gertatu bear zutela, ez dakit zenbat eriotza izango zirala, au ta ori ta bestea. Semea an zuala esanez ekin zion negarrez emakume gaxoak. Egun ura etzuan motza, noski. Arik eta bere semean irudia ikusi arte etzan bere oneratu. Besarkada gozoa egun artakoa!

Gurekin Bilbaoratu zan seme ura, aberri gozamenez bat egiña ordea. Euzko Abendaren berezitasuna ezagutzen duana, ta "Euzkadi dala euzkotarren aberria", dear irrintzi bat jaurtitzeko

kupira gabea, Aberriak deitzen dion tokira oñak aldatzeko gertu dagona gaur, egun aundi ari esker. Bai irakurle, ta egun artako semearen jokera gaz negar egiten zuan amak, gaur, zartzaroaz gogoratu gabe, zuzenbidea ta gizatasuna erakusle ditu.

Abandoko ziñopak erakutsitako bidetik goazen arte, zuzenbidetik goaz, ta zuzenbidetik dijoanik iñoiz ez dute oinperatuko. Aberri egunez bildur ziranak kontaduri aundia ziran. Geroztik erri batzutan izan diran jaialdi aberkoi batzuekin ere ikara aundiak barrundatu ditut kristau euskaldun batzuen artean. Igarotako Irungo jaiak zirala bide ere txamar batzuk bai. Alperrik dira berriketa nabarmen guztiak. Españako erkalagandik itzegiteko eskubidea artu genduan ezker, zenbat tokitara gabiltzan euzko abertzaliak, aztarranik ateratzerik ez dago. Iñongo alderditan okerrik txikiena izan danik ez degu entzun. Nola bada, geure gesuna nun dagoan ikusiaz, ama izatearen pozkia edestuz, negarmalko saminagandik aldenduaz, arpegi alai dizkikorra nabaritzen zaio une artan, semeak bezelaxe deadar bulartsu au egingo du: Euzkadi da euzkotarren aberri bakarra! Ta deadar au, irakurle, auzoko basetxe altzotako bizilagunen biotz barreneratuko da ta orduan alperrik izango dira kaletar etsai zitelen txar iritziak.

Au artu dezagun xpillu, ta aurrera ere joka orain arte bezela. Zuzentasunez dabillenari, arrazoiz da egi utsez dabillenari, itzez bein da bitan aurea artu arren, edo atzipetu arren, ziur izan irugarrenean ezpada laugarrenean eroriko dala, zergatik gezurrak azken motza du beti ta.

Aurtengo aldi ontan, Jel-azi zoragarria toki zabaletara iritsi da.

Egindako lanaren ondorena zaitu bear degu. Emaitz arrigariak izango ditugulakoan nago. Orain negu beltzaren aldarteak zaituaz lana egin bearrean gera.

Zer egiñik etzaigu bukatuko. Txingor ale indartsuak kale gorrian dantzatzen diran bitartean, aize txistulari zakarra mandio aldian dan bitartean, guk badaukagu nun denbora igaro. Larunbata inularretako itzalditxoak etzaizkigu gaizki etorriko, ez igandetako antzerkitxoak ere; euskera ikasketa, irakurketa atse-

giñak, batzokiko izketaldi gozoak, lagun arteko gorabera guztiak agertu gentzazke.

Baña ortarako gogora gaitean igarotakoaz, Aberriaren edertasunak abestu dituzten olekariak eman dizkiguten une ederragaz. Gure eletari trebeari zuzendu dizkiogun txaloagaz, gure txistulari, albokari, dantzari, gorulari, agintari ta gañontzekoagaz. Milla-ka euskaldunek txapelak eskutan arturik enparantza zabalean abesten gendunagaz:

“Gurutza deuna dogu beti geure goiburu”.

Eta orain azkenik, aurtengo aldiari, agur!

Atsedean artu dezagun!

# Bai, arrigarria!

*El Día*, 1932-12-08

---

Lenengo aldiz badare, egokiera bat jabetuta ikusi det neregan. Naparroako lurraldeak oñez zapaltzekoa. Bai, irakurle, iru eguneko nere bizi lekua Lizarran, Estellan izan da.

Ayerditar Joseba adiskide zintzoak aurkeztuta, Lizarra zarreko abertzale sendo ta lagun gogozkoa dedan Lizasoain nuen gidari.

Bera ta bere lagun batzugaz, bertako kale, enparantza ta gañontzekoeiri ikustaldi bat ematea izan zan lenengo gure egitakoa. Berri poza nunbait!

Gero, jakiña, Lizarrara joan ezker ezin utzi, ta ardora jo genduan. An edan ditugunak ardo onak iruditu zaizkigu emendik joan geranori. Ezpañak igurtziaz "au dek gauza!" genion. Baña, bai zera! Estellan oraindik ezagutu diran kaskarrenetakoak aurtengoak ote diran aditzera eman digute ango gure lagunak. Arri eraso itsusi aiek ondatu zuten guztia, noski. Aurreko urtetan iru txakur aundin litro ardoa. Aurten sei ordaindu bear ta, lengoen aldean txarra.

Egia esan, guk oso ontzat gendukana, an utsan urrengotzat artzen zuten.

Gañontzeko gauza askorekin bezela ardoakin ere lanturik asko badago ta itz auek entzuten dira: Gutxi eta txarra.

Eliz ederrak ikusteko era izan degu. Edesti aundikoa izaki Lizarra! Balio ederrak bai antxe! "Basilica del Puy" deritzaiona iristen diran guztien arrigarri. Garai batez Dominikoak izan zutena ere ikusi egin bear da. Puskatu ta erdibituta arkitzen badare, nabarmen dago etzala nolanaikoa. Bere edestia dakian batek esango balu! Berriro diot, Lizarrako eliz aberastasun da edertasunak benetan arritu gaitu, eta ezta gutxiagotarako.

Eta goazen aurrera, orain dator ona ta.



Deun Ander egunez periak asten dira. Erriko sarreran duten bitxabal guztiak eten gabe errellan. Bateko zaldi, besteko mando, asto, bei, zekor ta txerri, danetik ugari. Belbil txiki ta aundi, jendez estaliak datoz guztiak.

Abereak zeuden enparantza edo plazara jo degu, ta arriturik onela diogu: Au gauzaren emana! Baña, ori ere nulo! Aurtengoak koskorrak, noski. Denborak ere txarrak ta ezer gutxi ote zan zioten. Gureztat gauza aundia zan benetan. Nekazari jendea an zebillen trata bidetan. Aitona bapua alare! Bruxa beltz ederrakin, abarka, txapel, baserri jazkera promalez jantziak, eta orrelaxe geienak. Poztu nitzan gogotik ikusmira aregaz. Nere artean nion: Euzkadin egon nunbait...

Alako arpegiak ikusi ondoren, etsi alako soin, euzko izaera berezi berezia aurreko aldian nuala nabariturik sarri sarritan urreratu nitzan begiz jotzen nituanengana; baita aldamenen jarri ere. Bai irakurle, aldamenen, baña nola? Benetako arretaz ordea. Parre irriz inguratu, ta itun aldi beltzak jota biratu. Alperrik nere arretak, alperrik nere naiak, alperrik nere gogoak. Zer aitzen ote nuan? Zer da nere naia? Sinistu ote leike? Gure izkuntza arrigarrian, birau bat beregan eztuan izkuntzan, nundik eta nola datorren iñork antzik eman gabeko izkuntzan, jakintsu guztien buruaustek alperrik izan diran izkuntzan, itz bat bakar bakarra izandare bear bada poztuko nintzan pixkan bat. Baña, bai zera! Ezta auxe ere! Negar malko samiñak nere begitan toki artu zuten. Ludian berdiñik ez duan euskera maitagarriakin Lizarrako uri edeslari zarrean arkitu ta nork ulerturik ez. Nori itza emanik ez. Nere buruari nion: Baña, nun nago? Euzkadin ote?

Sabin, Sabin, gogoan det eta etzait aztuko egun oietan ikusitakoaz batera ezten bizi batek barrena ikutzen zidala, zerura zuzendu nuen otoitz ixilla; ta barren barrendik zurekin batean zuzendu nituen itzak:

Zer ikusten dabe  
nere begiyok?

Au dana dakust galduta.



Gure begiak zerbait alaigarria nai, euzko begiak izaki. Izkuntza bakarra dakigunok, euskera berdingabeen mintzatzen garenok, samintasunez zure bearrean sarritan oi gera. Alako tarte batean, zerbait poztasun gugan euzko izkion azalgarri. Lizarrako enparantza zabalean goruntz begiak, Euzko Etxea izki apain da bestiengandik ain nabarmenak irakurtzen ditugu. Au poza gurea! Bikaña benetan Lizarrako abertzalien aretoa; beren gogai edo asmoa bikaiñagoa.



Gaurko eztabaidak nundik nora dabilzan ezagutzen dituzu. Nere itzari iñongo idazleak ez dio noski lepotik elduko.

Beren aberria aitortzen dute. Abertzale bikañak aitortzen dira Lizarrakoak. Egi egia esate ezkerok (ta aitortzeko ez det lotsarik) an nabaritu dedan abertzaletasuna sinistu ezinda gelditu naiz. Etzait barrena sartu.

Gure txokotik aldendu naizenean aldakuntza ikaragarria ikusi det. Idazle baten itzak dira: Obe litzakela, naiz euskerik jakin ez, euskaldun danak abertzaleak balira. Baña euskaldun danak euskaldun uts bageunde, esan ote gentzake Euzkadi dala gure aberri bakarra? Nere ausardiak ezin kontatu.



Euskaltzale aitortzen geran guztiak lanari eldu bearrean gera, Aberri osoa bere bidean jarri arte.

Nere iritzi txiroak dio: BAI, ARRIGARRIA!

# Laguntza eske!

Argia, 1932-12-18

---

Gaurko gorabera itsusi, eztabaida nabarmen, eginbide zital, ta entzuten diran kontu bildurgarrien susmo edo arrasto gabeko irakurlerik ez det izango, noski.

Gaurko gairik garrantzizkoena langille artekoa da zalantzik gabe. Ain ondatuak gaude!

Ludi edo mundu guztian zabaldua dagon gaitz ori, zoritxarrez iritsi da gure Euskalerra maite onetaraño. Lanik eza! Itz batean: Gosea!

Bizkai ta Araban zer esanik ez ta, Gipuzkoan ere kontuak dira.

Alde guzitako lantokietatik, larunbatero, berri naigabetsu ta illunak ditugu. Batetik ogei, bestetik berrogeita amar, bestetik eun langille kanporatu dituztela. Ola edo fabrika batzuk (ondo izateko geiegik) beren ate zabalak itxi dituzte noiz arteko ez dakigula.

Ínoiz ainbat alaitasun da usai gozo ezta nabaritzen euzko sukalde bazter paketsutan. Lan gabeko guraso errukarriak beren gose egarria nundik aseko kale gorrian biraka dabilzan bitartean, beren seme alabatxoak, jazkera gauza danik gabe, negu beltzeko ekaitzaldi batek betiko ondamedira botako dituan eran, len gizen da mardul ziran matrail igartuetan beruntz dagon negar zotiñaren malko garratzez estalirik dei dagiote gaxoak: Ama, ogia...

Eta samintasunez erdi urtua dagon ama orrek ezin erantzun, bere poza, bere alaigarri diran kutunen eskariari. Ta laztantxo bana emanaz, karraxi biziz baztartzen da umeak lez, ama biotz biguña. Noraño iritsi gera?



Gaurko agintariak, bai noski, errukitsuak langiliengana. Sozialista izenez ezagutzen diran orien bidea, bai atsegiña, bai gus-tagarria.

Langillean zorionan billa omen dabilta. Lantsari edo jornalak azi, orduak neurritatu, bearrean danari lagundu, ta ez dakit zer geiago. Langillea ondo ikusi nai dute.

Eliztarrari irabaziak urritu dizkiote (berak zioten bezela) ainbeste ta ainbeste lapur, ogia kendu ta baztertu dituzte, olako diru pillak aurreratu dituzte, ta ain enbarazu aundia egiten zuten Gortzai, Josulagun da gañontzekoak uxatu dituzte. Langillea ondo jartzea beren gogai edo idea osoa. Ta orain lagillea egundo baño premiago dan denboran, gudarako edo gerrarako zergati edo presupuestoak igo, ta zerga kontribuzioak altxatzen ari dira. Bitartean, Pildain jaun agurgarria, langillea aldeztan, defenditzen. Utikan, maltzur alenak!



Gipuzkoako kostea erritxo polit ontatik dijoan deadarrari ez entzungor egin. Zarautz izen politagaz ezagutzen dan erritik aurkezten gera euskaldun danengana laguntza eske. Ola edo fabrika garrantzizko baten itxiera dala bide, irurogeita amar bat langille kale gorrian gelditu dira. Bertan ari ziran 32 euzko langille, kaleko ibilleragaz ezer ez dagola ezaguturik, beren kontu lanari ekin diote.

Erredi edo mueblea edozein tokitan bezin ondo ta merke egiteko erreztasuna daukate. Biotzeko euskaldun irakurle ori, ezearen bearrean gertatuko baziña, gaurtik badakizu nora jo. Gogora zaitez orrela anaiari lagundu ta, mundu ontarako gauza aundi ta onuragarria egin badezu, besterako ez dala batere txikiagoa. Euzko besoak dira lan zai daudenak. Ase ditzagun, da une bearean otoi zerutarrari.

Berriro diot: Zarautz izen politagaz ezagutzen dan erritik, laguntza eske!

## Zarauztarrak, entzun

El Día, 1932-12-21

---

Urteak ditun egunik ederren da ospetsuenak gañean ditugu. Gabonak!

Entzute utsarekin, euzko biotzak alaitasunera dakazki. Egun oriek izan ere, bai aintzagarri Euzkadin!

Zeru lurren Jaun da Jabea sortu zanekoa batez ere, bai begirapenezkoa degula euskaldunok!

Bizi bearrez sakabanatuta, bat an da bestea emen arkitzen diralarik, zuzentasun ta kristandareari begiratuta, batasun anai-kor berdin gabeaz euzko sendi paketsuan ospatzen diran egunak.

Urrutiratuta dauzkaten semeak noiz baño noiz atariraturako, guraso biotz bigunak pozaren zoriz ate zai diran eguna. Adiskidetasun guztiak parre irriz argiro erakusteko eguna. Lanetik bear degun beartsuok, une bateko aberastasunik aundienez ornitzen gaitun eguna. Euzko sukaldetxuak bestetatik berezi egiten dituan eguna. Zorion da poztasun guziak beregan dituan eguna. Yosu jaio zanekoa. Bai aintzagarri Euzkadin!



Zoritxarrez, goian diodan guztia, bide onezkoa ez dan aldakuntza batek menderatua dauka. Aurreko urte orietan, edo orain artekotan, bere zai illabetez aurretik gose batez egoten giñan eguna, itzal aundiz ezagutzen degun abenduaren ogeita laugarrena, olako oldozmen gabe iritsi zaigu aurten; ez nunbait lengo poz ta alaitasunan jabe izan. Zorabio batez esnaturik, ona gaur euskaldun askoren galdera: Baña... Gabonak ote?

Gure aberri maite au itunaldi gogorrez da aurtengo Gabonetan. Oraingo lan eskasi onek ortaraxe beartu du. Euzkadiko uri askotan, asmo on ta onurakorrak artu dira. Lanik gabe ta mixeri bizian arkitzen diran Euzko Langilleari laguntzekoa. Guk zarauztarrok, laguntza ori ez daukagu auzo erritara eskeintzen nekatu

bearrik. Errian dauzkagu bearrean diranak. Eta guztiak anai generalako, izkuntza, abenda ta uzkurtza edo erlijio sendoz ezagutzen generalako, ta kristau zintzoak lez eliz-agindupean jarraitu nai degulako, gizatasunez joka bear degu.

Geure zakuak bete ondoren, soñu ta dantza puru aundiak artuta (askok badare) itsusi etorriko litzake gaurko egunean. Batare bururik duanak onenbeste oldoztu bear du. Irakurle, soñu dantza ta abestiz gozatzen zeran bitartean, zure anai diranak, odol berdiña damakitenak, igarotako urtetan alai zoriontsu ziranak, aurtan gose maltzur batek azpiratuta, karraxi biziz sukalde bazterrean, sua piztugatikan zer maneturik ez dutela daude.

Ta onenbeste ikusita, etzera errukituko? Biotz gogor izango zera? Gerta liteke. Baña ez arrotu. Lanetik edo egiñetik bear dezuna bazera, aurrez atera kontuak. Gaur zuk bestegatik egiten dezuna gerta liteke luzaro baño len zedorri premiz izateare.

Zuk beintzat, anai zarauztar orrek, ez orrelakorik. Une auek eztira ortarako. Lagun dezagun al degunok al degun añean. Aste onen barruan eskeñi bear degu laguntza ori. Izenez ezpadare, aitatu nai nituzke gaur arteraño artu diranak:

Jaun onbidetsu batek, 100 laurleko.

Besteak, 25.

Beste batek, kajatxo bat piper pote.

Zarauztarrak! Eguna gañean da ta pizkor ibili. Lagundu al dezuten neurrian. Gutxi izandare gogoan izango da emaitza.

Joan Zarauzko Euzko Langillien bazkunera, "Antoni"nera ta eman derizkiotzutena. Langille euskalduna! Gaur oraindik irabazian ondo zauden orrek, entzun berriro:

Gaur bestengatik egiten dezuna gerta leike luzaro baño len zedorri premiz izatea.

# Aurrera goaz!

*El Día, 1933-01-08 / Euzkadi, 1933-01-13*

---

Urte zarra bukatu degunakin batera, berria asi bearrean gertatu gera. Orain artekoak ala gertatuko ziran, da gure bai.

Zar ori zoriontsu amaitzeko era izan dezuten irakurle maiteori oraingo berri au zorion bereziz asi dezazutela idazle txiro onek biotz biotzez opa dizutena da. Guztiak guretzat daudela argiro ezagutzen degun ezkerro, une onetan zerbait samindurik arkitzen zeran anai euskaldun orri ere aitaturtako gozamenera lenbaitlen eldu zaitezela asmo sendoz eskeintzen dizudan oparia da. Ontarako izan bitez lenengo nere itzak: Urte berri on guztiontzat!



Berriaren aitamenak ez dira makalak. Urte berria gora eta urte berria bera.

Nik orregatik lengo zarragaz ere zerbait esan nai nuke. Ez baita nolana aztutzekoa! Euzko abenda zarraren maitale purrukatu ta indar emale sendoa agertu zaigu-ta.

1932garren urtea, bai aintzagarrria gure izkuntza zar kutunaren piztuerarako!

Gure erriaren mami jatorrizkoa berriro agertzera ote dijoan dirudi.

Gure jolas-oitura berdingabeak egundo ez bezelako zaletasunez ikusten baidira, ta gure ele euskera maitagarria, iñoiz baño arreta aundiagoz entzun, itzegin ta zabaltzen baita. Gurea dan alderdi gaztiaren jaikiera kementsu onek, gure biotzetan poztasun berezi bat jabetzen dala ikusirik (ta oraindik salto aundien bear dala jakin arren), euzko abenda zarraren gurenda egunetan gera-la esateraño beartzen gaitu. Ene, ainbesterañoxe! Abertzaletasuna euzko biotzak irabazten dijoan bitartean, euskera, aberriaren ezaugarririk bikañena ta pitxirik aberatsena, sail aundiak artzen ari da. Zergatikan, benetako abertzale aitortzen danak euskera-

ren maitale itxura izan bear du, jolas-ekandu, au da, abenda zarraren aldeze ta laguntzalle sendoa. Baña guztiak onela ote? Ez, axalekoak ere asko noski. Gai au ordea, utzi dezagun urrengo baterako, bestela luze lijoake-ta.

Naiz otz antza ta naiz bero utsa arkitu, bai ote euskaldunikan Jaungoikoak guretzat berezi egin zuan izkuntza, birau bat beregan ez duan izkuntza, bai, ta orrezaz gañera orrenbeste urtean lurperatuta, amildegiratuta, atzerritar etsai amorratuen aginpide zital petralez beste izkerarik etzekiten euskaldun gizarajoari itz bat esatea galerazita egondu dan euskera zoragarriaren berpizkunde au txartzat artuko duanik? Gure goi-basetxetako neska mutiko gaztetxu mardulak, guraso biotz biguñen jatorrizko ele kutunean itz bi egin dutela eta ikastola eder bateko jaun da jabe izendatzen dan atzerritar petralak irakasle txepelak zigortzen dituala; beste utsegite gabe ginga añako malko zakarrez bustita ikusirik, ume oien negar ulua nabariturik, bai ote da euskaldunik euskeraren piztuera au atsegin etzaionik, ta bere aurka jai-kiko danik?

Gañontzean ere gai onetzaz ikusi diran itsuskeri ta zatarke-riak negarra ateratzerañokoak diralarik, bai ote ordea, bai ote, gure abendaren aurrerapen ta egunetik egunera bikañago ta sendoago agertzen dan ele gozo ta xamurraren etsai aitortuko danik?

Badira, noski, ta izango dira aurrera ere. Duten asmo edo idea dutela, euskaldunak izan ta beren jatorria dabilkiten euskera zarrean egon, bear bada, iñora aurkezteko añean ez jakin beste izkuntzarik, ta alaz guztiz ere euskera nundik lurperatu ta galdua balego obe litzakiela esanez dabiltzan buru arroi nola erantzun? Zer esan beragaz?

Aundinaiko arroputz batzuk besterik ez dirala. Utikan ama ukatzen duten seme zabarrak!



Au ez izaki ordea nere bidea. Urte zarragaz zerbait esan bear dedala diot goraxeago. Asi nadin bada, Jainkoaren izenean.

Igaro zaigun ortan lan onurakor asko egin da.

Euskaltzaindian lan aundiak ispillu garbitzat ditugu. Idazki txukun asko jaso ditugu euskera garbi ederrean. Elearen lagun-tzalle ta indar emale goienekoak olerkariak, noski. Auek ere gogor ugarituaz dijoazkigu.

Aberri-eguna zan. Bilbaoko kaletan zear giñalarik, bi ande-reño aurkeztu zitzaizkigun aurreko aldera, *Aberri Oyuak!*, dear zegioten. Errial biña ordaindurik artu giñuzen bada. Ezin utz beintzat alakorik! Idazti txiki apañaren azal orria begiratu genduanean, gure aldun trebe Agirretar Joseba Andoniren itzaurrea aurrez aurre genduan. Zubimendi bezelako olerkaria gutxiagoren bear ez da ta, gure aldunaren iritziak goi mallara daramakite. Olerki sakon aberkoiz jantzitako idaztiaren edertasuna neurgaitza da.

Argi ta garbi erakutsi digu Zubimendi yaunak olerkaritzan goi mallakoa dala. Aberriaren aberastasun ta ezaubide bikañak argiro azaltzen dizkigu-ta.

Lauaxetaren *Bide Barrijak* ta Lizardiren *Biotz-Begietan* idazti ederragaz zer esan? Ludiko beste olerkariengana zorrez ez dirala. Bai zera!

Euskera menderatzen dute, au da, errex dabilkite, ta edozer gauzetarako gai dala argiro erakusten dute. Euzkotarren begirapenik maitatiena beregan dago. Gora gure olerkariak!

Euskaltzalien lana ere bai bearrekoa ta bai txalogarria! Ernain, Elizondon, Donostian ta gañontzeko lekutan antolatutako jai aiek bertaratu giñaden euskaldunak ez dauzkagu beingoz aztutzeko. Ez arraiotan!

Ernaniko jai artan saridun jotzen zana ere, olerkaria olerkari bezela.

Nola idazle ala olerkari, guztien ugarimena ikusten degu, ta au da geien pozten gaituana.

Gure izparringiak ere beren euzko atala or dakarkite. Gipuzkoan agertzen diran geientsunak beintzat: *El Día*, *El Pueblo Vasco*, *La Constancia*, *La Cruz*, *El Fuerista*, euskal usaiz nabarmentzen



dira. Bizkaian ere *La Gaceta del Norte* ta *Euzkadi*-k toki berezia gordetzen dute euskerarentzat.

Asteroko euskaldunak ere ugaltzen dijoaz. Gipuzkoan gure *Argia* maiteak egundo baño gogotsuago dagio lanari.

Bizkaian bi asteroko berri badituagu: *Euzko* ta *Ekin* deritzaiote.

Jaungoikoa ta aberriaren alde lan dagiote, baño euskera garbian.

Aldizkingiz ere aberats gera. Amabostean ta illean beingoak kementsu agertzen dira, nola Bizkai ala Gipuzkoatik. Napparoa eta Araba itxaropenez aizatuak daude.

Erri txiki ta aundietan ere gaztedia euskaltzale dator. Egiazko aberria ezagutzen ari baida ostea.

Emen Gipuzkoan euskaldun danen txaloak irabazi dituzten gizonak daukagu. Gizon prestuak, alare! Urrez ere ez dira ordaintzen da.

Astero astero Donostin euskal-irratsaioa antolatzen dutenak dira auek. Errez esaten da astero astero, baño ezta gero lan makala.

Zubimendi ta Luzear jauna euskaldun orok eskertu bear ditugunak.

1932garren urtea ona zer izan dan abenda zarraren altzoan. Eskaldun anai-arrebak, poztu: Aurrera goaz!

# Yakintza Ibiltadiak

El Día, 1933-01-15

---

Igaro dan urte ortako aurrerapenak aitatzen nituan oraindik egun gutxi dala. Nik nekian ainbestean gauzak agertu nituan. Nere iritziak eman ere bai, ta oraindik orain aldendu zaigun urte ori, abenda zar illezkorraren altzuan onurakor izan dala gutxi edo geiago zerbait adierazi ere. Beraz, ez dago zer esanik, al nuena egin nuanda.

Baña igaro dan asteartez, izparringi onen aurreko orrian agertu zan Jauregitar Koldobika idazle sakonak, ziatz ta osoro adierazten ta erakusten zigun 1932garren urtea gure ele kutun euskera maitagarri ta berdingabeantzat urte bikaña, urte sendoa, urte onurakorra izan dala. Urte txalogarria gure iritzian ere.



Orain asi degun ontan ere ezta itxura txarrik. Garrantzizkoen diran gauzentzat bildurgarriak noski urte auk. Bizimoduko bi-deari begira jarrita, bildurgarri ez ezik negargarri ere badira gaurko uneak.

Orangoz, ordea, gai ori baztertzea deritzat egokien. Bear baño geiagotan mintzatu bearra izaten degu-ta.

Goazen aurrera. 1933garrena goieneko eran asi degula ta arro antzean nazute, irakurle biotzekoak. Amets zoroaz bat egin-da nabil. Euzko izaera zarra bere bidera dakarkiten argi dizdilariak ontara beartu naute.

Gauden illaren zortzigarren eguna gurenda egun bikaintzat aukeratzeko era izan dute jaun agurgarri batzuk. Onenbestekin esan nai nituzkenak euzko ikasleak dira.

Illaren zortzigarren eguna, jakaña, igaro dan igandea zan. Euzko ikasle gazteak berentzat aukeratutakoa. Len ere sarritan gertatu geran bezela, goiz goizetik Azpeitiruntz begira giñan. Gure zaindari Deun Inakiren kabi txoko politera begira, irakurle.

Bideak bide, bear zan garaian iritsi giñan bertaraño. Kistar zintzoak lez, elizara jo bear lenengo. Meza nagusi ederra entzun genduanakin batera irten gera elizatik, baña ez luzarorako. Bereala ikusi genduan parroko aretoan etzala giro. Olatu batez barrura egiten zuan notintza ikaragarriak. Gu ere an bear genduanak giñan ta sartu gera barrena. Areto guztia jostorraz baten toki gabe bete bete eginda zegoanean, neretzat zan lenengo eginkizuna. Jakiña, bertso batzuk abestekoa. Beti bezela kaskarrian pijo egin nuan nere saioa. Ondoren jaiki da euzko ikaslean lendakari dan Lojendio gaztea. Onen trebetasuna izketan! Zearo erdalduntzat gaur askok joko dezuten arren, ori ez dala egizkoa adieraztera gatoz. Ez dago ametsik. Donosti erdalduna? Bai zera! Bere itz-jario gozoak ezetzean sendo utzi gaitu. Euskera garbi txukunean alako beste esakera askorekin, azkenik aurkezpen dotore bat egiñik, txalo artean bukatu zuan bere mintzaldia.

Vidaur jaunak du itza orain. Beste izkuntza askotara oitua dagolako, euskeraz erreztasun koskorra ote duan dio lenengo itzetan. Baña ori orrela ote? Bai zera! Etzan an olakorik!

Euskera errikoi ederrean zuzendu zan Azpeitiko erriangana. Berak itzegiten zuenarekin batera ukitzen zuan gaia, antzetzokian zineko irudiz azaltzen zuan. Begi biak irtezeko eran begitzen genduan, ta eztulik txikiena egiteko bildurrez giñan. Artaraño arretarik! Erne ziran belarriak an, bai arraioa!

Argi ta garbi ikusi genduan edari asko nolako etsaiak ditugun. Zer gaitz datozkigun ta zenbat eratara jarri liteken gizona. Zenbat litro saltzen diran Gipuzkoan. Edari kontutan zenbagarren mallan dagon gure erki edo probintzia. Zenbat diru ematen dan urte barruan edarritako. Ero-etxera bidean zenbat jartzen diran ori dala bide. Aurreko aldean genduan irudiak erakusten zigun zenbateraño ondatzen duan gizonaren izakera. Aiek plantak, Jainkoaren izenean!

Gai onetzaz len ere asko irakurriak gera ta Vidaur jaunaren azken itzetan aspertu ezin alean txalo ta txalo jotzen genduan. Ta amorru berriz geure buruari genion: Guda mozkorkeriarri!

Itzaldi auek Azpeitin ez ezik beste toki geiagotan ere bearrekoak dira.

Erririk geienetan iritsiko diran itxaropena degu. Anbat litzake.

Ardi zaitzeko ez bada ez duala balio euskerak esan zuen petrala etzebillen toki txarrian. Mokordo alena!



Arratsaldeko lau ta erditan antzerki-jaiak genduan. Berrito bete zan aretoa. Koruko Andre Mariaren ikastetxeko mutikoak “Txao” antzerki ederra antzeztu ziguten. Aiek antzeztu zuten bezela, zan baño ere ederrago egin zuten.

Tartean bertso ta txistu soñuakin jendea zorutzen egon zan.

Zorionak Lojendio, Muñoa, Arrue ta izenez gogoratzen ez naizen azpeitiar apaiz jaun onbideratsuari. Zorionik berezienak Vidaur yaun ospetsuari. Zorionak, donostiar andereño, umetxo ta gañontzekoari.

## Artu eredutzat

*El Día, 1933-01-24 / Euzkadi, 1933-01-28*

---

Gu idaztera jartzen geranean, geienezan gai berdiña izaten degu. Au da: abertzaletasunari buruz eskeñitako gaia. Eta gai onetzaz len lan asko egin dala-ta, gai onetzaz asko idatzi dala-ta, geure burua gauza berri zale azalduta beste zerbaiten billa joango ote gera? Au baztertuta, beste norabaiti elduko ote diogu?

Ai, ortarako molduan bagende!

Orduan gure gogaiak bestelakoak lirake. Gure asmoak goi mallara iritsiak; orduan, ainbeste aldiz aitatzen degun askatasun eguzkiaren printzak dizdizlaritan gozaten euzkotar guztiak. Baña, ez, ez gera orrenbestera iritsi. Gure itzak ametsgai dira oraindik. Ezagutzen degu ori guztia, baña laxter, al dan laxterren egiztatzera saiatu bear degu; ludi guztiaren aurrera gure lan egiñaren emaitzak agertzera. Ortarako une politak dira oraingo auek; nere ustez saiatzeko ez gera aldi txarrean.

Ekin bada euzkotar zintzo bezela itxogiten degun egun ori lenbaitlen izan dedin, zergatik, euzkotarren zintzotasunak denboraz ekarri bear dute. Irakurle biotzekoa, zугan det itza. Idazki onen bidez zerbait aurreragi sartuko banitz, edo ta zure gogozko ez dan zerbait arkituko bazendu, arren bada arren eskatzen dizut asketsi zaidazula. Milla motetako gizonakin gertatuta ere, ez naiz ñori min eman zale. Erriketa edo politikakin gertatzen dana. Bere asmokoa ez danari gorrotu bizia dio zenbaitek. Egia esateko, nik ez bada.

Nere asmo edo idea ez duala, ta nik zer daukat berarekin zer asarretu?

Nik bezela oldozten ez duan orrengana, bear bada, sarri joango naiz ni. Neronek nabaritzen dedana esan ere bai. Itzik gozoen eta maitakorrenaz geure alderdira oinkadarik aldatu al balezake saiatu gabez ez diot utziko gañera.

Baña asarretu? Ikusi baño ez ikusi naiagoz gelditu? Azkenen-  
goa derizkiot ori. Inongo politikazale ez naiz inoiz izandu. Irakas-  
learen itzak berri au dakarkite: Euzkotarra, Abertzaletasuna ez  
da politika, abertzaletasuna maitasuna da.

Esakera ori det gogoan. Ta bere jarraitzalle zintzo izan naiez,  
nere txirotasunean aberriaren onerako dan guztia egiteko prest  
nago. Jakiña, al nezaken añean, neure ondamendirako dala au-  
rrez ezagutzen ez badet beintzat.

Ondamendi itz onetzaz zalantzarik asko sortu liteke. “Besteak  
berotu ta segurutik nai likik orrek” norbaitek esan lezake. Baña  
ezta orrela. Agian, asko dira premi gabe era askotara gertatuak.  
Ekaitzaldira jo gabe, alegia. Oldoztu bada, irakurle, zergatik dio-  
dan.



Beste danak txartzat boteaz bere alderdia jaun da jabetzat  
artzea ere ezta lan egiteko bidezkoa. Guztientzat begirapena.  
Onaindia eta Aitzol jaun agurgarriak ortan ez dute gutxiña ira-  
bazi. Ori da kistar zintzoen eginkizuna ta euzkotarrena ere ez  
dago zer esanik. Onez dabillena onez ordaintzen da, ta alegiñean  
ortara jo bear degu.

Abertzaletasuna gogai aundienetakoa dala ezin ukatu. Euz-  
ko abertzaletasuna gurenda egunera urreratuaz dijoala ain gutxi  
berriz. Gure asmo sendo onen alde izan bitez ba gure lanak. As-  
katasun asmoaren aldekoak, alegia.



“Ni abertzalea naiz” era askotara esan lezake batek. “Ni re-  
publikanoa” ta “ni karlista naiz” askok esaten duten bezela. Bat,  
bere lagunak ala ditualako izan liteke. Beste bat, Altzetari bein  
entzun diolako. Beste bat, asko eta asko ortara dijoazela ta bera  
ere abertzale egiten dala esanez. Jaungoikoak daki zenbat olako.



Orain dala denbora gutxi gure Bizkaiko jaurlari sonatua dan Amilibiak iru emakume espetxeratu ditu. Eta oietako bat, alaba zintzo ta ondo azia bezela, amangana urreratu zan bera agurtzeko asmoz. Ta alabatxoak nora zijoan adierazi zionean, negar zotinka ama gaixoak erantzun zion: "Guztia Euzkadigatik, ene alabatxoa. ¡Gora Euzkadi Askatuta!".

Orra or euzko biotza. Orra or euzko abertzaletasuna.

Ori entzundako alabatxoa, amazapi urte besterik ez dituan ingerutxoa, an dijoa kartzela bidean.

Guraso biotz biguñak negarrezko iturri bizian diralarik, iru emakume sendo, iru abertzale bikain, Larrinaga espetxeko burni lodi artetik beren buruak agertuaz dei dagiote Sukarrietan lotan dagoan ziñopari: Sabin, Sabin, ona gu emen zure jarraitzalleak. Baña, au guztia zer da zuk egin zenduana ikusita? Gau illuneko ordu beltzetan erantzun jakaña dute; ta otoitz ixillakin batera dagiote: Utsa, ezer ez.

Irakurle, ona abertzale bakoitzaren bidea. Ona emen benetako maitasuna. Ona emen biotz zabalak. Ona emen gogaiaren indarra. Ona emen eredutzat artu bear ditugunak.



Dear irrintzia jaurti gentzake noranai. Bildur gabe esan ere bai: Onelako biotzak dituan aberria, erakusbide auek ematen ari dan aberria, askatasunagan zaletasun au nabaritzen duan aberria lotuta ez dala luzaro izango.

Euzkadin sakontasuna jabetzen ari da. Pixkabanaka ezagutzen baidira gauzak. Abertzale gerala esaten degun denok artu ditzagun eredutzat gure emakumeak. Legorburu, Trabudua, Agirre, irukote bikañari gure txaloak. Irukote bikañari gure omena eskeñiaz, zorion agurra. Berdin gañontzean espetxeratuta dau den abertzaleari ere. Benetako abertzaletasuna azpiratuko duan Amilibiarik ezta sortu oraindik.

## Aizarnako jai aberkoia

*El Día, 1933-02-22 / Euzkadi, 1933-02-23*

---

Iragarrita edo aditzera emanda zegoan bezela, igaro dan igande ori, aizarnar abertzaleak berentzat aukeratutako eguna zan.

Aizarnako Euzko Etxean zabalkunde eguna. Ta bera al zan aundien, ospetsuen ta onuragarrien izan zedin, uri paketsu artako abertzaleak buru belarri saiatu zirala zer esanik ez.

Gu ere itza emanak giñan da, amarretako bultzia edo trenean sartu ta aldendu giñan erritik. Zestuako geltoki edo estazioan jaitsi ta Aizarnara jo bear zuzen.

Beristain zarauztar aberkide zintzoa lagun nuela, bagoaz goi aldera. Aize zakarra pixkabat apaldu zanean, elurra malo malo. Amaiketerdik inguru ortan sartu gera Aizarnan.

Egun osoaren aztarrenak ondo artu nai, ta bertako gazte baztuekin jarri gera izketan. Goiz parteko berriak jakin nai giñuzen. Eta gazteak ziotenez, egunaren zabaleran asi ziran suziri danbarrak. Zazpitako elizkizunean ere Aizarnar asko omen zan. Mai donean belaunikatu ziranak ere ez gutxi.

Meza nagusiatzaz urrengo izketa. Arrigarria noski!

Aita Azkue Frantziskotarran itzaldia, bai gogozkoa izan zala! Denboraren aldarte gaiztoak bildurto gabe, baserritar entzule asko izan zuan. Eta guztiak, itz gozoak zituzten jaun agurgarriantzat.

Ondoren Zeztuako dantzariak beren saioa. Lan ortarako duten egokitasun ta bikaintasuna argiro erakutsi zuten. Guztiz txalotuak izan ziran.

Aize zakarra arrotu zan berriro. Alaz guztiz gure baserritarrak bertsoak entzun nai.

“Zepai” errezildar gaztea lagun nuala, abestu edo kantatu giñun dozenerdi bana; ta bazkaritarako bapo jendea!



Jan-edan eginda maitik jaiki giñanean, elurra berriro bere bolaran. Euzko Etxean sartu gera korrika batez. Arratsaldeko laurak dira ta bazter guztiak jendez estaliak.

Erraztitar Prantxesku, lasaotar gaztea izlari. Eun urtez ununzako euskaldunen arteko aldakuntza egoki azaldu zuan.

Azkenik, izlarien aurkezpen polit bat egin da txalo artean bukatu zituan bere itzak.

Artetxetar Joseba idazle azkar ta izlari trebea urrengo: Orain arteko oitura erderaz mintzatzekoa izan det eta... arratsaldeontan nigan ezeren akatsik aurkituko bazendute, barkatu!

Baña, bai ote zan orrelakorik? Ez det uste. Edozein bestelakok ainbateko erreztasuna bere mintzo garbian agertzen zuan da.

Langilletasuna gai artuta oso itzaldi gogozkoa egin zuan.

Eta areto aundi ura betetzen zuan jendetzak txalotu ere gogor txalotu zuan gure Artetxe argia.

Sistiaga andereñoak itza. Gure askatasuna lapurtu ziguten ezkerero yoputasun edo morrontza negargarri onetaz itzezin zuan. Euskaldunak, ordea, ez ote gera esnatuko? Gaurko era au ikusten, da, geure etxeagaz ez ote gera jabetuko?

Ekandu, jolas ta batez ere euskera txit goaraño jaso zituan.

Eta aizarnar ta an bildu giñan gañontzeko abertzaleak txalo sutsuz erantzun genion.

Ugartetxea jauna azkenik. Onetzaz ez det zer esan aundirik. Iristen dan lekutan gizatasun sendoz agertzen da-ta. Langilletasuna, abertzaletasuna ta baserritarren alkartasunaren alde aritu zan. Bere euskera gozo ta ederrakin an bildu giñan guztioi biotza ikutzerañokoa izan zan bere itzaldia. Bukaeran, txalo burrunda izugarria izan zan.

Bertoak berriro. Saio koskor bat egin, da txapelak eskutan giñularik, Euzko Abendaren Ereserkia abestu genduan guztiok batera.

Zeztuar dantzariak beste ekiñaldi bat egin zuten da, txistu soñu alaiaz dantza ta dantza zegion gaztediak.

Oitura zarraren babesean, amaikua jo zuanakin batera bukatu zan guztia.



Aizarnar abertzaleak beren biltokia badute. Ez nolanaikoa gañera!

Berrogei bazkide edo sozio badira bertan. Igaro dan igandeko azi ereite ori onurakor izan bedi. Zabaldu bedi Aizarna eta ingurutan. Sutu bitez Jeltzaletasun sendoz bertako euzko biotzak. Itxartu bedi ikurritz garbi “Jaungoikua eta Lagi Zarra”n babesean. Itxartu ba, gaztedia. Itxartu zartzaroa. Itxartu iru margo-dun ikurrinpera.

Euzkadi aberri bakartzat ezagaturik, bere zoriona lenbaitlen lortu dezagun.

Aintza ta aintza aberri eder!  
Gora ta gora Euzkadi!  
Euzkotar orok arreta biziz  
begiratuaz berari,  
jolas, ekandu eta izkuntzaz  
gorde dezagun txit garbi,  
oso osorik eskeñitzeko  
zeru lurren jabeari.

## Basatiak lanean

Argia, 1933-02-26

---

Bai, irakurle, basati maltzurak lan da lan dagiote. Jokera ego-kirik badabilkite aspaldian. Eguneroko izparringi edo periodikua artzen degunak, kontu txukunik jakiten degu. Republikano, sozialista, radikal, anarkista ta milla izenez ezagutzen diran jendetza nabarmen auek dira gaurko eguneko basatiak. Iristen diran tokitan erakusbide ederrik ematen dute. España guztia matxina-da edo errebuluzio bizian daukate. Betean elizak sutu, bestean gizonak il; etengabeko lana badute oker bidetik. Sevilla alde ortan ere ezta giro. Tiroan ere ez dira makal jokutzen. "Casas viejas" ta gañontzeko bazter askotan arritzeko ainbat eriotz izan da. Ezta pake usairik auek diran tokian.



Biraka biraka emen ditugu Euzkadin ere. Bildurak atzeratzen ditu orregatik. Gure aberri maite ontako sinismen indar sendoak mutur-ezurra atzerazi die sarritan. Baña geiago ezin iraun nunbait.

Bilbao, Bizkaiako erri nagusian dute beren ekiñaldia. Bertako Udal edo Aiuntamentuan berak dira jaun da jabe. Jaungoiko sinismen sendoz ornituta, beti ta beti iraun duan Euskalerriri eztenkada minkor ta naigabetasuna ematea erabaki dute. Ta nola egin lezateke?

Begira: igaro dan astean, oitura duten bezela, bildu ziran Udaletxean Bilbaoko ziñegotzi edo kontzejalak. Goraxeago oker bat daukat. Oitura duten bezela diot, baña ezta orrela. Aspaldiko denboretan kontsejura agertzeko oiturik izan ez dutenak ere an ziran egun artan. Ez bat eta bi, bost edo sei baizik. Aiek batzarreran azaldu? Ezta ametsetan ere!

Baña lengo egunean bai, lengo egunean derrior azaldu bear zuten; Jaungoikoaren ordezkarien aurka edo kontrako gauza bat

danean, ezin gelditu etxean. Elizaren ondamendirako ezer egin balezateke, lenengo puntan bear dute gure basatiak. Azkenik, Euskalerrriari arantza minkor ori sartzerakoan ere an bear zuten gure sozialistak. Norbaitek galdetuko du: Zer arantza da ordea?

Bilbaoko erriaren edergarritzat dagoan Jesusen Biotzaren irudi ederra kentzeko ta ezkutatzeko esanez artu duten erabakia, guri arantzik minkor da saminkorrena iruditu zaiguna. Kristau zintzo ta euskaldun bezela, kopeta beltzez agertu nai degu etsai maltzurren aurrean.

Une berean, Bilbaoko Udaletxean erabaki zital orren aurka, ain gogotsu ta ain egoki mintzatu diran katoliko sutsuari eskerri berezienak. Bilbaoko Udaletxean iru botoz irabazi dute auzi negargarri ori. Bilbaoko errian ordea sei millaz galduko dute. Euzkadi osoaren laguntza izango dute gañera. Ikusiko da zertarutzen diran.



Irudi ori ikusteko era zorionez egun batez izan nuen. Ederra, eder bezela, bikaña bikañik bada. Orrenbeste urtean, begi guzien arrigarri izandu dan Jesusen Biotza birrindu bear dutela. Negargarria! Zu irakurle, egun auetako batean Bilbaora joan bearrean gertatuko baziña, artzazu “Plaza de Bélgica” deritzaion zuzenbidea. Eta bertara irixtean, goruntz begiak: An arkituko dezu zeru lurren salbatzallea. Bateon batek gogoz artuko balu ere, ta ikusi nai izan ezkeru, orain ibilli.

Geure barrutiko artzaiakin batera gertu guztiok. Gora Jesusen Biotza!

Ona gaurko basatien bidea: langilletasuna mingañean, ta auek kale gorrian dauden bitartean, goseak ia azpiratu dituen garaian, Jesusen Biotzan aurka basatiak.

# Joan zaigu!

*Euzkadi, 1933-03-16*

---

Utsune tamalgarria benetan. Euskaltzale ta aberkide guztien artean negar zotin gordiñak ixuriaz ditun utsunea. Olerkari ta idazle zana, ta aberriaren onerako ziran lan guztiak, kementsu, sendo, ta mardul betetzen zekian baten utsunea. Lizarditar Jabier-en utsunea. Udaberria ain urrean izaki ta, eguzkiaren printza gozoak bere onera datozela ikusirik, pozaren zorabioz abeslari bear zuan olerkaria ixil ta mutu arkitu degu. Beretzat ain pozgarri ziranak, ta igazko irtera egunetan, agur!, esanda alaikor utzi zituan enara gaxoak, urtegaiaren zoramen gozoz, biran lengo txokora baztertzen ikusteak, pozaren atsegiñez oldozmen sakonez jantzita, abeslari bizkor arkitu bear genduan olerkaria, iñoiz geiago txintik aterako ez duan eran ixildurik nabaritzen degu.

Bere mintzo garbi ta berdingabeari ainbeste goralmen eman zion olerkari trebe asperreziña. Sasoiz, indartsu ta sendo zan garaian euskera zarrari lore au eskeñitakoa, ta kopet argiz atzerapen gabe, irudimen biziz sarri ezpañetan abesti biurtutako bere itzak:

Ez adi beldur ner'Maiteder;  
baserriz landa nai aunat ager  
arazi, bazterrik bazter  
arroki; ezpaitun ezer  
lurbiran ederrik i bezin eder.

Au guztia ta askoz geiago, ele maitearen altzoan apainduri ta aberastasun, bere joskera bearrekoan alde gau ta eguneko lanez orniturik azalera agertutako olerkari onena ixildu zaigu, ixildu, bai, baña ez aldi laburrerako, betikotasun osorako baizik.

Euzkadi zoriotsuaren izakera paketsua, mamikiro, argitasun bereziz zekian jaun on ta jakinduriz betea; lenago gorrotu

bidez izketa txar asko jarri gabea bazan ere, geiago iñoiz jartzeko arrixku gabe arkituko degu. Ixil, mutu.

Begi dizdizlariak gañontzeko gizonak baño geiago ikusten zuten olerkari begiak, ikusketa itsusi nabarmenari gorrotu bizi zien begiak, etorkizunaren susmo bizia nabaritzen zuten begi aiek ere, itxi dira ta lo dagite geiago ez esnatzeko. Betikotasun loa, zorion loa. Itxi dira, bai, olerkari begiak. Itxi dira betiko.

Ain entzule gartsu ziran belarri bizkorrak, aize txar danen jokerak zaitzen zekiten belarriak, okerreko loikeri, izkera txar ta bide oneko etziran mintzaldi traketsak sarrerik arkitu gabeko belarriak, Kristoren bide ta aberriaren gorantzak nork edestuko egunean baño egunean zaletsuago zeuden belarriak gortu dira, bai, gortu dira, geiago ez entzuteko.

Bide zuzena somatzen zuten lekura joateko ain gogotsu ziran oñak ere, aspertu dira, ta gelditu dira.

Oberik ezin alako biotza ere gelditu da. Ixil ta geldi da betiko. Gorputz, ilda!



Eriotz garratz au dala bide, illun dira euzko baso ta mendiak. Malkoz bustitako begiak beltz ikusten dituzte inguruak. Beltz itsasoa, beltz uri, zelai, ordekak. Beltz guztia. Gau-ezkil illuna entzuten gaude. Euzkadiko urretxindorrek ez dute kantik; negar egunak dira.

Ama euskera gaxoak urtu bear du negarrez; semerik onena galdu zaio.

Aberriaren samiña ere aundia da. Bigarren Aranak iges egin dio.

Euskaltzale ta abertzale guztiok negarrez gera. Laguntza osoa damaiogu, lau semetxokin gelditu dan alargunari, Goitar Alguztidunak eraman du. Ototz samurrak urratu bitza negar uluak. Ostin une zabalean jai da, jai aundia.

Lizardi azkarrak amonatxoagatik zion:

Agur!, oiuka zion,  
gorputz ximur maite!  
Agur, amonatxoa,  
egun aundirarte!

Olerki bera artzagun berari egindako azken agurtzat. G.B.



Lizardi

# Zein aundia zan!

**Euzkadi, 1933-04-06**

---

Oraindik egun gutxi zeru-lurren jaun da jabeak bere altzora, betikotasun itzal atsegiñera dei egin dion olerkari gurena. Zein aundia zan! Bere eriotza bide Euzkadiko izparringien orrialdeak doluz estaliak agertu dira; euskal-izparkari ta idazle goieneko guztiak negarrez ta illuntasun beltzean idazten dituzten lerroak, ain goruntz jaso duten gizona, zein aundia zan!

Euzkadiko olerkari guztiak txapela erazten zioten olerkari irakasle berezi berdingaitza zan Lizardi, zein aundia zan! Aberriaren edertasun, mintzoaren aberastasunak ain apainki ta egoki azaltzen zekiana, ta Jaungoikozko asmo gogai zoragarriak beregan zituan olerkaria, zein aundia zan!

Ene, Lizardi, ene zarauztar seme argi berdingabea, goitar zorion betikotasunekoak poztuta goruntz egatu zeran olerkari sendo txukuna. Zein aundia zu, milla bider esandare!

Etzaitugu aztuko iñoizko denboretan. Euzkotarren irudi gozkoak izango zera. Gure negarra sarri berrituko da. Ez ditugu malko danak ixuri, ez! Zutaz gogoratuta, iturri uts gera berriro. Baña, ooo, zure gozoak ostin une zabaleko zorion atsegingarriaz irtengo zaizun goxoak irripar biurtuko ditu gure malkoak.



Bere asmoak, bere adimena, bere argitasuna noraño iristen zan gizonak ezin aztertu. Ni bezelako txiroa iritziak ematen asi baño ixillik egon obe.

Zuk irakurle, ikus ondo, irakurri gogoz bere lanak, ta zeurebaitan oldoztu ongi noraño iristen zan Euzkadik izan duan olerkari aipatua.

Bere idazki ta olerki guztiak argira azalduko diralata nago. *Biotz-begietan* deritzaion bere idazki ederretik, Lizardi aundiak *Urte-giroak* izenez egindako olerkitatik, Udaberriari eskeñitako



lana emen argitaratzea oldoztu det. Udaberri asiera egun auetan egoki etorriko dalako.

Ikus ba ondo Lizardiren jatorria. Irentsi gozoki bere lana. Ez azkar ibilli, kalteko da-ta. Izkiz izki, orpoz orpo.

## **SAGAR-LORE**

### **Loreil-bete**

Anitz egunez ez gera alaitu  
lurtarrok. Goien sar egin baitu  
Eurik eguzki giltzapean;  
jaun orail eder, legorteen aita,  
katez loturik egona baita  
odei bustien sabelean.

Gaur, orra agiri, tarteka, urdiña...  
Sor zait barruan larrera-miña;  
ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi.  
Bete ditzadan argiz begiok;  
eten zain-giar lotuegiok;  
bularra asetuz noan geldi.

Badut zalantza zein giro izaki;  
otzaren aala danentz ebaki;  
ikus ezpaitut Udaberri...  
Baiña, bat-batez, gain-beera, maldan,  
moltso zuri bat... Elur ez al-dan,  
loreak ote... aal igerri?

Ari beltz oker naasi sareak  
eundaka atzitu ditu... loreak?  
elur-malutak?, mitxeletak?...  
Itxon: txori bat, zear-egaka  
dabil, kabigai-lorez, esaka:  
-Gaur dira gure maite-bestak!

Sagasti berri, sagasti zuri,  
inguma-atsegintokia iduri,  
elurte arian geldia!  
Ezin urtuzko txingor ugari,  
azpi gizenean duk nabari  
zelai-bitxizko loredia...

Zertan udalen dan igertzeko  
begi bear diot bide-ertzeko  
pago pertxenta gazteari,  
ta ikus orbelez dan erantzia  
ta apaingarri berriez yantzia,  
baso zabalén aitzindari?

Zertan bear dut yakin Itzala,  
pagadiaren ume yaukala,  
neska-kozkortzen ari al-dan?...  
Kilker olerkari arloteak  
neurritz ozenak ditun boteak  
lurrezko yauregi-atean?...

Bego tximirriten egaketa;  
beude marrubi-loreak, eta  
irusta-sailla ere bego:  
dantzari-talde Baco'tiarrak,  
naaspil zoroan zuti-baldarrak,  
esku goituan ontzia ardo...

Ene begiok, ez so besteri:  
bide-ertz onetan nadin eseri,  
iri begira, sagastia...  
Sagasti gazte, sagasti zuri,  
inguma-atsegintokia iduri,  
elurte arian geldia!

Txuriaz naasi, pipil gurien,  
ler-gabe-lore zabal-zorien  
gorrixka, nabari duk sarri,  
odol-tantoak antzo... Begira:  
erditze baten aztarnak dira:  
Bizi-erditze zoragarri!

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki.  
Negu agurea illa da, baiki,  
lurra soil baitago elurrez:  
oro dezaken esku naroak  
erein baititu zuaitz-soroak  
ogi berriaren apurrez...

Bekik iretzat oiu alai au,  
sagasti, iretzat; bereizki bai au  
yaiez yantzi zorna berriak!  
Bizitza duk agiri garretan...  
Bizitza, ler-berri, adarretan...  
Igandik sort-ogea Udaberriak!

Ona emen euzko olerkaria. Beste izkuntzatako olerkariak sa-  
kontasunean askoz geiago ote? Ederrez olerki auek iñoren zor  
ote?

Lizardik bakarrik zezakean onenbeste gaurdaño; aurrera ez  
dakigu zeñek. Gure gorantza ta jasokun auek, geiena egindare,  
gutxigi dira Lizardi zana neurtzeko, ta bere lana eskertzeko. Bego  
goian bigarren Arana.

# Aberri-deia

**Euzkadi, 1933-04-13**

---

Ene irakurle maitea, aberria deika degu. Euzkotar seme guztien-gana zuzenki dijoan deia oraingoa. Euzkotasun gar biziz jantzirik arkitzen dan abertzale biotzak utsik ezin eman lezaioken deia. Azterketa on baten ondoren, apal ta zintzoki erantzun bearreko dei berezia.

Gaurko une estu ta larritan, iñoiz baño gogotsuago joka bear degu geure bidean. Artaldea artzai zuzenangana bezela, abertzaleak berdin, aberri eskaria dan tokira.



Guztiak dakigun lez, eta gogoan degun lez, igazko urtean, Abandoko batasuna aundia izan zedin aberriak dei anaikorra zegoen aberkide guztien artean. Aberri-dei bizkorra uraxe, benetan!

Eta euzkotarren erantzupen apalak, inguru ta urruneko eskiñak arritu zituan. Ludi guztiko izparringitan euzkotarren pozkia aunditu ta azi zedin orrialde atsegiñak agertu ziran. 60 milla notin bazirala bata, 80 milla, ta eun milla, besteak. Ziurrik ez jakin iñork.

Ludi guztia geien arritu zana, ta gure etsaiak geien arritu zirana, abertzalien sendotasuna, astikai ura izan zan.

Urrutiko izparringiak, euzkotarren eskaria zer dan ere argiro azaldu zuten. Euzko edestia aitatzen zuten. Euzkadi len zer zan ta gaur nola dagon argi adierazten zuten. Gure ikurritz, edo, au da, abertzale bidea agertu ondoren, gure irakasle Sabiñen jakinduri berdingabeagaz itzik gozoen ta estitsuenak zituzten.

Gu berriz, egun gogoangarri artan, zorioneko Aberri-egun artan, Arana Goiri anaien asmo gurendatsua landatu zaneko urtebetze egun artan, lenez gaiñera abertzaletasunean sendotuak itzuli giñan; lau euzko erkitatik zetorren anai maitasunak bul-

tzata, ainbeste ta ainbeste zirala ikusi arren, guztiak Jaungoiko batengan zutela begirapen, Jaungoiko batengan zirala bildur, ta aberri batengan itxaropen, ongi nabaritu genduan.

Jaungoiko ori, zero lurren jaun da jabea. Aberri ori, Euzkadi. Orra Sabiñek irarritako bidea. Orra igazko Aberri-egunean danen ezpañetan ziran itz gozoak. Orra gurenda ta zorion bide bakarra.

Ta orra, Berbizkunde eguna, igazko Aberri-eguna, euzkotarrok ain zintzo erantzun genduna, ta an Abandon, an Sabiñen jaiotetxean bildu giñanori iñoiz aztuko etzaiguna, azken arnasak arte gogoan izango deguna.

Aberri-dei pozgarria, erantzupen gizatasunezkoa, erantzupen leiala.



Ene irakurle, aurten ere bada zerbait. Eta, ooo, aberria oiuka, aberria deadarka.

Entzungor egingo ote? Igaz bezela erantzungo ez ote?

Ez bedi olakorik. Bai zera! Utikan kezka zitala!

Gogorrago, sendoago aurten. Bai arraioa!

Gipuzku Buru Batzarran lanak arrigarriak dira. Gipuzkoar abertzalien egon eziña aundiago ta arrigarriago.

Gure erriak abertzale bear du, gure erriak zuzen joka bear du. Bai orixe!

Abertzalertasunak iragartzen duana da oraingoa, Aberriak beretzat artutako eguna.

Jaien berri ematen ez daukat emen nekatu bearrik, guztiak dakite-ta.

Baña bai dei bizia egin nai nukiela. Ori bai!

Espanatar agintari maltzurak gure erkitara bialtzen dituzten jaurleri mokordoakin buruzgain gabiltza.

Euzkotasun arrastoa duan gutzia azpiratu nai luteke. Geure abendakoak okerreña. Oraingo Artola au ere badegu xelebrea.

Datorren igandeko eragozpenak Euzkadi osoak badakizki. Bera dala ta, aik eta indartsuago agertu bear degu. Jateko denboran itzaldiak? Lautan estropak?

Oker da itsusiago ezin. Baña zer, Jeltzale biotzak origatik atzenduko ote? Ez mila bider!

Len baño asmo biziago ta gogo geiago artu bear degu. Jai aue-tara euzkotar danok joan bear luteke. Baña ez dira joango. Pixka-teko tripamiñez gelditu bear dute batzuk. Ama ukatzen duan se-meak ala merezi du. Gaurtik aurrera olakoak zigorkada aundiak izango dituzte. Abertzalien artean beintzat, arren, ez dedilla utsik izan. Zar da gazte, txiki ta aundi, gizon da emakume, aberats ta txiro, guztiak, guzti guztiak, Berbizkunde egunez Donostiara. Mendiz, itsasoz, bultziz, berebillez, ta milla modutara nai bada, baña danok Donostiara.

Beti bezela erakutsi dezagun gure egarria: askatasun egarria. Erakutsi baitare gure gizatasuna. Erakutsi España ta ludi guz-tian aurrean Jaungoikoak aske egindakoa gizonak lotuta eduki-tzerik ez degula nai.

Erakutsi Balbaoko pakea. Erakutsi euzko gogaia.



Euzkadin askatasun bezpera egun auetan, goruntz biotzak!  
Aurtengo Aberri-deia, gurenda deia izan bedi.

Araba, Bizkai, Napar, Lapurdi, Zuberoa, Gipuzkoa, sei senide zarrak besarkatu gaitean. Iganderarte ba.

# Donostiko billera

*El Día*, 1933-04-24

---

Oldozmen sakonak artu digute burua. BERPIZKUNDE eguna izaki nunbait, Jesus, zeru lurren jaun da jabearen piztuera eguna. Egun bi aurrez, gu pekatariogatik bi lapurren erdian gurutziltzatu izan zanaren BERPIZKUNDEA, gure egille gizon egin zanaren zerura igotzea.

Ez giñan lo zale. Goiz kanpai alai burrundatsuak esnatu zale ere ez. Ametsgille zoroak gu; besterik ez. Egun aundi baten zai genden... (izen au eman ezpazaio ere) ondo esateko bigarren Aberri-egunan zai... Beraz, ez giñan lo zale, ametsgile esnati baizik.

Egun bi aurrez gazte sallak ikusten ziran gure kaletan barrenena.

Ostiral Santu egunetik asi ta Pazko jaia arte ostalariz ondo egon gera zarauztarrok.

Bizkaitar mendigoizaleak etzuten etenik. Ura gaztien emana! Urtetsu ziran agureak ere bai tartean. Alakorik!

Batzuk Bilbaotarrak zirala, besteak Galdakanotarrak, ez dakit nik zenbat parajetakoak. Arritu egin bear. Ostiral Deun eguna, ta iñularreko ordutan jendez estalia gure Batzokia

Guztiak Donostirako asmoz. Ordurako aurrera igaroak ere kontaduri dexentea.

Abertzale gogoia sutzeko ongi etorriak. Lenez gañera, pozak artu zituan neurriak. Biamun goiza, au da, BERPIZKUNDE bezpera zoragarria berriz.

Bultzi edo trenak ere nabarmen ziran. Kamioko pasada ez dago zer esanik. Ikurrin margodunak erruz. Abertzale egarria ase gaitza une batean. Ura ibilli poza! Donostia ta Donostia danen aotan, beste konturik ez.

Illuna gañean. Zarauztar gazte asko gabari elduta zuzenki dijoaz Donostiruntz.

Ta gu oldozmenean. Igezko Pagoeta sua irudipen. Euzkadiko mendi gañak su ziran unea. Ez giñan lo zale, ametsgille esnati baizik.



Torre aundiko kanpai zarrak, soñu jole gogozko goiz artan. Aberri-miñez kixkal bearreko kristau zintzoak elizara goiztar, egunari ala zegokion da.

Irten gera bein ta, akabolo!

Beste danak bazijoaztela, ta bai gu ere. Ta zer ikusi gendun? Sei senide zarrak an besarkatu gera. Bai irakurle, Lapurdi, Zuberoa, Bizkaia, Alaba, Nabarra ta Gipuzkoa senide zarrok alkar-ganatuta.

Danok asmo bat. Danok eskari berdiña. Amaren altzoan len giñan bezela senide egizko, senide maitati ta senide alkartuak izan gaitezela. Itsumen sendoz, ta gaizkillien itz loituak bide, etsai gaiztoen jardun gezurrezkoa bide, ta sarritan baita beren enbusteria bide, atzipetuak izan gerala ezagutu. Ama ordekoanganako maitasun itsua izutu, ta gure gurea dan Ama egizkoagan urbildu ta auzpeztu; ta bera salbatzeko gentzakien ainbatean saiatu. Iku-rritz garbi Jaungoikoa ta Lege Zarrak gure giari.

Euzkadi gure aberri. Euskera gure mintzo. Kataluña ta Galizi adiskide. Askatasuna, gure naia. Euzkadi, laterri edo nazio berezi bat izatea gure eskaria. Monzonen itzak: Len Madrida begira zegoen gure trena Ginebrara begira jarri.

An bildu giñan 60 milla abertzaleren naia orixe da.

Igaz Bilbaon bildu giñanona ere berdin. Abertzaletasun ega-rria orra nun dan.

Gure etsaiak mindu dira. Eskubiak ta ezkerrak danak tripa-miñez. Aurrez ere pentsatzen genduan.

Gure odoleko ez diran oiek samintzea ez gera arritzen. Baña, geutarrak, euskaldun izan da itsumeneko gorrotu ortaz egotea, bai!, gogoz arritzen gera.



Gaurtik aurrera gaizki ibilli bearrean dira. Euzko odola damakin gazteak bide bakarra damaki. Au da: Jeltzale bidea.

Izango da ezkerrekoa edo eskubikoa, baña bai abertzalea ere. Euzko seme txatxuak tripamiñez, jakiña. Artola jaunagandik asi, ta integrorik piñenetakuenak danak saminduta, danak etsita.

Estropak galerazi, jaiak nardatu, arrika eman, ikurriñak erre, makillak kendu, danak ontzaren gixa gau anparoz dabiltzala, ta zer abertzaletasunari? Onura besterik ez. Gautxori indartsu oetzaz itzegingo degu.

# Donostiko billera

**Euzkadi, 1933-04-25**

---

Aberri-deia entzuten gendun. Egun zoragarri bat urrean zala narbitu ere bai. Euzko izparringiak irakurtzen giñun. Gipuzkoa Buru Batzarran eskaria egunero maxiagai. Abertzale biotzak, egon eziñez zirala ongi nabarmentzen zan. Euzkadi osoa ibili-zale zala arin antzematen giñun sei euzko erkitatik egunero zetozen berriakin. Izen ori eman ezpazaio ere, bigarren Aberri-eguna abertzaletasunantzat gurenda egun ospagarria izango zala, gure egunerokoen orrialdeak ikusita, egun asko aurrez, gere txirotasunean emandako iritzi bat zan. Gure oldozpenak zuzen irten dira oraingoan. Gure iritziak asmatu egin dute. Guztia ongi irten zaigu, jaunari esker.

Baña batzutan, gauzak oso goieneko izango dirala uste arren, utsegitea gerta litzaioke bati. Berak uste duan baño askoz txalogarriago ta aundiago atera litzazkioke; eskaxago edo kaldarrago berdin berriz. Pentsatzea ta uste izatea, ikusi arte ez dira ain ziurak.

Donostiko jaiatzaz amaika iritzi ta uste bazan abertzale ta gañontzekoen artean. Ikusi artean orratik, olakoa azalduko zanik, nere gixa, gutxik sinistuko zuten. Etsaiak ez beintzat!

Billera txiki ta aulak egiten aztu zitzaigun euzkotar abertza-leeri. Emendik aurrera olakoa pranko ikusi bear degu. Gure mendi goietan ospatzen diran jai aberkoietan ere pare bat milla euskaldun barrundatzen ditugu noiznai. Gure erritxotako bazkun zabalkundetean, zortzi edo amar milla abertzale ikusten dira.

Bai, irakurle, billera txiki ta aulak egitea aztu zaigu. Lenago ziran kontu oriek. Asiera egunetan, lenengo ekiñaldietan.

Baña orain? Jesus, mutillak!, orain ez gera iñoren bildur! Ez milla bider!

Artola ta konpañia mindu ta asarretuko dira, baño alperrik. Abertzaletasuna, aurrera beti!, berea lortu arte; Euzkadi askatu arte. Sukarrietako martiriak ezarritako bidea, iñork gutxiña uste

duanean, arantza, sasi ta sastraka guztiak birrindu ta baztaturik, argi ta garbi ludi guztian aurrean azaldu bear duan bidea. “Jaungoikoa eta Lagi-Zarrak” gure ikurritz garbiak diona luzaro baño len lortu bear duan bidea.



Igazko Aberri-eguna aztu gabe gendularik, Durangoko batzar aundi aretzaz gogoratzen giñalarik, beste aberri-dei bat izan degu aurtengo; ta ori, jakiña, Berbizkunde egunerako; abertzaletasun lenengo txinpartak sortu ziran urtebetze egunerako. Eta dei orrek sortutako zaletasuna izugarria izaki.

Ostiral Deun eguna zan. Egunari zegozkion elizkizunak ikusirik, kaletaratu giñanakin batera, ezagun etziran arpegi asko giñun aurreko aldean. Bizkaitar mendigoizaleak Donostira bidean. Nola leike ordea? Egun au bi aurrez Donostira, alajaña! Arritu giñan gu, ta bai beste geiago ere. Ez baiziran zortzi, amar ta orrela, berrogei edo irurogei baizik. Batzuk Bilbao, ta besteak Galdakanotarrak zirala zioten. Zarautz txoko ontan zuten gau artako etzanlekua. Aiek aberri biotza! Aiek gogai sendoa! Oiek gazte bikañak! Gogoz pozten giñun ikusmen arek. Jaiatzaz oldozten jarri gañera. Ura sartzeko gogoa gurea!

Iritsi zan Larunbata Deun eguna, Berbizkunde bezpera eguna. Ta edozein ordutan mendigoizaleak gure kaletan barrena, Donosti aldera. Beribillak eten gabe, beren ikurriñakin. Bultzitan ere lenetatik nabarmen da jendea. Egun argi arrigarri baten zai gaude. Abertzale biotzak, pozaren pozez erne dira gogotik.

Gure jaurlari Artolaren erabaki zitalak mingotz izan dira euzkotar danen biotzetan. Bere ama egizkoa ezagutu nai izan ez duan seme txar maltzur onen bidegabekeri beltzak naigabez josi ditu euzkotar senide guztiak.

Baña, amanganako maitasun berdingabeak Donostiruntz egartzeko gogoz gauzka. Artola euzko senide dongiaren aurrera aurkezteko gogoz. España bere amatzat ezagutzen duan Artolangana urreratzeko asmoz. Gaurko ezkertar “demócrata” auetan puntako

dalako, gaur España laterrian agintari agertzen zaigula, ta bere agintaritza Euzkadin izanik, bere errian aurka, bere sorterrian ondamera ikusi naiez dabillen jaun oni gere asarrea agertzeko asmoz. Abertzale indar errendigaitza erakusteko asmoz.

Egun aundiaren zai gera... Euzkoak amets dagi gau illu-  
nean.

(Jarraitzeko)



Basarri eta Saiburu (Elosegi)

# Donostiko billera

**Euzkadi, 1933-04-29**

---

Ez giñan lo zale, ametsgille esnati baizik. Ta ain gogoz zaitzen gendun Berbizkunde eguna iritsi zan beingoz. Ez geuden etxean egoteko. Ez orixe!

Beste asko ta asko ala zijoaztela, ta goiz goizetik Donostira gu ere.

Eta gure uri nagusian besarkatu gera sei senide zarrak. Lapurdi, Zuberoa, Nabarra, Alaba, Bizkaia ta Gipuzkoa anai maitasun sendoz alkarganatuta.

Ango alaitasuna ezin edestu, sinisteziña da-ta.

Guztiak gogai berdiña. Guztiak asmo bat. Guztiak laster egi biurtu bear duan ametsa. Eskari bat nabarmena. Au da: Len giñan bezelaxe, Amaren altzoan seme zintzo, seme maitati ta seme alkartuak izan gaitetzela. Ama ordekoanganako maitasun itsua beingoz izuturik, eun urte ta geiagoan gaxo daukagun egiazko Ama alaitu ta bizkortzera saia gaitetzela.

Euzkadi zoragarri au euzko seme guztiak ezagutu ta maita dezaten, gere lan garratzean sendo joka dezagula. Jeltzaletasunan gogoak auek dira: Maitasun gogoak. Zoritxarrez, anai artean ditugu borrokarik eta naspillik aundiñak. Sendia ondatzeko ta nardasteko askoren bearrik ezta izaten. Baña seme gaiztoak bere txarkeriz sendia ondatuko dualata asi okerrera, ta ondomendirik aundiña beregan gelditzea sarri gertatu oi dana da.

Artola ospetsuari ere ori gertatu zaio. Berbizkunderz Donostin batu bear zuten euzko senide paketsuak nastu nai zituan, ta bera gelditu da zearo nastuta.

Españar aitortzen diran buruarro asko olakoak ditugu. Arto-la jauna, ooo!, erkaldar purrukatua. Nola ez ba! Ta Españar agintariak, Gipuzkoako jaurlari, gobernadore izendatu. Jakiña, gradu oiek artu ezkeru, abertzaletasuna zapaltzen ekin bear. Abertzaletasuna zapaldu egiten duala uste, ta indartu egiten. Or dago okerra!



Gure batzar nagusian trabik asko jarri zigun. Estropak galerazi. Bazkaltzeko denboran itzaldiak jarri. Gure eletarian itza irratiz, "Radioz" entzutea eragotzi, ta olakoxe txatxukeriak. Abertzaleatasunari zer?

Onura besterik ez. Ori guztia egin arren etzan inor atzendu, aurreratu edo zaletu baizik.

Donostian egundo ez bezelako jendetza ikusi zan.

Izlari sonatuari entzutera urbildua zan Euzkadi. Enparantza zabal artan zan euzko gogo bizia.

Ta itza zuzendu zutenak, gizon aundi aipatuak ziran. Oñengo idazkian nion gauza txikiak egitea aztu zitzaigula abertzaleori. Egia.

Donostiko mitiñak "Euzkadi-Europa" zemakin izenburutzat. Abenderri Batzoki (Congreso de Nacionalidades) buruak itzezin digute.

Gure eskaria España ta Europa osora zabaldu degu.

Ona gure bidea: Zeru lurren jaun da jabea gure giari. Euzkadi gure aberri. Euskera gure mintzo.

Kataluña ta Galizi adiskide. Azpiratutako abenderri, nazio guztiari begirapen. Askatasuna gure naia.

Monzonek zionean: Asmo berri bat dakartzutet. Gaur arte Madrida begira eduki degun bultzia, Ginebrara begira jartzeko asmoa.

Entzunakin batera, irurogei milla euzkotarren eskuak alkar jo zuten, da ango txalo burrunda gortzeko ainbatekoa zan.



Betiko gizatasuna. Irurogei milla abertzale, txintik atera gabe. Arrokeriz sesio biderik eman gabe. Bestetan ikusten ez dana.

Baña jaiaren edertasun ura, askok ezin eraman. Etsaiak mindu baiziran! Aurrez ere esana gendukan ori.

Iñularrean beren txokotara paketsu zijoazten aberkideak zigortu bear. Gora Euzkadi!, deadarra arrika ordaindu. Lotsagarriak!

Gabeko ordutan indartsu. Nundik ari ziran nabaritzen etzan garaian.

Nundarrak ziran? Atzerritarrak asko, baña danak ez.

Jaungoiko itza besterik ez duten español sonatuak ere egin zituzten beren azioak. Tiroka, alajaña!

Emakume abertzale bat tradizionalistak elbarritu zutela jakin zuanean, ala zion adiskide batek: Oiek, esku batean pistola ta bestean gurutzea. Zer derizkiotzu, irakurle?

Eibarko gertakizunak ere politak dira. Egin dituzten lan guztiakin Batzokian berrogei lagun berri bazkidetzea besterik ez dute lortu.

Artola ta ezker-eskubiko españolista sutsuak jarrai bezate bide ortan, Jel-Alderdiantzat onura aundia da-ta.

# Auteskunde ondoren

*Euzkadi, 1933-05-10*

---

Aurreko idazkietan nion, Berbizkunde eguneko, Donostiko aberztzale jai arrigarri ark abertzaletasunan etsai guztiak bere onetik atera zituala. Ta alaxe zan

Ondorengo egunetan izparringiak argi asko erakusten zuten. Ezker-eskubi Españazaleak azkar nabarmendu ziran. Amabost bat milla lagun bai ote ziran Donostin- zion biamunean *La Voz de Castilblanco* edo dalakoak.

Beste zeruko agintari zintzoak berriz, jakiña, ezer ez balitz bezela, aitamena asko gabe, paso.

Baña ar bat zemakiten barrenean guztiak. Irakurlean artera ori zabalatzea komeni ez bazan ere, ondo zekiten billera ura iñoiz eza-gutu ez dan bezelakoa zala. Or zegon koxka!

Aurrez esana gendukan ta tripamin sendoak sortu ziran. Itsumen beltzez estaliak dauden ezker-eskubitar anaiak, egun batzutan begiratu gaizto ta eraso makurrak zituzten abertzaleontzat. Eibar, Irura, Tolosa ta gañuntzeko erritako gertakizun nardats ta eginbide itsusi maltzurrari on iritzi zioten gure españolista zoratuak. Jakiña, euzkotasun susmorik ez dute nai iñolaz ere.

Baña buru danak ez dira egosgaitzak, ta, orratik, gaur ikusten diranak ikusita, len etsai edo arerio izan diran euzko seme asko aberztzaletasunera datoz apalkiro. Eibarko gertakizunari begira ondo.

Ikurriña.....\*, eman, ta izan leiken biderik txarrena da. Euzko Etxean berrogei bat aberkide izatea besterik ez dute lortu.

Gure jai, billera ta ibillera guztiak, askok gorroturako dituzte. Donostiko jaiakin ala gertatu zan. Irurogei milla aberkide, agintarien dei sotil batera urbiltzea, arrigarria izaki. Beste iñongo alderdiak egin ezin lezakena Euzkadin.

Orra oien tripako miña.



---

\* ..... ezin irakurri.



Egun gutxira auteskundeak. 20garren atalak izendatuta zeuzkan ziñegotzi edo kontzejalak kendu, ta errian gogozkoak izendatu bear. Or berriz ixtilluak!

Lanera danak. Saiatu gabez ezta iñor galtzalle gelditu. Agintarien esanera zintzoki abertzaleak. Ta agindu ori bakarrik joatekoa zan, iñorekin alkartu gabe, alegia, argi ta garbi erakutsi zedin gure almena. Ala gertatu da.

Ta nola gero!

Ongi ikusi degu. Geuk uste baño ere aurrerago gaude.

Españako gobernu-buruan galdera: Dónde están ellos?

Euzkotarren erantzun apala: En las urnas.

Euzkadik jaso du burua, ta besteak ainbat dalako eskubide osoa dauka. Fuerista amorratu kasta ori ere atzean gelditu da. Pentsatzen gendun!

Igarotako arrats batez, *La derrota del Tradicionalismo* izenburutzat zekarkin iñularreko *La NOTICIA*-k.

Lenengo orrialdea zan, da bai gogozkoa!

Ta zion, Tradizionalisten berako, edo erormen au, langilleta-sunagaz ezer egin ez dutelako dala.

Nere iritiz, orrek etzuan gutxiña egingo. Abertzaletasuna guztira osatua dago. Abertzaletasuna ezta ezeren bear; askatasuna bakarrik. Ta *Noticia*-k Tradizionalismoa berealaxe galtzera datorrela zion.

Nik nere buruan sarri pasa dodana au da: Gaurko Tradizionalismoak, euskalzaletasunik ez dualako galtzen duala geiena. Etxeko gauzak baztertu, ta auzo-maite agertzen dalako. Gure izkuntz, jolas, oitura, ekandu, ta garbi esateko, euzko abenda edo arrazan alde ezer egin ez dualako; ta gai ortan bear dan bidez ez dabillelako.

Txokorik aipatuenak uts eman dute. Ermua, Azpeiti, Azkoi-ti, Mutriku ta gañontzekotan ongi ikusi degu. Gipuzkoa ta Bizkaia abertzaletasunangana itzuli dira. Irakurleak jakiñean zerate, irentsitzeko ainbat aldiz ikusi degu gure egunerokotan izan berri diran austekunde izparra.

Gero zer ikusteko gauden ez dakigu, baña orain gozotasunez gurenda egunak pozkiro ospatu bear ditugu.

Araba ta Nabarra senideak ere badatoz beren bidera, abertzaletasun bidera.

Gure aurrerakada zoragarri onek gogoz poztuko ditu Nabarra ta Arabako anaiak. Gaur arte ez degu entzun, baña ziñegotzi abertzaleak baditugu orain bi probintzi oietan ere. Zabalkunde aundia egingo da. Euzko odola damakiten ezjakiñak etorriko dira argitzera. Gaztedia esnatuko da, ta orduan kontuak. Bere denbora bearko du, ori ezin ukatu.

Irakurle, gogora orain sei urte Gipuzkoa zer zan.



Gurenda au emakumeai zor diogu. Euzkadiko emakumeak benetako emakume izaten ikasi dute. Askok aberriari eskeñi diote beren izatea. Zigorkada ta kartzelak izan dituzte; baña aurrera dagite beren bidean egundo baño ausartsuago. Gorrijak ikusita askatuko degu aberria, baña luzaro baño len lortuko degu. Ezker-eskubiko batasun maltzurak alperrik izango dira, zein batu aundirik ez dute izango-ta.

Jarraituko det urrengo batean.

# Ongi etorri

*El Día*, 1933-06-06

---

Euskal idazleak poztu bearrean gera. Berri bat degu alaigarri. Itz gutxitan nezakean ainbatean adieraziko det.

Izparringi kutun onek euskerari uzten dion toki apurtxoa iñork uste duan baño zaletsuago artzen da euskaldun artean. Eguneroko txanpona beragatik ematen dutenak ere ez dira bat eta bi.

Esaten lotsatu bearrik ez degu, iñoren errurik ez dago-ta.

Garbi esan beraz. Nik diot, *El Día*-n Euskal Orri zuzendaria gaxotzeak aitatutako orria utsera ekarria zeukala; au da, zuzendariak gaxo astuna izan badu, orriak astunagoa izan duala.

Ez bedi iñor asarretu gauzak bear bezela asanakin. Artzai gabe artalde askotan okerrak etorri leizke; bide galerazkoa artzeko diña baidira nolanaitan. Au gertatu zaigu guri. Ez iñoren errua dalako, ez. Bakoitzak bere lanak izaten ditu. Euskal Orrira gabe osatuko zitzaien beste jaun oieri. Kontuak kontu, guk emen degu egiazko artzai zuzena; berari jarrai bear diogu. Euskal idazleak, ekin lanari! Luzear-en eskutara biali gauza. Jaunari esker sendatu zaigu oraingoz. Egin deiogun gure ongi etorria. Urte askotan, adiskide.

## **Ez dago eskubiderik**

**El Día, 1933-06-13 / Euzkadi, 1933-06-15**

---

Entzuten ditugunak entzunda, au onela gertatu zala gezurra dirudi! Ez gendun uste euzko abertzaleok.

Gaurko ezkertar agintarien deadar oiua ez dira makalak. Gora askatasuna! dagite itzetik ortzera.

Bakoitzak bere asmoak azaltzeko, ta aurrera ateratzeko libertade osoa. Olakorik!

Garai bateko ibilleratzaz oldozten jarrita, zeruan bizi omen gera; ala diote zakur zaunkariak. Itzez badute abildadea, egintzaz edo obraz ez bada ere.

Bitartean, batere zentzurik duanak argi erabakiko du abertzaleok dabilkigun ibillera.

Madrideko eserleku nagusitan jartzen diraden guztiak etsai amorratu ditugu. Orain artekoak ala izan dira, ta aurrera ere ez jarri zalantzik. Bakalderri edo monarki denboran nola agertzen ziran abertzaleak? Irakurleak, ongi dakizute; kristau bezela ez beintzat. Arrazoiakin, da... baditugu orri taju antzean erantzungo liotekenak. Gorriak ikusiak, alegia.

Baña bolara ontako libertade oiua arrigarria izaki, ta zerbait aldakuntza gogorra izango ote zaneke susmoa askok artu zuten. Bazan zigorrik asko!

Españatar agintariak, lengo lepotik burua.

Azpiratutako abenderri goraberik ez dute entzun nai. Ezagutu bai orratik gauz asko. Euzkadi abenderri nazio berezi bat dala ezagutzen ez duan agintari gutxi dago. Bere edestia ere badakite geienak. Azaña jaunak egun batez esan zuan naikoa. Naikoa edo agintari bezela komeni zitzaion ainbat bai beintzat; andik aurrera etzun onurazkoa, guztia nabarmena azalduko zan da. Gogoz pozteko gauza litzake, Azañak ainbatean euzko seme guztiak balekitez Euzkadiren edestia. Baña... Bai zera!

Euzkadiren eskubideak ezagutzen dituzte, baña bai gure aberria Españan mende edukita daukaten alderdi izugarria ere ezagutzen dute. Ta kontuak dira or!

Itotzeko putzura, arren, ez salta beintzat.  
Onenbestekin ulertzen da.



Belar txar bildurgarria nabaritzen dute, abertzaletasuna. Kataluña ta Euzkadik artu duten bidea etzaie atsegin. Nola ba!

Indar au ez izan berriz zanpatzen errex. Politika asko oinkada bezin sarri aldarazi leizke gaur milla moduz! Ta alaxe gertatzen da. Bi edo iru pake ondo jartzen zaizken erriketazale edo politikoak ditugu nunai. Nundik zer dagon ikusita, ta ola, irakurle.

Baña abertzaletasuna alde aundikoa da. Barren barrena ikutzen duana dalako. Uzkuertz edo erlijioan urrengo maitasuna aberriari bear diogu. Egiazko Amari. Ori, zorionez, euzkotarrok ongi damakigu. Zuzen goaz geure bidetik. Itsu asko argitu zaigu aberri ezaubidean. Urte bi auek atsegingarri dira Jeltzale Alderdiantzat.

Euzko Abertzaletasuna barrendik nabaritzen dana da beraz. Jaungoikoak aske egindakorik, gizonak ezin lotu lezakelako nolana.



Españar agintariak onengana dira bildur. Askatasun itza ezañaetatik kendu gabe ibilli diranak orregatik asi dira frenoak jartzen.

Abertzaletasuna samintzen dute. Nundik zapalduko dabiltz. Kartzelak beteak daude. Isun edo multak zabalduak. Egoki asko gañera. Itzegingo degu bai astiro. Zigorkadak guretzat daude. Ezin degu arnasik artu

(jarraituko du)

## **Ayerditar Mikel, zarauztar bulartsua**

*El Día, 1933-06-15*

---

Aurreko aldean dezuten gazte kementsu au dezute aberri gudari bikaña. Biotz ori, abertzale biotz irakiña soin ori, Euzkadi aldeko nekerik garratzenak utsean artzen dituana. Abertzale izaten ikasi egin bear da, ta ongi ere ongi dakiña degu Ayerdi adiskide begikoa.

Erru aundi gabe iraun du bere nekean.

Epaikarien aurrean Euzkadiren Askatasuna dala berak zaitzen duana esan zualako, 25 eguneko ostatu illuna bereganatu zuan.

Azpeitiko ta Ondarretako espetxean izan da bere lekua.

Mikel ordea, sendo agertu zaigu guztien aurrean. Guraso biotz biguñak samintasunez estaliak ziran denboran ere, Sukarrietan lo dagoan ziñopatzaz gogoratzen zan gazte txalogarri au, ta ark egin zuanan ondoan bere eramankizun guzia utsa zala ikusirik, indar bereziz aberriari eskeñi dizkio bere naigabeak.

Ikasi dezagun jarraitze zintzo izaten. Ta nik diot:

Sabin, Sabin, zer derizkiotzu  
zuk or goitik begiratuta?  
Jarraitzeak min ta barauz daude  
zutzaz gogoratuta.  
Zu bezelaxe ziñopa izateko asmo  
sendo artuta.  
Biotz trebe auek ditun aberria  
noiz arte lotuta,  
noiz arte lotuta?

# Ez dago eskubiderik!

*El Día*, 1933-06-16

---

Ostiralean izparringia bear bezela zabaldu  
etzalako berriro argitaratua

Jaraitu dezagun astiro.

Badirudi Españar agintariak aldakuntza aundia egin dutela. Denboraz asmo asko etortzen da burura, ta egoki apartak ere bai tartetan.

Gure jaurlari Artola jaunak ere egokialdi du bolara onetan; gauzak itxura duanez beintzat.

Noizbait jausi da abertzaleak espetxean edukita ez daukala ezer, ta orain atera digu sekulako xixtima.

Isun edo multak zabaldu. Baña jakiña, orien eskariari eranztuteko danok ez gera izango diña, ta espetxe ate beltza zabaldu bear askorentzat.

Usai ona urrutira artzen zenbaitek, ta mokadu gozoan zai jar-tzea onena.

Gaurko agintariak au egiten digute: Usai egin lenengo, ta ondoren saia.

*El Día* maite onen aurreko zenbakitan irakurriko zenduten noski. Gipuzku Buru Batzarreko batzarkideai emandako zigorkada astun legez aurkakoa.

Abertzaleak beti gorrotatuak izan gerala, edo izan dirala esaten nuan aurreko idazkian. Gorrotorik bizienak izandako denboran ere etzan olakorik entzuten. Inoiz izan ote olako diktadurarik?

Ezetzean nago.

Gora Euzkadi!, soil soillik esan arren ere, bosteun pezetako partxea kentzen asi dira. Aitzol agurgarriaren utsegitea ori izan da, ta itxuraz ezta merkea.

Idazteko ere bildur izan bear degu. Ikusitako gauza batzuk argitaratzea bosteun pezta kosta zaio Barriola jaunari.

Beste gertakari bat ona emen. Ta irakurle arritu zaite; euskerazko sallean dei bat zetorren, ta ura guztiak irakurri zezaten, Eup! esaten zuan gañetik, ta itz ori España iraintzea edo ez dakit zer zala iruditu zitzaien, egun artan *El Día* zabaltzea galerazi egin zuten. Itz ori erderara itzultzeko jaun bati deitu zioten gañera. Au guzia gertatu berria da, ta gogoan izango dezute noski. Guztiak gogoan izan, da esaten asita, balegoke pixka bateko lana.



Bat esan ta bestea egiten duana garaiz ezagutu oi da, ta bein ezagutu ezkerro berriz, ezta ura iñoren gogozko izaten. Gaurko demokratak ezin izan iñolaz euzko abertzalien gogozko. Gora Askatasuna!, deadar egiñakin ez dute iñor atzipetuko. Euskalerrria esna arkituko dute emendik aurrera. Bai orixe!

Oraindik ezta denbora asko, Españako Erkal lendakaria, Prieto jauna ta gañontzeko agintariak Gipuzkoa ikertu zutela.

Euzkotarrak dakiten bezela, arrera ona egin zien, edo egin giñun, aitatuko jaun oieri. Ta errian gogoa betetzeko uraxe bear zala ezaguturik, Gora Euzkadi-ka gogor aritua zan L. Queipo de Llano buruzagia.

Katalandarren estatutoa izenpetu zaneko orduan ere, egun artan Donostin batu ziran euzko biotzen egarria aseko bazan Aldundi etxeko leio zabalean euzko ikurriña zabaldu bear izan zan. Ta Prieto, Alcalá Zamora ta gañontzekoak ongi nabaritu zuten erri zar onen nai berezia. Au da: Askatasun naia.



Ordutik gaurra alde aundia dago. Abertzaletasunak ziri gogorra sartu du. Egunetik egunera gogor ugaltzen ari dan alderdia dala ezagutu dute danak.

Geroztik gure erkitan ditugun gobernadore ta “Asaltokoak” egin digute onura asko. Anai asko naigabetu dizkigute, baña bai lo zegona pranko esnatu ere. Ta Jeltzale Alderdiari orixe komeni!



Gauzak badute orregatik beren neurria. Abertzaletasunean aurrera gogor antzean agertzen dalako eskerrak eman beaizkagu Artola jaunari, baña azken alde ontara artu duan bideagatik asarrerik gogorrena agertu. Batere ezauerik duanak esango du: Ez dago eskubiderik!

Barriola, Aitzol, Artetxe, Lopez Mendizabal, Ugalde, Monzon ta Ernandorenari egin zaiena egiteko ez dago eskubiderik!

Ez Olasagasti aberkidea azken arnasetara ekartzeko ere. Libertade itza mingañetik kendu gabe, ta zer erru duten ez dakigula etxeak enbargatzen. Iñongo alderditan ezta ikusten ori. Langillearen laguntzalleak zio geiago gabe iñori lan saria kentzen. Utikan! Ortarako ez dago eskubiderik!

# Txit bearrekoa da Nekazari Alkartasuna

*El Día*, 1933-06-23

---

Berri itun negargarriak ditugu. Eraso gogor ater gaizto batek ondamendi beltzean utzi du gure Gipuzkoa maitea. Zenbaterañoko galerak diran ez dago esaterik. Gure erritxotan ere negar bizia dago; jakitun gera zenbaterañokoa *El Día* kutun au lengo egunetan irakurri degunok.

Gaur artu dedan gaia nekazariai eskeñia izaki, ta mintza gaitezen beratzaz. Oraingo ugolde naigabetsu onek, nekazaria edo basarritarra eztu gutxien zigortua. Errenderi, Usurbil, Loiola, Aia, Orio, Zarautz, Ordizia, Isasondo, Legorreta, Tolosa ta ainbat ta ainbat erritan errukarri gelditu dira anai nekazari gizarajoak. Geiago bururik jasotzerik ez dutela asko. Zein ituna berri au!

Ainbat ta ainbat urtean lanean ari, ta izerdi neke astuna bide, etxe aldeak eder ziraden garaian, negu beltza igaro ta udara pozean, lan atsegin gogozkoak zituzten garaian, onek gertatu bear. Al dan bezela zintzotasunean urte asko igaro, gogor saiatuaz, exkiña batetik ez bada bestetik beren erantzun bearrari erantzun ta oraintxe emezortzi edo ogei ganadu burun jabe egindako denboran, erdiak edo geiago urarentzat izatea nola ez samingarri?

Beren lan astunak bide, len sasi ta sastraka ziran bazterrak lurgorritu, alderdi danak txukun da apain, arto ta gariak begien pozgarri ziran denboran, ugolde beltzak lurrindu ta zarpildu, lur gozo ederrak eraman da orde z arri latz astunak uztea nola ez penagarri!

Oker auek dirala-ta, basarritar asko gelditzen da kale gorrian, edo nora bazterturik ez dutela. Bei, zekor, txerri, ollo ta gañontze-koak palta, soro lurran orde z arri zarra besterik ez, basetxe ormak irauliak (edo bildurrez beintzat), au guztia ikusita zer egin?

Lanean aritzea alperrik alako tokian. Beste norabait aldatu bear, ta ez ganadu ta ez beste, zerekin asi? Zer egin?



Kristau txepelak ez gera gutxi mundu zabalean. Emen Euzkadin ere baditugu supiztaille amorratuak. Olazabal jaunak berrikerik badezu, irakurle?

Ez dakizula? Aundia da ba.

Sekulakoak esanak ditu, gizona!

Gorputz egunez ta Igokunde, Azentzioz lana egin zalako zigortu duala gure lurraldea dio Jaunaren mandatari integro zintzoak.

Besteak beste dirala, au esan ote leike gure nekazari jatorratzaz?

Olako egunari inork begirapenik badie, gure basarritarrak bai beñepein.

Lenengo pixkaka asi omen zan, baña gero geiago ta gero geiago, azkenik Azentzio egunean ebakitako belarrak eramateraño. Ondoren, txerri, bei ta gañontzekoak noski. Olazabal jaunak goi aldetik daukan jauregi ederretik ikusi zuan Jaungoiko gure jaunak pekatariak ematen zion zigorra. Goi aldetik ikusi zuan jaun batzuen izketa txatxuz atzipeturik, jabeen basetxeak bidegabe berenganatzea uste duten basarritarrai zetorkien kastigu makurra.

Beste gauz askoren artean, ona zer idatzi duan gure buruluxe sonatuak.



Nor nekazaria baño zintzoagorik eliz-jaiak ospatzen? Nork eramane Jaungoikoaren legea zuzen betetzen?

Asi San Isidro, Gorputzi, Azentzio ta gañontzekoak inork ez bezela ospatu dituzte gure basarritarrak. Bearreko ziran ganau jatenak beste lanik egin ez dutelako. Txatxu petrala esango diogu orrela mintzatzen danari. Olazabalek ere austekundetako prakasoa nolabait ordaindu bear du, baña orrela arita izango du lanik asko. Utikan, gaizto alena!



Alkartasuna! Alkartasuna! Alkartasuna! Izan diran kalte izugarriak arintzeko, ta nekazari gizarajoai laguntzeko, Jeltzale Alderdiak egin du lenengo oiua, ta bai Euzkadi zear arpideak nabaritu ere.

Zuzentasun berdingaitza Euzko Alderdiarena!

Gotzai jaun agurgarriak ere 15.000 peztakin asi du arpidea. "Comisión Gestora" k milloi t'erdi agindu ditu, baña onentzat asko danik ez degu uste. Beste alderdi guztiak ere lagunduko dute.

Au guztia ikusirik, basarritar bakarrik ez litzake bear Nekazari Alkartasunez kanpora. Oker auek nork zuzendu geuk baño obetago? Geronek ez bada, nork lagundu geutarrai? Atera kontuak, bizkor ibilli. Etxe ta lurak galdu zaizkana nork zuzendu ta bere bidean jarri basarritar anaian laguntzik ez badu?

Goruntz biotza! Eldu da ordua! Alkartu, alkartu ta alkartu, Jaungoikoagatik!

Jarraituko det urrengo tarte batean.

# Ori oztasuna!

*El Día*, 1933-07-13

---

Arrigarria da nekazariakin gertatzen dana. Bai otz agertzen gerala! Bai txepel!

Baña gaur ezta ontarako denbora; aurrerakuntz gogorak egin bearrean gaude. Alperrik dira txantxa guziak, derriorrekoa da-ta.

Nekazarien artean atzipe edo engaño aundiak izan dirala ezin ukatu. Asko agindu eta gutxi eman zaiela ere egia.

Ori ola izanik ere, bada zerbait oldozteko garaia. Pixka pixka bat esnatzen asi bear genduke. Gaur ikusten diranak ikusita, irakurtzen diranak irakurrita, ta gañean degun estuasun larriari begira jarrita, zerbait mobi bear gendukela esan leike. Baña ez dakit, ez dakit nola moldatuko geran. Lozorro ontatik kementsu eta lana gogor egiteko asmoz jaikiko gerala, bai, ori badakit; baña ontarako zertarako iritsi giñezken iritzia ematen ezta errez. Urak igarota presa egiten astea aurrerapen koskorra da.

Kontu izan bear degu, orrelakorik egin gabe. Ta gaur asko ta asko agertzen geran oztasun ta txepeltasunakin ezta arritzekoa.

Auteskunde edo botaziotan gogoratu dira asko basarritar edo nekazaritzaz. Orduan bai gauza agindu. Zortzi egun igaro, ta arpegira begiratzeko aundiegi. Ori, gaur arte ala gertatu da, ez de-zala iñork ezetzik esan.

Ori kaletarrak ere aitortzen dute, baña bai basarritarrak adierazi ere. Geroni aritzen gera kontari, au agintzen digute ta ori egiten digute. Zerbait zerga edo kontribuzio danean, Jesus ba, nekazarian negarrak! Denboraz estutzen da nekazaria. Lenago lanik asko ez degula, ona polita orain ere! Guzia ezagutzen degu. Bai kaletarren atzipe edo engañoak, bai diru kentze bidegabe-koak, bai gure gain dabilten gosetiak eta itz batean, guzia. Ar-dandegian bai ixtillurik asko. “Au bizi eziña gurea!” –diogu lenen-go itzean. Negarra nunaitik.



Ain bearreko dan garaian sortu da Nekazarien bazkuna. Atzi-peak. Boto kontuak. Artu emanak, ta basarritarrari dagozkion arazoak zerbait zuzendu edo aldezteko asmoz sortutako bazkuna. Au basarritarrena da, basarritar utsena. Bazkun onen aldeko lanean ari diranak basarritarrak dira geientsuenak. Baña jakiña, danak ez!

Alkartasun auek sortzeko, bere araudi, baldintza edo kondizio ta lan auek gañontzean dituzten gorabera asko bere bidean jartzeko ez gera edozein egiten. Ortarako maixu onak bear ditugu, ta gaur zorionez badauzkagu nekazari bazkunak. Guzia bear bezela egiña dago. Orain danon alkartasuna bear da, besterik ez.



Zorionez, nekazari jator asko degu. Oñengo auteskundetan ere, erri askotan udaletxeko aulki erdiak nekazari alkartasunak artu ditu.

Bazkun ontan egunetik egunera bazkideak geituaz dijoaz, baña ez bear litzaken eran. Bizkarrean danbaka asten etzaizkigun bitartean ez gera ezertan asiko asko. Zirika gogor ta eztenkada asarreak bear ditugu lo zale geran illunak.

(jarraitzeko)

# Ori oztasuna! Ori oztasuna!

El Día, 1933-07-20

---

Tira ba, irakurle, goazen pixkabanaka aurreraxeago. Nekazari arteko gertakizun auek ongi aztertu bear ditugu. Basarritarran txepeltasunatzaz mintzatzen giñan lengo egunean. Nekazari adis-kideak ez bezate asarratzeko eraz artu. Egia esan, ez nabil asmo orrekin. Bai zera!

Ta zu, basarritar irakurlea, ni onela aritzeakin ez dezu miñik artu bear legez, poza baizik. Zu, bazkuneko bazkide bazera, etzera ikaratuko onenbestekin, ta ez diranari arpegira botata ez dezu utsegite aundirik egingo. Baña, ixo! Benetagi artzea ere ezta ongi etorriko. Onekin esan nai nuke ez degula iñori bruxatik tiraka ari bear; “Zuk bazkide izan bear dezu!” –derriorreko eskari ori etzaio egin bear iñori.

Ziur dakigu guziak etorriko dirala, ortan ez dago zalantzik batiere. Ortan konporme!



Nik idazki ontan beste zerbait agertu nai nuke ordea. Alegia, ez degula bear dan gizatasunez jokutzen.

Oraindik denbora gutxi dala basarritarrentzat itzaldi bikain batzuk antolatu ziran gure errian. Au da: Euskal Nekazari bazkunak moldatu zuan jaialdi ori. Basetxe guzitara aditzera ematearren, papeltxo batzuk zabaldu ziran, ta gañera mandatuz asko.

Iritsi zan izendatutako eguna. Etorri ziran izlariak, ta, zera, ordutebete igaro jende zai, eta juntakoak bakarrik azaldu. Jakiña, beste egun baterako atzeratu bear. Ori txepeltasun bizia da. Gizalege aurkakakoa gañera.



Iritsi da eguna.

Itzaldia entzuten gertatukoakin itzegin det. Topo eman diet Zer diozu ba, adiskide?

Jesus, ango egiak noski! Gauzari tankera azkar ematen diotenak baditugu. Alkartasuna bearreko dala garaiz ezagutzen dutenak ere bai.

Beste askori galdetu diet:

-Ta... zer moduz ba gaurko jai ori?

Esan dutena ondo iruditu al zaizute edo?

-Zer demonio gero! Guk ez diagu orko berririk motel! Ez gaxeuek olako txorakeritan denbora galtzeko.

Au dute beren puntara:

-Gure onagatik etzebillek emen iñor!



Ai zer arrazoibidea. Ez dituk alperrik ire berriketak. Ez dituk alperrik ire tabernako negarrak. Ez alperrik ire ixtilluak. Gezurra dala esanda ere ez dik iñork utsegiten. Ala merezi dek-eta.

Azaldu baikere egin ba Jainkoaren izenean!

Ez ituan era ortan asita irurogei milla euzko langille bereala bilduko. Etzizkiten izan dituzten onura ta aurrerapenak izango. Tokitan zitxeon euzko anaitasuna. Tokitan gaurko oien almen ta alkar laguntze berdingaitza.

Langillea burumakur egunero egunero Euzko Langille elkar-terateratorren bezela edo areago etorri bear dute nekazariak.

Gaur lanean ari diranak ez dira asko izango alkarte gabeak. Derriorrekoa baita! Bada basarritar, entzun zaidazu!

Nik ongi dakit orain diodana. Era ontan bagoaz (ta ezta itxura txarrik), zerbait pentsatu bearrean gertatuko gera.

Maizterra bazera, maizterra zeralako, ta etxe-jabea bazera etxe-jabea zeralako, izango dezu estuasunik asko. Danori dator-kigu ekaitza. Lenago nola gauden begiratu ta asi oldozten.



Esan bezela ezta iñor bruxatik tira zale. Ezta komeni ta!

Gauzak bear bezela adieraztea egingo degu. Oso laxter korrika zera, bazkide izan nairik. Ori ongi dakigu. Baña berandu izan leike ordurako.

Zeuk atera kontuak!



# Dantza lotua

El Día, 1933-07-22

---

Ia ba, goazen aurrera poliki poliki. Ez pentsa iñori min ematera natorrenik. Bai zera!

Irakurle, ez naiz olakoa, gauzak argi ta garbi azaldu naiko bat baizik.

Bada, gaur dantza kontuakin natorkizu. Gogoratuko zera oñengo idazkiatzaz, nik ala uste beintzat. Etzan abertzale guzien gogozko izana, ta nik ez dakit abertzale aitortzen dana nola mindu leiken orrenbestez. Etzan ortako zio edo motiborik.

Nik aspaldi ezagutua daukat oitura ori kolpera uztea gaiztoa izango dana; ortan ez degu ezer.

Baña nik uste det, abertzaletasuna sakon sartua daukanak, erreze egin lezakela ori. Ezta artañoko jauskain edo sakrifizioa! Aberriagatik onenbeste egin bear ezpadegu, gudari beroak gaxtauek!

Zorionez, gazte trebe asko ezagutzen ditut. Olaxe pixkabanaka pixkabanaka, oitura zatar orri aldegiten asi, ta gaur zearro utzita daudenak ez ditugu bat eta bi; kontaduri polita da ori egindakoa. Ta guzia, jakiña, abertzaletasunagatik. Geure ikurritzean lenen damakigun Jaungoikoa ez iraintzeagatik, ta bigarren, munduan garbien diran euzko oitura berdingabeak baztertu ta atzerritik datozen loidunai ez indar emateagatik.

Ori da zintzo jokatzea! Ori da bikain agertzea! Ta gañontzean zer? Orrenbeste ezta egin bear? Gizona, gizona, beratu zazu buru ori, ta esan zaidazu: Bai!

Lengo egun batez sartu naiz ostatuete batera, ta jakiña etxe ori plaza inguruan nola dan, gauza asko ikusteko eran giñan. Etorri zait serbitzalle mantal txuria, ta eman diot itza. Asi gera abertzaletasunakin, ta nere itz gozoai kopeta beltzakin erantzuten dio:

–Tira, tira, ixo kontu orrekin, zeuek zerate txarrenak eta.

–Baña, zergatik diozu ori?

–Zera, Jaungoiko asko mingañean, ta begira, begira barruti ortara.

Ene begiok samindu bear zuten. Biraka zebiltzan ikurren dizdiza geuden tokiraño iristen zan da. Lenengo aldiz an gelditu nintzan zer esan ez nekiala, ta lotsa lotsa egiñik au esan da irten nintzan: –Alaxe da.

Au ez al da tamalgarria?

Irakurle, ona emen xpillu polita. Ezagutzen det abertzale gazte bat igaro dan San Pelaio pesta egunetan dantza ori ez egitearren, bi gauetan etxetik irten gabea.

Bai omen zekin joan ezkeru katiatuko zana. Txalogarria olako gaztea!

Oitura aundia dezun orrek, itzezin zenekezu tajuz. Baña orain arte bezela ez!

Internazionala dala ta ez duala gaitzik esan ez didate ba? Tira, tira, gizona, arren ez orrelakorik!

Esan zazu oitura ori bein gogozko artu zenduala ta geiago ezin dezula utzi, baña ez asi elizak pekatu aunditzat botea daukana aldezten edo defenditzen. Ori esango zendun ba! Euzko abenda edo arraza indartu bear dala ta, tokitan zeok era ortan! Ene emakume abertzalea!, ta ene gaztedi gizonetzkoa! Entzun!

Etzaitzela mindu, ta etzaitzela txartu, Jainkoaren izenean. Ez ditut asmo orretan idatzi lerro auk. Guzion onerako izan bitez ba, ta pixka bat atzeratzen saia gaitezen gaurtik.

Orixe da idazle txiro onek lenbaitlen ikusi nai lukena.

# Zarauztarrak Sukarrietan

El Día, 1933-08-12

---

## Ibiltaldiko berriak

Beste gogamenik gabe oiratuak giñan. Urrengo goizean, jakiña, ez giñan loti iñoiz bezela. Gela leiotxo zabaldua goiztar nintzan denboraren aldaritari begira. Nola ez ba alako egun bat igaro bear izanda?

Seiretako txintxiñakin batera sartu gera San Frantzisko elizan, ta iganderoko eginkizuna bertan bete genduan.

Zazpirak laurden gutxi inguru ortan, irten gera geure txokotik. Ganborenaren berezibilla pronto baizegon!

Ene, itsas-ertzaren ederra! Goizeko intzak aldegin gabeak ardean. Gure uritxo paketsuak igaroaz aurrera ta aurrera egiten degu.

Alako batez Gipuzkoari agur, ta sartu gera Bizkaiko lurraldean. Apetitoa ere egin samarra ta Ondarru artu degu gosai lekutzat. Arrautzetik ekiñaldi bikain bana egin ondoren, aurrera geure bideari. Arrantzale jatorrak pozkiro agurtzen ditugu. Ortarako esan dezagun, berak zirala jaramon edo kaso egin zale. Nola ez ba! Gure berebillak señale bereziak baizituan! Iru margotako ikurrintxo apaña an zuan aurreko aldean. Ura zabaltzea naikoa Bizkaian agurtzale asko izateko.

Gernikako erri sonatuan urrengo geldiunea. Ain entzutetsua dan euzko kabia ikertu gabe ezin gelditu. Ta, jakiña, Zugaitz onetsian sustrai indarrak beregan bultza zigun. Antxe bai erne. Ango edertasuna! Begiak busti zitzaizkidan ikusi nuanarekin. Garai bateko izaeratzaz oldozten asi nintzan. Ene, aulki ederren utsuna!

Sendoturik irten giñan. Euzko izaera paketsua zaitzen zuan jauregi eder ura, gure asaben batzar leku pozgarri ura, askatasun edo demokrazia guzien iturburu ura, ain uts, ain sotil arkitzeak gogor illuntzen ginduzen zarauztar abertzaleok ere. Zugaitz

zar berriari begira alditxo bat egin ta gaur utsik dauden aulki za-  
baletan gure erria gaizkatu bear duten abertzale gorengiak exeri  
ditezela. Orra gure gogoia, ta gure oldozmena, ta ori bete artean,  
lan da lana gure egiteko nagusia.

Aurrera goaz zuzenki. Polita da gero Bizkaia!

Gaszte samarra izaki ta ez nuan ezagutzen. Bai abesteko gogoia  
gure kuadrillak! Uri polit txukunetako nekazari ta arrantzale ja-  
torrak arpegi alai jartzen ziguten. Alaxe dibertsio berdingabea  
guazelarik, uste baño len iritsi gera Sukarrietara.

Ango jendearen emana! Inguru guziak berezibil bez josiak zeu-  
den. Euzko Ekintzakoak ziran. Bai pozgarri izan zitzaigula sarre-  
ra uraxe! Ango berezibil errenkari begi zoli gaudelarik, illobi au-  
rreko egitekoak eginda biran zetozten emakumezkoak inguratu  
zitzaizkigun: –Ene, belu zatozte, jaiak amaitu dira ta... –zioten.

Iru edo lau izlari izan ziran geroztik dakigunez. Len esan de-  
dana: derrior poztu bear ura ikusita. Aberri bat aitortzen bai-  
gendun guziak, ta irakasle bakartzat berriz, Sukarrietako txoko  
paketsu artan lo dagon Sabin aundia. Ama baten semeak gera,  
ta ama ori geure geurea dala ao batez aitortzen da baiezten degun  
ezkero, danok besarkatzea bidezkoa, noski.

Euzko Ekintzak ta Jeltzale Alderdiak badaukate aldeia. Ori  
danok dakigu. Ez gaitezen alde ori aztertzen orain asi. Gure egu-  
nerokoen orrialdetan sarri ikusi degu-ta. Jarrai bezate abertzale  
bikain oriek beren bidetik. Guk ere berdin geuretik, ta ez dago  
ezer aldatu bearrik.

Lauaxeta azkarrak, illaren bederatzian bere Egunerokoa  
zian: “Benetako abertzaletasunak eroan dauz Sabinen ilobira. An  
aipamen onak egin eutsezan, Euzkadi gure aberria zein dan era-  
kutsi euskuzan gizon azkarrari. Eta benetan abertzale asko batu  
ziran Sukarrietan. Osuan eztagozan arren, poztuten gara euren  
aurrerakuntza dalata. Benetan maite dogu goguen askatasuna.  
Alde batetik ibili edo bestetik ibili, aberria maite daben guziak  
geure maite doguz.

Zorionak egiten dautsoguz Ekintza anaiak euren txango eder ori dalata. Orixe dogu geure bidia. Ortik juaten bagara zintzo zintzo, geure aberri onen maitasun osuaz, laxter dogu Euzkadiren askatasuna. Sabiñen oroitzea izan dedilla euzkotar guztiak batu-tzen dauzana. Anaiak garan ezkerro, ez dogu geure artian asarre-rik biar, oraingoz beintzat. Aberria askatuko danian geure ezta-baideak aztertuko doguz”.

Oneraño Lauaxetana. Ta ez bat eta ez bi, nik esaten dedana orixe ber bera da-ta. Bada, igandean ere ori egin genduan: anaiak-in batu.

Emakumeak esan bezela, berandu iritsi, ta Ekintzakoak mar-txan asi ziranean sartu giñan barrena. Euzkadiren gaizkatzallea-ren illobia guztiz loratua zegon. Ekintzakoan opari idazkia gaikal-dean. Une batez oldozten jarri giñan Sabiñegaz. Zein zan Sabin? Zer egin zuan? Maixuaren aurrean ote gaude?

Bai, alaxe genden. Ontan gaudela, Zelaya adiskideak ekin dio Aitagureka, ta zarauztar abertzaleok apalki erantzun. Bai txoko garrantzitua Sukarrietakoa! Zenbat oñek zapaldu duan, ta zapal-du bear duan oraindik!

Agur dagoigu txoko entzutetsuari, ta aurrera, aurrera beti. Bermeo degu bazkaltzeko izendatua. A zer ongi etorria egin digu-ten arrantzale bikaiñak! Txalo txaloka artu gaituzte. Bermeori bi-ratxoa eman ondoren, bertako abertzale batzuk zuzendari giñu-zela, batzokia ikustea pentsatu genduan. Sartu bagiñan sartu giñan. Zer da ordea ura! Egia da, oraindik bukatu gabe dago; oraintxe ari dira bete betean da.

Alde batera ta bestera begiraka gaudelarik, Urkidi bermeo-tar euzko idazle gaztea ezagutzeko era izan genduan, ta gazte txalogarria zuzendari degula ederki ikusi ditugu bazterrak. Ango aretoak, ango antzektokia, ango ikastolak, ango edertasuna. Arri-garria benetan Bermeoko Euzko Batzokia.

Olakorik ez degu ezagutzen; orain artekoak orrek mendera-zen ditu-ta. Euzkadin ez ezik Españañan ere politika arazorako bai ote olako biltokirik? Zalantzan naiz.

Zarauztarrok arritu giñan, baña an sartzen diran gañuntze-koak ere arrituko dira. Artarañokoxea da-ta!

Apetittoa ere egin zaigu ta *Café Express* deritzaion ostatuan sartu giñan bazkaitarako asmoz. Bapo jarri giñan! Zerbitzalea ere ez gendun mutua, baña ez an giñanak ere.

Ango abestiak! Ango poza! Uriarte oleskaria ere antxe ezagutu gendun.

Agur Bermeori. Erri guzia an dala dirudi atzetik.

Begoñan urrengo geltokia. Ama garbiari otoitz egin ondoren, Bilbaoratu gera. Bertako Euzko Gaztedira bixita egin, ta irten Gipuzkoaruntz. Erri guzitako aberkideak agurka ditugularik eldu gera Elgoibarra. Mirentxun etxea gendun apaitarako autua. Ezta toki txarra. Bein bidea ikasi gendun, ta emendik aurrera ongi dakigu. Jan da kontuk esan batera egiten gendun. An baiziran Aberri, Ixaka, Aixerixa ta konpañia. Alaitasunez bukatu angoa ta pin eldu giñan geure txokoraño. Olako egunik igaro degunik ez degu gogoan.

Zuzendaria izan alakoa. Urretan ere ez da ordaintzen Zelaya adiskidea.

# Poxoliñak Zarautzen

El Día, 1933-09-13

---

Goiz partetik bai eder! Goiak urdin, itsasoa bare. Ene, kezka bat. Estropak Donostin. Bultzia ta berebillak betean dijoaz, ta, jakiña, auxe Poxpolin jaien antolatzaileen kezka. Galdetu bestela Txaranteli.

Zer ikusiko ote? Jendetzarik izango ote?



Eldu da arratsaldea. Len eder ta urdin ziran goiak trumoitzen ta asarretzen asi dira. Au izan zan jai orren ardura gendunok berriro kezkatzeko zioa. Bateko bat eta besteko bestea oldozten gendela, jendea txartel zale zan, ta Poxpoliñak txistu-soñu alaiz inguratu ziranerako plaza bete, alajaña!

Pra... pra... pra... Ereserkiakin asi ta azkenengo *Lauburu dantza* artarañoako danak irrintziz ta txalo burrunba ikusgarritz artu ziran. Bai gogozkoa igandeko kutuntxoan saioa. Ango edertasuna! Guzia gozo, guzia bikain ta arrigarri. Baña askoren iritziak eskatu, eta *Ikurrin dantza*, *Lauburu dantza*, Gurrutzagan triki-trixa ta *Itsas olatuak* izan oi dira gogozkoen. Ango txaloak! Ango itilluak! Artarañoakoxeak ziran lau zati auek!



Biamoneko iritziak ere jaso genitun.

Enparantzan izan etziranenak, alegia. Baña, zer arraio zenduten atzoko ortan? Egundo olakorik! Ez dik plaza orrek olako sarrerik ezagutu.

Ez, noski, berriz ere. Abertzaleak zerbait antolatzen dutenean ez pentsa gauza txikirik ikustea. Zuek bezelako gaintxuri askok laguntza ukatu arren, ez gaituk lotsagarri irtengo. Aspaldi aztu zitzaigun gauz txikiak egitea.

Irakurle, ona nola erantzun diogun tenta naiez inguratu zaizkigun bi edo iru areriori.



Bai aberkoia, bai biotz ikuitzallea Poxpoliñen saioa; nola abesti ala dantza. Asko ez badare, beste alderditako batzuk ikusi genitun txalo txaloka.

Abertzaleokin ezer nai ez duten oietakoak txaloka alajaña!

Euzko abertzaleok ematen diegun baño garrantzi geiago eman bear diegu gauza aueri. Bost edo sei mitiñek aña lezake onelako batek. Naiz gogai bat izan, naiz bestea, euzkotarra izan ezkeru beintzat, barren barrena ikuituko baidio. Artu bedi ardura bizi au. Entzun bezate Gipuzko Buru Batzar ta Idazkaritzak. Itzaldi aberkoi bat antolatu ta iñola inguratuko ez lirakenak, eunka dijoaz olako jaialdi batera. Len asko itzegin dan errietan jarri bitez onelako ikuskizunak; jarri bitez Astigarrako abertzaleak jarri zuten bezelako erromeri koxkorrak, ta ziur izan, aberriari gorantza izugarri bat emango diogu, biotz asko geureganatuko ditugu.



Txalo ta txalo berriro Poxpoliñari.

Gora ta gora kutuntxoari. Igandean lortu zuten bezelako gurenda bikañak opa dizkiegu aberriaren itzaropena diran txikieri.

Txalo entzungarri bat baitere ainbat lan egiten duten emakume irakasle lirañari, txalorik burrundatsuen On Ramon agurgarriari.

Txalo bat, euskaldun guzien esker biozkorrenak irabazita dagonari. Txalo bai, gure itz eta idazkortzak bear bezela goralduezin lezakenari.

Txalo erri bakoitzean irudi bat bear duanari. Txalo azi bikain onen ereilleari. Txalo, txalo, on Ramon!



# Oporketa ondoren

*El Día*, 1933-10-02 / *Euzkadi*, 1933-10-06

---

Nere irakurletan ezta inor izango, noski, Zarauzko Euzko Langilleak egin berria duten oporketaren berri ez duanik.

Gipuzkoako izparringiak argi ta garbi itzegin dute; batez ere orain eskutan degun *El Día* maite onek. Gure izparkari azkarrak ongi adierazi zigun emengo Euzko Langillien auzia. Beraz ezta itxura oporketa orren zio edo motiboak esaten ni astea.

Itz batean esan genezakena da: Zarauzko Euzko Langilleai zakurrari ainbat etzaiela begiratu. Bazter guziak ondatu zale izan diran ujetista ta gañontzekoak aurrera, ta erriko seme bikain sendoak atzera.

Gaurko egunean sarri gertatzen dana da auxe:

Besteri on egiten asi, ta nor bera txar gelditu.

Gure langille zintzoai ori gertatu zaie *Beristain ta Lagundia* ola edo fabrikan.

Gero azkenik, onez ezer ezinda, txarrera jo bear izan dute. Baita egin bear ere olako zio edo motiboa danean. Ogeita amar sendi edo famili ez dira nolanai kale gorrian gose eukitzekoak.

Arrazoa danean, ez orixe! Garbi dago? Bai? Ia ba, goazen aurrera.

Argitu zan asteazken goiza. Goiztar ziran gure langilleak ere. Gure erriko lantokiak utsik ziran. Euzko Langilleak opor egin ezker bestelako asko ezin izan.

Ta oraintxe Euzko Langillien indar ikaragarriz etsaiak arriturik, ta lantokian sarrerik etzutela izango etsita zeuden denboran, emen dira "Asaltoko" edo dalako oriek.

Auen lana, jakiña, arrapatzen zutena jo ta eratxi. Artean jendea pakean bazan ere, berealaxe berotu zan. Ura erriaren egon eziña!

Bat jo zutela, ta bestea espetxeratu, bazan zer esana. Amabost ta amazapi urteko gaztetxoak ere iru ta lauren artean zi-

gortzen zituzten. An etzan iñorentzat errukirik. Len esan dedana: Arrapatzen zutena jo ta eratxi.



Zarauztar langille zintzoak gauzak ezagutzen dakite. Asaltokoak zer izan zeizkian lendik ere pentsatzen genduan, beñere ikusi ez giñuzen arren.

Geien bat arritu gaituana gure alkate jauna izan da.

Bi kamionka Asaltoko Zarautzen, alajaña!

Zerbait naspilla edo oker garrantzikoa izan ezker, ixiltzekoa da, baña ezeren txintik ez dala, irurogei Asaltoko Zarautzen ikus-teak nola ez arritu? Ori aunditakoa da. Egun ortan emen ziran txapel oker ta txapel gorriak naikoa ziran errian sortu zitezken okerrak zuzentzeko.

Ez degu uste ezer asko izan zitekenik. Iñork lanik etzuala egingo, bai, ori ziur dakigu. Emengo Euzko Langilleai aurka egitekorik etzan egun ortan. Ausardia bear gero!

Baña, badakizu irakurle, agintariak aurrian diran tokian ez da gero beti giro.

Zarauzko ola edo fabriketan etziran berrogei langille izango guzira jota ere. Lana egin zuten askok derriorrean gañera. Zortzi edo amar guardia jarri ate ondota ta olaxe al zan moduan. Emakumien lantoki batean ere dozenerdi bat barrundatu giñuzen beintzat. Langillien gurenda ikaragarria izan da.

Erri guztia aidatzeko ainbat guardi, ta alaz guziz ere erria lanera gabe. Egundo ez da ezagutu olakorik.



Gaitz bildurgarri batekin dagona, sendi guzia nastu ez dezan aparte jarri oi dan bezela, berdin gelditu dira euzko sendi zoragarria nastu zale ziran txatxuak. Langilleak ongi artu dituzte orko maltzurkerian arrastoak. Ongi dakite gure endore edo alkatea nola portatu dan.

Bai gure txinel edo aguazil birek dutena ere. Oien ibillera ezta beingoan aztuko.

Beatzakin erakutsiko dira geroko denboretan.

Ujetista sonatu batzuk ere Asaltokoen erakusle bikain izan dira. Bai, gizona, euzko langilleak zein ziran erakusten, ondoren zigortu zitzaten. Ongi zeok!



Irakurle, jendea geien bat arritu zuana, Euzko Nekazarien bazkunan erabakia izan zan. Esnerik ere ez baizan jatxi. Etsaiak bai marmarra, arraiok ezpaitu!

Gure nekazariak gizon ere gizon agertu ziran.

Alkartasunak zer lezaken ongi ikusi da oraingoan. Larri ziran berriketan aritu bearreko iñozoak; etzuten nunbait olakorik uste.

Sartu zan esne pixka, bazkun ortan ez dauden lau edo bost etxetakoa izan zan.



Gaur itxaropen ona dute gure langilleak, ta onetxek pozten gaitu.

Zorionik biozkorrenak damazkiogu Euzko Nekazari bazkuna-ri. Berdin Euzko Langille elkarte indartsu paregabeari. Zorionak guzi guziori.

Asarrea, erria guardi biraulari zigortzalez bete duanari. Egu-nero dabilzkigun litxarreruak arrapatzean zorionduko ditugu. Bitartean...

# Udazken, udazken

**Euzkadi, 1933-10-05 / El Día, 1933-10-11**

---

Udarak iges dagi, ta asko naigabetuko dira au dalata. Izan ere, ederra izaki udara.

Txoriño danak geurekin abeslari, ta geroni ere txori biurturik, zoratuta. Gero negu beltzean gure janari berezi izan bear dute-nari begira begi aundi gaude. Arto-babarrunen indar zoragarriak alai gauzka. Igali edo frutuak urrena. Sagasti ordekek ere ikusi bear. Ori edertasuna! Sagarra erruz degu.

Gure maastitxoak ere zein aberats diran aurten. Udare ta gañuntzeko, guzitik ondo.

Gure nekazariak kontuak aurrez ateratzen dakite. Ukulluko ganau taldea udaran bai bikain, indartsu.

Negu beltzean zer?

Ondo, ez dago bildurrik. Aiton buru-zuriya sendi gazteakin, orra or belar onketan. Beste iru-lau, an arbiñen.

Or bestea, erremolatx jorran. Jesus, au gauza!

Euzko lurak nekazariz estaliak daude; ene, ori lan egitea. Itza eman diogu batzuri, ta urte polita dutela ta par irriz erantzun digute.

Goiko zelai ondoa lugorritzeko asmoak dituzte. Bai itulai po-lita beien aurrean. Jesus ba!

Segalari gogorak dira auntzko malda artan. Begira, begira... Ori dek sasoia, jo mutillak!

Euzko lurak beso bikain sendoak landuaz. Euzko itsaso za-bala, euzko arrantzale indartsuz ornitua. Urte polita aurtengoa –diote par irriz. Txoriño danak geurekin, ta geu txori biurturik. Ene, udararen ederra!



Guk, itsas-ertzetako erritxoan bizi geranok, udara bi moduta-ra artzen degu. Bata da pozgarri, ta bestera negargarri. Pozgarri

goian diodan guzia berekin dualako udarak; ta negargarri, ikusten diran zikinkerri ta nazkagarrikeriak izenik ez dualako.

Euzko gaztedi kementsua ondatzeko udara baño oberik ezta, kristautasun ta sinismenetik txirrist egiteko, ezer oberik ezin aukeratu. Euskaltzaletasun ta abertzaletasunak etsai oberik ezin aukeratu. Euskaltzaletasun ta abertzaletasunak etsai gogorragorik ezin aurkitu. Arrixku gorrira garamazki udarak.



Geure begiz emen Zarautzen ikusitakoak ere ez dira makalak. Zenbat nabarmenkeri!

Aragi geienak bixtan. Dantza zikin danak agirian.

Erretira ederrik bai, Jainkoaren izenean. Goizeko ordubik ta irutan emakumez beteak gure kaleak.

Ibillera narratsak, jazkera gaiztoak. Esan ez leike guzia.

Negargarri ta samingarri au benetan. Tentazio gaiztoari eskañitako aldia dalako. Gaizki ikaste guziaren iturlari dalako.

(jarraitzeko)

# Udazken, udazken

**Euzkadi, 1933-10-12 / El Día, 1933-10-11**

---

(jarraipena)

Gaizki ikaste guziaren iturburu udara -nion oñengo idazkian. Ezta gezurra.

Badirudi euskaldun izateari utzi diogula, euzko abenda edo arraza urrutiratu dala, odolez aldatu gerala.

Etzetik irten da kaleratu gera. Bazter guziak atzerritarrez josiak. Jakiña, gure izkuntzak oiengan eztu lekurik. Abenda askotakoak nola ikertu gaituzten, bakoitza berean mintzatzen da.

Euskaldun mordo bat noizbeinka, ta guk belarriak tente. Euskeraz ari ote?

Bai zera! Uda partean euskeraz itzegitea ordinarioa gogotik. Erderaz jo eta keia!

Pixka bat dakiñak, aien astakeriari parre algara puxka bat egiñagatik, zer ardura! Jardunda ikasten baita.

Taberna zuloan dauden aitonak ez bada, iñork eztu euskerik aitatzen.

Nola ba?

Udaran euskera? Etzeok gaizki...



Enparantzan gera.

Besterik aintzakotzat artzen ez dakigu. Erriko gaztei begiratzten diegu, erriko gazteai.

Ikusten aako ura? Ikusten orroko ori?

Tokatzen ere bai!

Olaxe, eldu gogor, erori ez dedin.

Ooiii!

Ezta ezer, ezta ezer.

Zer ajola dio ba oña zapalduagatik. Udaran baltsean egin gabe ezin egongo da beintzat. Zenbat olako, irakurle, zenbat olako.

Erriko jendean aurrean inõolaz ausartu gabeko baldarrak, bai pozik bestien anparoan.

Eliz-bidetik urrun. Irakurtze onetatik berdin. Batzokiak utsik. Euzko oiturak iges eginda. Euskera basoratuta. Guzia arro, guzia fanfarroi. Atzerri zaletasunak aizatuta erdi ero gabiltza.



Joan da ordea zorioneko aldi ori. Erritar utsak gera berriro. Zer gertatu da?

Artarañoko okerrik ez bada ere, naikoa. Len ogia baño obeak ziran bost edo sei gazte atzerri-miñak aizaturik, orra orain etsai biurtu.

Orra uzkurtz edo relijioa ukatzen, orra aberria iraintzen. Nai-ko okerra ezta?

Uste baño aundiagoa. Joan dan urtean lau ondatu ziran; aurt-ten sei. Urrengoan amar, ta ia nora dijoan.

Udazkena degu, ta lana egin bearrean gera. Lan gogorra gero. Oartu gaberik geu ez gaitzela ortaño okertu beintzat.

Euzko abenda goraldtu ta ixpillu garbi jarri bear degu, ta orta-ko euskaldundu egin bear. Euskera zarrari, esna adi! esan bear.

Euskaldunak! Goruntz biotzak! Ornitu gaitean geure izaera-tzaz. Bildu batzokietan, lagunartetan, sagardotegietan, elizetan, ta nunai, itzegin euskeraz, abestu euskeraz, oldoztu euskeraz, ta bizi euskeraz. Euskaldundu gaitean gogoz.

Orain milixkatu dezagun gugandik egatu berri dan olerkari gurenak eztiki idatzi zuana.

Lizardiren txanda: Ondar Gorri.

Azaro lena:

Uda –euzko itsaso– baitut ibili  
gerizpe atsegin bat nuela untzi  
ondoaz legorra yo dit emeki  
ondarreta bat dut soil eta gorri.

(jarraitzeko)

## Udazken, udazken (Amaia)

El Día, 1933-10-19

---

Goazen bada aurrera, euzko olerkari gurenakin batera.

Itsasoak bai baitu, urrun ertzean,  
urre gorizko bide goenean,  
legor bat –odol-uts inñularrean  
Eguzki nondik sar atsedenean.  
Aingura bota dut arratsaldean,  
oiña dut ezarri udazkenean.



Berriro igo nauzu ene mendira  
oroigarri zarrei maitez begira...  
Andre Lurrak yaulki ditu igaliak;  
zurbil dauka arpegia, itzal begiak.



Gurdibi bakan-ibil ertzetan  
untza dago oraindik, nagi, loretan.  
Or emenka, lore zimel gainetan,  
ingumak ari, gozo miazketan...  
Mitxeleta gorri, zarpil egoak;  
maitatzeka atsotu diranetakoak.



Kemenak uts-eta nekez bainoa,  
zalantza dut zartu naizelakoa...  
Udazkenak aulagotzen dit atsa,  
orbelak ozenagotzen oin otsa,  
aldapak larriagotzen biotza...  
Lenetan ez bezin autsia natza.





Arin beera, itzuli nago. Ixurkia  
basoz ta garoz yantzia:  
noizbait orlegi, gaur nabar basoa;  
tarteka gorri garoa.  
Beste gain erpin bat bazan agiri  
len eze, gaur burni meatz iduri.  
Lurraren azala erdoitua da,  
ala dut odola begietara?



Aizea dabil, busti setatia:  
lurrari daragio ots negartia.  
Larreko xomorro ozenen zantzurik  
ez da iñon. Aspaldidanik  
ixil zen olerkari yaun kilkerra  
aixtian, alper eder den txitxarra.



Ta zuek, nora txoriok saldoka  
zoazte, iranduz urrundu bearaka?  
Adiskide urretxindor il zaizute,  
ta aren ilkizunetara  
–egoak ikara–  
berandu beldurrak al-zaramate?



Oi, zein dan ituna  
beera-bear au!  
Nik ez nai eguna  
biurtzerik gau!



Giroen argia galtzerakoan  
len oyartzuna dut ozen gogoan.  
Iru giro izanok, nik dei ta atozte,  
nork zeren saria ekardazute:  
batak itxaro, besteak berbizte;  
irugarrenak bizitza indar bete.  
Oro bear zaitute ene biotzak,  
len min baidamada neurtitz zarren otsak!

Ona emen garbiro gure olerkariak udazkenagan ikusi ta nabaritzen zuana. Olerkariaren euzko esaera ta oldozpen berdingabe auek sutu bezate euzko biotza.

Eman bekio bere izkuntzaganako maitasuna urratu eziñekoa.

Ezagutu beza abenda zarraren bikaintasuna, ta mendirik goienara igota, olerki sorta au irakurriaz, Euskalerra zarraren zoragarritasunak lo amesgai batez artu beza.

Gure argi-izpiak orduan asiko dira.

Udazken, Udazken...  
euzkoak pizten.

# Euzko Araudia eta euskera

*El Día, 1933-10-26 / Euzkadi, 1933-10-27*

---

Gai auxe ikuitzea komeni dalata nago. Ikusi dezagun euzko araudiak gure izkuntzari ematen dion aurrerakada zenbaterañokea dan.

Bere amaikagarren arauak dio:

Euzkotarren izkuntza euskera izanik, erderak ainbateko nagusitasun ta eskubidea izango du Euzkadin.

Españaren edozein alderdikin dituan arazo ta goraberatan, au da, Euzkadiko gobernoak ta Españakoak dituzten eginbeurretan izkuntzaburu erdera izango da. Onek esan nai du kanpotarrakin ezer degunean erdera buru, baña emengo kontutan, euskerarekin berdin.

Euzko lurraldeko bizilagunak, euskera erabiltzeko eskubide osoa dauka, nola zuzentza auzitegietan (Tribunal de Justicia) ala jaurletza dutenen aurrean (Administración). Jakiña, au Euzkadiren barruan egin al izango da.

Jaurletzaren ta Epaikintzaren agindu ta asmoak (Administrativo y judicial) euskeraz ta erderaz argitaratuko dira, euskal lurralderako diranean.

Euskera egiten dan tokiko ikastoletan, bi izkuntza oiek erabiliko dira.

Norako, ta egokiña zer dan ikusiaz, Aldundi edo Diputazioak artuko ditu bere erabakiak.

Lenengo ta bigarren irakaspena (enseñanza), bi ele oietan eman leike, baña Erkal Laterkerak (Constitución de la República) ezarrita dauzkan baldintzatera makurtuaz.

Ta euzko lurrean irabazbidea daukaten Jaurletzako ta Epaikintzakoak (Administrativos y judiciales) euskera jakin bear dute.

Araudi onen legeak jartzera dijoazen garaian kargua daukatena, ta euskeraz ez dakitenari, ezagutzen zaie guzia; baña bost urte barru ikasi bearra daukate jarraitze ezkeru.



Beraz, irakurle, garbi ikusten da Euzko Araudiak euskera ta euskaldunori dakazkigun onura ta eskubideak.

Gaurtik aurrera ez degu lotsatu ta kizkurtu bear orain arte bezela.

Araudi edo estatuto au ekarriakin, epaikari edo juez batekin ulertzeko ez degu lagun bearrik izango.

Sekretario bati itz emateko, erderaz ongi dakianan billa ez gera ibilliko.

Geure etxeko arazorik garrantzizkoenak beste baten bidez ez ditugu adieraziko orain arte bezela.

Iñungo langille edo enpliatuk ez digute ixeka ta burlik egingo, oituak dauden bezela.

Beste edozein aña izango gera. Ordutik euskera jabetuko da Euzkadin.

Auxe beste aurrerapenik ez izatera ere, euskaldun dan-danak eman bear luteke bere aldezko autarki edo botoa.

Gure aurrekoak bazekiten gutxiagogatik arrixkatzen.

# Eldu da ordua

*El Día*, 1933-11-05

---

Azaroak 5, 1933garren urtea. Egun gogoangarria euskal edes-tirako. Egun gogoangarria euzko abenda zarraren eskaria betetzeko. Egun zoragarria, larogeita amalau urtez itun ta negarti dauden euzko baso ta mendiak alaitzeko. Egun zoragarria, euzko itsasoan orru zakar nabarmenak baretu ta bere leguntasunean berriro ikusteko. Eldu da ordua!

Emakumea, zutiñik oraintxe!

Gizonezkoa, ernai ta bizkor gaur, egunari dagokion bezela!

Mendigoizalea, lanera goizean goiz!

Euzko langillea, eldu lanari bestien mallan!

Nekazaria, gertu gaur zu ere!

Guziontzako dago zer egin, guziok saiatu bear degu.

Kalera goizean goiz. Estatuto alde bikain jokatzera datorrena zoriondu ta esku emanaz besarkatzera. Aurka diraden txatxu argalak zaitu ta betiko gogoan izatera.

Euzkotarrak, eldu da ordua!

Ikusi dezagun guzien gizatasuna, era ederra dator-eta.

Euskaltzale eta fuero zaleak ere nabarmendu bearrean dira.

Gaur Euzkadiren aurka agertzen diranak, beatzarekin erakutsiko ditugu beren denbora guzian. Ikusiko da orrelakoak nor diran.

Iñoizko denboran katoliko batasunan eske badatoz, obispo jaunak erakutsiak ontzat artzen ez dituztenak ez dirala katolikoak esango diegu.

Uuuu!, urrutira etsai maltzurak.

Zaituko ditugu Oriol ankerraren jarraitzalleak. Eldu da ordua!

Euneko larogeita amar atera bear ditugu, gutxienez.

Gora biotzak!

# Igande gogoangarria

*El Día*, 1933-11-11

---

Egun gogoangarria –nion oñengo idazkian–, ta alaxe izan ere igaro dan igandekoa. Azaroaren bosta urrezko izkiz idatzia gelditu da euzko edestian. Iru erkitako euzkotarren gogoa argi ta garbi ikusi baita.

Oraingoz, euzko araudia zan erriak eskatzen zuana, ta euneko larogei euzkotar pasatxok bere aldeko gar bizia agertu dute igaro dan igande ortan. Arritzekoa Euzkadik araudianganako zeukan zaletasuna. Zerbait gauz aundia izango zala pentsatzen genduan, baña orrenbestekorik ez genduan uste. Geurea egin degu. Gora Euzkotarrak!



Gure Zarautz maite onetan ere saiatua da jendea, ta arritzekoa auxe ere.

“Zeruko agintari” izenez ezagutzen diran karlo, integro, tradi, monarkiko, Alfonsina, Jaimista, Etxealde, guzien txokoa baita.

Jende mota orrekin badu pama Zarautzek.

Oraingo ontan azpiratu gogorra artu dute orregatik. Agure oien kazikismoa iges dagi bein betiko.

Ongi ikusi genduan igandez. Guzia zeñi esker?

Guzi-guzia ez bada ere, geien-geiena basarritarren esnatze oni beintzat.

Auteskunde denboran mendi gañak berentzat bazituzten gaur arte, orain aldatu dira kontu oriek. Euzko Nekazari bazkuean izena emanak dira geienak (geienak edo guziak). Zarautzar nekazariak gaur badakite pausoa nora ematen duten. Ez daude len bezela markes edo kondean erabakian zai botoa emateko.

Lagunik onenak berak dirala ezaguturik, Jeltzale zintzoen aldamera dataz, alkartasun gogo ta euzko usai berezikoa sortzeagatik.

Igandean ere ori ikusi zan. Goizeko zazpiretarako eskola aurrean ziran ainbat euzko nekazari.

Aien lanerako gogoa!

Zarautzen basarritarrak bat ez beste guziak eman zioten araudiari autarkia (basarritarrak edo basetxeak, alegia). Beraz esan gentzake osorik etorri zirala.

Gora zuek, anai biotzekuok!



Txalogarria baitare, abertzale ta euzko langillen lana. Etziran makal saiatuak. Gaztedi kementsu ura ikusita edozeñek esan zezaken Zarautzen ez dirala emendik aurrera iñoren bildur. Ez orixe! Bejondaizuela!



Ta zer esan emakumeagatik?

Jesus milla bider! Oek dituk erremintak!

Auetzek bai balio dutela. Etziran ethezuloan egon zale egun ortan.

Goizean zazpiretan asi ta arratsaldeko laurak arte zenbat autarki inguratu ote zuten? Jainkoak jakin!

Geiena oiek ekarri zutela ezin ukatu gentzake beintzat.

Tolosar politiko zar batek zion, makiñabat auteskunde ikusi ditula berrogei urte ontan, baña igandez Zarautzen zana bezin ederrik ez. Emengo gaztedia ta emengo lan egitea, noski! Zoraturik zegon gure gizona, ta zoraturik gu ere.

Zarauzko Emakume Abertzalien lana ez dago adierazterik. Aberriari gogotik ekiñak ziran egun ortan.

Urrengorako ere trebetu dira beintzat emakumeak botoa emateko.

Araudia ongi aldeztu duten gizonak jarri bear ditugu urrengoan, ta gertutu gaitean gaurtik. Lanera berriro.

Gora Euzkadi!

## **Aiako nekazari edo basarritarrai...**

*El Día*, 1933-11-12

---

Euzko araudi edo estatutoan gurenda alaigarri onek, basarritarrai ez dio gutxiena zor. Zalantzik gabe basarritarra baita geien bat saiatua. Euzko Nekazari bazkunan lan egitea bai txalogarri. Euzkotar guzi guzien esker ona irabazia dago alkarte au, ta bertako buru diran euskaldun zintzo begiragarriak artu bitzate idazle txiro onen zorionik biozkorrenak.



Aiako nekazariagatik zerbait esan dezagun, nere ustez ongi merezia dute-ta. Arrigarria benetan Euzkadiren askatasun zatia lortzeko, au da estatutoa aurrera ateratzeko Aia gain zoragarri ortan nekazari jatorrak zeukaten trebetasuna.

Gipuzkoako erririk zabalenetako bat izanarren, ankan gañean ibiltzeko diña ziran guztiak inguratu baiziran boto ontzietara. Zer edertasuna, Aiak dituan basetxe guzitako ate zabalak irekirik, gaztien kontu etxea utzirik, aitona-amona buruzuriak an aurkeztea! Zer edertasuna ainbat senar-emaztealdi an ikustea! Gauzak ain ongi antolatzen saiatu ziran jaunak artu bitzate Zarauzko Euzko Gaztediaren eskerrik sutsuenak. Eskerrak, *El Día*-ko izparkari azkar ta bere lagunai. Barka izenik ez jakiña.

Ta gertu berriro ere. Illaren emeretzia urrean degu. Ain zintzo joka zeraten nekazari anaiak, eldu lanari!



# Eskerrak emanaz

*El Día, 1933-11-23 / Euzkadi, 1933-11-24*

---

Ezer ez dezula jakin, irakurle? Kontu politak badira ba!

Abertzaleak nagusi, alajainkoa! Olakorik...

Orain bi urte Zarautzen esan balitz gaur abertzaleak izango giñala erriko buru, Santa... izenez asten dan eroetxera ez dakit ez ote giñuzen eramango. Geiegi ezin pia beintzat.

Zer dek eta orain geu nagusi, geu jaun da jabe. Ikaragarria da ori, gizona!

Emengo udarako martxa ikusi, emengo duke ta markesai begiratu, ta oien laguntzalle ugariagaz oldozten jarrita, au gertatuko zanik gezurra dirudi, gizona!

Baña alaxe da ba; orrek ez dauka erantzunik. Erria geurekin dago, geu gera nagusi, au da, ABERTZALEAK!

Igandeko gurenda izugarria izan zan, bosteun da irurogei autarki edo boton aldea kendu giñun urrenekoari. Beraz, ezagutu da etzala bildur aundirik. Ez arraioa!

Ta emen ibilli dan paltsikeriak ez dauka izenik. Uskurtz edo erlijioa izkillutzat artuta jokutzen dan txuri jende onek ikaragarriak esan baiditu abertzaletasunagatik.

Berak dirala katoliko bakarrak esan dute basetxe ate guzitan.

Oien aurka botoa ematea, aingeruari ukatu ta deabruari eskaintzea, noski.

Estatutoa etortzen bada, elizako ateak itxiko dirala.

Gotzai edo obispo jauna indizioakin erotu egin zutela, ta nik al dakit zenbat nasketa.

Guziak ez dago esaterik beñepein.

Gezur zulo guziak, egin dituzten maizter beartze guziak, eman dituzten oinkada zital guziak, guziak, guzi guziak alperrikakoak izan dira.

Euzkadi osoan bezelaxe, Zarautzen ere sartu da abertzaletasuna, ta bein abertzaletasuna biotzez nabaritu ezkerro etzaio begi-

ratzen maizter edo nagusia dan, etzaio begiratzen txuri edo beltza dan, abertzaletasunez sutu ezkerro, aberriari laguntzen zaio-ta. Ori gertatu da Zarautzen. Ezeren kezka ta bildur gabe jokatu gera ta emendik aurrera Zarautz Jel Alderdiarentzat izango da.



Bear bezela ezin gentzazke eskertu gure gizonen gurendarako ainbat alegin ta saiatze egin duten anai basaritar gizarajoak. Zarauzko gurenda oieri zor diogu oso osorik. Mendi gañetik artalde ugarian antzera jaisten ziran nekazari taldeak, gure gizonak, euzkotar zintzo begiragarri oriek, ezbairik eta zalantzik gabe aldeztu dituzte. Gora zuek, anai maitiok!

Emen kalera etorrita, batera ta bestera autarki billa saiatu zeratenok, eskerrak baño zerbait geiago merezi dezute, ta guk zarauzkar abertzaleok etzaituztegi aztuko. Euzko Nekazari bazkunekeo lendakari prestuak, ta gañuntzeko bazkunekeo jarraitzalle guziak artu bitzate bein da berriro Zarauzko Euzko Gaztediaren eskerrik sutsuen ta maitekorrenak.

Berdin, Euzko Langilletako lendakari zintzo ta beste bazkide guziak ere. Auen indarra nabarmendu zan beste guzien gañetik. Zuentzat gure txaloak.

Emakume A. Batzako lendakari ta bazkide guziaz ere berdin esan bear.

Euzko Gaztedi bulartsua, goruntz biotzak!

Oraingo ontan bezela jokutzen badegu, ez izan kezkek, ta ez izan bildurrik, txapelntza au ez digu inork kenduko.

Eskerrak bada biotz biotzez guziori, eskerrak Zarauzko erriari. Irakurle, arritu zaite, Zarautz bezelako erri batean gertatzeko arrigarria da-ta. 560 autarki edo boton aldea kendu diogu urrenekoari. Au dek marka, au!

Agur, anai maiteak.

Gora Euzkadi!

## Basarritarra ta abertzaletasuna

Argia, 1933-12-10

---

Auteskunde ondorengo egun auetan, badabil makiñabat iritzi. Gipuzkoan erri geienetako izparkariak erriaren zintzotasuna eskertzeraz datoz izparringi orritara..... oraingo bi gurendak..... zaizkatela uste dedalako.....\* eskertuaz abertzaletasunari egin dion laguntza; arrigarria da menditar anaien jokera zintzoa.

Basarritarra abertzaletasunera makurtze au nori zor zaio? Edo, lendik ere onela jokatzen al ziran?

Ez, irakurle, ez. Basarritarra gaur arte otza ta egira zuzendu gaitza izandu da. Ta nere ustez, askok izan dute otzak eta piagai-tzak izateko zio edo motiboa.

Auteskunde gaiakin ongi aspertua dago basarritarra; izan ere ainbat komeri ikusi dute.

Etorri boto egunak, ta ate ondoa kaletarrez betea. Batzuk etxerako argia agindu, besteak bide egitea. Ballarako eskola berri bat irugarrenak...

Etxe-nagusiak artaraño estu artu ezean, ainbeste gauzan aldera, ezbairik gabe eman bear autarkia.

Igaro da auteskunde bolara, ta... akabo! Parean pasa ta agur egiten badute or nunbait.

Argi, bide ta eskolak joan ziran pikotara.

Artarañoko egitekoak sortu zaizkigu, orain puska batean ezin liteke beintzat, gerora ikusiko degu (ori lenengo esan, baezpada ere). Onelakoxe erantzunak izan dituzte gure anai menditarrak.

Ta onela ez danean, etxe nagusian esanera makurtu bear, txakur zigortuaren antzera.

Amaika olako ikusia dago nekazaria. Poza ta samiña denbora gutxitan aldatzen ikasia da.



---

\* ..... ezin irakurri.

Ain ordu bearrean sortu zan Euzko Nekazari bazkuna. Auteskunde goraberak ainbat ez dirala, basarriko ontasun ta lan egiñak alperrik baidira bestela.

Bazkun oni esker, nekazaria ez da gutxi argitu. Bere gauzak zaitzen ongi ikasi du, arraiok ezpaitu. Zeñi ta zer ematen dion ongi daki gaur nekazariak; bai zein dan legezko ta zein ez dan ere. Orretzaz gañera, arrazoibidea duanean, edozeñi arpegia emateko trebetua dago bazkun ortako nekazaria. Batere kezka ta bildur gabe gañera; ta ez dio begiratuko itz eman bear dion ori aberats edo txiroa dan, aundi edo txikia dan, dardar aundi gabe esango dizkio esatekoak. Jakingo du bere burua beste nornairen neurrian jokutzen, ta bere denboran iñoren jopu izan nai ez duala aitortzen.

Bere gauzak, bere kontuak, bere ordain bearrak zuzen betetzen baditu, nor bere agintari? Au argiro argitaratu du Euzko Nekazari bazkunak.

Bere kontuak zuzen damazkian maizterrak ez dauka iñoren ankapean egoteko bearkunik.

Auteskunde gaiz berriz, Euzko Nekazari bazkunekoa danak, badaki nola moldatu. Gai au, urrengo idazkian agertuko det.

(jarraitzeko)

## **Basarritarra ta abertzaletasuna** (Amaia)

**Argia, 1933-12-17**

---

Auteskunde onetako basarritarraren jokaera zintzoagaz mintzatu nintzala, oñengo idazkian agindu nizuten, eta emen nator-kizute zorra betetzera.

### **Basarritarra ta araudia**

Azaroaren bosteko botazioa etzaigu iñoiz aztuko. Urrezko izkiz idatzita gelditu da euzko edestian.

Bere askatasuna galdu ezkeroz, au da, 1839garren urtetik onuntz, Euskalerra zarrak ez du egun pozgarriagorik izan. Nola ba!

Bergarako batzar gogoangarri artan, Espartero ta Maroto besarkatu ziran ezker, gure sorterra kutun au ondamentira itsu-itsuan zijoan.

Bazirudin bi besarkatzalle maltzur aiek, euzko jendea bere-tara jarri zutela.

1872garrean urtean berriro sortu zan gudatean maltzur asko baiziran. Asko, bai... millaka!

Jaunari esker, euzkotarrok argi izar arrigarria izan degu, ta iru erregeak izarra izan bazuten erakuslari ta zuzentzalle, guk euzkotarrok ere, Euzkadi guzian gaur argi egiten duan izarren jarraitzalle izan bear degu: Abertzaletasunaren jarraitzalle.

Denborak aldatu egiten nunbait. Estuasunera ezker, berriz, etsaiak ere gauza asko ezagutzen du, eta Españatar eta euzkotta-rran artean ori gertatu da.

Iñoiz ez da guri gure eskubideak eman nai dizkigunik. Mingañez asko ordea. Edonor, bera agintari jartzeagatik, zerbaiten alderdia izateagatik edo bestela, len esan dedana, estuasunean derriortasu-nagatik. Kondizio auetan jokatzen dira Españatarrak gurekin.

Gaurko unean larritasuna nabarrituta, araudi edo estatuto bat agindu ziguten euzkotarriori. Ori, nai izan edo ez, erriak erabaki bear zuan, ta bai erabaki ere!

Goazen arira

Iñor baño gogorrago jokatu da basarritarra. Euskaldunari biotzera itzegin zaio gai ortan, eta orretzek balio.

Euzko mendigoizaleak poztu bitez. Ikusten da zuen lanen garaitza.

Beste alderdiak orain arte izan ez dutena badu gauza ona abertzaletasunak: Menditan jai aberkoiak antolatzea. Kaletan bezelako jendetzarik ez da arkitzen, baña goi oietan biltzen diran ogei edo berrogei, Euskalerra ta euskeran alde esaten dana gogoan artzen dute, ta ez bakarrik gogoan artu, beren lagun ta adiskidien artean zabaldu gañera. Basarritarrari biotzera itzegin dio abertzaletasunak, ta abertzaletasunari biotzez lagundu dio basarritarrak. Arrigarrizko gauzak ikusi ditugu geure begiz. Larogeitaka urteko aiton-amonak ordubeteko bidean estatutoari autarkia ematera. Baña ori ez iñork estu artuta, aberriaganako maitasunak bultzata baizik. Gurdi gañean etortzen ere barrundatu ditugu. Berriro ere mendigoizale maiteak, igo mendi goitara, eta goi oietan zabaldu Sabin azia, askoz geiago ernezterik ez badago ere, sail txikirik ez utzi arren, ta guzia ernezakoan ere ez aztu basetxe txuriagaz, euskaldun guztion jatorria ori da-ta. Gora Araudia, eta gora bere laguntzalle basarritar zintzoak!

Asteroko bikain au ezin bear ainbat eskertu. Onek egin duan lana ez dago esaterik. Bai biotzera itzegin duala onetzek! Bertan saiatu diran marrazkigilleak, idazle ta zuzendariak ez dakite zenbat egin duten. Ez dakite-ta!

Jarrai beza *Argia*-k artutako bide zuzenean, ta jarrai beza basarritarrak izparringi berdingabe onen laguntzalle izaten. Gora gu!



Azkenik bazekin basarritarrak oraingoan abertzale ez diran aldunai botoa ematea len estatutoari emandakoa ukatzea zala, ta beragatik oso-osorik etorri dira euzko artaldera.

## **Bazkunaren gizatasuna**

Nekazari Bazkunaren gizatasuna bai benetakoa. Bere euzko usaia oso osoan azaldu du; Euzkadik laguntza aundia du auxe.

Baña Bazkuna zuzen jokatu da. Ez du bazkiderik ezertara beartu. Bere araudiak ez dala politikoa dio, ta ez izan ere. Ezagutzen ditut Bazkuneko lendakari ta idazkari diranak karlistentzat boto billa ibilliak.

Erri oietan, gañuntzeko bazkideak min artu dute, baña ezin ezer esan Bazkunaren izenean.

Beraz, Bazkunak ez du bere biderik urratu, pin jokatu da; abertzale geiena, edo ia dana, baña... besteri miñik eman gabe.

Gora basarritarra! Gora abertzaletasuna!



Txirrita eta Saikola lehengusuak (Ind. Ojanguren)

# Bertsolariak

*El Día, 1933-12-22*

---

Basarrik asteazkenean Donostiar Irradetxean esandakoa

Agur, irratentzule biotzekoak.

Bein da berriro ere emen nazute zorioneko tramankulu onen aurrean. Ta gaur euzko bertsolariatzaz labur itzezin nai nuke.

Gai onetan, nere esku balego, denbora geixeago beteko nuke, baña emen amar minutu saileko tartea bakarrik euki. Beraz, nik esan nai nituzken gauz asko ta asko ezin aitatu, denborik ez da-goalako.

Nere iritziz, tamalgarria da Euskalerrian bertsolariakin gertatu dana, ta (garai batean aña ezpada ere) oraindik gertatzen dana.

Bertsolariari zentzu ta adimen berezia eman dio Jaungoikoak. Izatez azkarra ta argia degu bertsolaria. Oso azkarra ere!

Zenbat aldiz arriturik ta ao zabalez euki dituzte euskaldunak! Zenbat aldiz, beren esan erantzunakin erdi zoraturik txalo-txaloka aritu geran!

Arrigarri ta zoragarriko asmoak dituzte beren bertsoetan. Ta oien kantuzko egokitasun ta bikaintasuna neurtu gaitza izaki. Berezkoa ezpada, jaiotzazkoa ezpada, milla erakuslari ta nai ainbat maixu izanagatik ere, ez dago bertsolaria ateratzerik. Ala artutakoa ez da egundo bertsolaria izango. Ikasiaz ez dago bertsolaria egiterik, berezkoa ezpada. Kontu egin, entzule onak, gutxi, oso gutxi jaiotzen dirala.

Euskalerrri zarrak bertsolariz kontaduri polita izan du. Baña... zer gertatzen da berakin? Tamalgarria. Garrantzi gabeko gauzetan nekatu dituzte beren adimenak.

Ardandegi ta sagardotegietan neurtu dituzte beren almenak. Ango ardo kontua, emengo neskazarra, ta alkarri soma alakoak esaten; askotan asarretzeraño gañera.



Tamalgarria, Pello Errota, Udarregi, Gaztelu Gorri, Ugarte, Prantsesa ta beste geiagon izenak goi mallara iritsi gabe urratzea. Tamalgarria orien jakinduri ta egokitasunezko iturri agortu gaitza orain beian gelditzea, garrantzi gabeko gauzetan itzaltzea. Tamalgarria, bai, milla bider esanda ere! Zenbat egin zezaketen beste modu batez jokatuta!



Aurreko bertsolariak jokera au izan dutelako, gaur ez da aintzakotzat artzen euzko bertsolari asko. Euskalerrian, len aitatu-tako gizon argi aien denboran baño euskera geiago itzegiten da gaur. Ta nola artzen da bertsolaria? Len esan dedan era ortan mintzatzen diran bertsolariak ez dira gaur aintzakotzat artzen.

Entzule maiteak, ori ez da bertsolarian egitekoa izan ere.

Euskera apaindu ta goraltzen, aberriari abesten, Abenda edo arraza indartzen, erriko jaietan iñora deitzen bazaiote, erriko zaindarian bizitza zerbait jakin ta berekin batean erria poztu ta onesten, iñongo gizonen oroimenak jaitu bear diranean, gizon orren lanak azterkatzen, ta beste olako gauzetan lenen-lenengo bear du bertsolariak, askotan, izlari askok baño geiago egin lezateke-ta. Bide ontatik jokatzen diran bertsolariak, Euzkadi gure aberri maitearen aldezerik bikañenak dira, ta onelakoak euskaldun zintzo guziak txalotzen dituzte.

Nolatan da orren ospegarria Enbeita bertsolaria?

Ez dago esan bearrik.

Euskera ta Euzkadiren aldezele onenetako dalako. Bada, gaur Bizkaiko uretxindarrari agurrik biozkorrena dagoit irratetxe ontatik.

Gaurko bertsolariak Pedro Maria Otañoren izena ere gogoan bear degu. Ai zer ixpillu ederra berau! Onek bai euskera ta aberriari abesten ziola! Erosi ta irakurri zazute *Alkar*, bere bertsolerki liburua. Bai biotz ikuitzallea. Ameriketatik aberri maitasunak bultzata zion:

Arbola baten zañetatikan  
sortzen diran landariak  
bezela gera Bidasoaren  
bi aldetako jendiak.  
Berdiñak dira gure jatorri,  
oiturak eta legiak,  
Ama Euskerak magal berian  
azitako senidiak.

Ama Euskera, bere semeak  
gu Ameriketara zenbat  
arkitzen geran, ta urrutitik  
maiteago degu anbat!  
Emen ez dago Bidasoarik  
ta beste trabik ez ainbat.  
Ama maitea indartu dedin  
bizi bedi *Zazpirak bat!*

Anai oleskariak, gogoan izan, ta jarraitu bide oni.  
Irratentzule guziori, ta batez ere zarauztar maiteori, agurrik  
biozkorrena.

Gabon-eguberri zoriontsuak opa dizkitzuet guztioi.

# Gero gertatu egite omen dira

Argia, 1934-01-04

---

Gezurra dirudi katoliko askoren arteko gaurko itsutasuna. Beren buruak beste guzien gain azaldu, beren ibilkera ta izakeraren geiegikeriz nabarmendu, jaki ta edari pin ta goienekoakin ase, arrokerizko jazkeraz estali, ta “ni katoliko eredu” esanaz nabaritzen ditugu pranko.

Langillerik eta beartsurik danik ere gogoratu gabe, ta beren alde zerbait egin bear danean bestaldera begirutzen dutela...

Eliz-buruak langille arazoaz eman dituzten ikasbideak ez dituzte asko estutzen. Ez komeni nunbait! Patrikak zaitzeko armaztat artzen dute askok erlijioa. Or dago koska.



Ori baño gogorrago dan zerbait ere gertatzen da ordea gure artean, katoliko barrutian esan nai nuke.

Irakurle zintzuok dakizuten bezela, Elizak zuzendu ez lezaken arazorik ez da gizartean.

Langilletasun gaiz itzegiteko ere gizon egoki ta almen ugari-koak baditu Elizak.

Baña, ai!, au da tristea. Gorriak ikusten dituzte bide ortatik dabiltzanak. Aita Gafo-k ere argi agertu du idazki sakon batean.

Erri batera itzaldi batzuk ematera aita Gafo joango ote zan susmoak atera ziranean, erri bereko erretore jaunari kristau zintzo oietako bat aurkeztu zitzaion, jaun ori ez eramateko esanaz. Sozialista omen da ba, noski...

Badakit lengo Dominiko baten edestia ere, langille alde jokatzen zalako. Geiegi ez luzatzearren utzi egingo det ordea.

Artetxe idazle argiak beste izen bat agertzen digu apainki; lendik entzuna degula ezin uka. Arbeloya Martinez deritza, Ovie-doko kanonigoa bera.

Orain amasei urte ta geiago idatzi zuana ederki baieztu da igaro berri dan eraso beltz oiekin, Asturias ta gañontzeko alderdietan.

Amaika asmo eder aterea ura ere, baña guziak baztarrera katoliko arteko berekoikeria bide.

Bestetan saiatzea alperrik zalako idazte utsari eman zion. Etorkizun latza idazteari, esan nai nuke.

Neronek ere badakit gaur oraindik egi garratz bi esan dituzte-la ta zer nola dabilten erlijioso altsu batzuk Gipuzkoan. Gorriak ikusiaz, irakurle. Elizaren izenean garbi jokatzera datozenai arrika emanez gabilta, ta etsai maltzurrai ainbat biotz berengana-tzeko erreztasunak ematen dizkiogu. Au itsumena, kristauak.



“Quadragesimo anno” ta gañontzekoak etziran asmo ortan idatziak. Entzungor egiten diogu amaikagarren Pio agurgarriari.

Leon amairugarrenak ere zenbat egi mardul agertzen dituan bere “Rerum Novarum” entzutetsuan. Munduko nazio guzien zorion aberastasuna lanetik datorrela esaten digu.

Ona Berdiaeff bizkorrak diona:“Iritsiko da une bat munduan langillea besterik izango ez dana”.



Lengo tristura agertu bear ordea berriro. Kristautasunaren altzoan alain egoki ezi bear gendukenok, gizon izateari utzi ta abere mallara goaz zuzenki. Jainkoaren bildur gabe baita gaur langillea. Gero gertatu egiten omen dira...

# Euskal-irratsaioak

**Euzkadi, 1934-01-13**

---

Ia ba agindu bezela zerbait egiten dedan. Ainbat gozoaldi edo atsegiñaldi igarotze asmo ori Zubimendi ta Luzear-en artean sortua zan. Oriek dira euskal-irratsaioatzaz lenengo zurrumurruak ateratako gizonak. Ta oldozten jarrita, bai gogoz artu zutela!

Bururatu ta lortu gañera nai zutena. Tximista baño biziagoak ditugu izan ere jaun auek!

Euskera goraldtu eta aintzaltzeko bada, kontatu orien laguntza; ortantxe ez dira amutsak eta.

Esan bezela oldozpen ori bururatu zitzaientean, bear zan tokitara jotzea erabaki omen zuten, noski. Ala egin ere.

Irratetxeko, Radioko buruanga zuzendu omen ziran garaiz, ta baita bertatikako baietza artu ere.

Aldundian da gañuntzeko tokietan arpegi eman ondoren, as-teko modutan zirala bereala ezagutu omen zuten. Oien poza orduan!

Baña, beste burutazio oker bat ere sortu omen zitzaien denboraz. Ez ote zuten iraungo, alegia.

Donostiako Euzko Gaztediko talde ontxuenak artuta egin omen zituzten dozenerdi bat saio, baño beste sei etzituztela egingo ta... oso bildur omen ziran.

Baña Aldundian laguntzarekin ta geure arreta biziarekin, bi urte aundi betetzeraño iritsi gera. Au esan duanakin batera, poz-argiak bultzata parre irri ederra irten dio Zubimendi jaunari.

Neu ere, berriz, zoraturik nauka pasadizoak entzuten.



Zubimendi au, euzko olerkari ta idazle trebea degu. Idazle bezela, izen aundia du berekin, bere idazlanak atsegiñak ta ulerterrezak diralako. Gure mintzo zarra ongi aztertu duala dirudi. Gaur ardura ori ezpadauka ere, *El Pueblo Vasco* gipuzkoar izpa-

rtingi ezaguneko orrialde bat bere gain izaten zuan oraindik orain arte.

“Aloña” izenordez badu idazki ederrik antolatua. Irakurle asko du Zubimendi jaunak, ta danengandik onelakoxe eskerrak lortu ditu.

Olerkari bezela ere gogozko zaigu.

Ez da zenbait bezela oso goienetakoa ta ego zabala, baña bai erri-olerkari jatorra.

Euskera ta aberrian alde zerbait egin bear bada, ez da atzean geldituko; lezazkenak egingo ditu, saiatuko dala esan nai nuke. Ain da gogotsua...



Luzear adiskidea ere piña degu ba, arraioak ezpaitu! Benetako euskaltzalea auxe. Bere bizitza osoan ala erakutsi du. Idazle errikoi apaña degu auxe ere. Euzko irakurle geienori gogozko zaizkigu jaun onek argitara eman dituan lan ederrak.

*El Día*-ko Euskal Orria bere gain dago gaur egunean. Orri ori berak nai lukian bezela agertzen ezpada ere, saiatzen ez danik ezin esango degu.

Nola irakurle ala idazlientzat ezin ohea degu jaun au.

Abertzaletasunan bidez euzko kultura zaletzen asi da gure Donostia ere.

Elerti zabalkunderako berriz, onak aukeratu bear, dakitenak saiatu bear, bestela lenean gelditzen dira ezjakiñak.

Zoritzarrez, zabalkunde orren ardura artzeko modukoak gutxi izan oraindik gure artean.

(jarraitzeko)

# Euskal-irratsaioak

*Euzkadi, 1934-01-18*

---

Oñengoan nion bezela, Donostia ere pittin bat euskaltzaletzen ari ote dan dirudi. Bear ainbat ez, zorigaitzez!

Ta, jakiña, orrelako erri bat euskaltzaletzeko, edo gai orretzaz zerbait aurreratzeko, erritarrak bear euskaltzale on gogotsuak.

Ta tamalez, euskaltzale on gutxi izan oraindik. Diran pittin oientzat berriz, lana buruzgain sortzen beti. Luzear da Zubimendi adiskideai au gertatu zaiote. Lana buruzgain! Ikusten ditugu jaun auek nola dabiltzan.

Bateko euskal orriak dituztela, besteko antzerki euskeratzea dala, euskal lezioak eman bear dirala, irratsaioa dala, au dala ta ori dala, erotzeko ainbat esate baterako. Au guzia dalata, gaxoaldi gogorrak izan dituzte bi jaun auek.

Illabeteak igaro dituzte lanketa guziak baztertuta.

Auldadeak atxitu baizituan!

Eskerrak ordea, alkarri txanda egiteko moduan gertatu zira-la. Bata bestean utsuneak egoki asko bete dituzte.



Baña, jaunak! Badegu irugarren bat ere zerbait aitamen ematea merezi duana. Ez dek geldi egoteko ona auxe ere!

Txomin Olano pianista sonatuagatik ari nintzaizu, irakurle.

Euskal-irratsaioan asiera ta azkena abertzale zintzo ta ereslari ospetsu onen gain izaten dira.

“Jaiki jaiki”... doñu alaiakin asi, ta “Agur jaunak”in bukatzen digu; pianoan erreztasun izugarria du jaun onek.

Biribilketa ta erestaldi ederra pranko badu joa.

Pieza biribil oietako baten ondoren, –Txomin Olano zenduten pianoan jostatzen–, entzun nion bein Luzear-i.

Ez dek gezurra! –nion neurekiko–. Orretxek egiten zioke nai duana pianoari!

Larogei t'emezortzi aldiz azaldu da Txomin jator asko Donostiar irratexera! Ez pentsa ba jolasa danik, konpañeo!

Olano au ere, beste biak bezelaxe, euskaltzale itsua degu.

Euskal lan guzien irakurle zintzoa, ta lenago euzko idazle izana.

Ez du une aundirik izaten aske! Batean abeslariak dirala, bestean Poxpoliñak, irratsaio ta abar, batzen zaio naiko zeregiña.

Txomin abertzalea izaki ordea, ta guzia pozez egiten du aberriagatik. Ori dek gizona izatea!



Erritxo leialak ere badaude. Irratsaioan onez ez dira gutxi saiatu Pasai, Errenderi, Ernani, Oiartzun, Tolosa, Zarautz, Lezo ta gañuntzekoak; apalki erantzun dute, millaka demoniok ezpaddu! Abeslari, txistulari, soñujole, izlari, ipui esale ederrik jarri da tramunkulu aurrean. Zein ez an izan ere!

Gauza gustagarriak antolatzen dituztela ezin ukatu; baña jakin zazute askoz obeak egin litezkela. Laguntza bear or ere!

Ia ba, entzule onak! Gauza txikia izanda ere, gogoan artu oi dira mesedeak. Saia gaitezen saio auen onerako.

Urrengo idazkian irratsaio bereziatzaz ariko naitzazute J. L.

(jarraitzeko)



# Euskal-irratsaioak

**Euzkadi, 1934-01-23**

---

Bi urteko lan betearen ondoren, eungarren saioraño eldu zaizkigu oraintxe.

Itxura onena ala izanik, eungarren irratsaio ori ospe aundiz jaitu nai gure gizonak. Arrazoi dute!

Erabaki ori pozgarri ta atsegiña da gure erriarentzat. Euskaldun geienok zoratzen utzi gaituzte egun ortako jaien berria entzun ondoren.

Zer izango dan?



Ez derizkiot bidezko egitaraua azaltzen ni astea. Berak ere denboraz egingo dute ori.

Gure izparringi jatorrak aditzera emango dute garaiz, zer ta nola izango dan.

Baña... zerbait aitatzea ere ez da iñoren kalteko izango.

Ba, gure irratsaio antolatzalle jatorrak, eungarren saioa illaren 28an betetzen dute.

Ta egun ori bear bezela jaitzeko, Kursaal antzoki ederrean agerkai entzungarria degu.

Ordu ederra deritzaiagu aukeratu dutena. Arratsaldeko ordu-bitatik lautara izango baita.

Arratsaldeko saioak obetago entzuten dirala esan oi dute; ta neure ustez itxurazkoa da. Beste irratetxerik ez baita aritzen ordu orretan.

Euzko Abesbatza ta Orquesta Filarmonica buru dirala antolatutako saioa da au.

Badakizute Euzko Abesbatzak alde guzitan zabaldua daukan ospea.

Onen antzeko abesbatza gutxi dira oso. Olaizola ospetsuak ezin gauza txikirik eta kaxkarrik egin. Orren izenak, Europa osoan arro-arro korritzen baitu.

Orquesta au ere, berriz, ederretakoa dala diote.

Zati ederrik entzun bearco degu bi batz auengandik.

Bakarkako abeslaririk bikañenak ere an izango dira. Txistulari buruak ere bai.

Izlari, olerki esale, antzezleri, bertsolari, soñujole, danetik zerbait, irakurle.

Elerti bidean aurrera goazela nabaritzen degu. Euskal antzerki eder asko antzezten da gaur Donostian ere.

“Txanton Piperri” ta “Amaya” esantzerki zoragarrian edertasuna oraindik nabaritzen degu. Urte barruan izan diran ikuskitunik garrantzizkoenak euskerazkoak izan dira.

Gaiontzean ere antzerki politak izan dira; ta oraintxe ere, Deun Sebastian egunerako Alzagaren lan bat iragarrita ikusten degu. Deun Toma eguneko aurren jai zoragarri ura ere gogoan daukagu. Ederra baizan!

Ta orain irrati bidez mundu guzira adieraziko dan jaialdi berezi onek asko poztutzen gaitu. Aurrera goaz, jaunak!



Zubimendi ta Arzelus-i egin gentzaioken omenik gozoena egun orretan irratizkiñera inguratzea da. Inguratu ba, euzkotar zintzoak, sorginkerizko tramankulu orien aurrera, ta Kursaaaleko txalo burrundarekin batera, txalotu, txalotu bai, zuek ere bertako ertilari trebeakin batera Zubimendi ta Luzear euskaltzale purrukatuen izena.



Ta an Donostian tramankulu aurrean jarri bear degunok, goazen gogotsu ta alai euskera berdingabearen bikaintasuna adieraztera.

Ta esan dezagun, Zubimendi olerkari azkarrarekin batera:

Ua, ua emendik otsa;  
abil azkar, bizkor, abotsa!  
Gure izkuntzan agur laztana  
ludiko euskaldun danorengana  
ortxe dijua.  
Ua, ua...

Euzko erriko anai denori  
eman akiok agur beroa,  
bere barrendik irtendakoa  
dek gaurko oyua:  
Au... Ua!

Euzko erriko anai danori  
eman akiok agur beroa,  
bere barrendik irtendakoa  
dek gaurko oyua:  
Ua... Ua!

(Amaia)

# Zarauzko Udaletxean

**Euzkadi, 1934-02-09**

---

Ilbeltzak 31 egun ditu. Azkenengoa beraz. Inulabar xomiña benetan.

Erri guzian kontu berdiña zebillen

Zazpi t'erditan Udaletxean batzarra zala etzekienik etzan izango. Zer izan bear zuan!

Zortzi egun aurrez izan zan lenengo batzar artan nolabait ibili zirala, ta oraingo ontara danak joan nai zuten.

Beste gauza bat.

Oñengo bildu ziranean, endorerik ez baizuten izendatu.

Azpiroz jauna zan lengo alkate, baña onek osasun bera daukala, ta... etzuan ardura ori artu nai izandu. Ta auteskundetari autarkirik geiena berak izan zualako, Zuzuarregi jauna exeri zan endore aulkian; oraingo batzar onetan bear dan gizona aukeratu tuko zalata.

Endore berrija zein izango jakiteagatik zegon nunbait alako zaletasuna.



Arratseko zazpi t'erdiak dira.

Udaletxean sekulako jendetza dago, oso gutxitan ezagutu dan bezelakoa.

Ziñegotzi geienak inguratu dira; baten okerra arkitzen degu.

Zuzuarregi, Azpiroz, Esnal, Urriza, Eizagirre, Arrizabalaga (zorrantzalleak). Abruza, Aginaga, Urzelai ta Azpiazu ere bai. Etxabena okerra dago.

Idazkariak lengo agiria irakurri du ta guziak ontzat artu dute.

Zuzuarregi jauna jaiki da itzegiteko. Begira zegoan erritar oste ugariangana zuzentzen da. Aiek beren eztabaidetan ari diran bitartean, gañeko jendeari ixillik egoteko eskatzen dio, berak dirala erriajak toki artara bialitako gizonak eta.

Ezertan asten zana kanpora jaurtiko zala esan zuan.

Bereala, endorea izendatzeko autarkitara jo zuten.

Era onetan irten zan jokoa: Urrizak, 5 autarki, Azpiazuk 4, ta ingi bat izenik gabe.

Urriza jaunak bear dan nagusitasunik lortu ez dualako, Zuzuarregi gelditu da berriro aurrerako.

Erritarren artean murmur aundiak dira.

Ondoren, Irujo, Maeztu ta bost aldun abertzalien idazkiak irakurri ziran. Auek erriari beren laguntza eskeñi diote.

Guziai udalan esker ona agertzea erabaki zan.

Arantzazu kaleko 35garren zenbakian Ibarzabaldar Kaxildak egin nai luken etxe konponketan baimen ematea lan oietarako izendatua dagon batzordearen esku gelditu zan.

Gero bigarren mallako sendagille izenduntzat (titular) ezagutu ditezela eskatzen zuan idazkia irakurri zan.

Erri onetan ardura artu berrija dutenak izenpetua zegon. Ikustekotan gelditu zan.

Erriko izparkarien eskaria irakurri zan urrengo.

Eguneko agiria (orden del día) beren etxetara biali dezaiotela eskatzen zuten auek. *L. Voz, El Pueblo Vasco ta El Día*-ko izparkariak izenpetzen zuten.

Eztabaida txiki baten ondoren, ez izparkariai bakarrik, baizik ziñegotzi guziai ere bialtzea erabaki zan.

Zarautzen aldeko zabalkundea egiteko gertu daguan prantses batena ere irakurri zan, da gero ikustekotan gelditu ziran. Beste gorabera batzuk urrengo batzarrean erabakitzekotan utzi dira.

Batzordeak aurkeztu ez ditualako da guzia.



Eskari ta galderak.

Aginaga gaztea da itzegiten.

Alde nagusiengana (mayoria) zuzendu zan, ta beren okerbide ta iñozotasuna azaldu zien. Bere lanak kanpoko gintzarekikoak

(técnico) miatze ta erabakitze ori ez dala bidezko dio, erri-legeko 56garren arauak oso osoan eragozten duala-ta.

Bertakoak egin bear dutela ori, Udaletxeak, alegia.

Urzelai jaunak ere txartzat artu du bestien erabaki ori, ta Aginagakin batera dago.

Aginagak aurrera jarraitzen du bere arrazoiak azalduaz.

Idazkariak irakurri du aitatutako araua, ta bertan garbi azaldu da udalak ez duala eskubiderik mayorian asmo ori betetze-ko.

Ori zintzili gelditu dedilla alik eta ortarako gizona jarri artean eskatzen du Azpiroz jaunak.

Legeak agintzen duana lenbaitlen bete bear dala erantzun dio Aginagak.

Errijaren zergatia 100.000 leurlekotik gora dagoala, ta jaun bat autu bear dala ikuskizun ta beste goraberetarako dio idazkariak.

Aginaga jauna endorearengana zuzentzen da, ta ia oñengo batzarreko agindua bete al zuan galdetzen dio.

Españako Erkal Lendakariari urrutidazki bat bialtzekotan gelditu ziran, Euzko Araudia lenbaitlen onirizteko aginduaz.

Agindu ori bete al zuan euskera garbian galdetzen dio alkateari, baña onek ez dio jaramonik egiten gai orreri; ta gañeko jendea marmarrean asten da. Azkenik, egingo zutela aditzera eman zuten.

Urzelai jaunak, udara baño len, erritarrentzat bustitakoak (baños públicos) antolatzeke eskatzen du, ta berdin Aginagak ere.

Batzorde bat jartzen da ori aurrera ateratzeko. Esnal, Arrizabalaga, Azpiazu ta Urzelaik osatzen dute.

Abruz jauna da itzegiten. Inurritza zelaian ta Alameda berrian dagon zugaitz premia azaltzen du onek. –Aundijak bearko al dira? –galdetzen du alkateak. Jendeak parrez lertu bear du. Aztertzekotan gelditu ziran.

Errota-Zarreko zubija konpondu bear dala dio Zuzuarregik. Auteskundetako gonbita?

Erriko pelotalekua konpontzeko esaten du Urzelaik.

Gauza asko autan erabili ta eskatzen dala, ta gutxi bete dio endoreak. Bera dala betearazi bear dituana erantzuten dio Urzelaik.

Urakin bear diran neurriak artu ditezela eskatzen du Azpia-zuk, gertatzen dana lotsagarria dala-ta.

Urzelaik bide berriko aldapa itsusiagaz itzegiten du. Batzor-deak oker ura zuzentzera alegin guziak egingo zitualata gelditu ziran. Batzor-de itz orrekin, ontarako jarrita dauden gizonak, esan nai nuke.

Beste gabe amaitu zan bigarren batzarra.



Amazazpi illabetean erriyak jarritako gizonak bazterturik egon dira.

Azaña gobiernutik erori zanetik onera, alkate utsarekin. Lau illabete izango dira gizon bakarran esku egon dala errija.

Artzekoak artzen ziran, baina ezeren konturik ordaindu ez. Errija ongi zijoan itxuraz, Alkatea bakarrik zegoala ta... bapo; artu bai, baña eman ez.

Orain oster, amazazpi illabetean kanpoan egon diran gizonak ditugu barruan.

Irugarren batzarra dute alkatea aututzeko. Ez dakigu zer ikusiko degun.

Iñork bertsozik ez dezala jarri beintzat. Jesus, milla bider, au lotsa!

# “Ama”

**Euzkadi, 1934-02-22**

---

Euzkadiko antzokiak ederraldi dute. Gaurko ertilarri yayoak geure geurea dan izkuntzarekin agertzen baidira jendetza ugarian aurreko aldera.

Berri pozgarria auxe.

Arrasto aundirik ezpagendun ere, zerbaiten susmoa gelditu zan, da... jaunari eskerrak. Euskeragatik diot, jaunak.

Gure uri ta erritxotatik aldendu baizan mendi goitaraño.

Esatea tamala bada ere, zentzugabe jokatu ziran gure aurreko zarrak. Garrantzi aundieneko gauzari arreta kaxkarra jarri zioten.

Euskera aintzagarria jantzi arlotez artu genduan berengandik.

Itzez alde guzitan au ibiltzen zan arren, ezer gutxi arkitu degu.

Erri zar onen izakeran berri ezer gutxi adierazi digute gure izkera ederrean. Kanpoko ogia gozoago edo...

Bere izkera galtzen duan erria, erri galdua, zion Mistral jakintsuak.

Zoritxarrez, galdu samartua arkitu degu Euzkadi ere. Bere pitxirik gozoen da aberatsena mendi gora iges asi ezkeru, asko palta zuanik ezin esango degu.

Baña... Aita Kardaberaz euzkotar zintzo argiak garbi esan zuna: “Jaun-Goikuak berak nai du euskerak burua jasotzea”.

Alaxe izan nunbait.

1865garren urtean Abandoko txoko zoragarri artatik Euzkadi guziai argi egitera irten zan izar dizdizariak ala erakusten digu.

Egin bedi Jaun-Goikuaren naia, ta bete bedi Sabiñen asma.



Aurrerapen aundia nabaritzen degu Euzkadiko antzokietan, euzko jendea gañezkaturik, euzko antzerki bikañak txalotzen ikus-



teak irudipen aundietara garamazki. Gizon bikañak sortu zaizkigu, bai bazkun txalogarriak ere. Edozer izkuntzetan agertzen diran lan onurakorrak geure euskera ederrera itzultzen dira. Zenbat izen esan litezken, baña nagon ixillik; laurdenik jarri ezta utsegin egingo nuke-ta.

Tagore baten lanak gure elean ikusteak ere ez du gutxi esan nai. Sortu bitez orrelako asko.

Euskaltzalean aurrerakada ere ez da makala. Antzerki-sariak antolatatu. Lan onurazkoa benetan; euskera zarrantzat ez laguntzalle txarra. Aurrera bide ortatik!



Lendik ditugun ainbesteri beste bat geitu bear diogu. Beste antzerki bikain da eder bat, alegia.

Bere egillea nor dan?

Ez dezute alain ezaguna. Euskera ta aberri alde egiten dituan lanak ezagunak dira, baña bere izena gordean eukitzea gus-tatzen zaio. “Amonatxo” ta “Iribe” izenordeak erabiltzen dituan erritar idazle gaztea dezute “Ama” deritzaion antzerki zoragarria-ren egille.

Nork bere aboa dauka –Lauaxetak idazten duan bezela. Gu-zientzat ongi datorrenik ez da izaten. “Ama” antzerkia ere guztiak ez dute berdin ikusiko. Ixil gaiten ordea ortatik.

Irakurle, lan ori irakurtzeko era izan det. Malko biribillak ir-ten didate neri.

Irakurtze utsak negarrez utzi gaitu, ta antzezten dan denbo-ran euzko biotz guziak negar egingo dute.

Agirrezabaldar Alberta *Iribe* euskal-idazle zintzoaren apalta-sun ta gogai sutsuak etzezaken gutxiagorik.

Adiskide lagun maite orrek, artu itzazu idazle txiro onen zo-rionik biozkorrenak. Gaztea zera, ta asko zendekezu mintzo za-rraren alde. Jarrai ba, jarrai asitako lanari.



Zarauztar antzezlari talde bikaña asi da ikaskizunetan.  
Epaillaren lenengo egunean antzeztuko da antzerki zoragarri  
au.

Antzerkiaz gañera zer entzuna edo ikusia izango dala deriz-  
kiogu.

Txomin Olano, Laborda, Zabalbeaskoa, Arantxa Barrena ta  
nik ez dakit zenbat diran parte artzekoak. Urrengo idazkian oso  
osorik esango det jaialdi onen berri, J.L.

Orio, Zumaia, Zestua, Usurbil ta gañontzeko auzo erriak ba-  
dakizute. Jakiñan gañean gaurtik. Urrena arte ba.



Basarriren jaiotetxea

# Guk uste bezela

*El Día*, 1934-03-03

---

Motillak, igarle onak gatxauek! Geuk uste bezelaxe irten zaizkigu gauzak!

Arabarren auzia genduan egun auetan Madrیدهko latetxean (Congresoan).

Esanda gendukan bezela, txakur amorratuen gixa etsaiak. Bixtakoia zegon ba!

Agirrek atera dizkik eltzetik gaztañak. Premia zitxion! Ordu t'erdiko itzaldian zein baño zein egi aundiago. Astindu dik jendea!

Etsai xelebreak orregatik. Estaturik ez baño fuero osoak nai dituztenak.

Librako ogia erosteko laurlekorik nai ez, duroa bear erremerio gabe. Ez uste nunbait duroa pixkaka osatzen danik.

Au onela dala?

Jaunak, neri etzait au buruan sartzen.

Orain araudian eztabaida dan bezela fueroena balitz, oriek aldeze izango lirakela?

Tira, tira, ixillik, ez du itxurik ere ta!

Agiañak azalduko lituzkete bi aldiz.

Ta suzko muga frontera len izan zan bezela Ebron jartzea nai duten galdetuta, baietz erantzun Madrیدهko latetxean. Lotsagarri alenak! Zein da... Primo Rivera, Goikoetxea, Oriol da gañontze-koak esan bear gañera. Etzeok gaizki!

Europako abenderririk, naziorik zarren da legezkoena lurperatuaz Españari aintza abestu diozute. Ta ondoren Fueroak bear dirala esan. Ooo, nabarmen zitalak!

Lenez gain ere gogoan izango du erri zar onek zuen jokera maltzurkerizkoa.

Gogoan izango du, Agirrek esan duan bezela larogeita amar urtean aberria oiñazpiraturik ixil da mutu eukiarazi duten jendetza gaiztoaren oraingo jokera. Fuero zale dirala esan bear?

Ene, Jaungoiko maitea!

Baña eskerrak, laguntzalleak ere baditugu. Egia mugatzen dutenak alde guzitan izaten.

Landaburu ta Agirrerren egizko aitortza beroak buruz bera asko utzi dituzte.

Lenengo aldapan nagusi gera. Gero ere etorriko dira galantak; ori ziur dakigu.

Salmon ta bere konpartsan eskari bidegabea baztertua izan da.

Au ikusirik Alzibar-ek pozez gañezturik esan zuana guk ere esango degu: Gora Euzkadi Askatuta!

Orain itz erdi bat, irakurle. Nun da askoren autan dabillan katoliko batasuna?

Eskubiak alkartu?

Ta ordurako Españako eskubi danak Euzkadiren aurka. Gure eskari utsari arrika emanaz alain era maltzurtean. Batasuna? Etzeok urtean!

Ez gaituk atzipetu. Españako gauzak guk uste bezela.

# Aitona gizagaxoa

**Euzkadi, 1934-03-14**

---

Au bildurra idazteko! Zorigaitzoko eztabaidak sortu dira izan ere gure artean.

Beñere baño gogotsuago artzen genduan lumatxoa gure euskeran edertzen da bikaintzen zijoalakoan. Orixe ondo sinistuta geunden gu, Jaungoikoaren izenean. Olerkariak ugaltzen, antzerki zoragarriak egunero argitara azaltzen, euskal izparringiak geure izkuntzaz ornitzen, asteroko euskaldunak geitzen, euskal-antzezleriak sarri pozez abildadeak neurtzen, euzko ikastolak zabaltzen, millaka poxpoliñak batzen... Auek guziak ikusi ondoren, erdi zoro gu ere. Gogor aurreratu ote geran oldoztuta beti.

Jakintsu diranak euskeraren onerako ta aintzarako euren adimenak nekatu dituztela ikusiaz, gu ere langille, baserritar ta ezjakin izanagatik, pozez ta arretaz alegindu gera al deguna egiten. Ikasi zale danik ez bedi asi nere lanak irakurtzen, neronek daukat premirik aundiarena ta.

Dana dala. Jakintsu ez izan arren, guk ere gentzaken añean egiten degu, ta ori egiten duanari geiagorik ezin eskatu. Jesus milla bider! Gure lanak kalteko dirala?

Ez gera uste orretan saiatu, baña ala balitz, ixilduta konturik onena.

Sesiorik asko sortuko dalata nago. Altube jaunak aldeko asko izango du, baita aurkakoa ere. Jaunak, oraingoz ez naiz ni ezertan sartzen. Altuberen lana irakurtzean nere iritzi txiroak azalduko ditut.

Idazle batzuen lanak gogor itundu naute. Altuben liburua gaitzat artuta otzikaraz josi didate barrena.

Euskeraren eriotza gertu ote dan iragarri dute bat baño geiagok. Errua idazleak ote duten gañera. Au komerija!

Gure elea mendi goitaraño aldendu dala irakurri dedanean, Otañotar Kepa Mirena, artzai apal ta erri olerkari aundi aretzaz

gogoratu naiz, ta bere *Aiton gizagaixoa* izenburuzko olerki sakona irakurtzen jarri. Senide danak oeratu ondoren, arrats beltz luze-ko ixiltasunean bere liburutxo det lagun. *Euzkadi*-ko irakurleai atsegin izango zaiotelakoan, berak idazten ditut.

Udaberriko usai gozozko  
illunabartxo batean,  
Donostiatik urruti gabe  
uri ontako partean,  
baserritikan onuntz datorren  
bidetxigor politean,  
sagar da gaztain, aritz, elorri  
urriz ta lore tartean;  
azpi aldean errekatxoa  
marmariaz ostopean,  
eguzkiaren azken dizdirak  
arunzko mendi tentean,  
kuku ta beste txorien kantak  
baso guziak betean.  
Kabi batean lau txorikume  
txillar tarteko otean.  
Gauz aubei danai begiratuaz  
emen gure lur maitean  
“iñon ez dago onelakorik”  
esanaz nere artean  
netorren, eta alako batez  
jiratxo bat ematean,  
aitonatxo bat arkitu nuen  
eserleku arlotean,  
berekin zeukan penaren kargak  
iya lurrera botean.

Garai ta leku pozgarri artan  
gizon ura ikustean,  
alaitasunez inguratua  
ain egoera tristean,  
beregianatu nintzaion zerbait  
itzegiteko ustean.

Iruditzen zait gaur oraindikan  
bera ikusten naguela,  
arri tontortxo baten gañean  
exerita daguela;  
belaun nekatu bien artean  
urriz makil bat duela,  
beraren puntan ipiñirik len  
buruan zuen txapela.

Oraindik ere lur maite ontan  
bada zeñek itzegiña...  
Baña nere itz motxak etziran  
bera lasaitzeko diña,  
ta zion: –Ondo ikusitzen det  
datorkigun erasua;  
ez da biziko, laster ilko da  
gure euskera gaxua.

Jauna, ez bedi orla tristetu,  
ez dago euskera juna.  
Ez du nabaritzen inguru ontan  
daguena alaitasuna?  
Ez du ikusten ez dala gaitza,  
baizik dana osasuna?  
Euskalerriko txorien kantak  
ez dago pozez antzuna?

Bai, len bezela saiatzen dira  
kukua eta xoxua!  
Oiek or daude, baña galdu da  
gure euskera gaxua.

Jauna, alaitzen asi gindezke  
euskera maite degunak;  
badatoz, ustez iya betiko  
galdutzat zeuden egunak.

Bi eskuakin gogor elduaz  
kontu egiñaz onela,  
eta kokotza oien gañean  
lotan balego bezela.  
Nola jostatzen pil-pil zebillen  
egoaizetxo epela,  
buruko ille txuri banakak  
egara zijoazela  
esan zeikean, bere onduan  
nabaritutzen etzubela;  
antxe negoan bere alboan  
zer egin ez nekiela,  
laguntzarik nai zuen galdetu  
edo alegin bestela;  
itzegin zuben, eta kezkatik  
atera nintzan berela.

Arnas lodi bat irten zitzaion  
petxu estutik pasua,  
ta lenbiziko au esan zuben:  
–Nere euskera gaxua!



Esan onetan ezaguturik  
aitonak zedukan miña  
erantzun nion: –Jauna, euskera  
ez dago ain aldegiña;  
len aintzakotzat artzen etzuten  
damatxo txapeladunak  
gaur erantzuten dute biotzez:  
“gu gerade euskaldunak”.

Baña ainbestek jartzen diote  
traba edo arazua...  
Nola nai dezu indartutzea  
gure euskera gaxua?

Jauna, badaki nola lenago  
guk ez genekien erderik,  
eta guraso leial on askok  
umeak argitu nairik  
aldi batean nun ikusi da  
izkuntz au gabeko mairik?  
Orregatikan dago euskera  
lotsaz txokoan gorderik.

Bukatu bedi oitura orren  
epea edo plazua;  
izan zazute maitexego  
gure euskera gaxua.

Jauna, ez beza negarrik egin!  
Esan dioten bezela  
ikusitzen du lenago baño  
askoz obeto gaudela;  
luza lezake, txit ala da ta,  
oso indartzen berela.

Ontan, malkoak kolpez kendurik  
erantzun zidan onela:  
–Nik erderarik ez dakit eta  
nere illobak, au sua!  
ni bezelaxe burlatzen dute  
gure euskera gaxua.

Au mintzatzean arkitu zuen  
ain estu bere barrena,  
non, altxarikan eserlekutik  
altzezaken azkarrena,  
esan zidan: –Ai! danak nai dute  
lege zarrak dakarrena,  
eta ez dute ezagututzen  
izkuntza dala aurrena.

Miru gaiztoak menderatutzen  
duten bezela uxua,  
etzazutela iltzera utzi  
gure euskera gaxua

Eskuarekin agur egiñaz  
arturik makillatxua,  
etxe aldera abiatu zan  
ain euskaldun doatsua.  
Geldi geldika jarraitu nion  
neurtuaz bere pausua,  
illobetara biurtu zedin  
aitona gizagaxua.

Jator asko agertu zituan pasadizoak Otaño bertsolari bi-  
kañak. Ta olerki txukun mamitsu au irakurri ondoren, ementxe  
gelditu naiz zalantza bizian.

Olerkariak ala aitonak du arrazoi?

Au da gaurko euskal-idazlien auzi garrantzitsua.

# Asi ezkerro, gauzak zuzen!

**Euzkadi, 1934-03-31**

---

Beti iritzi ortakoa izan naiz. Asi ezkerro gauzak zuzen egitekoa.

Dakizuten bezela, eziña ere askotan gertatzen zaio gu bezelakoari; baña egin leikena egin gabe ere sarri sarritan uzten degu.

Nere ustez, gaur dakarkidan gai onetan ere ori gertatzen da, ta oraindik errez zuzendu liteken gauza dalako asi naiz izki bi egiten.

Nere oarrak ez lezake zerbitza aundirik izan, baña or dijoa entzun nai duanantzat.



Eguneroko izparringiak orriz aldatzen ari naizela, nere gustoko zerbait arkitu ta irakurtzen asi naiz. Euskal-irratsaiotako jaunburu antolatzaile asper gaitzak diran idazle biari omen bat egiteko kontua zekarkin. Asteroko *Argia* begikoaren asmoa izan bear du. Bai, alaxe da; zer izan bear du ta zer arrano, neronek irakurri nuen da.

“Lan egiten duanak saria bear du” –zion *Argia*-k. Au egi aundi bat dala ezin ukatuko du iñork. Euskal-irratsaioko jaun oiek ongi merezia dute beren saria; ez da txantxetakoa berak egin duten lana ta.

Luzear ta Zubimendiren euskaltzaletasun beroatzaz len ere iñoiz mintzatu izan naiz. Oso gogozko baizait berak daramakiten asteroko arazo ori. Euskal-irratsaiok goraltzen ta aurrera len bezela edo indartsuago jarrai dezaten eskatzen ez naiz iñoiz ere aspertuko. Lan txalogarria auxe benetan!

Baña jaunak, zerbaiten okerra billatu det ba nik eguneroko oietan. Ez nago konporme berak diotenarekin.

“Lana egiten duanak saria bear du”, ta eguneroko oietan ikusi dedanez, lana egiten duten guziak ez dira saritzen, edo ez dute asmorik beintzat.

Zubimendi ta Luzear-ek ongi baño obeto merezia dute sari ori, baña bai nere ustez Txomin Olano euskal-irratsaiotako piano jotzalle sonatuak ere.

Eunda zortzi euskal-irratsaiotara granorik utsegin gabe azaldu danak, “Jaiki, jaiki” ta “Agur jaunak” euskal-doñu zoragarriak, ainbat aldiz entzunarazi dizkigunak, ez du utsik gelditu bear.

Ez da itxura ta ez da urre emateko ere. Makiñabat abeslariri ere laguntza egin dio Txominek pianoz duan erreztasun berdin gaitzarekin. Ortarako jakiña, makiñatxobat entsaio ere egin bear da. Danetara joan da Txomin zintzo asko, edozein Donostiarrek aitortuko lukien bezela.

Gañera errietako jendea euskal-irratsaiotarako poztutzen da eramán arazitzen ez da gutxi saiatua.

Beraz, onela jokatu dan gizon bat ezer gabe uztea ez da bidezko. Ez da-ta!

Omena egin bear zaie, baña ez biri, irurai baizik. Batzuk lane-rako poztu ta besteak oztutzea litzake ori bestela.

Abertzaleak ta euskaltzaleak gogoz artu ezkeru ez dago egin eziñik. Errietan arpidea zabaltzeko asmoak diran ezkeru, berdintsu osatuko da irurentzat ere. Ainbat euskaltzale izango al da, noski.

“Lana egiten duanak saria bear du”. Eman bakoitzari berea. Asi ezkeru, gauzak zuzen. Idazle adiskide, ia noiz dan zure iri-tzia.

# Aberri-egunaren ondorenak

El Día, 1934-04- 08

---

Etxezarreko Joxe Iñixio ta Aldalurko Praixku Mari, Euzko Neka-zari bazkunean sartu berriak dira. Premizkoa dala ezagutu baidute.

Auen etxe-nagusia gaurko tradizionalista edo dalako alderdi orretan aurre samar dabillena da, ta au onela izan ezkeroztik bix-takoa dago bi basarritar auek bazkun orretan sartzearekin asko minduko zala.

Jaun oneri arduradun edo administradore on bat komeni ere bai, ta... Don Xeberiori utzi dizka eskubide oriek. Au ere, jakiña, aundizale orietakoa da, ta bere aria iñolaz galduko ez lukeneta-koa. Ez orri tradizionalistan aurkako itzik esan, Jaungoikoaren izenean. Gozoa jartzen da ba. Ene!



Joxe Iñixiok ta Praixku Marik *Argia* astero irakurtzen dute ta... bertan azaltzen diran ainbat erritako berritan, Gasteizerako deia, ta bertara joateko bazter guzitan zegoan zaletasuna paper ortan nabaritu zuten. Lengo batean ala zion Joxe Iñixiok Praixku Mariri:

–Aizak i, Paixku, etzekiat i konturatu aizen, baña... gure as-teroko *Argia* orri begira jarri ta dana Gasteizko kontua zekarkik. Ainbat erritako izparrai begira egon nauk eta Aberri-eguna aitatu gabe etzekiat granorik ote dagon.

–Bap! Neroni ere emazteari orixe esaten jardun natzaiok. Zer egun arraio izango ote da ba?

–Gaur badakik, euskaltzaletasun apurrik beregan duan guzia abertzalea dek. Badakik oñengo auteskundetan ere zer lan egin zituzten... Iru probintzitan amabi gizon atera dizkitek gero! Garai batean esan balitek ori!

–Ik badakik konpитеiko Juxto nola erabiltzen zuten erri guzian. Txoro bat zala ta iñork jaramonik egin nai ezik politika gauzetan. Ark esandakoak zuzen zetoztik emen. Ara motel, gure gazte denboratik onera dagoan alde!

–Gu ere karlistak izanak gaituk geure denboran, baña aberztaleak esaten dutena ta gure aurreko zarren bidea berdin berdiñak dirala aspaldi xamar antzeman nitxion nik.

–I ta ni basarritarrak izan da... gutxi sartu gaituk kontu oietan. Basarritan aurreragokorik izaten dek-eta.

–Orain ordea derriorrak moitu gatxizik gu ere. Euzko Nekazari bazkunak onela jarraitzen badu, ez gaituk atzean geldituko. Ez orixe!

–Praixku, ba al dakik ni zerk arritzen nauan geien? Gaurko karlista izeneko auen jokerak. Oek dituk mutillak, oek!

Gure zarrak bi gerra or egin zizkiten fueruen lapurtzalle ziran Alfonsino edo liberal izenez ezagutzen ziran oriekin, ta gaurko karlistak or zebiltzak beroiekin batuta euskal itzala damakian guziaren aurka.

Begira araudiakin ere nola portatu diran.

–Bai, Iñixio, egi galanta diok orixe. Ta orretxengatik, oiek bide ori artu dutelako zeukak abertzaletasunak orrelako indarra.

–Au guzia orrela izanik, ikusgarria izango dek datorren igandeko billera ori.

–Beingoan iritsi gerala esateko, ta abertzale bezela iñoiz nabarmendu ezpagera ere, euskaldun benetako aitortu nai degulako, alakoxe irtenalditxo bat egingo ote giñikek?

Igandean joango ote gaituk?

–Gure ganadu jendea ez dek jolasa, baña beingoagatik konponduko dituk, noski.

–Bai arraioa! Joan egin bear diagu.

Auxe erabaki zuten gure gizonak. Pozez zoratuta zeuden artutako asmoarekin.

(jarraitzeko)

# Aberri-egunaren ondorenak

*El Día, 1934-04-13*

---

Oñengo idazkian nion bezela, Praixku Mari ta Joxe Iñixio gustora zeuden artutako asmoakin.

Ta, jakiña, gutxi ibillitakoari gertatzen zaiona, orrelako joan-etorri bat egitea bururatu zitzaien ezkerero, laguneren artean bera zabaldu egin bear ba.

Auzoak jakin zuten berealako batez, ta bat edo beste, nola-baitekoka gertatu oi da beti, ta bi aueri ere sortu zitzaien alako bat. Supiztalle oietako bat, esan nai nuke.

Onek zer egin du, Praixku Marik ta Joxe Iñixiok artutako asmoa Don Xeberiori adierazi, au da, belarri ertzera esan guzia.

Egun guzirako erneazioa artu zuan beregan. Gozoa jarri zan ba Don Xeberio!

Tarteko supiztalleak eman zion albistea Don Xeberiok asko eskertu zuala ez dago zer esanik.

Gero ziran gerokoak!

Larunbat goizean, BERPizkunde bezperan, oitura ez bezela goizean goiz jaiki zan, ta maizter bien etxetara joatea erabaki zuan.

Abiatu zan bere garaian, ta Aldalurko borda inguruko bide-txiorrean zijoalarik, goiko atari soroan bi gizon zeudela nabaritu zuan.

Larunbata nola zan, biamunerako ganadu jatenak etxeratzea komeni zitzaien, ta artantxe saiatsuak ziran goizean goiz asita. Lanak egin ondoren, BERPizkunde egunerako planak ateratzen ari ziran etxe aurreko gari soroko modutan ziran orduantxe. Uste gabeen, tapa, an agertzen zaiote administradorea. Zertara ote dator? –esanez bezela, alkarri begiratzen ziotela gure bi gizonak.

Egun onak eman zizkien Don Xeberiok. Ta urrengo ala zion:

–Au dek egokiera au! Bestela Iñixio, zuen etxeraño, Etxezarre-raño joan bear nian da, edorri emen; bapo, dana egoki zetorrek.

–Bai gizona! Gaikaldeko sallean arbi sorta bat egin det eta, Praixku emen ikusi dedanean, etorri ta berriketa batzuk esanez ementxe ari gera.

–Bapo, bapo! Ba... ni ementxe, alako zurrumurru bat entzun det eta sinistu eziñik, jaunak. Ola dan ala ez zerengandik ongiena jakingo dedala ta etorri naiz.

Egia al da biar Gasteizera zoaztela?

–Bai jauna, alaxe oldoztu degu ba.

–Aaa, gizarajoak. Ez dakizute (...) gauzak, orain zer egitera zoazten! Nik aurrez esaten dizuet.

Bat batean ateratzen du paper bat patrikatik ta Joxe Iñixiok ziarka begiratuaz *Pensamiento Alavés* gañean izenburutzat zemaakiala ikusi zuan.

Ala zion Don Xeberiok:

–Bada jaunak, ikaragarri kontu txarrak dira. Eguneroko geienetan ala irakurtzen degu. Orain eskutan daukadan au Gasteizen ateratzen da ta onek ere odolketazko Pazkoak izango ote diran dio. Ara adiskideak, bildur izatekoa da. Zeuek jakingo dezute zer egitera zoazten.

Bigoteari eragiñaz, jardunaldi gogorra egin zien gure jaun orrek. Orrelako bilerak asko ikusi gabeak izan bi nekazariak, ta ark esandakoak entzun ondoren, itun antzean begiratzen zioten alkarri.

Ixillune koxkor baten ondoren, Praixku Mari ausartu zan itzegitera, ta ala zion arduradunari:

–Ba, Don Xeberio, aspaldiko egunetan gure ametsa orixe da. Datorren igandez Gasteiza azaltzea. Orixen dalata, ganadu jatenak ona zer goiz egin ditugun. Gañera auzo guziak ere badakite joatekoak gerala, ta orain azken egunean damaturik oztuta gelditzea ez derizkiot bidezko.

–Ez da itxura ta –albotik Joxe Iñixiok.

–Bedorrenak aditu ditugu, jauna, ta egi irtetzea seguruago izango da, baña... zer nai du ba? Onuzkero azaldu egin bearko beintzat.



–Bueno, bueno. Ori zeuen gain, baña, ai mutillak, jende txo-  
roa da or! Nik esan dizkizuet nereak. Biar errira irixtean itzegingo  
degu. Adios ba.

–Bai, ondo joan.



Bere aurrean alamoduz azaldu baziran ere, ark esandako gu-  
zia egia izatea gaitza zala oldoztuz erretiratu ziran basarritarrak.

Ta igande goizeko amarretan Gasteizen ziran. Egunaren zo-  
ramena bereala nabaritu zuten. Mendizorrotzan ere izan ziran.  
Egundo alako jendetzarik inun etzutela nabaritu alkarri esanaz  
zebiltzan.

Praixku Marik zoratu bear zuan. Berez ere alaia, ta an guziak  
anai izaki. Danak agurtzen zuten, da bai berak ere. Inixiok ere  
erotu bear zuan. Baña, zer da au?

Inun aurrerakadarik eman ezin, bazter guziak beteak, inun  
sesio arrastorik ez, guzia alai, guzia paketsu, danak anai. Ala-  
korik!

Don Xeberioren paltso jarduna sarri aitatzen zuten. Gaur adi-  
tu bear dizkik ba! –zioten alkarri–. Ikusten badegu beintzat, be-  
rak esan bezela.

*Argia*-tik ere euskal edestia ikasi samarra euki ta ango zo-  
ramena ikusita, nun zeuden ere etzekiten gure gizonak. Mendi-  
zorrotzan Euzko Alderdi Jeltzalean alderkidetzeko aginduaz dei  
egin zuten. Etxera zetozela ortxe oldoztu zuten, alderdiratzea.

Don Xeberiokin itzegiteko ere bazeukaten gogoal!

Bere garaian, berebilla iritsi zan errira. Euzko Etxeako gazte  
jendea alkar agurtuaz beren etxetara joaten asi zan. Agurtu ziran  
basarritarrak ere, baña auek mendiruntz jo bear. Beren etxeruntz  
zijoazela Benta ardanegi aurrean jende mordo polita zegon, ta  
aien artean Xeberio an zegoan maizterren zai.

–Kaixo. Azaldu zerate?

–Bai sano asko.

–Ta zer ikusi dezute ba... okerrrik izan al da edo?

–Okerra? Zuek bai nai okerra izatea. Antzemanak gaude da-  
bilkizuten esku-jokoari, baña etzabiltzate alperrik!

Jende guzia begira jarri zan, arriturik.

Itxiok orrelaxe gogorrean artu zuan Xeberio. Praixkuk ixildu  
arazi zuan azkenean, da bertso auek kantatu zituan:

Ainbeste milla euzkotar gaur  
danak umil ta seriyo  
alkarregana batu dirade,  
Euzko Alderdia mediyo.  
Zuzentasunez alderdi orri  
gutzik eramango diyo;  
etsai txatxuan jardun argalak  
ez du askorik baliyo.

Benta atarian zeudenak txaloka artu zuten Praixku Mariren  
bertsoa. Xeberio ta bere bi lagunak zeuden ixillik.

Gu gera lendik nekazarien  
bazkunean gabiltzenak;  
orain Jeltzale alderdi ortan  
eman ditugu izenak.  
Emen urrean sortuko dira  
okerrikan aundienak;  
botika billa abia bitez  
tripako miña dutenak.



Agur jaunak!

An ziran algarak! An zeudenak ondo zekiten enbidoa zeñen-  
tzat zan.

Don Xeberio ta bere bi lagunak denboraz jaitsi ziren errira.  
Geroztik ala esaten omen dute ingurukoak:

–Garai batean izan balitz ori, etxetik kanpora zirala onuzke-  
ro...

# Aberri-eguna

**Euzkadi, 1934-04-21**

---

Egun ikaragarri baten bezpera egunetan gaude. Garizuma santuko barealdi negartsuaren urrengo, alaitasun ta argi guztiak berekin dituan Berbizkundera datorkigu.

Gure gaizkatzallearen nekaldiaz batera, euzko aberriak joandaneke larogeita amabost urte onetan damakian nekaldi astun, zigortsu ta negartia bururatzen zaigu. Ta garizumaren azken egun auetan, euzkotarron morrontza latz bidegabearen azken egunak ote diran amets egin.

Berbizkunde! Berbizkunde! Zenbat bururapen dakazkigun!

Euzkadiren egiazko berpizkundera noiz izango dan ez dakigun arren, aurtengo onetan, urre, oso urre ote dan bururatuta oieratuko gera.

Benetako aberri-egun bat ospatu bearrean gera euzkotarrok. Egun bat izango da, baña berau askatasun eguna. Euzkadiren egun berezi zoragarria.

Lengo bien oroipenak geuregan ditugu. Berealakoan etzaizkigu aztuko.

Ta diodan bezela, benetako berbizkunderak iruditu zaizkigu.

Irakaslea zorotzat artzen zutela ere ez dira oraindik urte asko. Artaldea bakana orain ogei, ogeita amar urte abertzaletakoa.

Barrenatar Poli adiskide argiak, begiak malkoz bustirik itze gin zuan Arriagako antzokian. Lenengo aberri egunean zan, eta abertzaletasunaren urre ezteitan:

Orra or, Sabin, zertara etorri gaituzun gaur soñez ta gogoz. Aberri-eguna ospatuaz, zugandik jaso genduan abertzaletasunaren urre eztei auetan, zure jaiotetxeko baratzen, 1882garren urtean zure anai Koldobikagandik entzun ziñuzen itz-alaztun aiek ogutzi ziran baratzen, aneika ta aneika biotz abertzalez egindako lore txorta aundi bat zeuri eskaintzera; Euzkadiren gogoia askatu dala, ta Euzkadin euske-  
ra nagusitu dala zeuri esatera; ta eztei urrengoetan gaur biotz txorta

utzi dizugun baratza orretan, estuntz ta uztarri, Aberriaren lokarri diranak birrindu ta auts eginda utziko dizkizugula zeuri esatera.

Zein biotzez esan zituan Polik itz auetxek. Pozaren zoramenez gañeztuta, malkoak ixuri bear. Ez da arritzeko!

Zenbat ikusi duten antziñako abertzaleak. Zenbat desapio zital, zenbat naigabe!

Erotzat baiziran, ta bakarrik, urri, bakan. Ta ainbat ta ainbat samiñaldi artu dutenak, aberriagatik ikustekorik gorrienak ikusi dituztenak, nola ez poztu Berbizkunde egun batez, aberriaren deia aintzakotzat arturik, irurogeita amar milla euzkotar abertzale aurreko aldean nabarituta? Pozaren zorabioaz negar egin bear.

Euzko gaztediaren kemen sendoa nabarituta, orain ogeitamur urte ziran iru edo lau zorok, ainbeste milla zoratu dituztela ikustean, BERPizkunde alaiak ditugula esanarazi digute.

Aberri-eguna! Askatasun eguna!

Askatasun eguna, bai. Itz au zergatik ezarri dedan?

Egun orri olaxe dagokiolako. Euzkadik beretzat aukeratutako eguna dalako. Guzia euskal-oituraz ornitutako eguna dalako.

Euzko olerkari gurenak bertan bilduko diralako. Euzkadiko dantzari bikañenak beren trebetasun neurgaitza bertan erakutsiko dutelako. Eunka txistulariren eresi alaienak bertan entzungo diralako. Ainbat milla anaien artean, euzko mintzaera zarra erabiliko dalako; bai, euskerak bere eguna izango dualako.

Españak bere indarrez atzaparretan badauka ere, mundu guztiangandik berezi dan euzko abenderri nazio zarra bertan gozalduko dalako.

Laburdi, Zuberoa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Nabarra senide zarrak bertan besarkatuko diralako.

Aberri-eguna, BERPizkunde eguna, Askatasun eguna... Askatasun au 24 ordukoa izaki orde. Laburra zoritxarrez!

Baña, ixo. Betirako askatasun ori ere izan zan urrutiena. Era onetan aurreratzen dijoan erriarekin ez da iñor jolastuko. Ez orixe!



Gasteizen degu aurtengoa. Europa osoan aitamenetan dabilen Araban. Kazike maltzurak bein da betirako ondatu naiez dabilkiten euzko erkitxoan.

Gertu bada guztiok!  
Txiki ta aundi, zar eta gazte  
guzti guztiok batean,  
emakume ta mendigoizale  
arturik geure artean,  
egun ortako egon gaitezen  
arreta biziz betean.  
Garaiz iritsi bear degu.  
Gure Araba maitean  
etsai gaiztoak or ari dira  
gure kaltezko lanean,  
ta anai asko artu dituzte  
orrela itsumenean.  
Au bai dala lotsagarria.  
Jainkoaren izenean;  
senide bat era orretan  
ikusitzen degunean,  
txit luzaroan ezin egon  
gindezke geure onean.  
Berari esan bear diogu  
asitzeko zuzenean.  
Ta au guzia guziz errezki  
nola egin litekean,  
kristau euskaldun onen antzera  
bertan laztandu gaiten.

# Euzko Abesbatzari

**Euzkadi, 1934-04-22**

---

Udaberria. Ene urte giroaren ederra! Zelai, sagasti, baratz, soro, maasti zabal, ta beste ordeka lilluragarriak berentzat aukeratu-tako aldi gozoa.

Olerkari gurenak ainbat oldozpen sakon txertatu dituzten ur-taroa. Idazle aipatuen asmo ta mami sortzalle berezia.

Ene ba! Txoriño danak kantetan. Udaberriaren bikaintasuna nabari nunai.

Zorionez gañezka gaur Gipuzkoarrok.

Txori kabirik apain ta alaitsuenetakoa geure artean baidegu. Ementxe, Donosti uri paketsuan, irakurle.

Arrigarrizkoa beren jarduera gozo xamurra... Biotz ikuitza-leak benetan! Zenbat pozaldi eman diguten!

Euzkadi osoa berai txalo ta gorantzak eskañiaz zan oraindik orain. Urrutitako txori zaleak ere berengan zaletu dira.

Oska ziran, deika! Kataluñan azaldu bear izan dute. Bikain azaldu ere!

Ango goralpen ta iritzi mardulak ez dute izenik. Bai gogozko antxe Gipuzkoarrok! Gurenda gurendaren gañean. Zein pozgar-ria auxe!

Amildegira joa zegoan erria suspertu naian gabiltz. Ortarako erti bidea ez dogu txarrena. Ez orixe!

Zoragarria Euzko Abesbatzaren asmoa. Zoragarria alkarte onek Euzkadiri dakarkion onura ta aurrerapena.

Gure gorantzak etzaituzte bear dan lekuraño jasoko, baña... Olaizola adiskide begiko orrek, artu Zarauzko Euzko Gaztediaren zorion biozkorrenak. Jaunak deizula osasun.

Asko egin dezu, ta asko zendেকেzu oraindik. Aurrera, Gabirel, Montzonek bezelaxe diot adiskide. Gure aldetikako zorionak zuk zabaldu Abesbatzako ertilari bizkorren artean.

Alde guzietako izparringi ta aldizkingiak goraltzen zaitueten bitartean, aize bultzadan ega bedi Abesbatz zoragarriaren ikurrin itxaropentsua. Aurrera, Euzkadiren aldele zintzoak!



Basarriren Irudia.Zarauz (J.M.I.)

## Idiakezen auzia

*El Día, 1934-04-26*

---

Berri pozgarri ta alaitsu bat jasoa degu. Arreta biziz zaitzen genduala ez dago zer esanik.

Zer dan diozu?

Zaude pixka bat.

An urruti, Dueso-ko ostatu beltzean ezeren erru gabe dagoan anai orretzaz aztua etzera egongo noski, irakurle adiskide ori.

Ainbat denboran, lau orma zar tristeren barrunbean ixuri diran malko zotiñak gure aberriaren ezaugarri bezela dan euskera berdingabearenak dirala ere jakingo dezu, noski.

Bere kutuna ez izatera, beste mundutar izkuntzik etzekielako galdu baizan getariar seme zintzoa. Zenbat ikusteko jaio zan Pantzeska gizarajoa!

Ainbat il luze senditik urrutiratuta, ainbat il luze aberritik at, ainbat il luze berarekin egin duten jokera maltzurkerizkoa gogoratuaz. Zenbat ikusteko jaio zan, milla bider esandare!



Aspaldian ez degu gutxi aitatur. Baita aitatu bear ere euskeraren ikur berezia berekin daramakian gaztea.

Ta ori guretzat pozgarri ta alaigarri dan berria: Idiakezen auzi berritza.

Bera lortzeko ez dira gutxi saiatu gure aldunak! Badute enpeñoa pranko egiña.

Lengo egun batez Alzibar idazle aipatuak garbi agertzen zigun beren ibillera.

Zenbat exkiñari eldu bear izan dioten gai bera dalata!

Asi Leroux-engandik, ta ainbat erkaltzain edo ministro, legegizon, Tribunal da abar...



Makiñabat aldetara jo bear izan da, irakurle. Geienok ezagutzen baidegu errugabea dala. Zentzuzko diran guziak ala esango dute beintzat.

Gertaeraren berri jakin duten erbestetako gizon aipatuak ere ala aitortu dute. Bada, ainbat enpeño ta ainbat aldetara joagatik, artarañoako itxaropenik ez da arkitu gaur arte.

Oraintxe lasaitu gera.

Amnistia edo dalako onen bidez lortu da Idiakezen auzi berritzea.

Ene, gaizki diot oso. Ez da amnistiaren bidez bakarrik izandu. Hörn aldun jakintsu azkarraren eztarri bidezko ta leiaketa jakin-durizkoan bitartez baizik. Zorionik maitekorrenak damaizkiogu euskaldun artaldeko artzai burutsuari.



Auzia berriro

Zuzentasuna buru izango dalakoan gaude. Orixe nai genduke beintzat.

Baztertuko al dira noski jokera maltzur ta gorrotozkoak, ta bide egingo al zaio egia ta arrazoiari.

Au da Euzkadik zutiñik jarrita eskatzen duana.

Ta gu itxaropenez aizatuak gaude.

Egia ta arrazoiari bidea uztera ezker, Idiakez anai zintzoa geure artean baidegu bereala.

Au izaki berriz gure gaurko ametsa.

Errurik gabe bota zaituzte  
zorigaiztoko leizera;  
euskerarekin batera negar  
egindakoa zu zera.  
Euzkotar orok zu ikusteko  
egarri bizitan gera.  
Atoz Pantzeska, atoz lenbaitlen  
anaiak besarkatzera!

# Gure ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-05-10

---

Atsegiñez gañeztaturik ibilli gera lau egun aunditan, Euzkadiri bira emateko zoriona izan baidegu!

Aberriaren edertasuna bikainki nabaritu degu. Ai zer asealdia duten gure biotz egarritsuak!

Ikusi degunatzaz, ta senti degun alaitasunagaz zerbait idaztea bururatu zait, alain egoki egingo ez dedan arren.

Ia ba, irakurle, asi gaitezen astiro astiro, ta ia zer derizkioztzun.

Ez daukagu presa aundirik eta gauzak patxaran egingo ditugu.

Guzia idazki batean adieraztera ezkeru luze samar joango litzake, ta orixe ez da komeni. Ezer dan txarrena da irakurleak aspertzea.

Orregatik bada, bi edo iru idazki koxkorretan adieraziko dizut gure ibillera zertxo izan dan. Lan auetan asteko (egia esan) ez nago ba bear bezela jantzia. Bear-bearreko nituken aztarna batzun palta somatzen det. Zer egingo da ba!

Orrelako ibiltaldi bat egin ta aitamenik gabe ezin utziko diagu beintzat. Gezurrak irten zeok!



Gipuzkoarra izaki ni, ta igande goizeko zazpiretan Bilbaotik irtetze ezkeru, bezperan joanda konturik onena. Alaxe egin nuan ba, ta... larunbat arratsean Bilbaoko Euzko Gaztedian aretoan ibiltaldi orren zuzentza ardura zeukaten jaunen aginduak artu ondoren, alaiki oeratzea oldoztu nuen, biaramun goizeko sei ta laurdenetan gendukan mezatxoa entzuteko. Alaxe egin ere.

Urrengo goizean, zintzoki jendea esandako orduetan. Uriartetar Eustaki Ondarruako apaiz jaun agurgarria meza-emale.

Jai eguneko eginkizun berezia bete ondoren, Euzko Gaztedian gosalduta ekin diogu bideari. Bidebarrieta kalean jendetza aundiak agurtu gaitu. Aurrera ta aurrera!

Bizkaiko erri paketsuari agur apala dagoigu goizetik, berealako batez Araban sartzeko. An gera Araban.

Lau berebil eder bikañetan goaz. Euzko ikurrin eder bana dute aurreko aldean ezaugarri. Ega dagite aizetan.

Arabako erri txikitan ere asi dira ezagutzen. Bai pozez agurtzen gaituztela!

Lenenengo berebillean giñan, ta erri koskor batean pixkabat gelditzea oldoztu genduan, lau berebillak Gasteizen batera sartzearren.

Antxe geundela, aiton buruzuri bat inguratu zitzaigun pipa-txoa ezañetan zuala. Euskaldun jatorra zirudin begiratu batera, baña ez izandu ala. Alde aietatik uxatua izaki gure euskera zarra. Euzko ikurriñari begiratu bat eman ondoren guregana inguratu zan, ta auxe galdetu zigun:

–¿Son ustedes nacionalistas?

–Sí, abuelo, sí –erantzun zioten nere aldekoak.

Bereala negarrari eman zion agure buruzuri ark, aiek ere euskaldun izan zirala gogoratuz nunbait. Itzegin nai zuan da ezin. Gudana ibillia zala esan ziguten an zeuden batzuk. Ezagun zuan orixe.

*Euzkadi* izparringia emango al genion mesedez eskatu zuan, ta zortzi edo hamar denboraz osatu zituan. “Uno lo guardaré para mí, y los otros los llevaré al centro”.

–Bueno, bueno, bien lo hará usted –erantzun zioten nere ondotik.

Maetzuren Kongresoko itzaldiatzaz gogoratu nintzan une artan; izan ere, ai zer abeak bota dituan kankallu orrek!

Arabaren Españar zaletasuna aintzaldatuaz ta bere lengo izakera euzko jatorrizkoa txarriritziaz mintza baizan. Arabaren euzko izakerarik etzuan aldatu, baizik España zaleena dala ta izan dala esan baño.

Aiton aren musu zabal ta begi neketuak beste gauza bat adierazten zuten. Egaña ta Moraza arabar altsuen jarraitzalle benetakoa zala. Bera ta bertako gaztedia ala izan ere gaur, Maeztuk nai ez arren. Pedro Maria Otañoren *Aiton gizagaixua* olerki mami-tsuak bururatu zitzaizkidan.

Erri polit ura gogo biotzez agurtu ondoren, Gasteizera goaz, zuzenki.

Ordu erdi bateko geldi unea gendukan.

Euzko Gaztedira ikertalditxo egin, ta bereala berebilletan giñan, aurrera joateko asmoz.

Igarotako erri guzietan alaitsu agurtzen giñuzelarik, eguardiko amaiketari sartu gera Lizarrako (Estella) urian.

Enparantza nagusian degu sarrera, ta Euzko Etxea ere antxe dago aurrez aurre. Beren ikurrin ederragaz apainduta daude sapolu ta leioak.

Irujo aldun azkarra ta Lizarrako alkatea dan Agirre jaunak berealako eman digute beren ongi etorria.

Jendetza ikaragarria ikusten degu plaza biran. Bilbaoko Euzko Gaztediko dantzariak ta Lizarrakoak ekin diote lanari.

Dantzaldi bakoitzan bukaeran sekulako txalo soñuak entzuten dira. Jeltzale azia ernetzen gogor ari dala nabaritzen degu. Biotz asko ikutu ditu alde artan ere. Ori ondo!

Ezpatadantza zoragarria txalotza izugarritz trukatu ondoren, Larrasoain ta Cahu Lizarrako abertzale adiskideak topa giñuzen, ta gero ziran komeriak. Ango ardo onak proatuaraz nai ba guri ta an ibili giñan, bodega zulutik bodega zulora. Bazitxeon ederrik! Zer derizkiok, Enbeita?

Ondoren bazkaltzera. Iru tokitara partitu giñan bazkaltarrak. Guri *Fonda Garuna* egokitu zitzaigun, ta Irujo aldun txalogarria alboan gendualarik jan genduan. Abertzaletasun gaiz itz-asper-tua egin, ostatuko etxeoandreari eskerrak eman jarri zuan ja-tordue ederragatik, ta Euzko Etxeara jo genduan akeita artzera.

Txistularien soñu alaietz gogo-mindurik, gaztediak dantza ta dantza zegan, ta gu, Euzko Etxeako leio batetik Lizarrari begi-

ra gaudela, *El Coronel Villalba* Campionen irakurgai zoragarriagatzaz oroitzen gera, ta Iratxeko lekarotiak, Gaztelatarren jokera maltzurkerizkoa ikusita, Nabarratzaz errukitzeko Puy-ko Amari eskatu zion bezela, guk euzko abertzaleok, Nabarra zarra, alain edesti zoragarriko euzko erki aberatsa Sabin bidean sartu dedilla eskatu genion. Jeltzale suak berotu ditzala bertako euzko biotzak.

(Jarraitzeko)

# Gure ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-05-16

---

Tira, goazen, jarraitu dezagun asitako arian.

Esan bezela, Lizarran bazkari bapoa egin, ta Euzko Etxean akeita artu ondoren, ordu adierazia gañean zala ta irtetzea erabaki genduan.

Bertako abertzale talde ugaria gogoz agurturik, aurrera dagoigu berriro ere.

Lastimakeri aundi bat bagenduan: denbora xixtriña. Euri nardatsa ez baizan atertzen. Alaz guziz ere gustora ordea, berebil apartak baigiñuzen!

Artan ba, Naparroako ordeka zoragarriakin begiak irten bearririk giñuzelarik, Iruña sarreran giñan uste baño len. Udaberrian izan ere, bai eder Naparroako lurralde zabalak!

Alaxe bada, arratsaldeko bost eta erditan sartu giñan Naparroako uri nagusian. Euzko Gaztedi aretoa dagon enparantza aundi zabalean jende asko zebillen aruntz ta onuntz. Jaieguna baizan gañera.

Lau berebil aundi makil luze banari euzko ikurriñak erantsita ikusteak, ango jendea arretaz jarriko zuala ere ez dago zer esanik.

Erneki begiratzen zuten guziak. Enparantza zabalari bira osoa eman genion, baña ez genduan ainbat agurtzale. Abertzale banakak denboraz luzatu zizkiguten eskuak. Aien poza!

Guk ez dakigu zer dan abertzale izatea. An diranak proatzen dute ederki.

Zorionez, orregatik, badirudi Naparru zarra ere pixkan bat esnatzen ari dala. Ala esan digute ango anaiak, urtebete onetan anai asko bereganatu dutela.

Kanpion agurgarriak biotz naigabetuaz idatzi zuan: Ooo... Nabarra, Nabarra, lo zaude ala illa?

Berri pozgarria. Ez dago illa, lozorroan baño. Asko ta asko esnatu dirala jakiteak erruz pozten gaitu.

Gure irakasle Sabin aundiaren itz mamitsuagaz gogoratzen baigera: Naparroa abertzaletzen danean, Euzkadi aske izango da.

Gauza auek gogoan giñuzelarik, Euzko Gaztedira ikertaldi-txoa egin, ta ango abertzaleakin izketan gendelarik, ordulariari begiratu bat eman da bereala ikusi genduan gure epea (plazoa) bete zala.

Iruñatik ere irten egin bear gaberako izendatutako tokira joa-  
te ezkerro.

Guziak goxoki agurturik, bagoaz aurrera. Soldadu abertza-  
leak asko egon an, ta aietxek bai gogoz goraltzen giñuzela.

Euria pranko bidean, ta zenbat eta gorago ta otzago. Orreaga-  
ra inguratu bear genduan lotarako.

Iritsi giñanean laxter ikusi genduan an etzuala euririk ari,  
elurra baizik.

Etxegaraitarren ostatu jatorrean bapo apaldu ta lo egin on-  
doren, Uriartetar Eustaki jaunak emandako meza entzun gen-  
duan.

Gosal ondorenean berriz, on Joxe Alkoz erri artako apaiz gaz-  
te jakintsu argia geurekin artu ta bertako konbentutxoa ikusi  
genduan.

Ooo, zein edestizkoa dan!

Alkoz jaun argiak ederki adierazten zizkigun gertariak.

Sancho El Fuerte Naparroako errege trebearen arrillobi be-  
rria, ango idazti zar begiragarriak, aurreko zarren guda erremin-  
tak. Turpin gongotzaiaren oski edo zapatak...

Nork neurtu ango edertasuna!

Zu, irakurle, alderdi artara joan bearrean gertatuko baziña  
beintzat, ez utzi Orreagako eliza ikertu gabe.

Ango geldiunea atsegiñenetako izan zitzaigula ez dago esan  
bearrik.

Ta oraintxe ere uste gabe naikoa luzatu det, irakurle. Geldi gaitan bada emen, Jainkoak nai badu berriro ere zerbait egingo degu-ta.

(Jarraitzeko)



Basarri, Matxin Irabola eta Alkain aita, 1935eko txapelketan



# Gure ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-05-23

---

Danok bagenduan zer esana.

Neri Jesus Gurutziltzatuaren irudia izan zaidak atsegiñena -zion batek-. Neri Amabirjiñarena iruditu zaidak garrantzizkoena -zion besteak.

An zan ainbat ikuskizun ederrek olako berriketaldiak sortzea ez da arritzeko.

Egia esan gogor ari giñan iritzi azalketan.

Alako batean, jaun baten abotsa nabarmendu zan beste gu-ziengandik.

Ibiltaldiaren ardura berak zeramakialako, irteteko ordua gendula adierazi zigun.

Ta, jakiña, irten egin bear.

Igo giñan geure berebilletara, baña ez Orreagako idazkari prestua ta abertzale bezin euskaltzale sutsua dan jaun begiragarria, ta alain giari zintzo atsegiña izan genduan on Jose Alkoz apaiz jaun gazteari eskua estutu gabe.

Geure abieran, jaun ongille oriekin batera biotz biotzez agurtu genduan alain erri edestilaria dan Orreaga atsegiña ere.

Ibañetako gaña artu degu berealako batez, ta beera ta beera gero.

Bai aldapa luze ta arrixkutsua!

Badu biurria pranko.

Pekotxeta deritzaion ballaran gera.

Bi abenderri edo nazio maltzurrek bera aukeratu dute erreka argal aren bi aldetako bizilagunak berezteko.

Lotsagarrikeri beltza!

Errekaz onuzkaldekoak Españarrak ta auzkaldekoak Frantziatarrak. Ta gu antxe zubi bat tarte genduala, alaiki entzuten genduan Arnegitar mintzaera garbia.

Guk alaiki nabarmentzen genduan, zubi bat tarte zala, Arnegitar neska mutikotxoen jolas izketaldia.

Baña irakurle, ez bakarrik entzun, ulertu baizik. Izan ere, arrigarria... euskeraz ari baiziran!

Ta geroxeago berriz, irudipen ta oldozpen latzak geuregan giñuzelarik, antxe genden karabinero estalpean, zubi ura igaroko bazan derrior bear ziran aitortzak egiten.

Makiñatxobat agiri ta endredo ortarakoxe ere!

Españar karabinero batek galderak egiten zizkigun bitartean, beste batek eskutan generamazkigun maletatxoak miatzen zizkigun. Ordu t'erdi igaro bear izan giñuzen aurrera pasatzeko bear zan baimena lortzeko.

Zubiaren bi aldetatik ziran kargu artzalleak Frantze ta Españaren morroiak izaki, ta beren izkuntza Frantsesa ta Española itxura dan bezela.

Zubiaren bi aldetako jendearena euskera zoragarria ordea. Gure aberri elea. Mundu guziaren aurrean zer geran ta zer izan geran alain garbiki adierazten digun argi izar sendoa.

Ona emen adibidez bi bele, berai ezeren gaitzik iñoiz egin gabeko txolarretxoan zanpatzen. Baña irakurle, gaur, biar ta etzi, ta bear bada urtetan zanpatasun ta uztarkera joputasunezkoak jarraituko du, baña iñoiz ez da izango txolarrea bele. Berdiña da gure auzia.



Burutazio oriek geuregan genitularik agurtu giñuzen Arnegitar anaiak.

Ta bagoaz.

Biziki begiratzen degu ezker-eskubitara.

Bertako basetxe txuri ta zelai sagasti ordekek Astigarraga aldean ote gauden pentsatuz jarri gaitu. Ez ezertxok aldakuntzarik egin, geure txokoan gabiltzala dirudi.

## Donibane Garazi

Benabarrako uri nagusitik barrena Baigorriaraño joateko asmoak ditugu iragarrita bezela.

Ikusitako guziak gogoz agurtzen ditugu.

Bai angoak ere gu. Erneki begiratzen diote euzko ikurriñari; bai alai agurtu ere.

Baigorriin gera.

Jaitsi gera berebilletatik.

Batzuk erritxoari ikustaldia ematea erabaki zuten.

Bilbaoko txistulari gazteak langille amorratuak izan, ta txistu lanari ekin zioten. Gazteak berriz dantza ta dantza gogor. Ango bizilagunak denboraz ziran korroa eginda begira. Pozak zorutzen guziak.

Alaxe une alai bat igaro, ango anaiakin itz-aspertu bat egin, erritxoari bira eman ta bazkaritarako berriro Donibane Garazira jo genduan.

Ango ostatu ospetsu batean bapo bazkaldu ondoren, gazteak dantzari ekin zioten ostatu aurrean. Garazin berriz alain zuzen peria gertatu egun artan. Txistu soñua entzun zutenean an ziran bereala ostatu atarian. Ura jendetza bildu zana!

Ainbat anai inguratu zan ezkeru zerbait egitea itxura zala, ta Enbeita gazteak eta nik geure agurra bertsotan belarri ertzeratu genien. Etziran gutxi poztu, alajaña. Euskaldunak izaki, ta bertso zaleak aiek ere.

Erri orretzaz nik eman nezaken iritzia au da:

Bidasoaz onuzko beste edozein bezin euskalduna dala, edo bearbada, geiago.

Ainbat gizon-emakume, ainbat tratolari ta merkatari zan arren, ez genduan guk euskera beste izkuntzaren arrastorik senti, ta au da señaile onena.

Ango aiton-amonen arpegi irripartsua, ta beren euzko jazkera berezia, munduko naziorik urrutienean gertatuta ere errez eza-gutzeko modukoa da.

(Jarraitzeko)

# Gure Ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-05-26

---

Irten gera Donibane Garazitik. Len esan bezela zoratzeko paraje aietako edertasunak nabarituaz. Benetako euzko erriak angoak!

Benabarra ta Zuberoako mugan gera. Garindain, Lizarra, Libarena, Gotain, Doneztera ta gañuntzeko zuberoatar erri pake-tsuak igarorik, Atarratzerako pozetan gera bereala. Bertan igaro bear baidegu gaba!



Erri sarreran zai-zai jarrita bazeuden emakume batzuk.

Iritsi giñanean, Gora Euzkadi Askatuta! batzuk entzun giñuzen. Ez giñan asarre orduantxe! “Emen ere esnatzen asiak zeudek!” –genion alkarri.

Len ere azi zabaltzalleak iritsiak zeudela, bereala antzeman genduan. Beren lauburu ta guzi pijo zeuden gero! Pozgarria benetan!

Ango emakumien gogoa ala zalako, Santa Engrazia deritzazko ballara bixitatzea erabaki genduan.

Atarratze, 1.300 biztanle inguruko erri polit bat da, ta egun artan alain zuzen, merkatu eguna egokitu (an esaten duten bezela).

Santa Engrazira joateko ango kale berezietik igaro bear genduan, ta periko jendeak, Gora Euzkadi! deadar sutsuak jaurtitzen zituen parean igarotzerakoan.

Ontan bagoaz ba aurrera.

Ango emakumeak oker ote zeuden bereala eman genion tankerera.

Amar aneurkin edo kilometro zeudela esan ziguten Atarratze-tik ballara artara. Bai onak, konpañe!

Jarrai ta jarrai, ta biderik bukatzen ez; kamioa estua eta bildurgarria berriz. Alako komeririk!

Denbora ere txarrenetakoa genduan, ta aspertu giñan ain-  
besteko ibilliz. Aspertzekoa zan izan ere!

Noizbait bear ta alako batean iritsi gera Santa Engrazi inguru  
ortara. Ezertarako pozik ez ordea.

Esan bezela denbora txarra, ta illuna ere urreratzen zijoan.

Berebiltzai edo txoperrarentzat ere etzan ura leku ederra.  
Bide estu ta bildurgarrietakoa baida esan bezela.

Zio oriek zirala ta ostera biratzea pentsatu genduan. Ala egin  
ere.

Amar baño ogei aneurkin askoz urrerago dituan bide latzak  
pasa ondoren, berriro Atarratzera eldu giñan, Santa Engrazi ta  
gañontzekorik ikusi gabe. Artzai-leku ederra pranko bada inguru  
aietan!

Ta jakiña, besterik ez da ikusten, ardia, ardi borda ta artzaia  
nunai.

Toki apartak artzantzarako.

Denbora mariagarria ta nardatsa izan ta berriro Atarratzera-  
tu giñanerako asi zan naikoa illuntzen.

Dominika-enea deritzan ostatua egokitu zitzaigun guri. An  
etzegon ordea danak sartzerik, ta beste aldra beste etxe batean  
gelditu zan. Apal ordua zala ta maira bildu giñan itxura zan beze-  
la, ta Atarratzeko alkate jauna ere antxe genduan aurrez aurre.

Anaitasunezko jatordu bat egitera baizetorren gugana. Ai zer  
gizon prestua dan!

Bera ta beste ango emakume abertzale batzuk tartean zirala,  
afari bapoa egin genduan.

Afalondoan alako zerbait bear zala, ta... bertako bertsolari  
bat aurkeztu zigun alkate jaun prestuak.

Dozenerdi bana abestu giñuzen antxe ere, ta pronto giñan  
iragarritako jaialdirako. An goaz bada.

Estalpe ikaragarri bat zeukaten antolatua.

Gu azaldu giñanerako zearo betea zegon. Ura zan edertasu-  
na, ura!

Bertako dantzariak ere egun ortarako antolatuak zeuden ego-ki asko.

Mutil Dantzan tankerako dantza bat egin zuten lenengo. Bai atsegin izan zitzaigula guri! Gutxi ikusten dana, edo lenengo aldiz ikusten dana (guk genduan bezela) beti gustatu izan da zerbait, baña guri egia esateko oso gogozko izan zitzaigun.

Lenengo idazkian aditzera eman nizun, irakurle, bear-bea-  
rrezko aztarna batzuk palta nituala. Beste askoren artean, Zube-  
roatar anaiak egindako dantzen izenik ez jakitea beintzat. Errez  
somatzekoa zan ori, baña egia esan, lenengo ez nuan berri auek  
emateko asmorik. Oek dira ba nere utsegiteak. Emen jarriko  
banitu dantza aien izenak, Aita Donosti ta bere lagunak laxter  
emango lioteke tankera. Nik uste det emengo euskaldun askok  
ezagutzen dituztela.

Lenengoa esan bezela, Mutil Dantzan tankerakoa zan, ta bi-  
garrena, sekulako ikusgarria. Edontzi edo baso bat ardo jarri  
zuten lurrean, ta bere inguruan egiten zituzten sekulako imin-  
tzioak. Aien biguntasuna aparta zan, orregatik! An begira zeuden  
erritarrekin itzegin genduan, ta an ingurutako dantzari onenak  
zirala esan ziguten. Ezagun zuten bai ondo! Aien abildadea!

Basoa joko ez joko egiten zituzten ikaragarritzko.....\* an gen-  
den begira noiz botako edo ausiko zuten edontzia, baña bai zera!  
Etzeuden ortarako. Mutillak, apartak zirala!

Anka biurriak etzuten edontzitik luma baten tarterik izango,  
baña saio galanta egin zutenagatik osorik gelditu ziran.

Bai gogoz txalotu giñuzela guk zuberootar dantzariak! Ongi  
mereziak baiziran!

Angoen urrengo, Bilbaoko Euzko Gaztediko ezpatadantzari  
trebeak azaldu ziran jendea aurrera, ta txalo burruna aundiz  
artu ziran.

Gure Ezpatadantza zoragarria aieri bai gogozko izan zitzaie-la.  
Ango txalo ta gorak etziran makalak.

---

\* ..... ezin irakurri.

Eldu zan gure txanda ere, ta Enbeita gazteak eta biok kanta giñuzen alako batzuk, geure edesti apurra ta zer geran adieraziaz.

Ontzat artzen zutela zirudian; txalo aundiak ziran beintzat. Gazte jende guzia dantzan zan andik bereala. Txistulariak soñua jo, ta... zuberotar ta bizkaitarrak dantza ta dantza. Zer une alaia anaiak ala nabaritzea!

Saio galanta egin ondoren lotarako ordua zala, ta txistulariak martxa joaz aurretik giñuzela, geure ostatura inguratu giñan. Gogoz agurtu giñuzen azkenean Atarratzetarrak.

Nere gelara inguratu nintzanean, Bizkaitar bat etorri zitzaidan aldamenara, kalean eztabaidan gogor ari zirala aditzera emanaz.

–Zer gai dute bada? –galdetu nion ta,

–Zuen bertsoagatik ari dira –erantzun ziran–. Batzuek frantsesak dirala diote, ta besteak ezetz berriz gogor.

Beste aldra aundi bat berriz, Ezpatadantza bezelakorik mundu guzian ez dala egiñez nabaritu det...

–Señale ona orduan, adiskide.

Eztabaidak ugaltzea komeni zaiguk guri gai oietan. Ongi goazik bide ortatik.

Gu agurtzera gela ondoraño igo zan alkate jaunari esku eman, ta loari toki ematea oldoztu genduan.

Aitaren ta Semearen...

Apatx!

(Jarraitzeko)

# Gure ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-06-01

---

Lo gozoa guk an egindakoa. Goizeko zazpirak genduan ordu izendatua Atharratzetik irtetzeko. Esnatu nintzanarekin batean ordulariari begiratu nion, da... zazpi ta laurdenak joak.

Ederra egin diagu! Jantzi, gosaldu ta gañerakoak egiterako zortzirak. Baña... a... besteak ere ni bezela ordea!

Apaiz jauna bai bizkor asko meza ematera. Ura goiz ibilli zan; ta etzan bakarrik, bazituan lagunak. Ai zer giari zuzena on Eus-takio jauna! Guk ez geniola bear bezela segitzen, ori zan okerra.

Geure egitekoak eginda, irten gera Atarratzetik.

Erri paketsua agur xamurrez lilluraturik, aurrera geure bidean. Bai egokiera txarra! Euri sastarra etengabe! Berebil irikian ibiltzea gustatzen guri, ta etzegon ori egiterik. Estalkiarekin ibilli bear.



Goazela goazela, itxaropenez ornitu gera. Denbora jasotzen ari da.

Sarriota, Arrua, Domezain, Berroeta ta gañontzeko erritxoak igarotzerakoan erruz poztu gera, ori dalata. Berriro Benabarran sartu gera.

Donapaleu, Guruz, Meaira, Doniztiri ta Lekuña igaro ondoren, Azparren degu. Erri garrantzizkoa dirudi onek. Baditu 5.600 biztanle inguru.

Ordu laurden bateko geldi uea egin genduan.

Ola edo fabrika ederrak badizkitzu; oñetako, tela ta abar egi-ten dira.

Geure jiratxoa eman ta bidean berriro.

Sartu gera Laburdin.

Ta geure jaialdia iragarrita zegoan tokira iristeko pozetan genden. An gera ba.



## Kanbo

Erri polita degu auxe ere gogotik. Bertara iritsi baño len eman diogu tankera.

An gera sarreran. Sekulako jende pilla dago zai jarrita. Bi edo iru apaiz jaun ikusten ditugu sarreran. Au edertasuna!

Gora Euzkadi!, deadar ugariak dira. Bapo!

Trinkete aldameneko ostatuan iragarki aundi bat irakurtzen degu. Gure jaialdia aditzera ematen du.

–Ordua da, jaunak! –esan digute ango antolatzaileak.

An goaz danak trinketera.

Arritu giñan gogotik, lepo-ezurreraño betea baizegoan.

Laburdin biziagatik bizkaitarra dan apaiz jaun bat zuzen-dari dutela, Kanboko dantzari txikiak ekin diote lanari. Ai zer txalo burruna entzuten zuten saio bakoitzean! Bizkorrak ziran, arraiok ezpaitu!

Ondoren gure dantzariak. Betiko trebetasuna azalduaz egin zuten berena, ta an asko gustatu zala ez dago zer esanik. Ango atzapar batzeak ala adierazten zuan. Gora zuek, Bilbaotar tre-beak!

Bertsolariak ere bagiñuzen. Matxin ta Garel, bi laburditar sonatuak an ziran aurrez aurre.

Bikañak dira benetan. Laburdiko abots goxuan abestu zituzten bertso jatorrak goieneko iruditu zitzaizkidan neri. Bi puntu gogoan artu nizkion Matxin argiari. Pena det bertso osoa ez izatea. Au zion azken puntuan:

Guri mugak yartzea  
ez dago ongi egina,  
kentzea izango litzake  
geure atsegina.



Bertso bakoitzean txalots aundiak entzunaz bukatu zuten beren saioa, ta ondoren gure txanda zan.

Abertzaletasun arauz alako batzuk abestia an bildu zan jendetzaren gogozko zala bereala antzeman genion. Ondo artu giñuzen gogotik.

Abertzaletasunean, Zubero baño aurreratuagoa dagoala eman genion tankera.

Oriek orrela egin ondoren, Euzko Abendaren Ereserkia abestu zan, jendetza guzia zutiñik zalarik.

Ondoren bazkaitara.

Ostatu dotore apain batera urbildu giñan asera on bat emateko asmoz. Eun da berrogei lagun inguru bagiñan, da... guziak ezin toki batean sartu. Banaka batzuk beste alderako gelditu ziran. Bapo bazkaldu ondoren, berriro ere kantu lanean saiatu bearra izan genduan.

Gurea bukatu zanean, apaiz jaun agurgarri bat jaiki zan aulkitik, itza artzeko asmoz. Bai itzezin ere!

Egia esan, askoz izlari trebeagorik ez det iñun nabaritu. Bai biotz ikuitzalleak bere itz borobil sendoak.

Aruntz azaldu giñan guziak biotzez eskerturik, ta Euzkadi osoari agur biozkorra eskeñirik, aurrera ere bere jarraitzalle zintzoak izan gaitezen, euzko ikurriñaren iru margoen adierazmen edo esan naia agertzen asi zitzaigun. Bai egoki egin ere!

Une gozoa uraxe benetan. Berak duten euskera pin samurrian ta beren egokitasun berezian gure asmoak ongi beteak gelditu ziran.

Yakintzaz ornitutako euskaldun trebea jaun agurgarri uraxe.  
Zein zan jakin nai zendukela?

Goian diodan guzia utsa dala bereala antzemango dezu. Guk ezin gentzake-ta bear dan lekuan jarri.

Oxobi gendun, irakurle, Oxobi laburditar euskal idazle goienekoa. Ai, Auñamendiz auzkaldetik orrelako asko balira! Besde modu batez agertuko ziran gaur erki edo probintzi oriek!

Guk ere bagendun ordea geure gizona. Uriartetar Eustaki jaunari etzegokion ixillik egoterik.

Nola ba, bere lagunan itz sakonak entzunik...

Ai zer ikasaldia eman zigun onetxek ere.

Nik ez nekian nun nengoan ere edertasunaren zoramenaz. Abertzaletasunaren arazo astunenetzaz mintza zitzaigun. Aberri elean goraberatzaz. Euskeraren bizikera bakarti ta illunatzaz. Euzkadi euzkotartutzeko bideak urratu bear ditugula aditzera emanaz bukatu zuan bere izketaldi sutsu bikaña.

Ai zer txaloak entzun zituzten jaun biak. Ongi mereziak, alajaña.



Mai ondoan gurekin ziran Kanbotar euskaldun jatorren izketa gozoak entzun genitularik, paraje aietako euzko izakera berezia nabaritzen gendularik gaur zoritxarrez benetako ta zuzentasunezko bidetik ondotxo aldenduak gauden arren ere.

Otaño azkarrarekin batera esaten genduan:

Zazpi aizparen gai dan oiala  
ebakirikan erditik,  
alde batetik iru soñeko,  
utzirikan lau bestetik.  
Goraizeakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oial batetik

(Jarraitzeko)

# **Igandez Zarautzen.**

## **Bostgarren Olerti-Eguna**

*El Día*, 1934-06-06 / *Euzkadi (El Día-tik)*, 1934-06-07

---

Alai ta pozez gera zarauztarrok, ta badegu ainbat zergati. Bostgarren *Olerti Eguna* gure txokoan ospatuko baita, J.L.

Euskaltzaleak bazkun goragarriak urtero antolatzen duan jaialdi txalogarriatzaz zerbait dakigunak gera.

Ernanin ta Tolosan ospatutakoak geure begiz ikusi baigenitun. Ta oietako olerti egunak guziz goieneko ta guziz anurakorrak izaki euskera zarraren aintzarako.

Berdin esan bear Errenderin eta Urretxun egindakoak ere. Oetxengatik pozten gera zarauztar euskaltzaleok.



Aurtengo eguna, Lizardiren gogorapen eta omenez degu. Nola ez gogoratu izan ere euskaldunak Lizardiren izen illezkorra?

Bai, gogoan izango degu; baña ez guk bakarrik, baita ondorengo gizaldiak ere.

Ez dira aztutzekoak euzko olerkari gurenaren bertso eztitsuak.

Orixekin batera esan genezake Lizarditzaz: Euskera mendean du iñork bada!

Zer joskera txukunak, zer mokaru gozoak!

Jauregitar Koldobika olerkari aipatuak esaten digun bezela, bi asmo zerabilzkian gure Lizardi aundiak.

Bata, euskera zernaitarako gai dala agertu naia; bestea, euskeraren batasuna lortu asmoa.

Ori egia dala argiro adierazten dute ondoren datozen zati auek:

Baña nik, izkuntza larreakoa,  
nai aumat ere noranaikoa.  
Yakite egoek igoa,  
soña zar, berri gogoa!  
Azal orizta, muin betirakoa.

Ez adi beldur, nere Maiteder  
baserriz landa nai aumat ager  
arazi, bazterrik bazter,  
arroki; ezpaitun ezer  
lurbiran ederrik i bezain eder.

Ainbeste esangai, ainbeste itz doi erabiltzen ditu; kirioz ta olerkiz yantzia da, euskera erkiperano landu digu. Gurean orain arte ez du izan kiderik, nekez duke garaitzallerik (Orixe).



Zarauztarra gendun, benetan Zarauzkoa.  
Zorionekoa onelako seme baten azi leku dan txokoa.

Zarautz. Ona emen azken arnasa laxter eman bear duan olerkari nekatuantzat atsedentoki egokia. Itsasaldetik begira, mendartean kokatu dan uso aldra zuria dirudi erri onek (Barrensoro, *Euzkadi*-tik).

Bai irakurle, alaxe da

Atoz igandean ta, ai zer era zerbait jakingarri ikasteko!

Emen dituzu Mendilauta, Mollarri, Talai Mendi ta Santa Barbara gain zoragarria; emen dituzu Lizarditar Xabier abertzale zintzo ta olerkariburuaren amets toki aipagarriak. Emen dituzu Arruti, Lizundia, Solabarrieta, Murua, Amesti, Zinkunegi ta beste ainbat ta ainbat Lizardiren lagun; eskolatik asi ta joan zaigun arte anai bezelatsu izan diranak. Itzegiteko daude guziak.

Bere gazte denborako izketa egoki edestuko dizu auetako edozeñek. Emen dezu alain gogozko izan zuan ondartza zoragarria; emen dezu bataiatutako eliza, emen zelai, sagasti ta gañontzeko ordekak; berak inoiz aztu gabekoak. Emen dezu zutiñik bere jaiotetxea, emen bere sendi naigabetua; emen bere ondorengoak.



Egun bat opaldu deiogun gogo biotzez gure izkuntzari. Lotsagarrikeri beltza au onela esan bearra. Lotsagarrikeria, ezer badata...

Artiztar Xabier idazle bizkorra “Euskera astea” eskatuaz lan da lan ari da.

Ni berriz, euskerari egun bat opaltzeko adieraziaz. Edozein euzko biltokitara joan da “itzegin zazu euskeraz” iragarki aundiak ikusten ditugu. Nun bizi gera? Ortaraño baztertu degu gure elea? Aaaa, zein menderatuak gauden!

Egun bat euskerarentzat.

Bost milla biztanleko erritxo au, amar edo amabi millakin izango da laxter.

Lengoak nolabaitekoak bagera ere, orduantxe akabo! Iges dioa euzko susmoa.

Egoki datorkigu

Udarak udara ta neguak negu, geure edergarria gogoz azaldu dezagun. Zarautzen egiten dan *Olerti Egunak*, euskera egunak, berotu ta sendotu bitza euzko biotz guziak. Berotasun ta sendotasun orrek gugan irauten dualarik, zer geran ta zer izan nai degun erabaki dezagun mundu guzian aurrean.

Mintzaeraz, eresiz ta dantza jolasez, guzira, guzi-guzira, euskerari opaldu deiogun egun ori.

Geure bizi guzikoak noiz opaldu bear dizkiogu?



Idazleak, euskaltzale ta abertzaleak, Zarautzen da zuen tokia igandean.

Itsas-ertzeko uritxo polit onetatik oiuka gera. Beso zabalik zuek artzeko.

*Olerti Egunaren* edertasun garrantzizkoagatik pozten gerala esan dizutet lenago. Lizardi geutarra zalako ez gutxiago berriz. Bi bider!

Ta udazken arratseko goiz batean  
esnatu nadin Yainkozko betean.

Goian bego Lizardi!

# Gure Ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-06-15

---

Kaixo irakurle! Emen nazu ba berriro ere. Lengo aste onetan ez diogu aitamenik eman gai oni. Izan ere beste zer esan asko sortu baitzaizkigu!

Ia oraingo onekin puska bat aurreratzen dedan.

Kanboko bazkariaren berri zerbait ematen nizuten oñegoan.

Alain egoki mintzatu ziran apaiz jaun biak gogotsu txalotu ondoren, orduak aurrera zijoazela ta irtetzeko garaia gañean zala denboraz konturatu giñan. Ez giñan atzipetu! Zuzendariaren deira burumakur an goaz guziok. Geure berebil aulkiak osatu ziran, agur Kanboko txoko paketsuari! Agur Oxobi idazle bikañari! Agur oleskariai!

Ustaritz igarotzerakoan, euzko edesti zarratzaz oldozten jarri gera. Erri au Laburdin, Gernika gure artean bezin aipatua baita. An baizan len Laburdiko aritz sonatua. Aurreko zarrak bere itzalpean egiten zituzten batzarrik garrantzizkoenak!

## Baiona

31.636 biztanleko uri apaña degu au. Ordu erditxo batean gelditzea oldoztu zan.

An igaro bear duanak ezin ba ikertalditxo bat egin gabe jarrai. Astakeri aundia litzake orixe; zera... bein joango ta...

Kaletan barrena etengabe badabil jendea. Gure euskera kultura bertatik uxatua dala bereala errezelatu giñan. Tamalgarria!

Batzuk museo sonatua ikusten ziran bitartean gu antxe ibilli giñan ikusmiran.

Bada denda ederra pranko! Toki txukun ta apaña benetan. Aparta, irakurle!

Denborak bete diranean berriro ere aurrerako asmoak ditugu.

Angelu ta Biarritz ere gogoz agurtzen ditugu. Bai ibiltoki ederrak ementxe! Victor Hugo olerkari izen aundiko arek ere leku

pozgarri ta alaiagorik etzuala inun ezagutzen idatzi zuan beingo batean.

Poliki poliki bazterretara arretaz begiratuaz igaro gera.

Bidarte ta Getari erritxoak atzean utzi ditugu ta an gera...  
Donibanen.

## **Donibane Loitzun**

6.700 bizilagun ditu berekin.

Euzkadiko erririk politenetako bat degu au. Apain ta garbia benetan. Udaran zai dagon oietako bat dala ondo ezagun du. Lenago, erririk arrantzalenetakoa omen zan au; ala dio edestiak.

Ziburu deritzaion erri polita dago zubi bat tarte. Oso arrantzalea da erri au ere. Lengo irakurgai zarrak diotenez, ziburutarak joan omen ziran lenengo Terranovara bakallau arrantzara.

Orrelaxe ba, geure biratxoa eman diogu alain txoko eztitsuari. Ostatu-etxe bikain bat aurkeztu digute arratserako. Barrenera sartu geranean nunai euzko ikurriña ikusten degu zintzilik.

Etxe barrunbe zoragarri artan bapo apaldu ondoren, erriko enparantzara aurkeztu giñan.

Donibane Loitzungo abertzaleak jaialdia antolatzea nai baizuten mundu guzitik. Ala egin bear izan ere.

Enparantzan jendetza aundia begira zalarik, musika lekura igo ta dantzari eraso zioten Bilbaotar ezpatadantzariak. Entzun zuten txalo sutsua pranko. Ondoren txistulariak jo ta jo, ta ango jendetza dantza ta dantza.

Ango arrantzale gazteak ere etzeuden geldie egoteko. Ai zer saioak egin zituzten!

Antxe gañetik dantzariak begira geundela Donibanetar neskatxa talde bat inguratu zitzaigun, ta geu ere itzegiteko modutan giñala nabaritu zutenean, bat inguratu zitzaigun esanaz:

–¿Son ustedes españoles?

Euskalduna zala bereala antzeman nion, ta...

–Ez neskatxa, ez. Euskaldunak gaituzu –erantzun nion.

–Ene! –arritu zan– Nola liteke ordea? –zion ikaraz bezela.



Ainbeste bira eman zutela gutarren ingurutik, ta etzutela tantorik entzun.

Betiko leloa, irakurle. Abertzaletasunaren akats latza orra bixtan. Eguneroko kontua degu au. Ez frantzes ta ez españar, euzkotarrak gu!, orruaz ibilli, ta itzik ez gure elean. Erdiak ez baizekiten gañera euskeraz. Ori da negargarria. Aberria baño len geuk askatu bear degu –zion Uriartek. Ai zer egia!

Tristeia da gero abenda arreba batengandik ori entzun bearra!



Orduak ere aurrera zijoazen, ta jendea naiko dantza eginda zegon ezker, txistulariak biribilketa alai bat joaz aurretik abiatu ziran, baña ez bakarrik. Erri guzia an genduan laguntzen. Ango alaitasuna!

Nere errian zaindari pestetan azkena jotzen dan biribilketa bezela. Orduan saiatutzen ez danik ez baita izaten.

Poz eta alaitasuna  
guk ibiltaldian,  
etzaigu aztuko bizi  
geraden artian.  
Jokatzen geralako  
zintzo ta pakian,  
maitatutzen gaituzte  
gabiltzan tokian.

(Jarraitzeko)

# Gure Ibiltaldiko berriak

*El Día*, 1934-06-22

---

Ostatu apain dotore artan lo gozoz atsegindu ondoren, geure gosari pasara egin, ta iragarrita gendukan ibiltaldirako gertu giñan.

Irten ordua baño lentxiagotik, Donibanen bizi diran bi aberztzale bizkaitar antxe zeuden zai, geurekin batera Larraun mendia-  
diaren gallurra ikertatzeko asmoz. Baita Donibaneko bi edo iru abertzale ere.

Guziak pronto ziran orduan irten, ta... an goaz Larraun oñe-  
tara.

Geienak iritzi batekoak ziran.

An gora, alegia, artarako jarria dagon tximist-gurdi edo funi-  
kularrean igo bear zala.

Gezurak irten zio! –genion guk geurekiko.

Bein etorriko onera ta bertan besteren gañean an gora... Ez,  
ez... Beste moduz joan bear degu. Ala egin ere!

Bost lagun osatu giñan ta oñez, trapa trapa. Goiko gallurra  
artu genduanean, ene edertasun berdingabea! Nor gu bezin zo-  
ragarri une artan!

Gallur alai pakezko artan exerita geundelarik, euzko aberriko  
edertasun oro nabaritzen genizkitzun. Orduantxe bai euskaldun  
izatearen gose. Gure mendizaletasun gartsua. Lizardirekin bate-  
ra auxe genion:

Maite ditut gallurrak  
argiak ez beste,  
ai, egaztia banintz,  
gaiñik gain nenbilke...

Geure denbora alditxoa igaro degunean, ostera beruntz jo  
bear bazkaitarako.

Gabeko atsedean leku artara zuzendu gera berriro. Ikurrin ta  
lore usaintsuz apaindua dago areto guzia.

Donibanetar abertzale asko ditugu inguruan.

Bazkaria menderatu samartu degunean, gizon prestu bikain bat zutitu da itzegiteko asmoz. Erriko sendagille jaun argi bat dala esan digute. Bere euskera gozoan ununtzako euskaldunak agurtu ondoren, abertzaletasun egiazkoaren bitartez, euzkotarrok benetako euzkotar ta senide izatera iritsi bear degula dio. Gezur-muga ta esi guzien gañetik euzko artaldearen batasunez aberriaren askatasun zoriona lortzeko. Guziz txalotua izan zan.

Laburditar abertzale kementsu aiek Enbeita gaztea ta bion artean pixkabat gozatu giñuzen. Etorriko diran neke ta enbarazu guzien gañetik, Sabiñen argibidea zabaldu ta sendotzen alegindu ditezela diogu. Ta euzko ikurriñaren margo orlegia gogoan izan dezatela beti ta nunai. Au da itxaropena!



Atarira irten giñanean argazki batzuk atera zituzten makiñan jabe ziranak.

Ta agur!

Geure txokora itzuli bear degu. Badago esku luzatzea pranko.

Ango abertzale anaiak gogo biotzez agurturik, agur dagiogu Donibane polit zoragarriari ere.

Endaia uri polita atzean utzita, an gera berriro muga zorigaiztokoan. Bidasoa ibai zabala degu begien aurrean.

Zenbat oldozpen datorren burura!

Euskaldunen edesti illunatzaz gogoratzen gera. Nola ez bada!

Karabinero zarra pranko badegu aurreko aldean. Ai zer begiratu gaiztoa egiten diguten! Gure kantzarpesare edo maletatxoak bapo astinduak dira. Azkenik orregatik, ezkur itxaropena galdu dutelako, aske utzi gaituzte. Garaia zan! Ori da jendea, ori! Azkenik agur bizi biozkorra dagiogu maltzurkerizko jokera beltzez etsai atzapparretan dagon euzko lurraldeari. Agur xamurra Vol-

taire-k zion bezela, Auñamendiren oñetan dantzatzen dan euzko abenda zati gozoari.

Agur, agur

Gipuzkoako berririk ez dizut ezer emango, irakurle. Arratsaldeko iru ta erditatik bostak bitarte igaro baigiñuzen Zarautza bitarteko erriak. Ordu oiek lan orduak izaki berriz dakizuten bezela. Beraz buka dezadan onenbestez. Nere berri-emate baldar luze onekin nekatu bazaitut, arren irakurle, barka zaidazula eskatzen dizut. Berdin arkitu dituzun akatsak ere.

Ta eskerrak

Eskerrak ibiltaldi ortarako txiro onetzaz gogoratu diran jaun begiragarriai.

Eskerrak, Goikoetxea, Errasti ta gañontzeko antolatzalle zintzo leialai.

Arkiko nazute ni  
txit borondatean,  
aberri aldez egin  
bear dan lanean;  
danok saiatu bear  
al degun añean,  
gertu emen gaude ba  
zerbait nai danean.  
Agur yaun onak eta  
agindu Jel-pean.

# Pelaio Donea, Zarauzko Zaindari

*El Día, 1934-06-26*

---

Edesti orriak aldatuaz ikusten degunez, galizitarra genduan jatorriz; Tuy-ko urian jaioa aidanean, Kordobako errege Abderraman IIIgarrena, biotz gogor ta sinismen donearen aurkako arroburtzat agertzen zan denbora aietan.

Kristautasun izena inguru aietatik uxatu nairik, arroki jaiki zan gizon au, ta Andaluzian sekulako ondamen ta galerak utzi zituan. Alaz guziz ere, etzan orrenbestez ase; Naparroan sartzea erabaki zuan urrengo.

Denbora artako Napartarren erregea, Garzi Sanchez ere etze-goan burua makurtzeko, ta etzan gaizki eratu.

Kordobako errege ankerra azkarrago menderatzearren, Kastillako errege Ordoño bigarrenari laguntza eskatu zion; baita errege au gudoste aundiarekin Naparroara aldatu ere. Bi gotzai ere bazituan taldean: Hermogio, Tuy-ko gotzaia, ta Pelaioren osaba bat.

Bi gudosteak Valdejunqueran alkar jo ta neurtu zituzten beren almenak.

Berebiziko burrukaldi beltz itsusia egin ondoren, nunbait alaxe bear ta Abderramanek menderatu zituan. Lortutako gurendak ainbat pozturik, lege zorrotzak eman zituan: Kristau asko lotuta Kordobaraño joan bearrean izan ziran.

Aien artean, len aitaturako Pelaioren osaba ere bai. Bere mendea mahomatar asko zeuzkan onek.

An Kordoban errege gaiztoaren mende zeramakian izakera latz tristeatzaz asperturik, bere burua askatzeko egiñalak egiten asi zan.

Bere askatasunan orde bere illoba Pelaio ta gañontzeko mahomarrak eskeñi zizkion egun batez erregeari. Erregeak ontzat artu zuan eskeintza ori, ta ortan konpondu ziran.

Orduan Pelaio katigu

Amar urte besterik etzituala, Kordokako espetxe beltzean gelditu bear izan zuan osaba zarrak naitaezko une beltzak igarozten. Iru urte egin zituan espetxean.

Bai ikasbide ederra pranko eman ere aldi ortan! Kartzelako lagunak gogoz atsegintzen zituan.

Uzkurtza edo erlijioaren aurka asten ziranak, denboraz ixil arazten bazekian. Bai gure gaizkabidea garbi ta txukun adierazten ere.

Gauza aundiak egiteko jaioa zala ongi ezagun zuan. Amar urterekin Kristoren egiazko bidali edo apostolu agertzen zan.

Abderraman IIIgarrenak ere jakin zuan gaztearen berri. Esan baizioten zer bide zerabilkian!

Bere argitasun ta edertasun albistea ere jaso zuan erregeak.

Egun batez bere aurrera azaldu bear izan zuan. Bereala jo zuan begiz Abderramanek.

Sekulako aberastasun ta aginpideak eskeñi zizkion, Jaunaren bidea utzi ta bere eran jartzeagatik. Munduko zorion ugarirenetakoak bereganatu zezazkean denbora gutxian.

Erregeak ainbat aberastasun agintzen zionagatik, ta eskeñitako ondasun danari atze ematearren, bere sinismen gartsu ta sendoz erantzun zion Pelaiok: “Jakin ezazu kristau naizela, ta zuk eskeintzen dizkidazun ondasun oiek aldakorrak dirala; baña nik iritsi nai ditudan goiko ondasunak aldakuntzik ez dutela. Orregatik ez det ukatuko Jesukristo nere Jauna. Bera goratuko det, ta egizko Jaungoikoa bera dala aitortzen dizut”.

Abderraman odoltzaleak Pelaioren bikaintasuna ezin garaiturik, aundizki batzungana biali zuan, auek biurtuko zutelakoan; baña... erregea bezelatsu gelditu ziran. Pelaioren sinismena indartu ta trebetzea besterik etzuten lortu.

Orduan erregeak, burni tenazaz burutik eldu ta gora ta bera erabiltzeko agindu zuan, alik eta Kristoren izena ukatu arte.

Ez lortu ordea au ere.

Gorputza txiki-txiki egiteko eman zuan urrengo agindua. Arrabiz gañeztua zan orduantxe.

Morroi gogor aiek, nagusi odoltzale biotz galduaren esanetara makurturik, Pelaioren gorputza zatitu ta burua mozturik, Gualdalkibir ibaira jaurti zuten.

Alaiki ega zan zerurantz. Amairu urterekin artu zuan goitar betikotasun zorion atsedena.



Zarauztarrak eraspen edo debozio aundienetakoa izan dute berarentzat. Bere irudia itsas-ertzean arkitua dala zabaldu dute gizalditik gizaldira. Pelaiio Donearen ermitatxoa Inurritzako kanalean zan lenago. Bere serora-etxe ta guzi gañera; beraz gauzak itxura du.

Orain galderatxo bat biotzez.

Gaurko zarauztarrok aurrekoak bezelako eraspenik bai ote degu santuagan?

Ez zoritxarrez.

Aurrekoen izkuntz garbi paregabea baztertu egin baidegu nolainai. Garbitasun guzien ixpillua dan aberri izkuntza bazterturik, loi ta birauz betetako batekin baigabiltz arroki.

Aurreko zarauztar arrantzale eta nekazari bizkorrak jolasten ziran dantza zoragarri aiek, lotutako zimur itsuskeri beltzekoagoak truka baiditugu.

Aurrekoak ezagutu etzituzten zine sastar loitsu ta irakurgai ondamendizkoakin, arro arro eginda guzia uste degula baigabiltz.

Lengoak alain garbi ezagutu zuten ondartza zoragarria, kristau izenekoak oinkadarik ez emateko añean nardastu ta ondatu baizaigu.

Au zoritxarra gurea!

Ziñopa arrigarri orrek, lagun zaiguzu arren!

Biotzez eskatzen dizugu zarauztarrok!

# Aundinaikeria!

*El Día, 1934-07-13*

---

Aundinaikeri ikaragarria nabaritzen da bazter guzietan gaurko egunez. Zerbait modu dutenak, diru puska bat dutenak, alegia, arroki agertzen zaizkigu, ta ez daude edozeñekin itzegiteko. Lastima izan ere langille txiroarekin eletan astea!

Gañuntzean alain modutsu ez diranak ere, karrera bat, edo beste enpliu goi antzekon bat bereganatu dutela, ta arrokerizko galaz asko ikusi oi ditugu. Orduantxe ez dira auek ere edozein. Neronek ezagutu ditut tankera modu onetakoak. Artaraño bitartean lagun izandakoak ere ez dituzte aintzekotat artzen gerora. Nola ba langille txiro batzuk besterik ez badira!

Len beren soña estaltzen zuten erropak ere ez dituzte begiz ikusi nai.

–Gu ibiltzen giñukan ba oriek jantzita? –diote ixeka antzean–. Emendik aurrera ez orregatik!”. Inun diran pin eta onenak bear dituzte ezer luzituko badute. Ta, jakiña, orixe egin bear ba mundu guzitik!

–Len euskeraz, basatien izkeraz mintzatzen giñukan ba gu, e? Asko atxitzea ukek ori egingo bagendu!

Ta dana orrela. Munduko jaun ta jabeak balira bezela; leporik ez dute aldatuko aldamenean gu bezelakoa agurtzeko. Ortarakoxe zaudek!

Aundinaikerizko uste zakarrez aizatuta dabiltz, oña nun jarri ez dakitela. Au guzia, irakurle, geure begiz sarri nabaritu deguna da. Batere arrokeri gabeak ere asko dira zerbait modu dutenarren ere. Ori ezin ukatu; guzitakoak!

Euskaldunen artean baño atzerritarren artean indar aundia goa du esan dedan gaitz onek. Euzkadin ontarañoko aldaketarik ezagutuko zanik etzeikean esan ordea garai batean. Nola ba!

Aundinaikeri ta arrokeria beti gorrotatu dute euskaldunak. Apalak eta kontuzkoak ziran gai ontan gure aurrekoak, edesti



orritan irakurtzen degun bezela. Bata bestea baño aundiago ta gorago zalerik etzuten iñoiz ontzat artu. Danak ziran aske, danak zindo, danak berdin.

Berdintasun ta zintzotasun ori etzuten iñoren menpeko edo jopu izateko; berdintasun ta zintzotasun ori, guziak beren buruan jaun ta jabe zirala betetzen zuten gure aurrekoak. Gai ontan Bizkaitarren sendotasun ta trebesunak mundu guzian izen aundia artu zuan. Guzien xpillutzat zegoan Euzkadi.

1680garren urtean, izena Mikel Okendo zuan jaunak, Marques de San Willán jauntz izena edo tituloa artu nai izan zuan. 1732garrenean, Berastegiko jauna izenburutzat izatea nai zuan Jose Manuel Eskibel jaunak. 1760garrenean, Marqués de Casa Yustiz izenez ezagutzea nai zuan Manuel Manzano jaunak. 1803garrenean, Igeldoko Jaunaren izena nai zuan Angel Perez jaunak.

Alperrik ziran ordea alegin guziak. Gipuzkoako Batzar Nagusiak txartzat zuan bata bestiandikako aldaketa ori, ta osteralenean gelditu ziran.

Ortik ikusi genezake zenbaterañoakoak ziran.



Katoliko on eta sutsuen aitortza askok egiten degu gaur Euzkadin.

Ala ez geranik ez degu entzun nai iñolako moduz. Ta bitartean, len esan degun bezela sentitzen ditugu asko ta asko. Bi txanpon dituztela, ta aiek ez dituana oñazpiratu ta azpiratzeko alegiñak egiñez. Enpliu on bat duala, ta txartxeagoan pasatzen dana aintzakotzat artu gabe buruarro ta itxuraz aurka. Luzifer zakarra aundinaikeriak galdu zuala ez gera gogoratzen nunbait.

Jaunak, gizonetik gizonera ez dago emen alde aundirik. Bi urteko kontua degu ludi negargarri galbidezko ontan. Ta onela ibilli bear degu?

Aundinaikeri ta arrokeriz ornituta beragokorik aintzakotzat artzen ez degula?

Katoliko zintzoen itxurak egin nai ditugu, norik sinistuko ordea?

Goizpai edo Ebanjelio doneak aztertu ditzagun maiz. Premia degula uste dut.



Basarriren ertzain agiria

# Iñaki Deuna ta Zarauztar abertzaleak

*El Día*, 1934-08-03

---

## **Lenen asmoak uts**

Alaxe egin zigun ba irakurle, asko uste ezpagendun ere. Bezperatik gogor asteko asmoak baigiñuzen. Irujo ta Monzon aldun jatorrak giñun izlari, ta ortik pentsa pin genbiltzan ala ez. Baña, au dek komeria; guri olakorik bururatu ezkeru, geienean badiagu zerbait. Aurten Salazar Alonso edo dalako orren esanetara makurtu bear izan degu.

Astelenetik asi ta ununtzakoak eragotziak baidaude.

Igaz ere berdintsu giñan ba. Izlariak etorri ezkeru galerazi ziguten jaialdia. Azaña erori zala edo etzala, poto orduan ere. Ta bi dijoaz!

Badiagu orregatik urrengoan baliatzeko asmoa!

## **Goiz eresia**

Eldu zan zaindariaren egun pozgarria. Ta gure txistularien soñu alai berdingabea entzun genduen lenengoz. Oe txuritik salto egin da joan giñuzun kale-ertzerano. Alberdi anaiak, Eizagirre ta Zubizarreta ez ditugu geldi egoteko onak. Euzko usaizko jairik bear bada, konta diteke auekin. Aberkide atsegin zintzo auek goiz eresi pozgarriz esnarazi zuten erriko jendea.

## **Iñurritzako meza**

Zortzi ta erditan asi zan esan bezela. Iruretagoyenatar Yon euskaltzale txalogarria gendun meza-emale. Euzko Etxeako gazteak abeslari. Poliki bete zuten beren egitekoa; beren berri dakizutenori esan bearrik ez dago. Bertako armonium altzoan ai zer gizona exeri zitzaigun. Busca Sagastizabal ereslari goienekoa, alajaña! Bai, konpañeo; asi ezkeru pulamentuz jokutzen gera gu, bestela ez asi.

Azkenik “Iñaki” abestu genduan zutiñik jarrita. Arana Goiritar Sabiñen izkiz ordea, e?

Bai, noski. Geure jaialditan (abertzaleonetan alegia) ezpaitigu abesterik galarazi gotzai jaunak. Askok ala nai ordea. Kantari asi giñanean elizatik irten ziran iru edo lau nabarmen aiek ere katoliko zuzenak dirala esango dute. Txuri jende ori ezagutzea ez dek erreza!

### **Aurrekurik ez**

Aurreku dantza jatorra gendukan iragarria eguardirako Muñoan. Euri lardatsa gogor samar asi zuan ta atertzeko itxurik ez; beragatik, beste baterako utzi genduan.

Tamalgarria orixe!

### **Eresaldia**

Eguardiko amabitan asi zan. Eresbatzak eta txistulariak une atsegiña igaroarazi ziguten. Ona emen txistulari bizkorren lanak zein ziran: “Iñaki” ereserkia, Sarriegi; “Contrapas”, Gorosarri; “Amaya ezpatadantza zatia”, ta “Iriarena”.

Beren saio trebearen bukaeran, guziz txalotuak izan ziran gure txistulari bikañak. Gora zuek!

### **Cinema pelotalekuan**

Geure bazkari paxara egin ta an aurkeztu giñan serio asko. Pelota partidu gogorak antolatu zitun Euzko Etxeak. Lenengoz Eizmendi ta Eskudero jokatu zuten, Illaramendi ta Elustondon aurka. Erdipurdiko jokaldia izan zan; ta azkenik lenengoak irabazi zuten. 22 ta 14 gelditu ziran.

Bigarren jokaldia: Ayerbe ezkerria ta Urtzelai, Arregi ta Iruretagoyenan aurka. Sekulako ekiñaldia izan zan uraxe.

Atsegiña ta gogozkoa benetan leiaketa an giñanontzat. Berdinketa sarri ugariak izan zituzten, ta azkenik Ayerbe ta Urtzelai

izan ziran gallen. Zein baño zein egon ziran lau pelotariak; ogei ta ogei ta bi gelditu ziran.

Ondoren Euzko Etxeako bi ezpatadantzari taldeak ta gorulari bizkorrak dantzatu ziran. Ez daude nolanaikoak!

Askotan ikusi gabeak ditugu ta igandez arriturik gelditu giñan. Guziz txalotuak izan ziran. Bijoaz berriro nereak.

Cineman bildu zan jendetza ugaria oso gustora irten zan. Alako jaia izan ere!

## **Aparia**

Zortzirak inguruan asi zan alaitzen Euzko Etxea. Berrogeita amar bat jatun baziran mai altzoan exeriak.

Urdalletik berdindutakoan, bazan zer itzegiña. Ango abestia ta ango broma!

Beste askoren artean, abertzaletasunean ainbat lan egindako jaun txalogarri batzuk ere bertan ikusi genitun.

Uri Buru Batzarreko lendakari prestu Zinkunegirekin batean, Labayen idazle gurena, Larrañaga tolosar aberkide zintzoa, Barrrena ospetsua, ta abar. Gure ikurrin ederra egun guzian antxe egon zan azalgarri. Makiñabat modutako begiratuak izan ditu.

Kosta-erri auetan ez daukagu fama ederra abertzaleok. Zorigaitzeko separatismoa!

Ia urrengo urtean ere danok alkarrekin biltzen geran.

# Euzko Basetxea

*El Día, 1934-08-04 / Euzkadi, 1934-08-05*

---

Ona emen Europako abenda zarrenaren ezaugarri bikaña, ona emen euzko arrazaren edergarri ta aldezle zintzoa. Euzko Basetxea!

Gure izakera, gure edestia, ta gure eskubideak, goitar estalpe apal paketsuan agertzen zaizkigu gordiñen.

Goitar izateari muxin dagio ordea gaur euzkotarrak. Kale zaletasunez ornitu dira ainbat eta ainbat biotz. Kaleari begira asetzen ez gerala jarriak gaude, ta gure aurrekoen bizileku paketsuak utzi, gure abizenen iturburu ta geure jatorria baztertu, lenen goi argia nabaritu genduan txoko gozoa urrutiratu, ta eguneroko burruka bizia, alkar ikusi ezin saminkorra, lanik ezaren ondamenak iñoiz baño illun ta naigabetsuago dituan kaletara gatzoz abia bizian.

Euzko arrazaren kalterako lenengo emandako oker oinkada ori dala adierazten digu Arantzaditar Engrazio idazle jakintsuak. Goi izakera utzi ta kale zaletasuna sortzea, alegia. Kale zaletasun ori, erri gogo ori iru gauzagatik piztu dala jarraitzen du Kizkitza ospetsuak.

Ona nolatan agertzen digun:

Lenengo euskaldun aundikiak, ta batez ere ainbat azio ludi zear egin zuten gizon trebe ausarditsuak zerbait erru bazuten gai ontaz. Ainbat kanpo ikusten zutelako, ainbat uri eder zabaletan iritsi ziralako, berak sortu baizuten lenengoz basetxetik urrundu ta urietan batzea. Bigarren errua berriz alkar arteko asarre ta naspillak osatzen dute. Auzo arteko ta senditako okasio zitalak, euzko arrazaren etsai izan dira, alkarren laguntza bearrena zan garaian batasunik etzuten arkitzen da.

Gero, azkenik, iritsi zan negargarrikeririk aundiena:

Euzko erkiak probintziak bata bestien aurka!

Gezurra dirudi, Bizkai, Gipuzko ta Naparrak ala burrukatu bear zutela!

Anai arteko burrukaldi latz itsusi aiek, erbestekoai indar aundia eman zien, ta orduan asi zan okerbiderik zatarrena azaltzen. Al zan tokira mobi bear izan zuan euzko jendeak: Aberritik kanpora ere ez gutxik.

Geroztik berriz jende ugalmen aundia nabaritu zan, ta lantzeko lurrik etzuten aitzakiz errira ta errira egiten zuten asko ta askok, an al zutena egiñez bizitzeko.

Ikusten danez, gure aurrekoak lasaitasun ta utzikeriz agertzen dira. Nagikeriz, itz batean esateko. Orain zazpireun urte, Euzkadik 200.000 bizilagun zituan denboran, euzko nekazariak zer landurik ez? Nola liteke?

Urrengo idazkian ikusiko degu, J.L.

## Euzko basetxea

El Día, 1934-08-05 / Euzkadi, 1934-08-07

---

On Serapio Mujika azterkatzalle bizkor azkarran lanak irakurriaz, sekulako argitasunak ikusten ditugu asitako gai ontan. Lengo idazkian niona egiztatzeko egokia, noski.

Zumarragako Antigua eliza ederraren aditzera geienok izango dezute, nere ustez. Eliz au, erritik aneurkin edo kilometro bat bidean dago oker aundi gabe, ta lenago berau zan Zumarragako eliza nagusia edo parrokia.

Amaseigarren eunkian eliz nagusia orain dagoan lekura aldatu bearra izan zan. Zergatik uste dezute ordea?

Garai artan iñora ibilli bearra zeukatenak oso trantze estuan gertatzen ziralako. Ta ziorik bereziena au omen zan: alegia, elizakoak iñora eraman bear ziranean, otsoz estaliak izaki alderdi aiek, eta apaiz jaunak oso gaizki erabiltzen omen zituzten; gaixoak ikertu gabe gelditu bear sarritan gañera.

Amaseigarren eunkian au gertatzea ez da oso arritzekoa. 1867garren urteko uztaren 4an, Antzuolako menditan, 172 kiloko artza il omen zuten beintzat eta...

Ta geroztik abenduaren illeko 26an asi ta otsaillaren 14 bitartean, au da 1829garren urtetik 1830ra bitarte, Ataungo mendietan 16 basurde ta 47 basauntz atxitu zituzten.

Iru eunki aurretik, au da, 1579garrenetik 1608ra bitarte, Ordiziako Udaletxeko agiritan ikusten danez diru mordo polita eman zitzaaien eiztariak.

Sari oiek, emeretzi artza, zazpi otso ta katamotz (tigre) baten eiza egin zutenen artean zabaldu ziran; au guzia, Ataungo Agauntza mendian izan zan.



Au onela azaldurik, argi ta garbi ikusten da artean ezer gutxi zala. Basoa besterik ez noski.



Gerora jaiotza ugariak izan zirala, lantzeko lur gabe ezin gel-  
ditu zeizkean euzko nekazariak.

Nolatan ordea gaur Euzkadi orduan baño amar aldiz aundia-  
go izanarren, danentzat ainbat egonda?

Ez da au ulertzen erreza; nere ustez orregatik garbi dago oke-  
rra nundikako dan.

Euskaldun arteko okerra tamalgarria izan dala dio Arantzadi  
azkarrak. Ez kalebizitza txarra dalako, goiko aunditasun ta iza-  
kera zuzenari bear dan garrantzirik eman etziotelako baizik.

Gaur Gipuzkoan zenbat basetxe ote dagoan jakin nai nuke.  
Bizkaian irureundik gora dirala aztarrena aterea nazu. Orra zer  
galbidea!

Abertzaleak Diputazioan ziranean erreztasun aundiak eman  
zitzaizkien basarritarrai.

Gaur ere Jeltzale Alderdia gogor ari da ontan, ta ari bearra  
dauka gogor.

Goia degu abendaren indarra, goia degu euzko abenderrian  
ezaugarri. Euzko basetxea, ixpillu; andikakoak gera euzkotar oro.

Eldu ba lanari!

## Okerrak zuzentzen

*El Día*, 1934-08-12

---

“Euzko Basetxea” izen buruz azkenik *El Día*-ra biali ta *Euzkadi*-n ere agertzeko zoria izan zuan idazkian oker dexente bat agertu zan, ta bidezko irudituta asi naiz argitasun au eman naian.

Nik idatzi nuan, alegia, “jakin nai nukela Gipuzkoan zenbat basetxe dagon utsik. Bizkaian, irureun ta geiago dirala nere be-larritara eldu danez”.

Ona egunerokoan nola agertu dan:

“Yakin nai nuke Gipuzkoan zenbat basetxe dagoan. Bizkaian irureun ta geiago beintzat”.

Beraz “utsik” esan nai nuan.

Ulertzen?

## Bukatu zala uste ta orain asiera

Euzkadi, 1934-08-25 / El Día, 1934-08-28

---

Kontu polita diagu auxe ere. Amaika orrelako gerta izan dek len ere España aldean, ta oraintxe ere marka ta arraia... Euzko Udalen auzia bukatu zalata, arrokeri antzean zeuden denboran, ara komeria...

Asuntoak oraintxe izan asiera!

Gure erri-gizonen botazio ondoren ikustekoak ziran españar izparringiak. Aien oiua! Separatismoan asmoak lur jo omen dute oraingo ontan. Euzko Udalen jokera itsuskerizkoa, noski. Lautatik iruko partea ez omen zan sartu auteskunde ortan. Ortatik ikusi omen da Euskalerrriak gobiernuenganako daukan begirape-na. Gobiernoak ere orain arduraz artuko omen ditu arazoak.

Orrelaxe, irakurle, orrelaxe mintzatu dira Ebroz aruzko egunkari orrulariak. Orrelaxe *La Nación*, *El Siglo Futuro*, *El Debate*, *ABC* ta gañuntzeko olatu zakarra.

Guganako duten gorrotu beltza beti agerkai dutela. Lotsagarrri alenak!

Aldatzen dituzten oinkada danak katolikotasuna ezpañetan dutela aldatzen dituzte, ta gu euzkotar abertzaleak ondatzearren, urkatzeraño gezur ta nabarmenkeri aundienean ariko lirake.

Baña ez pentsa Ebroz aruzkoak bakarrik dirala bide ortatik dabilzanak. Aiek berak baño pipermiñago bezela agertzen zaizkigu geure inguruko diran, *La Constancia*, *El Nervión*, *El Pueblo de Bilbao*, *La Gaceta* ta abar...

Badute auetxek ere benenorik asko!

Euzko Udalen asmoak frakasatu du zearo egunkari auek edesten digutenez.

Gobierno pin ta zintzo jokatu omen da oraingo ontan, ta... sekulako gorantzak eman dizkiote Samper-en artaldekoai.

Besterik esateko iñor ez ta, erregezaleak gobernoa aldezten. Esku ederretan zebillek Erkala edo Errepublikak! Too!



Gezurra ta saltsa bai ugari. Velarde, Muga ta ondorengo konpartsa oso egokia lan ortarako.

Zertan jardun ordea orrela bereala azaldu bear duan gauza izanda?

Lautik iruko partea etzala sartu ezertan, ta igandeko agiri azalketan nola gertatu da gertatu dana?

Bizkaiak dituan 115 udaletxetatik 100 nolatan agertu dira Kontziertoan aldeez?

Ta Gipuzkoak dituan, 89tatik 78 nola era berean?

Oso bide gutxian joango zerate ortaraka. Errenik aundiena gezurra dala pentsatu beti.



Len ere lapurretak ekarri zituan emengo negar ta naigabeak. 1839garren urtean etziguten dana kendu, dakizuten bezela. 1876garrenean egin zuten bigarren kolpea; ta bi lapurreta anker bidegabeko auek, bi gerra sortu zituzten euzko lurtean. Irugarren aldiz daukagun pixka lapurtuta, irugarren guda sortu nai ote dute? Orduko Esparterok aurretik itz gozoak ta atzetik azio miñak zituan. Gaurko Samper, Salazar, Alonso ta Marrakorekin ere gutxi pia.

Berri prexko-prexkoak dituzte orain.

Euzko Udalen jokera, ta Kataluñako lendakariak auzi au ongi irten dedin jaurti duan oiurrintzia, ta au aurrera ateratzeko daukan zaletasuna, España ondamedira bota naia dala zion lengoan *Debate*-k. Guzia batekoz bestera, ikusten dezutenez. Aiek baidira gu ondatu naiez dabilznanak. Gu pakean geunden eurak ortan asi ezipalira!

Euzkadin odol tantorik ixurtzen bada, gobernoa izango dala errudun zion lengoan Kataluñako izparringi batek. Auxe bai egia!

Gauza orain asi da itxura artzen, ta serio samar irtetzea gerta liteke. Nere ustez ori seguruago.

Espanarrak bukatutzat zeukatenean asi da Euzko Udalen auzia.

# Ai zer nolako egia orixe

Euzkadi, 1934-09-01 / El Día, 1934-09-02

---

Emmanuel Audisio deritzaion izparlari sonatu ospetsuak, gaurko Aita Santu agurgarri dan Pio amaikagarrenan itz aitortza eder, bikain, ixpillutat artu bear giñuzkenak agertzen dizkigu. Esan dedan izparlari au bere aurrera aurkeztu zaio; oso aurrera ezpada ere, aurrera esan nai nuke beintzat.

Doipuru goralgarria Castelgandolfo deritzaion txoko txukunean arkitzen da. Bertara atsedean billa inguratu da; nekatua baidago lanezko geiegikeriagatik, ta gañera bizkarrean 78 urte dituala egin bear da kontu. Auxe dalata, bakardadean irauten du gaurko eliz-buruak. Banakaritza edo administrazio gaiz ezpada, ez du beste bixitarik artzen. Ortatik ikusiko dezute, iñungo perio-distak ez daukala berarekin ezer egiterik.

Emmanuel Audisiok orregatik, lurrean dan jaun aundienaren iritzia jakin nai zuan. Gaurko gorabera itun ta larriatzako iritzi bat alegia; ta eskari bidez iritsi du gogo ori betetzea. Ona emen Aita Santuaren idazkaritako batek emandako paper agiriaren zaitxo batek zer dion:

Izan diteken gauzik gaitz eta zailletakoa da, gaur egunez alderdi edo leku askotan nabaritzen dan jokerarekin pakerik izatea. Errien artean ta laterrien artean ez da pakerik izango, Abertzaletasun berekoiak irauten duan arte. Pakerik ez da izango aundiak txikia eskubide gabetandik indar maltzur bidez zapaltzen duan arte.

Pio XI ondoren triste negartia datorrela ikusten du, ta beragatik otoitzan bidez laño illun traketsak uxatzen asi bear degula dio.



Euzko aberria ere odei beltzez estalita ikusten degu, ta au guzia abertzaletasun berekoiak ekarritako ondorena da.

Ebroz aruztik alain eldua ta mardula dan berekoitasunak sortu ditu gure artean ainbat arantza latz eta minkor.

Pio amaikagarrena Austriako burua zan Dollfus-en eriotzak asko naigabetu du. Aundiak txikia azpiratu naia or agertu baida garbi-garbi.

Berdin-berdiña da joan dan eun urtean guk darabilkigun auzia. Zerbaitegatik sortua da egunetik egunera lazten ta gogortzen ari dan udal arazoa ere.

Otoitz beroa eskatzen digu eliz-buruak gaurko kristau guziorri. Jarrai dezagun ba bide oietan barna.

Otoi gogotsu, otoi bero, otoi guziok zintzoki. Fede oneko gizonak ezagutuko al dute euzko nazioaren arrazoibide garbia.

## Zizka-mizka\*

*El Día*, 1934-09-07 / *Euzkadi*, 1934-09-08

---

### ZARAUZKO BERRIAK

–Jaunak egunon deikala, Yon

–Berdin iri ere, Iñaki.

–Zer! Ezer jakin al duk Zumarragako konturik edo?

–Bapo! Jakingo ez nian ba! Batzarra egin zutela gizona, batzarra egin zutela!

–Egitan?

–Baietz ba, motel!

Eunka Asaltoko bertan izan arren trankil asko batzartu omen itukan gure gizonak. Ta ori baño gogorrago dana, Muga jauna, Gipuzkoako gobernadorea ere bertan ukan ta...

–Bai zera!

–Bai gizona. Batzarra ospatu etzedin algiñak egiña izan bear dik. Aren enpeñoa, noski!

–Ez asteko ezertan, ez asteko gero... bestela...

–Ta?

–Baita leiotik bera botako bagaituzte ere egingo degu guk gure batzarra! –esan omen zian batek.

Ta beretzat artu etzikan ba? Orduan omen itukan komerik orduan!

Nun zegon ez omen zetxekin, ta itz auek irten omen zitxioten:

–Ni gobernadore bezela leiotik botako nazute, baña... gizon bezela, ez zuk ta ezta Jainkoak berak ere!" –Zer ote degu au?

–Velarde, Salazar Alonso ta gañuntzekoi ipur garbitzallien kontuak leku onean gelditu dituk.

Erri bat onela tentatzea zer dala uste dute ordea txatxu auek? Zer?

–Ez dek gezurra!

---

\* *El Día*: Zizka-mizka; *Euzkadi*: Siska-miska



–Ta aizak, Iñaki, Zarautz alde ortan ere zerbait ibilli zeratela jakin diat ba nik. Sarri ekin diozute zuek, arraioak ezpaitu izan ere!

Atzoko ortan zer zenduten edo?

–Zer gendun? Zezenak motel, zezenak!

Esango diat guzia.

Irakurriko ukan katalan aldunak ta euzko aldunak Sukarrietara joatekoak zirala atzo.

–Aa... bai.

–Bederatzi ta erditan itukan emen igarotzekoak, ta ordu ortan ikustekoa ukan Zarauzko Euzko Etxea aurre ura. Ango jendea emana! Txistulari, ezpatadantzari, ta dana konpleto zitxeon.

Alako batean azaldu itukan, ta etzitxeoan erremeiorik, berebilletatik jatxi egin bear izan ziteken.

Erri guzia atzetik zala aurrera ta aurrera. Kataluñari, Euzkadi ta euzkoaldun eta kantalandarrai sekulako gorantzak eman zitxeozketen. Baukan txaloa pranko ere, Jesus mutillak!

Alako berotasun ta erri asmoa ikusita, ziñegotzi edo kontzejal abertzalekin batera Udaletxera igo itukan.

Santola ta Monzonek itz batzuk egin zizkiten eskerrak eman ez. Iruxo jaunak, Gora Euzkadi Askatuta!, oi uero bulartsu bat jaurti zian ta bai plazako jendeak erantzun ere!

Euzko ikurriña ta katalan ikurriña alkarregaz egon itukan.

Berandu samar zala ta, “Agur jaunak” txistulariak jotzen zuten bitartean, bi ikurriñen azpitik an igaro itukan beren berebilletan, zarauztarrak egindako arrera ona gogoz eskerturik.

Agur, agur... Ondo ibilli!



Jo zien amaikak, ta jo zien amabiak. Zarautzen ez ukan ezere txintik ere.

Baña goizeko jaialdiak artarañoko miña eman, ezin iraun nunbait geiago, ta zerbait egin bear bazterrak nastuko baziran.



Emengo iru-lau exkalaburu zirala, sekulako jende mordoa osatu ukan ordubata ta laurden inguru, ta kalerik kale ekin zio-tek “Viva España!” ta “Viva España!”.

Alako batez, iritsi dituk plazara, ta an ziaztik Udaletxean gora. Kamarero, txoper, markes seme, neskame, señorita ta gañontze-ko españar jende guzia naasi, egin dituk erriko etxearen jaun ta jabe. Leiotara irten da besoak luzaturik, faszistan eran gogor ari dituk. Noizbait ere orregatik, bazkaritan estu-estu ari zan erritar jendea konturatu dek zerbait badala, ta orduan kontuak! Dozenerdi bat mendigoizale asi dituk gaztain partitzen, ta milla geiagoko taldea izango zan arren, laxter bakandu itukan. Erriko jendea asi ukan gero ta geiago batutzen, ta danak lanerako go-goarekin egokitu. Plaza betetzen zian ango jendetzak; ta danak burrukan! Ango kiski kaska! Badituk epelak artuak. Denboraz ustu ukan Udaletxea!

Pixka baterako jolasgureak aldegin zioak jende orri.

–Bejondaikela, Iñaki! Portatu zerate beraz zarauztarrok! Jainkoak nai duan lekutik etorrita, Ayuntamentuko jaun ta jabe berak? Ez, ortarako etzeok eskubiderik; orrelakotan azaldu bear dik euzko odola badala oraindik. Bejondaizutela, bejondaizutela!



Alako puntara batzuk egoki zetoztik orain ta entzun zaizkidak, Yon.

Milla bat atzerritar  
alkargana bitu,  
erriko jaun ta buru  
nai zuten gelditu.  
Zarauzko gaztediak  
kemenak baditu;  
damutu zaiote bai,  
arraioek ezpaitu!

Udaletxeko buru  
bañu jantziakin,  
jaun da jabe an zeuden  
arrokeriakin.  
Erritarrak bertara  
korajetsu ta pin  
laxter irten ziraden  
pasaporteakin.

On besterik egin ez  
ta zuek orrela?  
Pentsa zazute gaizki  
porta zeratela.  
Ta jakin gu Aitor-en  
semeak gerala.  
Urrengoan ibilli  
gizonak bezela.

Sortu zaizkigulako  
olako nasteak,  
asarre joan dira  
zar eta gazteak.  
Geiago ez etortzeko  
dituzte usteak.  
Emen ilko gerade  
guziok goseak.

## Zizka-mizka

El Día, 1934-09-11 / Euzkadi, 1934-09-12

---

–Kaixo, Iñaki.

–Ola, Jon; emen al itzan?

–Bai gizona; kontu berria aixa sortzen duk egun auetan, ta xelebrea pranko jakin diat nik denbora gutxian.

–Zer arraio duk ba?

–Zer dedan? Irakurri al duk *Kostanzia*?

–*Kostanzia*? Ezta pentsatu ere, motel! Polita izango ukek orixe erosten asiko bagiña!

–Nik ere, egia esan, ez diat erosi. Bizartegiraño joan nauk zer-bait apaindu premiz nintzalako, txukundu bat eman bear diodala, ta... joan dan asteartekoa dala bereala antzeman zeot.

Zarauztar abertzaleagatik bazekarkik kontu ederrik!

Gure manipestazioan noski, sekulako oztasuna nabaritu omen ukan. Ango jende exkaxia arrigarria paper orrek dionez.

Ori gañera, fabrika askotako nagusiak, (naiz langillien borondatean aurka izan) beren lantokiak itxi zituztela.

Esan bezela ez omen ukan ba ezer; jakiña, gauzari ainbeste-ko garrantzia emanda, olako itsuseria nabaritu zutenean, sutu omen itukan Jeltzaleak, ta ondartzara joan ta... oin irrintzika eraso.

Bat gora, ta bestea bera, an ari omen itukan sua nundik piztuko, ta alako batean pazientzia aitu udazaleai, ta erriko España zale zintzo ugariekin batera, aberri bakarraren aitortza eginik, kalerik kale asi omen itukan, zarauztar geienen txalo bero sutuak jasorik.

–Baña, Jon, ez ailla batere arritu. Integrismoak ez dik beste dotriñik izan egundo. Gezurra, saltsa, ta benenoa bakarrik.

*Konstantziak* au ta ori esatea alperrikakoa dek edorrek daki-kan bezela. Zarautzen oraindik ez dek ezagutu alako jendetzarik iñor agurtzen da! Astegunean gañera!

Egun artako edertasuna ikusi zuanak, berdin dek zuria edo beltza, ezkerra edo eskubia, kontzientziko gizonak beintzat ez dik ukatuko ura gauza azi samarra izan zala.

Aldunak berak nun zeuden etzetxekiten ikusgarriaren ederez ta!

Oien Jaungoikotasuna ta zakurraren putza berdintsuak dituk. Alde gutxi gero!

Gu masoi ta etsaitzat bota, ta berak “Jaungoikoak ere gizatasunez ez diola eramango” dion gizonari txalo ta gorantzak. Dana dala, eskerrak eman bearuko.

Len ere amaika mesede egiñak dituk eta oraintxe ere etzabilkitek bide txarra.

Erdipurdi dagoanari gure artaldera bultzatzeko etzeok orrelako mutillik.

Gezurra, saltsa ta benenoa nundik dan aguro antzematen dik gaurko gaztediak, bai arrazoibidea nundik dan ere. Tela ere ondo begiratu ondoren erosten dek gaur.



–Baña, Iñaki, etzeok eskubiderik. Arruti ta gañontzeko olagizon zintzoak ere oso beian uzten zizkian da. Kristonak esanez ordea!

–Baietz ba! Sinisten diatela guzia. Bestela baaltzekitek ba!

–Tira, ba, tira, amona, *Konstantxi*. Urte askoan orrelakoxe osasun ta pakearekin jarraituko bazendu gaitz-erdi. Len ugari samar ari badira ere, batzoki berriak egiten jendeak gogor ekingo letxeokek, ta lanik gabeko Euzko Langilleak ia zer alderdia.

–Ik diokanez, Iñaki, integro ona izateko gezurra, saltsa ta benenoa bear dik. Zarauzko auek beteko dizkitek kondizioak.

–Ja... ja... ja...

Aski diagu oraingoiz. Gero arte, lagun zar!

–Agur.

## **Euzko Idazle Batzarra dalata**

**El Día, 1934-09-16**

---

“Andoni” idazle zintzoaren dei iritziak sortu du zer esanik asko.

Sallean sallean nor bere asmoak agertzen gogor alegintzen da jendea. Euskal barrutiko lankide geienak ari dirala dirudi. Gai orretaz jira-biran dabilzan eztabaida ta enbidotxoak ziatz irakurria nazu.

Ori diodan ezker, Artibai eta Ogoñope bizkorran artekoak aitatu bearko, noski.

Nik ere, idazle adiskideak, nere aletxoak agertu nai nuke, baña zuetako iñori miñik eman gabe, neuk pentsatzen dedana azaldu ta bakarrik.

Euzko idazle askok batzarra egin bear dala diote Andoniren asmoa oniritziak.

Beste batzuk berriz, erabakitzeke gu baña aurrerakorik badala adierazten digute.

Idazleak izendatutako artezkari batza ortarako artua dala, ta berak adierazten dutela noiz, nun ta nola egin billera ori.

Guk pentsatzen deguna egitera ezker alperrik dirala Elgoibar-en gidaritzat jarritako gizonak.

Orra, idazle adiskideak! Askori gaitz samarra irudituko zaizuten arren, nik bi alderdikoai billatzen diet zerbait arrazoi.

Gai orretan Artezkari Batza dala zer ikusi duana, ortarako autatua dalata diotenak ezin ukatu alako arrazoia daukate.

Beste aldetik berriz, artezkari batza orri begiratu, ainbat denbora igaro ondoren zer egin duten ikusi, Idazle Batzaren oztasun ta atzerapenari begira jarri, ta zerbait jokera gogor ateratzea ere ez da arritzeko.

Orretaz begira dezagun gure Euskal Orritara. Ainbat idazle trebe bizkor degu gaur Euzkadin, ta iru edo lau izenorde besterik ez degu ikusten gure egunerokotan.

Begira dezagun *El Día*-ko Euskal Atalera. Noiznai Urruzunon ipuiak, noiznai *Garoa*-ko zatiak; au da, zerbaitekin bete bear, ta antxiñako idazlanak orain agerkai.

Gaur dagon ainbat idazlerekin, gaur eguneko gai ugariekin, ez legoke orrela ari bearrik.

Amar zentimetroko tarterik ez euskerarentzat, ta bertan lengo idazlan zarrak agertu bear berririk ez dagolako. Edozein idazleri “Zer gertatzen zaizu?” edo ola moduzko galdeeran bat egiten badiozu, *El Día*-ra idazteko ez duala geiago lumik artuko erantzungo dizu.

Argitaratzen ez dutelako, au dalako edo ori dalako.

Guk ordea badakigu ez dala euskal ataleko zuzendarian errua.

Nik uste dut lotsagarrikeri auek guziak Euzko Idazle Batzak zuzendu bear dituala; Artekari Batza ere berriz antolatu bearko litzake.



Agintariak ixillik dauden gai batean gerta liteke erri osoak gai ori lenbaitlen azaltzea nai izatea.

Kontu ori Zarautz, Tolosa ta beste leku batzutan gertatu da.

Ta kontra ez dago ezer egiterik.

Gaur gaur bezela, berdin berdin da nere ustez gure arazoa.

Orretxengatik ba, bi alderdiai arkitzen diet nik zerbait arrazoi.

Baña nere ustez badegu ba batzar on baten premia.

Euzko idazleari gaur baño poz geiago ematen ez bazaio, ixildu gindezke betiko.

Batzarra, batzarra!

Nork izendatuko du, agintariak ala erriak?

Iritzi txiro oni erantzun, anai-arreba maiteok.

# Joan da

**Euzkadi, 1934-09-23**

---

Ainbat zer esan eman duan udara arloa joan da. Itsasoari muxinka ager zaizkigun uritxo ixil paketsuak, beren izakera egiazkoa artu dute.

Urrutikoari leku ematearren ganbara bazter sargoi illunean zegon langille saiatur bere jatorrizko gelatxora aldatu da.

Gorputz atsedean aundi gabe gau ta egun lanari lotuta egon diran ainbat sendi-buru, lasaitasun egarri dira. Bear dute, gizarajoak!

Gotzai ta izen aundiko eliz-buruak ainbat aldiz aitaturtako ondartzako nabarmenkeri nardagarria urrutiratu da.

Nai ta ezko jantzi bearra iritsi nunbait. Ori batetik, ta bestetik berriz, erriko jendea oraindik ez iritsi artaraño, naikoa asita badago ere!

Itsas-ertzeko akeitetxeak, urrengo arte esanda bere ate zabalak itxi dituzte.

Berdin beste zenbait ostatuk ere.

Baiñeru bikañak diru partiketan dira; bakoitzari dagokiona orain jaso bear.

Geltokitako langilleak azken maletatxoak badaramazkite.

Kaletan barna gabiltzalarik arpegi ezagunakin topo egiten degu. Igaro diran bi illabetetan etzan ori gertatzen.

Paketsu ta bakar da gure ondar sail zabala ere. Ez du bolara batean añako kargarik beregan.

Sardinzar usaia sentitu degu.

Sagardo berriak ere baditugu. Erramu sortak bide erakuslari.

Udazkena atxumurka degu.

Ona, ona emen olerkaria adierazle:

Gurbide bakan ibil ertzetan,  
untza dago oraindik loretan.  
Or-emenka, lore ximel gañetan  
ingumak ari gozo miazketan.  
Mitxeleta gorri, zarpil egoak,  
maitatzeko atsotu diranetakoak

(Lizardi)



Eder ta mardul ziran aurten Euskalerriko ordekek. Inoiz ez bezelako pozez nabaritu ditugu nekazari txalogarriak.

Aiton pipa erretzalle buruzuri askorekin itzegin dut gai bera dalata.

Erabat aurten bezelako kanporik egundo ez dutela ezagutu esan didate.

Baña, geienean badegu zerbait. Lengo eguneko aize burrundalari zakarrak babarrun danak lurrera jaurti ditu.

Artoak segurutu dirala dirudi.

Esan bezela, babarruna ere erruz dago, baña emen Gipuzkoan beintzat toki askotan lurra jota. Aize lekutan, batez ere.

Denbora onak balira oraindik ez dago oker ori zuzendu eziñik. Ia zer alderdia litzaken! Biotzez eskatzen diogu Goitar Alguztidunari. Amar errealean lakairik izango ote da?

Ai, alako bat!



# Alderdi ederra zeukagu!

*Euzkadi*, 1934-09-30

---

*Euzko Yakintza* dala ta ez dala aspaldian badabil zer esanik asko. Zenbat idazle ari zaizkigun gai berarekin. Adibide polit askoak jarriaz gañera.

Polonia, Irlanda, Txeko erria ta gañontzeko abenderri askoren osasun sendotzea adieraziaz; berbizkundez txertatutako erriak ispillutat agertuaz.

Gaztedia ere oiuka degu. Euzko Ikasleen sarrera bizia dala dirudi oraingoan.

Euzko Ikastetxe nagusiari deadarka ditugu etenik gabe. Bera dute eguneroko amets, bera aspaldidandiko biotz egarri.

Yakintza! Yakintza!

Zenbat idatzi dan bere aurrerapenarekiko, zenbat itzegin, zenbat oinkada, zenbat neke, zenbat lan! Zenbat!



Zenbait ganadurekin ez da giro izaten beti. Esti atzera esanda, len baño aurrerago sartzen diranak izaten dira gero. Itzaia-  
rentzat onuragarri izan oi da alakoa, ta azkenik, akullu eztendun  
gogorrarekin astera beartzen dute bat.

Anima bereztu ezkeru, berdin gertatzen da Gipuzkoako Ges-  
tora talde ori ere. Amaika esti atzera entzun dute aspaldi ontan,  
baña guzia alperrik; berenarekin irtetzeko asmotan dira, ikusten  
danez.

Itzaiak idi berekoiak gorrotatzen dituala esan degu; ta azke-  
nik, akullu zorrotza duala anparu. Gure Gipuzkoak ere zerbait  
pentsa bearko du, bestela ez dakit zer ikusi bear degun.



Esan dedan Gestora orrek bere batzarra zuan joan dan oste-  
gunean.

Urbieta ta Andonegi ez beste guziak an ziran Bellidoren in-  
guruan.

Beste erabaki askoren artean emen dijoazkitzuten auek artu zituzten.

Irakurri, irakurri patxaran.

Euskaltzale Bazkunari urtero ematen zitzaizkion 750 laurlekoak ukatu ta laguntza gabe utzi.

*Yakintza* aldizkingi sonatuari ematen zitzaizkion 250 laurlekoak ere bai. Euskal-irratsaiotarako ziran 2.000 laurlekoak ere berdin. *Euzko Pizkundeari* luzatzen dizkieten 1.000 laurleko zer esanik ez.

Ta Euzko Abesbatzaren urteroko 4.000 laurlekoak ere, se fini, irakurle. Diputazioak ateak itxi dizkie Gipuzkoaren izena alain goitara egatu duten bazkun txalogarriari.

Euskal-irratsaio gozo mamitsuak, Euskaltzale Bazkuna-  
ren euskera aldeko lan sakon etengabea, ta Euzko Abesbatzak  
mundu guzian zabaldu duan izen ederra azken aldiz Kataluña  
osoa.....\*

Guzia politikagatik noski.

Ala adierazi digute.....\*

Jesus maitea!



Euskera! Euskera! Euzko kultura itzetik ortzera darabilki-  
guna beti. Arro gaudela diogu oso.

Ezer ez dala egiten.....\*

Aitatutako bazkun auek alperrik dirala ezin esango dezute  
beintzat.

Alegintxo saiatu dirala derizkiot; ..... urtetik aurrera orre-  
gatik, ai zer poza daukaten! Berak ezin egin ta berak..... asiko  
ote dira? Ezin liteke ba ori ere.

Beraz, alderdi ederra zeukagu!

(jarraitzeko)

Zarauztik

---

\* ..... ezin irakurri.

# Eldu egiñari

Argia, 1934-10-28

---

Ainbat aitameneko udara arloa joan zaigu, urrengo arte esanik. Gogoangarri izango zaigu itsas erritarrai bere edesti mardula. Irakurleok ere pentsatuko dezute zergatik. Oraindik ere ao askotan toki baidute orduko gertakizunak.



Eskerrak Goitar Alguztidunari.

Kanpo urte bikain sendoa eskeñi digu. Ez dakit merezi ote degun. Gaur entzuten diran bidegabekeri zakarrak bururatuta sariaren orde zigorra bear genduke mundutarrok.

Ixo, ordea. Gutxiena uste degunez berdin irtengo zaigu bide erditara. Goikoak neurtu ditu oraiñartekoak, emendik aurrera-koak ere ez dudik egin.



Parre irrika ditugu guraso burutxuriak. Gozamenez begiratzten diote bakoitzak beren sallari. Aurten bezelako urte gutxi eza-gutuko dutela diote.

Aukerako denborak oraingoak; ezin eskatu oberik. Bada zer etxeratua, ta artantxe lan. Sapari ta ganbara zarrak extimatuko dira. Bete al dana.



Enarak aldendu ta beste batzuk ditugu ostatu eske. Itsas- aate ta egaberak barrundatu ditugu. Negu-mutil gordiña degu aginka.

Txingor otsa nabaritu degu lengo batean. Mendi goiak laxter margotuko dira. Arto-babarrun ederrak billatuko dira. Gose malzurra edonun jabetzen ari dala argi ikusten degu.

Euzko senditan konponduko al gera, noski, aurtengoagatik.  
Beraz, eldu egiñari!

# Egizko bidea

Argia, 1934-11-11

---

Aurreko astean zerbait esaten genduan arren, goazen pixka bat aurreraxeago, ia obetoago biribiltzen degun gauza.

Zerbait arrasto berri ateratzearren irakurtzeari lotu natzaio, eta ona emen aurkitu dedan zati azalgarri bat.

Oraindik urte gutxi dirala, nagusia eta langillearen artean sekulako eztabaida eta nasteak ziran; eta au ikusirik, iñongo alderdiekin, au da, iñongo politikarekin artu-emanik etzuan españar sendagille batek ondoren datorren zati au argitaratu zuan izparringi edo periodiku batean. Cartagenako mina zuloatzaz onela zion:

Emen mina-langilleak eguneko amar erreal eta amabi irabazten dituzte, eta lurperako bear duten argia beren gain izaten dute. Amar urteko mutikoak badira emen bosteun metro beera lanean ari diranak. Zazpi eta zortzi urtekoak ere ikusten dira, soin dana ikatza baño beltzago egiñik, 30, 40 eta 70 xentimoren truke. Beste batzuk, bitako saioak egiten dituzte: amabost eta amasei ordukoak, alegia. Emen ez da iñongo araudirik betetzen.

“Gudari” idazleak, bere begiz ikusita egiztutzen digu goian diodan ori guztia. Eta au dio berak:

Zer oldoztuko zuten lankide aiek beren bizitokitara urbiltzean, eta... ene!, zer lotsa ari bizitokia deitu bearra! Etxeko txikienak atxurrarekin ateratako musker batzuk janari piñenak izanda. Ez da baxterere gezurrik, egirik samingarrienak baizik.

Au, berriz, ez da Cartagenan bakarrik gertatu. Esate baterako atzo arte badakigu Euzkadin bertan ere nola ibili diran-eta.

Iñoiz zorion apur baten argi izpirik ikusi ez duten gizon aueri kristautasunezko egi garratzik ez adieraztea, au da, elizak langilletasunean iragarria daukan bide eder txalogarri orren berririk ez ematea, ez al da saminkor eta negargarri? Alako tokitan sozialismo eta komunismoak indar artzean nor arritu? Zeren poza dute munduan izateko?

Arreta biziz lanari ekin bearrean gera. Itzak itz dirala, egikeraz azaldu dezagun argi eta garbiro.

Txalogarri deritzaigo benetan erlijioso gazte adimen argiko batzuk darabilten bidea. Laguntzalle ugariak sortuko al zaizkio- te, noski, gaurtik aurrera.

Ona beste berri pozgarri bat ere. Emen Euzkadin sortu berria dan Esprit Noubreau bazkunak ere irakatsi garrantzizkoenaren al- tozan saiatzeko asmoa duala jakin degu. Ia ba, Euzko Ikasle, Euz- ko Langille eta gañontzeko katoliko bazkunak. Badago zeri eldu! Danok alkarren laguntzan, danok alkarren anparoon, aurrera! Eliz-buruak munduari alain gartsuki zuzendutako deia eskutan degularik aurkeztu bear degu anai langillearen aurreko aldera.

Uzkurtza santuan barrutia da, askatasun, berdintasun eta anaitasun geienaz gozatu giñezken barrutia. (Arana Goiritar Sa- bin - *De su alma y de su pluma*, 347)

Ossorio Gallardo idazleak berri au dakarki, eta biozki dio: "Zein une egoki zoragarria oraingoa Eliz donearentzat!".

Alaxe baida, irakurle maiteok. Gabiltzan edonun Jaun al- tsuaren irakatsiak lagun artuta. Aberats eta beartsu, danok izan dezagun alkarren errukia. "Maite lagun urkoa zeure burua beze- la!", dio zerutarrak.

Ulertu ondo, nagusi-morroiak, bide bakoitzaren arrazoia. Be- girapena aundiak txikiari; beste ainbat, dezakenak bearrez dana- ri. Gogoratu gure salbaitzallearen jaioteratzaz. Estalperik txiroe- nean zeru-lurren agintari, Jaungoikoa gizon egiña! Eta munduko bere ibillera?

Aurrera bada danok trebeki  
Eleiz Amaren bidean,  
alkarganako begirapena  
gorderik geure artean.  
Ori egiten baldin badegu  
geure bizitz laburrean,  
damurikan ez degu izango  
gero egunen batean.

# Asmo txalogarri bat

Argia, 1934-11-18

---

## **Bilbaoko Euzko Langillien Alkartasunak 10.000 jatordu eman ditu lengo illean, ta urte barruan, 108.000!**

Ta txalogarriak esango giñuzke Euzko Langille Alkartasunak kristautasun sendoz orniturik aurreko aldera agertu dizkigun egintzak. Benetan txalogarri, alare!

Euzko jatoki edo "Comedores Vascos" deritzaion orregatik ari natzaizu, irakurle. Igaro dan il ori soil soilik kontatuta, au da, joan dan urri il ortan bakarrik, amar milla jartordu eman zaizkie langabe arkitzen diran langilleai Bilbao utsean. Amar milla!

Aurreko urteko zenbakia ere gogoan izango dezute bateon bazuk. Euzko jatoki oiek urte barruan banatutako jatorduak merezi dute kristau zintzoen gorantza, zintzoenak dirala esaten duten askok bestera aitortzen badute ere.

Ba, urte barru ortan, irakurle, 108.000 jatordu serbitu ziran lan gabekoen artean.

Ori da egizko bidea, ori da egizko kristautasuna. Ortatik ongi goaz guziok.



Negargarrizko oiua ditugu ordea euzko aberrian egal triste batetik.

Zerbait entzungo zenduten, noski, Bizkaiko Enkartazio deritazko mina-lurralde ikaragarri oietzaz.

Euzko izparringi edo periodikoak sarri mintzatzen dira. Nai-gabez gañezteko ainbateko argazki (erretratu) eroriak ikusi ditugu, ta, jakiña, gure anaiak dirala ikusirik, malko sendo legortu gaitzak ixuri ditugu. Arantz minkor latzak zulatu gaitu gure

egunkari ta zenbait aldizkingien orrialdeak irakurri ondoren. Ez da gutxiagotarako!

Ainbat dira ba negu beltzak oñazpiratu naian darabilzkianak. Ainbat dira estalgarria nai ta beren gorputz ximeldua zerekin estali ez dutenak. Ainbat dira zerbait xuxpergarriz aua busti nai ta zerekin busti ez dutenak. Ainbat dira ogi-moko bat nai ta urrera ikusten ez dutenak, ainbat dira beren sukaldetan aspaldidanik surik senti ez dutenak.

Ainbat esaten det eta nola ez det esango, sei millatik gora baldin badira!

Ala erakutsi digute agiri garbi egiazkoak: sei millatik gora dirala gose maltzurarekin burrukan dabilzan anaiak.

Ona zer dion Egizale idazle ospetsuak:

Ixildu dira len alain txistujole ta burrundalari ziran kable dardarak. Bazartu dira len ainbat atzaparretan bear zuten atxur ta pikatxoiak, ta ondoren negargarri itun azken mallakoa dakarkio orrek ainbat anairi.

Biotza dardaraz degu gertaera beltz au dalata. Ez gendun uste onenbestera eltzerik, baña eldu gera, zoritxarrez.

Zuk ere, irakurle, bear dan garrantzia emango diozu diodanari; besterik baño biotz gogorragoa etzera izango. Ez det uste.

Ba, Euzko Langile Alkartasun kementsu zuzen orrek, len Bilbaon jarriak dauzkan bezelaxe, Enkartazio ortan ere Euzko Jaktokiak antolatzea pentsatu du. Egin lezaken lanik garrantzizkoen ta txalagarriena dala ezin ukatuko dezu.

Negu itsusiaren aginka zorrotzari iges egiteko ainbat modu izango dezu oraindik. Otzak ainbateko gerrik eman gabe, zerbait estalgarri edo anparu izango dezu. Gosea artaraño lurperatzeko bildur gabe, ogi zati bat etzaizu paltako, noski.

Nor berak jakiten du nor bere etxeko berri. Besteri asko laguntzeko eran, bear bada, ez giñezke egon guziok. Baña jantzi gabe, ta zer jan da edanik gabe negu beltzarekin alain burruka latzean dabilzan anai oientzat errukia izango dezulakoan nago.

Geixeago zerbait esku luzatu ere bai. Ortara jartzen bazera, gizatasun ta kristautasunezko biderik garbien ta egokiena auke-ratuko dezu. Ez dezu lan gaitza.

Zeure erriko Euzko Langille alkartasunera aurkeztu zaite, ta Bizkaiko Enkartaziotarako dala ta derizkiozun aletxo utzi zazu.

Ta orain begira San Krisostomo aundiaren itz biribillari:

Ainbat beartsuri bizitzarako bearrena dana palta zaiotela ikus-ten degunean, iñongo aldetara aurkezteko lan-deirik ez dutela ikus-ten degunean, luza zaiogun gure eskua, baña ez negozio bateko na-gusi bezela, gizon errukitsu ta onbidetsu bezala baizik.

Arren, ez entzungor egin dei oni. Euzkotar bat goseak il da-nik ez dezagula entzun. Gañera, ez dakigu gure etorkizunaren berririk.

Ia ba, anaia.



## Il ote?

Argia, 1934-11-25

---

Galdu zitun bere aberastasun ta ondasun ugariak. Gau ta egun askatasun bidea urratzearren saiatu zan. Guda egiten zioten anaiak, guda erbestekoak. Kartzelarik gogorrenak zitun lagun. Etsaien burruka maltzur ari kontra geiago egiterik etzegonean, 1903garren urteko azaroak 25 egun zituanean itxi zitun begiak geiago ez irekitzeko, bai belarriak ere geiago ez entzuteko, itxi zuan aua geiago ez itzegiteko, gelditu zuan soña geiago ez ibiltzeko.

Illundu ziran euzko mendiak, orru zegian itsasoak, beltz ziran ibai errekek.

Baña, ooo!, goi zotiñean izar berezi bat agertu zan lenetatik aldakor. Iru erregien giari izan zana zirudian. Sabiñen gorputza il zanagatik, Sabin gogoa, Sabin egia bizi zala geroz ta bikañago, geroz ta mardulago agertu bear duan egia dalako.

Beraz, Sabin gogoa, Sabin asmoa illezkorra da, egunean baño egunean anai geiagok ezagutu ta aitortzen duten bezala.

Gaur, irakurle, Sabin aldezko mezatxoa entzuten zaudelarik, oroitu zaite bere izate txalogarriatzaz. Ona zure ixiltasuna ta ol-dozenaldi ortan bear bearreko dituzun itzak.

Il  
nayago dot  
ikusi baño  
Aberriaren  
amaya.

Bego goian Sabin!

# Euzko Abesbatza Zarautzen

El Día, 1934-12-05

---

Igande goizeko bostak dira, ta Prailletako ezkilak ekin diote lanari. Ernai geunden egundo badata!

Izan ere, aspaldian noiz baño noiz elduko, alain arretatsu zaitzen genduan egunean sartuak beintzat!

Egoaizea senti degu gelatxotik.

Leio zapia jaso ta zerurantz begira jarri gera, ta ez da euri pulamenturik.

Ontan iraungo al dik! –diogu geure buriari. Baña, bai zera!

Eguna argitu duanean, aizea ta euria alkarrekin nasi or ditugu bazter ondatzalle itxuran. Auzoko atsoak ere asarre nabaritzen ditut.

–Aste guzian olako denbora egin ta au bada marka! –zion Manttonik.

–Aundia den gu beti onela izatea! –erantzuten zion albotik Joxepañaxik.

–Beti zerbait eragozpen bai, Jesus milla bider ere!

Orrelaxe ari ziran, irakurle, kopeta beltz-beltz eginda.

Orko ta emengo kontuak batera eta bestera dabiltzala, eldu da bultzi edo trenaren ordua.

## Ongi etorria

Amarrak eta amar minututan eldu zan gure Euzko Abesbatza zoragarri ori. Denboraren zipozkeriak asko geldiarazi zituan es-tazioratu gabe, baño alaz guziz ere talde ederra bildu zala esan bear degu. Suziriak orruka ziran bitartean, eresbatzaren doñura alaitasunez gañezturik, Erkalaren Enparantzara zuzendu zan artalde ikusgarri ura.

Donostiarrak ere txakolin zaleak izaki, ta meza denbora bitartean ezpañak gozatu zituztela esanda ez degu asko utsegingo noski.

## **Parrokiko meza**

Gure eliz nagusia lepo-ezurreraño bete zala esanda egi-egia aitortzen degu. Abesbatzak berak arkitutako apaiz jaun gazte Lekunatar Martin jauna genduan meza-emalle. Iragarrita gendukan bezela “Tota Pulchra”, “O Salutaris” ta “Agur Jesusen Ama” abestu zituan Euzko Abesbatzak. Elizkizuna buka ondoren bazan zer esana zimitaio zarrean. Zarauzko eliz-barrenak ez dutela orrelakorik ezagutu zioten ao betean guziak. Izan ere, ura zan lan egitea!

## **Eresaldia**

Eresbatza edo Bandak zati gozoak eskeiñi zizkigun: “Poeta y aldeano” ta “Rapsodia Vasca” Beobiderena entzunarazi zituan.

Donostiar ereslari azkarrai gogozko izan zitzaioten, ta Arroita-jauregi zuzenlariak zorion ugariak jaso zituan.

Irakurle, guzia batera mokadu aunditxo izango da ta biar edo jarraituko det.

# Euzko Abesbatza

El Día, 1934-12-08

---

Eresbatzaren eresaldi atsegin ura bukatu ondoren, azoka plazara batu zan zarauztar jendea, beste eresaldi goieneko baten egarriz. Ura ikusgarria!

Ez du olako betekadarik artu oraindik diodan plaza orrek.

Zarauztarrak bere garrantzia eman zion gauzari. Euzko Abesbatzaren izen goragarria belarri danetan sartua baizegon. Donostia, Bilbao, Endaia, Barzelona ta gañontzekotan lortutako gurenda ikaragarrien berri guziak baizuten. Ori osoro jakitera, berriz, ez da arritzekoa emengo plazak gañeztea.

Bear ainbat esker iñoiz emango ez diogun Olaizola ospetsua igo zan zuzendari mallara, ta bere jarraitzalle zintzoak ekin diote lanari.

Olaizolaren "Agur Jaunak", Guridiren "Maitasunak", "Amatxo", "Boga Boga", Iruretagoyenaren "Biri biri" ta Sorozabalen "Bigarren kalez kale" abestu zituzten. Ango txaloak gordetzeko laingoak ziran. "Biri biri" berriztu bear izan zuten jendearen eskariz.

Belarriak erne eta illeak tente egon ziran antxe. Arretatsu entzun zan Donostiarren erti-lan oparia, ta ondoren bai bero ta gartsu eskuak alkar jo ere. Etzan gutxiagorako!

Aurrera, Gabirel ta lagunak!

## Bazkaria

Cinema pelotalekuan genizun. Ura mordoa exeri giñan! Berreun ta berrogeitamar bat izan bear genduan. Etxe utserako zerbait badala, e? Zer moduzkoa zan?

A, enetxoa: gauza auetan serioa degu gure Amilibia. Beti bezela, igandekoa ere jatordu aparta samarra eman zigun. Ango alaitasunak ere etzuan gutxi balio. Elosegi an gendukan ezin errenditurik, ta, ai zer itzaldiak egin zizkigun! Itzaldiak esaten detalata ez arritu gero, e?

Bakarra egin balu, itzaldia esango nuan-da. Gazte jendea izan ez balitz, e, Elosegí?

Bertsoak ere bear omen ziran. Atarrene ta Arostegi an ari ziran etengabe zirika, ta derrior kantatu bear. Ona Basarri bertso-tan:

Pozaren pozez gaiñez  
daukat nik biotza;  
ainbat anai etorri  
zerate Zarautza,  
abestiz goraltzera  
euzkoen izkuntza.  
Ai, nik egin nai nuke  
deadar zorrotza:  
Gora ta gora beti  
Euzko Abesbatza!

Ene ba, Olaizola  
azkar ezaguna,  
zu zera talde eder au  
zuzentzen dezuna.  
Auxe da zarauztarren  
eskari biguna,  
biotz biotzetikan  
opa dizuguna:  
Jaunak eman deizula  
pake ta osasuna.

Finlandi ta Txekoak  
gogoan ditugu;  
oiek erti bidetik  
sendotu zaizkigu.  
Nundik nora jokatu  
guziok dakigu.  
Lotan nolana ezin  
egongo gera gu.  
Euzkadin beste ainbat  
egin bear degu.

# Euzko Abesbatza Zarautzen

El Día, 1934-12-09

---

Txistulari bizkorrak ere baziran, eta gogor ekin zioten lanari beren aldetik.

Mugertza, Jauregi, Bastida, Baltzola, Zabala ta Anabitarte antxe giñun aurrez aurre, ta euskal eresi zati politak entzunarazi zituzten.

Jendearen eskariz, Zabalbeaskoatar Matilde urretxindor zoliak ere zutitu bearra izan zuan. Abestu bear bazan, bai abestu ere! Inoiz ez giñake aspertuko bere abots ezta entzuten.

Ta onelaxe, bateko abesti ta besteko txistu, alaitasun berdineganean bukatu zan gure bazkal pesta.

Gero, tren ordua bitarte, len esandako txistulariak joaz jarraitu zuten, ta Cinema pelotalekua pestaleku izan zan. Ango gazteen dantzatu bearra, angu umorea!

Anaitasun ta alaitasuna buru zala, ezer txarrik nabaritu gabetandik bukatu zan alako egun gogoangarria. Etzaigu bereala aztuko!

## Eskerrak

Eskerrik biozkorrenak eman bearrean gera Euzko Abesbatza arri-garri orri. Eskerrak bere Artezkari Batza orri ere, gure txoko ontan beren aurkezpenez alako pozaldi ta atsegiñaldia ematea oldoztu zualako. Len esan bezela, gogoan izango degu zarauztarrok.

Erti bidetik aurrera zuzenki, biderik ziurrena bera degu gaurkoz ta!

Sueciako jakintsu batek dio:

“Islandiako arrantzalien abestiak ez izatera, iparraldeko errien berririk ez genduan ezer jakingo”.

Egatu ba, zuek euzko abeslari zoliok, euzko aberriaren albiste, egatu Euzko Abesbatza zoragarri orrek, izkuntza berdingabe onen mamia. Ate zabalak dituzute zai, egun aundiak itxigiten dizute!

# Asmo zuzenak

Argia, 1934-12-16

---

## Jimenez Fernandez Lugintza Ministroaren asmo txalogarriak

Alaxe esan bear Jimenez Fernandez Lugintza altsein edo Agrikulturako ministroak artu dituan asmoagatik. Eliztar trebe bikaiña dirudi jaun onetxek.

Itzez ta egikeraz azaldu naiko Kristoren jarraitzalle zintzo bat ote dan esan genezake. Ala ez izatera, etzion elduko eldu dion lanari. Pixurik astuneneko zeregiñak artu baiditu.

Ia zerbait aztertzen degun.

Zuk, irakurle zintzo orrek, ainbat zer esan sortu zuan Kataluñako Nekazari lege ura, "Ley de Cultivos" izenez ezagutzen zan ura gogoan izango dezu, noski. Guk abertzaleok, lege ura ontzat artu ta txalotu egin genizun. Guk ez baidiogu zeñek egiten duan begiratzen, zer egiten duan baño.

Askok ori batekoz beste ikusten dizute, ta or dago okerra. Zenbat eraso kaskar izan zan orduan ere zio ori zala-ta!

Eliz-buruak, au da, Aita Santu agurgarriak ainbat aldiz otsegin dutenari jaramon egitea besterik ez izan arren, ondamendi bidea, anarki bidea ta galbiderik negargarriena bultzatzeko agerkaia zala zioten lege orregatik. Ta betiko leloa, katoliko zuzenak dirala dioten oiek arrikalaririk gogorrenak.

Esan dedan ministro orrek ere ordea, bide ortatik ekin dio bikainki. Latetxe edo Kongresoan irakurri duan agiri sakonak ala erakusten digu. Kataluñako legeak, "maizter batek emezortzi urte egin bear ditu -zion- bear dana ta legezko dana ordainduaz, gero lantzen dituan lur oien jabe egingo bada". Ministroak gutxiago oraindik. Amasei urte, edo amabi egin bear ditu maizterrak bear



dana ordainduaz, gero, lantzen dituan lur oien jabe egingo bada, ta bein denbora oiek igaro ezkeru nagusitza artua dauka.

Laugarren arauak dionez amasei urte izan edo amabi, batzorde batek erabakiko du, zer terreno diran ikusi ondoren. Zortzigarren arauak dionez berriz, maizterra nagusi izatera irixte ori bi alderdiak, au da nagusiak eta morroiak eramango dituzten ikastun edo peritoak izendatuko dute sallaren balioa, ta oien esanetara konponduko ezpalira, ortarako jarriko dan batzorde nagusi batek erabakiko du. Ortaraka egingo da esandako aldaketa.



Len Kataluñako lege aregatik somatu alak esaten jardun ziranak, ura añakoxea edo gogorragoa dan ministroaren asmoari txaloka ari zaizkiola zion igandeko *El Día*-k. Ni ez nago gogozko txaloak izango diranik. Mingain txar asko dantzatuko dala derizkiot. Ez dutela au ongi ikusiko. Dana dala, jaun onen asmoa goienekoa deritzaigu guri. Mundua alain egarritsu dagon gizarte zuzentzari ekin dio, ta ori Elizaren ikurritzari ta aginduari burua makurtuta lortu liteke.

“Zerbait onurazko lanean ari danak, au da, berezi senti oi duana ta gogoz nai lukeana: gauzaren jabe egin ta askatasun osoaz agindu berarekin” (“*Rerum Novarum*”, Leon XIII).

# Euzko emakumea

Argia, 1934-12-25

---

## Goimaitasuna

Egun zoragarri entzutetsuak gañean ditugunak. Gabon-Eguberritan baigera! Ene, zenbat gauz datozkigun oroipenera Jesusen jaiotz egun ontan!

Aurtxo ori izaki ba mundutar oron gaizkatzalle edo salbatzallea.

Aurtxo ori izaki, gerora, gure pekatuagatik gurutziltzatu bearzuana; aurtxo ori izaki, azken arnasetan, "Aita, barka zaiezu guziaz, ez dakite zer egiten duten-ta". Goiko Jaunari eska ziona aurtxo ori izaki, guzia bere esku zezakean alguztiduna.

Ainbat oroipen naasi, Iruñar antzezleri bikañak alain ikusgarri ta eder jantzia agertzen duten Emmanuel ikusten nagoala deritzait. Ta an ikusten ditut Jose ta Maria, Belena bidean; Cesar Augusto, denbora artako buruan esana ere egin nairik. Inguruko erreñu guzitakoak Belen-a aurkezteko agindu zizun ba beren izenak ematera. An zan gogorra! Antxe arrigarria!

Aberastasun guziak nai izate utsez bereganatuak zeuzkaten arren, adibiderik sakonen ta xpillurik argiena guregan uztearren, ona beartsurik errukarrienak lez ingurutako ateak joaz, estalpe-txo baten eske. Ta orra gizonak, orra sendiak, txiroak zirala-ta sendi doneari eskari uts ori ukatuaz. Gaurko gizaldian bezelaxe aundinaikeria buru. Esker txarra bekoentzat.

Ikasbide ederragorik eman ote zeikean? Bekoentzat, bearsuentzat ta premiz diranentzat errukia ta begirapena sortu al izateko bide egokiagorik bai ote?

Zein irakasle zuzena Jesus! Zein bide egokiak jartzen dizkigun! Zein aundia ta zein ona dan! Gora, gora gidari dizdikor ori!

Apostoluai emandako ikasbide ederratzaz gogoratu besterik ez degu. Goimaitasuna, apaltasuna ta lagun urkoaganako maitasuna arkituko ditugu xpillutzat. Oartu "seme ondatzallea" de-

ritzaizko ikasgaia, oartu Samaritano errukitsua, ta beste ainbat eta ainbat.

Jarraitzalle ugariak izan ditu Jesusek, ta bat-batean, Antonio Alonso Bermejo zeritzan nekazari biotz aundiko aretzaz oroitzen gera. Bere gurasoen ondasunen jabe egin zanean, Jesusen itz batzutzaz gogoratu zan: “Dezun guzia saldu ta bearrekoai dagiezu, artaraka zeruan ondasundegi bat eukiko dezu”.

Gizon Jaungoikozko onek, bereala errukietxe biurtu bear zuan Navako arrotz-etxeari utzi zizkion guziak.

Zeukan diru mordoaz gañera, eun ta berrogeita amar milla errealera igotzen ziran bere ondasunak.

Aietatik irureun erreal triste geldi zituan bere azken elizkizunerako. Jatordua aske oi zuan gaxotetxean; ori zan bere alderdi guzia.

Zenbat eta zenbat onelako ager genezaken, baña, ixo. Ez degu luzatu bear.

Zuek, euskal baratzako lora zoliok, bide oiek aukeratu dituzutela dirudi. Euzko emakume erneok, len esandako iru ezagupideak betetzen dituzute: Goimaitasuna, apaltasuna eta lagun urkoaganako maitasuna.

Aurten ere lanean gogor ari zeratela jakiñean gera. Gabon egunaren aunditasuna ongi ulertzen dezute.

Euzko sendiak batuko dirala badakizute. Goi-basetxetako morroi trinkoak jaiotetxeko sukak bazterra igurtzi naiko dizu. Serbitzaritzan dan neskatxa ere irritsu ta alai inguratuko zaizu.

Baña euzko emakumeok urrutira begiratzen dezute.

Zer jan ta zer jantzirik ez duten sendiak ugari dirala ikusten dezute. Ta batzuntzako erropa sorta atsegin ta anurakorrak dituzuten bitartean, besteentzako janari ugariak dituzute.

Begitan negarra nabarmen dutela extimatuko dizkitzute. Ongi zoazte bide ortatik; erakuspide bikaña ematen dezute. Ez dira aztuko zuen alegin sendoak. Errenderi batek ere esango luke verbait, ujolde samin ura ere ez baita aztuko.

Ager, ager beartsu etxetara, ager premiz diranengana.

Argi izar bat lez sartu euzko senditara.  
Zuen emaitzez Gabon zoriontsuak bitez leku orotan. Orra  
egizko Goimaitasuna.



Ezkontzako egunean

## Zubimenditar Josebari

*Argia*, 1934-12-30

---

Irakurri nuen joan dan astean *Argia*-n ezarri zenidazuna “Bertsolariak bear ditugu” artikulu sakon aren izenburuan. Gai bera artuta jardun izan naiz neroni ere. Gogoratuko zera Donostiar irratetxetik egin nuen itzalditxo aretzaz. Zuk bezin apainki ezpada ere, zure asmo ori agertu nuen oker aundi gabe. Geroztik zerbait idatzi ere egin dut zuk dakizun bezela.

–Ai, zer nolako mutil arroputza orixe! –esango du norbaitek–. Bera bertsolaria danean, bertsolariak nola zuzenduko ta bere esanetara nor makurtuaraziko zebillek!

Gezurra da ordea guzia. Ez nabil ni asmo orrekin, ta ez daukat bertso lanerako apan izugarririk. Nik sentitzen dedana esaten dakit eta kito. Nik neu baño bertsolari obeak, ta etorri trebeagoak asko ikusi baiditut, ta ikusten ditut oraindik ere; pena ematen dit ordea erabiltzen dituzten gaiak erabiltzeak. Asko lezateke beste modu batez jokatuta. Zuk zeniozun bezela, erria piztuarazteko bideak artu bear ditugu aurreko zarrak bezelaxe.

Arakistain-en liburuan irakurtzen degunez, Ernio magale-tan euzkotarrak Erromatarrakin izan zituzten burrukaldi gogor aietan koblari zarrak oi ziran mutil-pizkortzalle, koblakari zarrak indar-emalle, ta gudate ondoren koblakari zarrak, Lekobide ta Lartaunen gorantzak abesteko, koblakari zarrak erri zar onen kemen ta sendotasuna mendirik goienetatik Europa zear adierazteko. Egin dezagun gaur beste ainbat!

Merezi ez dedan arren, zuk ni aitutzen nazu orretarako. Eskerrikasko, Zubimendi.

Bat federik onenaz lanean ari dalarik, gerta liteke beste norbaitek min artzea. Ez naiz ni asmo ortan asia. Ez ba iñor errañua-rekin agertu, guzia euskera zarraren onerako da ta.

# Polonia ta Euzkadi

Argia, 1935-01-06

---

Errusiatarren menpeko poloniatarrak ikusi dituzte berenak eta bost. Erria kultura bidez sakondu ta gordindu beste ametsik ez dizute. Elerti eraz ikusten dizute gaizkabiderik ziurrena. Jesus, alegintzen dira ba gogotik! Etsaiak lepoezurretik estutzen dituzte ordea; ez diote arnasik artzen ere utzi nai.

Estu ta larri dira Poloniar gixaxoak, gorriak ikusten dabiltz. Beren izkuntza gaxo ta makal dala badakite, ta sendagaiakin aurkezterik ez daukate. Bai negargarria!

Iñon ikastetxe bat antolatzerik ez dute. Maixu baten anparorik ez dute. Errusiako kaskabarrak ezkutaraziak ditu, ta bearko gañera. Eskola nagusitan, au da, Estaduaren eskoletan ez izatera, ez daukate bestetan ezer egiterik. Irakurri ta idazten somatu utsarekin eraso ikagarriak datozkie: 900 laurleko izaten zuten gutxienera zigorra.

Polonian ordea, benetako abertzaletasuna izaki. Aiek atzera-tu? Ezta...

Egundo baño gogotsuago ta bikañago ekin zioten ondoren. Ortantxe nekatu nai zuten.

Isun, espetxe, zigor ta etengabeko estualdiak dituzte. Ez ordea ajola. Olaturik zakarrenak igaroaz dijoa Poloniar txalupa.

Bazter guzitara iristen dira. Mendi ta zelaietan ere gogoz egin dituzte beren ikastaroak. Ezkutuko txokotan jarri dituzte beren biltokiak, baña ez jolaserako biltokiak, ikastarorako biltokiak baño. Izkuntzarekin batera gaxotua zegon Poloniarren izena, sendaturik kementsu ta gurendatsu bere goi mallak iristera eramanarazteko biltokiak.

Estutasun ta askatasun apurrik gabeko aldi ortan ere Poloniak egin du berea. Zenbat egin liteken gogoz artzen dan arazoan!

Zuk, irakurle, au gogoan bear dezu. Irakurri dezun au guzia, 1885garren urtean asi ta 1897garren urtea bitarteko eraso da.

1885garren urte muga ortan asi zan ba Errusia zearo gallendu nairik, ta urte ortan bertan Polonia ere egundo baño sutsuago.

Urte tarte ortan, zenbat eskola ezkutatu ote zituzten, zenbat ixilkako meatxu, zenbat bazterretara iritsi ote ziran, zenbat kartzela ikusi ote zuten, zenbat odol ixuri, zenbat supritu ta zenbat lan egin! Ba, 1897garren urte ortan arrigarria gertatu zan. Argitaratu bearra izan zan notin lerrokadan (censo personal) eunetik irurogei polako izkeraz irakurtzen ta idazten zekitenak agertu ziran.

Au da, eunetik irurogeiko talde orrek, etzekien bere aberriko izkuntza besterik.



Euzkadin abertzaletasuna aurreratu dan garaian, euskera ondora dijoala dirudi. Benetako abertzaletasuna ote degu? Euzko idazle guziok begi aurrean ikusten deguna agertuaz negarrari emanak gaude. Sartu bear degun ateko giltza galduko ote degun bildur gera.

Lau erki (probintzi) gera, ta bitan bakarrik artzen degu esate baterako euskeraren susmoa; beste bi oietan lurmen txikia ikusten degu. Emen berriz euskera ezagutzen degunok, ta abertzaleak gerala esaten degunok berari arrika nundik emango pentsatzen gabiltz beti.

“Urtea azkenetan degu. Zer egin degu euskera aldez?” –galdezen zuan *Euzkadi*-n idazle azkar batek.

“Utsa –zion gero berak”. Igaz baño liburu gutxiago argitaratu dira, ta itzegin ere igaz baño gutxiago egin da”. Betiko leloa: beera ta beera.

Polonian bezelako eziñik ez degu oraindik. Asko egin genezake erasoaren bildur gabe. Egia da euskerak ere atea itxiak dauzkala. Ez daukagu guk nai genduken tokian nai deguna egi-

terik. Ez daukagu ikastetxe nagusirik, Royo Villanobak lurralde guzitan bear litzakela esan badu ere.

Utzi ordea orain orri. Donostiko *Euskal Pizkunde* ikasbide ederra ari zaigu ematen. Ai zer bide egokia artu duan! Euzko Bartzokin beste ainbat ezin ote liteke egin? Eldu deiogun lanari, ia Urte berri ontan lotsagarrikeri beltz au pixkabat arintzen degun.

Gogoratu Tieger izeneko Txekotar abertzale eredu ark ziona: "Lanetik ta yakintzatik dator gure gaizkabidea". Ez utzi!



# Eguneko berriak

Argia, 1935-01-13

---

## Laval eta Mussoliniren bidez Italiarrak eta Frantziak egin duten itunbena pake oiñarri ote?

Gure Aita Santu agurgarria gartsuki mintza zaigu. Mundua-ren gaurko naspil loi nardagarria inork baño obetoago ikusten baidu. Nazio aundi bildurgarri oien burruka otsak, batekoen ta bestekoen izkillu antolamenak ta gaurko eguneko arazo astun zamatsuak ondoren oker biurria dakarkiala nabaritu degu, noski.

Pakea, pakea! Itz bete zoragarri ori ibilli da artzai leialaren aupean. Artetxek zion bezela, kardenalai ez ezik ludi osoari zuzendutako itzaldia, esan genezake.

Pakea, pakea! Zein ederra dan!



Sarre-ko arazoa oraintxe da bero-bero; egun gutxi barru erabakiko da erabakitzekoa.

Auteskundeak orpoz-orpo. Zabalkunde edo propaganda gogorra asi dute bi arerioak. Frantzia ta Alemania benetan dira oraingo ontantxe ere.

Ministroak ere sendo itzegin dute. Hesse-k ala zion itzaldian:

Frantzia Hitler-en asmoetara jarri balitz, au da: Sarre-ko lur zatia botoetara gabe Alemaniangana uztartu, ta bi nazioen gorabera ori anaitasunez konpondu, etzan oso bedi txarra; baña Frantziak asmo ori baztatu duan ezkerre, ikusi bedi beingoan sendo Sarre-ko doixtarren borondatea. Gora biotzak!

Atozte, atozte Alemaniaren magalpera, pozez ta goralpenez artuko zaituztegu-ta!

Joan daneko milla urtean Sarre berena dala diote. Sekulako maitasuna diote lur zati oni ta ez da arritzeko. Guda aurretik,

bai, gerra lertu baño urtebete lenagotik 13 milloi upelkin edo tonelada ikatz artzen omen zituzten Sarretik urtero.

Frantziak ere, berriz, beretzat nai luke. Rhin Frantziaren muga izatea komeni zaiote, diotenez. Betiko ordeal!

Frantzerak, izkuntzak alegia, indar aundia artu duala ukatu ezin litekena da. Bi aldetatik dira itxaropen ta zaletasunak. Datorren astean ikusi bearko.



Garrantzi aundiko ikertaldi bat izana da lengo egun batez. Europa guziko izparringiak itzegin dute beratzaz.

Bixita onekin Europa guzirako pakea ziur dala esaten da edonun. Kanpo arazoetarako Frantziak izendatua daukan Laval ministroa Mussolinirekin batu da Erroman. Iru orduko egonaldiak eta egin dituzte alkarrekin. Beren izketaldiak bide, gaurtik ziur esan liteke zer asmo dituzten. Austriari beren laguntza eskeintzea erabaki dute itxuraz. Austriaren askatasuna arrixkuan ikusiko balute, bi nazio auek aldeztara irtengo lirake. Beren asmo au indartzeko albo nazioai ere dei egiteko asmoa dute, guzieren itzez itunben edo pakto sendo bat egiteko.

Orain Laval bezelaxe, gerora beste naziotako ordezkariak ere bilduko dira Erromara.

Il onen azken aldera Txekoeslobakiako ministroa dan Edouard Benes-en bixita izango ote dan diote. Otsaillean, Rumaniako ordezkaria berriz.

Laval ta Mussoliniren arteko adiskidetasunezko ta anaitasunezko itzaldiak Europa itxaropentsu jarri dute. Pake oñarri ote dan diote batasun ori.

Gure eliz-buru agurgarriarekin batera orixe nai genduke benaz.

Zer itsusi ta beltza litzaken gaur eguneko guda!

# Bertsolari eguna

*Argia*, 1935-01-20

---

## Aurrekoen oroipena

Euskaltzaleak ta Euzko Gaztediak antolatutako Bertsolari gudu egun ontan gure asteroko txalogarria dan *Argia* onek toki berezia eskeintzen digu gai au erabiltzeko. Ezer idazten asi baño len, aiton buruzuri batzukin izketatua nazu, ta aurreko bertsolari zar iaio aien aditzera pozkiro eman didate. Bai nik gustora entzun ere! Aien bat-bateko asmakizun lilluragarriak goralgarri ez ezik gogoangarri izateko dira.

Ainbat aldiz entzundako lixta aurkeztuko dizute aitona agur-garri auek. Betikoak dira sallean: Udarregi, Pello Errota, Pastor Izuela, Xenpelar, Bilintx, Errekalde, Olegario, Gazteluko Gorri, Otaño, Ugarte, Prantsesa ta beste banaka batzuk. Emen geranok betiko agurturik beste alderuntz egatuak dira bertsolari sonatu oiek guztiak. Betiraundeko zorionean bitez!

Txirrita zarra bizi da oraindik. Or goian ezarri ditudan geie-  
nekin proatua izango da. Sallekoa zenduten auxe ere, ta trebe, bikain, sendoenetakoa gañera. Maixu zar orri bijoakio agurrik biozkorrena. Urte askotarako, Txirrita.

## Bautista Gaztelu bertsolaria

Mundutar artaldetik aldegin berria degu. Ez dira illabete asko be-  
giak itxi zituala.

Ortxe, Oriotik aruntzaxeago, Saikola deritzaion balleratxoan bizi zan azken urte auetan. Ingurutako jendeak extimatua zuan gizarajoa. Baña bai arrigarria! Alain argitasun bereziko erri-oler-kari gurena aldendu zitzaigula bost-sei illabete oker aundi gabe diran arren, euzko izparringi ta errebistetan ez degu izki bat ere irakurri bere izena gogoraziaz. Zabar samarrak gera. Nik, egia esan, Gazteluren izakera ta bere bertso jario ugariaren berri sa-kon antzean eman nezake artara asi ezkeru, ta oraindik bear dan tokitara joan, bear danakin itzegin ta berak argitara emandako

lan asko batu, artaraka biribildu liteke zerbait. Ta oraindik badut nik ori egiteko asmoa.

Gaur ordea, arin-ariñean, Gazteluren jokera polit batzuk ikusi bear ditugu. Beste gauza bat. Or goian, –Gazteluk argitara emandako lan asko batu –esaten dedanean, zer argitaratu ote zuan galdetuko dute askok.

Bada, *Bertso Berriak* deritzaien paper oietakoak argitaratu zituan Gaztelu zanak. Baña Gazteluk ateratako bertsoak, Karmelo Etxegarai zanak (G.B.) paper auetzaz esaten duanarekin uztartzeokoak ez dira, olerkari susmoz tajututako erri-olerki aipagarriak baño. Gaur ere amaika tokitan kantatzen dira, baña ixo... bear dan garaian irakurriko dituzute-ta.

Aginagan giñan. Antxe erromerian gertatuta edo, nere lagun batzuekin ostatu batera sartu nintzan. Gaztelu bertsoan ari zan, baña bakarrik.

Nere lagunak asi zitzaizkidan puntarak boteaz, ta azkenean jarri niñuten berarekin. Amazazpi urte nituan artean. Ene, zein laguntzalle gozoa Bautista! Seme bat bezela artu ninduan. Nik ere alatsu jarri ta oraintxe aspertzera egin genduanean, galdera batzuk egiten asi zitzaidan Gaztelu; baña ez kantuz, itzez baizik.

Alkarren berriak jakiñez izketaldi gozoan geundelarik, Usurbilko bi mutil gazte sartu ziran bat-batean. Oso dotoreak ziran, ta Gaztelu ondo ezagutzen zuten.

Gurekin zegoala ikusi zutenean, bietako bat or dator abanttan. Txapel ikaragarria zekarkian. –Tira, Gaztelu, bota bertsoa, bota aguro! –esaten zion, baxoerdi ardoa eskeñiaz.

Ona emen kantatu zuana:

Oni ere txiki bat  
nai nioke bota.  
Zer galdu nezake nik  
geienara jota?  
Korbata marratua,  
txapela galanta.  
Kasik ez al daduka  
kastillano planta?

Sagardotegi batean izana zan Gaztelu, ta angoxe sagardoa gu-txi oi bezelakoa izan, ta gero, jakiña, bere errazioak artuta etxera abiatu zanean, bideak zakartu egin zitzaizkion lendik ere. Auxe abestu zuan, patxara ederrean:

Goitik abiatu gera,  
laxter gera beian,  
estroposu egiteko  
bildurrak aidian.  
Ez dakit bide auek  
nola egiñak dian.  
Pasiatu izan det  
paraje obian.

Oraindik denbora asko ez dala, goizeko ordubata aldean Usurbildik etxeruntz omen zijoan Gaztelu. Zarauztar gazte batzuk Lasartetik biran errira omen zetozen, ta Gaztelu bakarrik ikusi zutenean, bizikletatik jaitsi ta berarekin kontu kontari antzean, noski. Aginagako sarreran, angula-arrapatzalle batzuekin topo egin omen zuten, ta Gazteluk, baia aundiak utsik zituztela ikustean, bertso au kantatu omen zuan:

Aberasteagatik  
eiten dira saya;  
angula arrapatzearren  
utzi dute oya.  
Orrela santifikatzen  
al dezute jaya?  
Kalatu dezute baña  
utsik dator baya.

Neskatxa batekin luzaro tratatua zan Gaztelu. Ainbat denboran ibillita, ez dakit zer aitzakigatik, neskak utzi egin omen zuan.

Andik urte mordo batera Ernioko eguna egokitu, ta an izan omen zan Bautista. Erniotik beerakoan Iturriotz deritzaion base-txean sartu omen zan bazkaltzeko asmoz. Lepo-ezurreraño betea

omen zegoan Iturriotz. Begira jarri ta txoko batean bere andregai izandakoa an ikusten omen du bere gizonarekin akeita artzen ari zala. Ordurako ezkondata baizan. Joan da berarengana, ta orrela dio gizonari, bizkarrean joaz:

–Zu adiskidea, bertso bat kantatzeko libertadia emango al didazu?

–Bai gizona, emango ez dizut, ba? –erantzun besteak. Emazteari begira jarri ta auxe abestu zuan gartsuki:

Esan zirazun nekazaritzan  
etzenduela etsiko,  
denda koskor bat ipiñi eta  
ez ote giñan biziko.  
Zazpi ministrok beartutare  
ez niñuzula utziko.  
Kariño piskat artu zirazun  
baña denbora gutxiko.

Emakumea gorri-gorri gelditu omen zan, ta ango jendeak silla ta aulki gañetan zutik jarrita txalotu omen zuan Gaztelu.

Beste batean, plaza batean estu estu ari omen ziran Gaztelu ta Txirrita, ta pixka bat mintzen ere asita omen zeuden. Ona Gazteluren enbidoa:

Gazteluk Txirrita oni esan beizkat  
izugarrizkuak;  
berak ere esango ditu  
arrazoi bapauak.  
Erropa zarrak dauzka  
zikindutakuak.  
Atarramentu onik ez du  
pertsone parduak.

Txirritak Etxean badauka  
traje bat berriya,  
kolgaduratik bera  
zintzilik jarriya.  
Galtza lasaiak eta  
txaleku aundiya,  
aiek estututzeko  
gerriko gorriya.  
Zure ederran billa  
ez naiz etorriya.

Gazteluk Publikatuko degu  
geren jatorriya.  
Jainkoak eman zigun  
ontan memoriya.  
Txirrita au daukagu  
dotore jarriya.  
Orain egin du modako  
traje bat berriya.  
Len zeukan onagatik  
bazeukan premiya!

Txirritak Etxean badaduzkat  
erropa bikañak.  
Aiek ere kosta gabe  
ez dira egiñak.  
Nik ere izaten ditut  
gizatasun piñak.  
Badakit zergatik diran  
zure jardun miñak:  
lanak ematen ditu  
sufritu eziñak.

Gazteluk Ikusiko litzake  
nolako grandeza!  
Bere buruarentzat  
ez dauka bajeza.  
Etxean ez dauka noski  
traje aldrebesa,  
baña ez da egongo  
billatzen erreza.

Irakurle, ni ez naiz etorri gaur gai egokiak dirala esatera. Bai zera!

Aurrekoak zuten erreztasuna agertzeko bakarrik. Or ikusten da bat-bateko doai berezia. Or ikusten da erderaz *improvisación* esaten zaion ori bizi-bizirik. Baña betikoa. Oraindik orrelako asko gelditzen zaizkio Gaztelu zanari. Ain zuan abots ederra, ta ain ederki ta patxaraz abesten zuan ta askok jasotzen zituzten bere neurtitzak.

Uste ez dala luzatu egin det ordea. Sail onak artu ditut, Jainkoaren izenean!

Esan dizutet: gaur bat-bateko Gazteluren egokitasunaz jardun natzaizute, urrengoan idatzi zituanak agertuko ditut, bear bada.

Bertsolari geiagorenak sartzeko asmoak banituan, baña ezin liteke; toki ikaragarriak bearko nituzke-ta. Biar arte, jaunak.



# Ladislao Rieger

Argia, 1935-02-17

---

Ezer luzeegi egin gabetanik, zati bitan ezpada, irutan, Txeketar abertzale eredu biotz marduleko izan zan onen agerketatxoa egin nai nizuteke. Euskeraz onelako gauzak jakingarri ta onuragarri diralako asten naiz batik-bat. Zenbaitek bezin egoki azalduko ez dedan arren, aztu eziñeko gure Elizalde ospetsu zanaren “Paises y Razas” deritzazko liburutzotik artutako aletxoak dijoazkitzute.

Ia ba beren baldartasunean irakurtzen dituzuten!



Jakintza itzalezko gizon azkarrak, politika barrutian burru-keta ta leiaketa bizian diarduten gizonak, guziak artzeko eran zabal begiratuta, ez dira aberaskume edo aundi puntakoen semeak; tartean bat edo beste badirala ezin uka noski, baña geienak bestera, alde aundiz. O'Connell sonatua zan aundikalakoa (aristócratico), baña... asi... Racki, Kollar, Roger, Arana Goiri, Palacky, Schaffarik, Strossmayer eta gañontzekoak, erri-seme jatorrak ziran. Racki, nekazari menditar baten semea zan. Palacky-n aita eskola maixu beartsu bat besterik etzan; Strossmayer, gotzai sonatuaren aita, zaldi tratolari bat zan, eta izkirik (letrarik) eza-gutzen etzuen.

Pizkunde ordutan diran abenderri edo naziotan aundikalako jendeak, erri-azutik urruti nai izaten du, ta kontrariorik amorratuenak berak oi dira geienetan. Iñoiz iñoiz aleren bat gertatzen dala, besterik ez.

“Abertzale ona izateko seme ona izatetik asi bear du”, ta... alderdi orixe bazuan Rieger gazteak. Aita errotaria zan, ta semea ere alaxe izatea nai zuan; ta ortarako, Rieger-en izena an ezarri zuan ardo edo gremio izen errenkadan errotaritzarako. Rieger gazteak etzuan batere txartzat artu aitaren jokera ori, ta lanketa ortan jarraitzeko asmoz apalki geldi zan.

Beti ikasketarako gogoia bai orregatik gazte txalogarri onek. Artzen zituan tarte guzitan, ta batez ere arratsetan loari orduak lapurtuaz, oso-osorik jakintzari eskeñi zitzaion, ta ikastaro azterketan, examiñetan, oso argi agertu zan, ta bere aita biotz onekoa izanik, semearen iaioatasuna senti zuanean, al zan bezela berari laguntzea erabaki zuan.

Denbora aietan, au da, 1840garren urte inguru artan, zerbait pizten asia zegon Txeko erri osoa gerora gar utsean biur bear zuan sua.

Politikan aurreratu samarrak zeudelarik, kultura bidean ere aurreratzea egun-eguneko ametsa zuten. Pragan eske nabarmen bat zegon: Ikastetxe Nagusi edo Universidade baten eskea.

Laxter berezitu zan Rieger gaztea. Bere kemen guziak Txeko arazoari eskeñi zizkion. Beren elertia goraldtu naiakin batera, aberriaren askatasuna zuten aopean; Txeko nazioa bere eskubidez ornitu nai zuten. Rieger gaztea, bildur ikara guziak baztartuta, bere aberriaren edergarriak, bere alaialdiak eta tristurak alde orotara edatzen asi zan trebeki, ta ordañez ikusi zituan bereak.

Poloniar eta Eslava endako abertzale matxinadazale askoren-tzat zuan ostatua; bere altzoan biltzen ziran ortako asko, ta bera-gatik espetxe, isun ta kastigu gogor asko izan zituan.

Len esan dizut, irakurle, luzeegi ez dala ondo izango. Beraz, urrengoan patxaran jarraituko degu.

## Ladislao Rieger - II

Argia, 1935-02-24

---

1844garren urtean ben benetako beste arazo bati ekin zioten Txekoak. Beren kulturari indar emateko, erti bidean sakontzeko, "Hestanska beseda" izeneko bazkun langille indartsu bat iriki zan Rieger-en alegiñak bide zirala.

1848garren urtean, ta ordurako Legetan irakaslarituta (Doctorado en leyes) zegoalarik, Italia aldetik zebillen bidaldian, ta bete-betean Europako abenderri guziak gutxi edo geiago izutu zituan matxinada naspilla gertatu zan. Rieger gaztea denboraz aldatu zan Austriara. Egun batez, Vienan zebillelarik, Txeko batzorde batekin topo egin zuan. Txekotar auk enperadorearengana zijoazen zuzenki. Baña... zertara uste dezute?

Ba, Wenceslao, Bohemia, Moravia ta Silesiako bakalderri edo erreñuaren osamen ta indar berritzea eskatzera. Au da, len zituzten legeak, len zituzten eskubideak berenganatzeko alegiñak egitera zijoazen, erriburu nagusi Praga izatekotan oldozturik. Au, gutxi gorabera, euzkotarrak Madrideko gobernuari Euzkadin tentetutako latetxe nagusi batekin lengo lege zarrak eskatzea bezelatsu da. Rieger-ek bat egin zuan berealaxe batzorde orrekin ta lanari benaz ta gogor eldurik Pragara biurtu zan, Txeko nazioaren eskari gogo au aurrera ateratzeko izendatua zegon batzordeko batzarkide izendun bezala. Aldi uraxe zan aspaldiko eunkietan zanik ere aitatzen etzan Txeko nazioaren oartzun edo oiui ikaragarria Europa zear gartsuki edatu zan aldia. Aldi ura zan, baitare, Austriaren uztarpeko zeuden abenderri edo nazioak, joputasun negargarria bazterturik, beren buruaren jabe izateko bear ziranak egiten asitako aldia. Ta Austripeko Eslavar jatorrizko nazioak txekoak bezelaxe bero ta sutsu ziran ordu artan, Alemania zakarrak, bere aundinaikeriz munduaren aurrean goi mallan agertzea ta luzitzea nai zuan, geroztik ere amaika aldiz oldoztu duan bezela.

Zer asmo zuala uste dezute?

Eslavar jatorrizko nazio guziak, ta Austria bera ere taldeko arturik, bere menpekotzat artzea. Itz batean: “Bereak eta inguruko salletan arkitutako ardiak bereganatu ta, ni zabalera ontako artzairik kementsu ta indartsuna” iñork deituko balu bezela. Berdin da. Alemaniak asmo ori zuan, ta lortu al izateko, Frankfurt deritzazko letetxe edo kongreso bat antolatu zuten. Bero ekin zioten beren aundinaikerizkoakin, ta bazan germandar ministro iñozo bat, Txekoari latetxe ortara biltzeko aginduaz batera, Bohe-miako ordezkariarik egokintsuena Palacky izango zala esan zuana. Pillesdorf zeritzan.

Urrengoan ikusiko degu Palacky-n erantzuna.

# Gure zorionak

Argia, 1935-03-03

---

## Zinkunegitar Joseba

Esakera zar bat datorkigu burura: "Euskalduna, itzetan motz ta egikeretan luze" esakera. Orixe Zinkunegi jaunari oso osorik erantsi ote gentzaioken iruditu zait ba, jaunak. Ez dezute iztuna, ez dezute burrundalaria, baña langillea bai benetan. Gaurko gazte askok aditzera aundirik izango ez duten arren, lengo abertzale ta euskaltzaleen artean oso ezaguna da izen au. Zarauzko langille jakintsu onetzaz askok eman lezateke zerbait berri; bear dan ziurtasunarekin oso banakak ordea.

Euskal arazotan, ta batez ere euskal gaietan, berezietakoa deritzat jaun auxe.

Menpean ditu bi gauza oiexek; maiteak ere bai iñork badata.

Beste lanak amaika aldiz baztartua da, oien laguntzalle ta aldezele bikañetakoa dala azalduaz. Bere lan neketsutako bat *Criterio de Balmes* euskeratzea, noski. Ortxe ikusi genezake jaun onen jakintza ta euskeragaz duan sendotasuna. Joskera oker bat ez dezute arkituko, ez gañontzeko akats asko ere. Maixu aunditzat ezagutzen det jaun au, ta kidekoak bear aña ez ditu zoritxarrez. Bururapen ona nerea. Aspaldian ezta, Altube sonatuaren *Erderismos* deritzaion liburua artu dut lengoan eskuetan. Antxe ere Zinkunegi eredutzat ikusten dut ordea. Bere zatiak xpillu antzez agertzen zaizkigu.

Lan aundiak dira Zinkunegik egindakoak. Jakin nai nuke zenbat antzerki euskeratu dituan, jakin nai nuke zenbat bestelako irakurgai. Idazti batzuk ere baditu bere-bereak. Gaur ez nator ordea oietzaz ezer agertzera, azken mallarako gorde dedan zerbait atsegingarritaz itzegitera baizik. Beste baterako geldi bedi oien komentarioa.



Zarauztar abertzaleok antzoki apain polit bat moldatu degula nor ez da jakin?ean?

Aurrez esaten dizut, irakurle: Zarautz aldera zatozenezan, bi-xitatxo bat egin gabe ez gelditu beintzat. Nik polita ta apaña dala esan badet, zuk ikusten dezunean berdintsu esango dezu-ta

Ta alain itxurazko gauzari asiera on bat eman nai zitzaiion.

Ondo gogoratzen naiz. Bada denbora puska bat Zinkunegik Campionen “Pedro Mari”kin ekin bear geniola esan zuala.

Etzuan jendeak orrelako asko pentsatzen. “Zarautzen Pedro Mari... etzeko toki txarrean!” –zioten aitatu utsarekin. Ori lin-boan amestea zala ziotenak ere baziran. Zinkunegik entzun zuan amaika orrelako, baña egundo ez etsi. “Len Bilbotar ta Iruñata-rrak egiten dutela... ba... oraingoan guk, ta gañera izkillu ba-tekin; izkillu sendo ta indartsua dan euskerarekin”. Ala gertatu ere; baña gorriak ikusita. Zenbat dei, zenbat saio, zenbat ibilli, zenbat buruauste. Guk, bere inguruan ibilli geranak badakigu pixkabat, guzi guzia ezpada ere. Arritu egin bear orregatik bere ibillerak sentituta, ta ori lendik ezagutzen degula, e?

Zarautz batean ere lan aundiari eltzeko ezpaidezu aukera geiegi.



Azkenean “Pedro Mari” antzestu da. Iru aldiz gañera. Or dago gustatu dan itxura. Zubimendi bizkorrak egoki eman zigun bere iritzia. Ongi baño obetago iruditu zaigu. Ona nola zion: “Euz-kadiko seme zintzoak, Naparruko mendiei ostutako gazte euzko jatorrak erderaz entzutea min zitzaigun. Gure gogoa betetzera zarauztar abertzaleak eldu zaizkigu. Zenbat eta geiago entzun, orduan da gogokoago zaigu euskeraz antzerti lan ori”.

Apartekoa dezute, irakurle maiteak, Zinkunegiren luma. “Pedro Mari” ere ezin da obetago euskeratua dago. Obrak erruz irabazten duala edozeñek aitortuko dizute. Ta itzulketakin ez da sarritan gertatzen. Aldatzeak asko ondatu egiten ditu. Badakizu-

te; “nik ez dakit erderaz” lenengo atalean esan, ta aurrera bide guzian erderaz jarraitzen zuan “Pedro Mari” ura, bere itzaren jabe egitera beartu du Zinkunegik, ta gaurtik aurrera euskeraz ikusi zendazazuteke.



Antzezlariori zerbait pallo billatu digutela? Ez da arritzekoa; azkartxeagoari ere billatzen dizkiote-ta!

Lizardi Antzokian iru agerraldi egin dira, ta irurak jendearen gogozko. Onelako buruzagiak diran tokitan, lan asko ta onurakorrrak egiten dira. Berrizko ere pozean gaude zarauztarrok. Jarrai dezaiozun gure artzai txalogarri oni.

Euzko aberriak gogoan izango zaitu. Zorionak, Zinkunegi.

## Ladislao Rieger - III

Argia, 1935-03-10

---

Palacky-ren erantzuna ikustekotan gelditu giñan oñengoan, ta ea gaur irakurtzen dezuten. Pellisdorf-en eskaria berealaxe ukatu zuala ez dago esan bearrik. Orretzaz gañera, Francfort-eko late-txean bildu ziran germandarrai itz auek zuzendu zizkien: “Ni ez naiz alemana –dio– ni Eslavar etorburuzkoa naiz, Txeko naziokoa ta nere alegin guziak nere aberri orri eskeñi dizkiot. Nazio ori txikia dala egia da, baña bere sorkundea ezkeroztik, notintasun berezi ta ederlaria du berekin. Bere agintari aundikiak (prinzi-peak) Alemaniarekin naasi dirala ere egia da, baña erria ez da iñoiz Alemana izan”.

Palacky-ren bikaintasuna argi ageri da, noski.

Francfort-eko aleman billerari bear zan garraztasunez erantzuteko, Eslavar jatorrizko nazio danak batu ta Pragan sekulako batzarrak egitea erabaki zuten. Zer gertatu zala uste dezute? Vienna aldean egunean baño egunean gogorrago ta sendoago nabari zan matxinada zaletasunarekin Fernando kaiser edo enperadorea bildurtu ta izuturik Insbrukck-a joan zan bere gobernoa uri nagusian len bezala utzita. Ausardi aundiko kolpea eman zuten orduantxe Txekoak. Iruditu zitzaioten Vienako gobernoa etze-goala kaiserrarekin jakiñean, ta beren agintea etzuten ezertzaz artu, etzituzten geiagokotzat ezagutu, ta Pragako ordezkaria zan Thum kondearekin bat egiñik, alditsurako (provisional) goberno bat izendatzea aldoztu zuten. Zortzi ministro aukeratu zituzten, eta Palacky ta Rieger ere taldeko ziran. Azkenengo au ta beste ministro bat ziran enperadorearengana joan ta Bohemiarako izendatu zuten gobernoa ontzat artu zezala, ta beren latetxean ainbat naziotako jendea batzeko eskubidea eman zezala eska-tuak. Kaiserrangandik iritsi zuten asmo zutena.

Pragara itzultzerakoan ordea, 1848garren garagarrillak 17 egun zituala, beren itxaropen guziak lurperatuta ikusi zituzten. Etzuten alakorik asko pentsatzen.



Erriaren piztuera ta jokera itsusi bat zala bide, artean esate baterako ezertan asteko zegoan latetxe edo kongresoa tiroz apurtu ta txikitu zuten, ta uri nagusia, kapitala, Windischgraetz bakaldun gaiak bonbardeoz zarpildu ta ondatu zuan.

Beraz, Txekoak asmo zuten Eslavar jatorrizko nazio billerak ezer antolatu baño len izan zuan bukaera. Zein oker atera zitzaien!

Ordutik aurrera asi ziran Rieger-en arrigarrizko lanketak.

J.L., urrengo astean ikusiko degu aldun bezela egin zuana.

## Ladislao Rieger - IV

Argia, 1935-03-17

---

Erri ordezkari edo aldun bezela ikusi bear genduala ta geldi giñan oñengoan. Eslavar jatorrizko abenderrien arteko asmoak matxinada traketsaren bidez lur jo zutenean, orduantxe asi zan Rieger gaztearen aldun izakera ta ordezkaritza jatorra nabarmentzen. Txekoak etzuten aldeze makala berenganatu. Rieger-ek aldun bezela egindako lana, au da, latetxe arazotako gizon bezela egindakoa, O'Connell illezkorrak Westminster-eko latetxean eginda-koakin erkatu dute jakintsu askok.

Len esandako matxinada su zakarrak itzali ziranean, Kaisalderri artako nazio guzientzat ateak zabal zituan latetxe bat ireki zan Vienan.

Ungria bakarrik gelditu zan salletik kanpora, ta bera... euren latetxea berezi zutelako. Ainbat abenderritako aldun gizonak biltzen ziran latetxe ortan. Babelgo Torrean izan zan antzeko ele nasketa sortu zan. Txekoak ere beren gizonak biali zituzten, ta, jakiña, oraingoan ere Palacky ta Rieger-ek tarteko bear zuten. Eslavar iturburuzkoak etzuten iñondik iñora alemanez mintza nai latetxe ortan, ta Borroch zeritzan germandar batek etxeko jazkerarekin kanpoan ongarritu naiko zarpaillakin erkatu zituan.

Merezi bezelakoxe erantzun zorrotza jaso zuan Rieger-engandik: "Zuek zerate -zion- zeuen jazkera mota derrior ezarri nai diguzutenak. Erritartasuna indar aundiko eskubide done bat da, gizon bakoitzaren askatasuna beregan zaitzen duan eskubidea bezin done ta aintzagarria. Emengo batzar onek, bere kemenez, Kaisalderri ontako Eslavar, Italiar eta gañontzeko naziotako jendeak alemanez itzegitera beartuko balitu, benaz gogotsu esaten dizutet, ni ez naiz agindu edo erabaki ortara makurtuko, ta guzia ez onek eta beste iñongo latetxek gizon bezela dagokitan eskubide ori ezin lapurtu lezaidalako. Asarre bizia ager nai diet nere aberria iraindu dutenari".

Gero berriro, nasketa ta matxinada tankerak sortu ziran, ta latetxe ori ezereztuta gelditu zan.

Rieger-ek etzerizkion Austri laterripean ziur zegoanik, ta atzerri aldendurik, Frantzian bizi izan zan aldi batean; ta emen Polako, Ungaro ta beste abertzale erbestetuekin zerbait tratu izaten zualako, espetxe gogorrek ikertu bearra izan zuan.

Geroztik Inghaterrara aldatu zan, ta an bere aberrirako onuragarri izango ziran lanak ziralakoan, yakintza sallari eraso zion bizi-bizi. Bereak dira gaur Bohemian alain ezagunak diran *El Herrero* ta beste abesti batzuk, eta garai artantxe moldatutakoak gañera.

Andik puskabatera berriro aberriratu zanean, ta bi urte igaro zituanedo, Palacky-ren alaba batekin ezkondu zan, ta len beren abertzaletasun sendo ta sutsuz alkarturik zeuden gizon auek, aidetasun gozagarri batez bein da betiko uztarturik gelditu ziran. Sekulako asmo bat izan zuten alkarren artean.

Egundo baño gogotsuago lanari loturik, beren erri-jakintza ta izakera agertzen zuan amabi zati aunditako liburu ikaragarri bat argitaratu zuten. Kober abertzale ospetsua zan amabi zati edo tomo aberkoi ta onuratsuen argitaldari.

Txeko errian egundoko argitasunak sortu zituan lan txaloga-  
rri onek.



1949garren urtean Francisko.....\* zan ango enperadore, ta lege berri bat jakin arazo zuan onek. "Kaisalderriaren osamena" zuan bere izenburua, ta bertan Reichsratr edo latetxe antzeko batzar etxe bat zutituta berriro inguruko nazioak bertaratzeko eskubide osoa zuten, baña ordezkaritza kokorarekin zeuden guziak. Alemanak berenganatzen zituzten ango autarki guziak.

Baña, irakurle, auxe komeria! Nere lantxoak gaur bukatzera ezkeroz oraintxe ere sail aundiak bear nituzke, ta orixe ez dut nai iñola.

Urrengo astean bukatuko dut patxaran. Ordurarte ba.

---

\* ..... ezin irakurri.

## Ladislao Rieger - V

Argia, 1935-03-24

---

Alemanak jaun da buru ziran batzar-etxe artan, Rieger bizkorra zan txekoen ordezkarietako bat, ta ainbat etsai galgarriren artean amaikatxo naigabe ta samiñaldi eraman edo igaro bear izaten zuan. Arerio guziak beren griñak ta naikeriak alain errez iristen zituzten biltoki artan zetozen olatu zakar apar aundian bildur gabe, Txeko nazioaren eskubideak aldeztan inoiz baño sendoa-go jokatu zuan Rieger aintzagarriak. Batzarreko otso amorratuen berri zuelarik ere, beregan sentitzen zuena, ta bere errirako bear bearreko zan zerbait eskatu gabe ezin iraun zuan, ta 1861garren urteko garagarrillaren 19an Txeko erriko ikaskera edo enseyanza txekeraz izan zedilla eskatu zuan gordinki. Batzarreko oztasun ta etsai zurrumurrua nabaritu zuanean, bere arrazoi garbi ta eskari bidezkoak nola baztartzan ziran ikusi zuanean, ondoren datozen itz latz pixu aukerak oguzi zituan daneri arpegi emanaz: Emen denok dakigun gauza bat da nola gizonak ala erriak beren ogasunak edo berai dagozkien gauzak gogozago ta prestuago zaitzen dituztela, auzoarenak, besterenak, au da, etxez kanpokoak baño. Guk, Txekoak, ur oietan sarri igaroak geralako, badakigu zoritxarez denen berri. Egunero ikusten baidegu gañera”.

Lendakari edo presidentek, lege mintzatzeko ta exeritzeko eskatzen dio Rieger-i.

Rieger-ek. –Ez det nazio arazoatzaz ezer itzegingo, badakit emen ortarako ere askatasunik ez dagoala-ta.

Lendakariak. –Legez mintzatzeko eskatzen dizut bigarren aldiz.

Rieger-ek. –Baita nik zuzentza edo justizia eskatzen dizut aurrez aurre.

Andik denbora gutxira aldegin zuten Txeko aldunak parlamentutik.

Asieratik il ordurarteraño, Rieger-en ikurritza itz auekin osatzen zan, ta beti ta nunai esangai zeuzkan: “Lanetik eta yakintzatik dator gure gaizkabidea. Ez atzera egin”. Nedejme se!

Ikusi dezute Rieger-en izakera. Arantz mingotzez bildua alde orotatik. Erriak gaizkatzera. Erriak beren jabetasunez ezagutu araztearren lotzen dituzten kate astunak beingoz baztarturik ta purrukaturik, beren osamenez jartzeko asmoz diran gizonak, guziak bizikera erdia eramaten dute. Aberri yopu bati osorik eskeintzen zaion gizona ez da ezti kutsutan egongo. Bide latzak benetan korritu bear dituanak.

Ortakoen izenakin errenkada luzegirik osatu gabe, geure irakasle illezkorra dan Arana Goiritar Sabin-etzaz (G.B.) oroitzea naikoa degu. Aztertu astiro berak Euzkaditzaz egindakoa.



Txeko erria, gaur dana izatera eltzeko, kulturari, izkuntzari, oiturari, etxeko zuten guziari politikari añako garrantzia edo aundiagoa eman diotelako da.

Zoritarrez guk euzkotarrok egiten ez deguna. Abertzaletasunaren oiartzunak mundu guzira edatu ditugun arren, egundo baño ugariago ta itzez beroago geran arren, gure euskera maitea, gure abenda ezaugarri kutuna, gure muga ta esirik bikaiñena, gure armarik indartsuen ta ziurrena dan euskera, lotsaturik ta buruzbera, geuk atertu gabe ematen diogun arrikadarekin mallaturik ta kokildurik azken agurra egitera dijoala dirudi. Gaxoa, uri ta erriak utzita, goi-basetxeraño igo baida lotsaren lotsaz. Errukarria!



“Egin dezagun emen –dio Irular idazle argiak– Finlandian eta Txekoeslobakian egin dena: politikari erdia ta beste erdia izkuntzari eta yakintzari edo kulturari”.

Uste ortan bear degu oso-osorik. Bide auxe artu bear degu gor-  
din ta sendo. Bat irabazi ta lau galtzera goaz lengo bidetik. Etzaigu komeni iñolaz ere. Jaiki denok batera euskeraren alde! Jar dezagun dagokion lekuan. Aurrera! Gora euskera, gora bere aldezleak!

# Bakarrizketa sariketa Zarautzen

Argia, 1935-03-31

---

Lizardi Antzokia ez da txantxetarako sortua; bertan jaiero ospatzen diran puntzioak ezezkoa esaten digute. Izan ere, tentetu zaretik onera izan da ikuskizun ederrik.

Euskal teatro barrutian ezagutzen diran antzerki lanik maimitsuenetakoak antzeztu baidira. Asi "Pedro Mari", "Neskazar", "Osaba", "Ama"...ez dira gero jolasekoak!

Onenbestez ezin ordea zarauztar abertzalean gogorik ase, ta... gaur iganderako, ai zer egitarau polita antolatu dan. Ba, irakurle, bakarrizketa sariketa edo leia gogor bat ikusi bearrean gaituzu. Ez da ordea bakarrizketa idazteko sariketa, antzeztekoa baizik. Ta onela izanik, zaletasun ikaragarri bat senti degu gaztedian artean, ta sinistra nai ezpadezute, bertara aurkeztuko diran amaika antzezlarien izenak argitaratuko dizkitzuet. Bera derizkiot egokien, ta ona emen zein ta zein lanekin agertuko diran:

- 1- "Zigorra", Agirrezabaltar Albertak.
- 2- "Atso Poxpoliña", Ayerditar Edurnek.
- 3- "Ezkonduko al naiz?", Zinkunegitar Andonik.
- 4- "Andregaiia nai ta...", Aliritar Erramonek.
- 5- "Me caso?", Urangatar Sebastianek.
- 6- "Urteurrena", Illaramenditar Kostantiñek
- 7- "Bere gain", Amilibiatar Koldobikak.
- 8- "Ikurrin gorria", Iruretagoyenatar Danielek.
- 9- "Guzik gaxo", Alberditar Pelik.
- 10- "Perira", Alberditar Andonik.
- 11- "Porrusalda", Izetatar Marenek.

Edertasun zoragarria benetan. Jaialdiaren gurenda aurrez adierazi genezakeala dirudi. Alkarren arteko imurtxirik ta irudi-penik sortu ez dedin, epaimai edo juradoa kanpotarren barrengo diran Olanotar Txomin, pianojole sonatua, Zubimenditar Joseba

idazle ta olerkari ezaguna, ta ain ots aundiko bakarrizketagille Arozenatar Andoni bizkorra datozkigu.

Goian diodan bezela, gar ikaragarria dago neurketa ontarako, ta, gaur igandea, arratsaldeko 6:30tarako Lizardi Antzokiak gañez bear duala derizkiogu.

Gure adiskide ta lagunak beste ametsik ez dutela ikusita, zu joan gabe ezin geldituko zera beintzat. Ai zer asto jokia egingo zenuken!

Etzera ordea orrelakoa. Era ontako jaialdia baztartu ta etzera zu sagardotegiko egoera zale. Ia ba gogoz portatzen zeran. Ez dakitenai ere esan gero!

Lizardi Antzokian gaur zure tokia.

# Txomin Olano

*El Día*, 1935-04-05

---

Egun auetan berri pozgarri bat dabil edonora ega naian: Olano jatorraren aitamenak ugaltzen dijoaz. Bera ere ez izaki ordea ixil-pean gordetzekoa!

Onelako gizonak aitatu ezean, zer ezpañeratu genezake?

Lau edo bost alderditako zama astunak kontiño darabilzkin jaun bati merezi duan saria eskeintzea gizatasun ta kristautasunezko jokera guziz goralgarri bat baño ez da.

Langille arro aundi ustekoari omen gutxi egiten zaio oso, la-guntzalleak bakan arki oi ditu alakoak.

Baña lanetik bururik jaso gabe dabillen arek, egiten duan ura onurakor dalakoan, ain benaz lan orri eskeintzen zaion arek apaltasunik aundienaz aske senti dituan ordu guzitan, euzko olertiaren apaingarri ta bultzagari izan dan arek, bost-sei tokitako dei oiartzunak bildurtu gabetandik umiltasunik txalogarrienaz guziekikoak bete dituan arek, nere ustez zerbait irabazita dauka.

Erriak ikusi du zer egin duan, ta orain erri orrek bere esker ona agertu bear dio.

Olano jatorra eredu artzeko laingoa degu ontan. Euzko Abesbatzak langillerik sutsuen ta utsik gutxienetako bat bera duala esango dizu; zoaz Poxpoliñetara ta beste ainbat entzungo dezu. Euzko Etxean ta Euzko Gaztedian galdetu ezkerro berriz, bi bazkunetako alaigarria bera dala aitortuko dizute; edozeñen esanetara makurtzen dan jaun leial bat dala geituko dizute gañera. Abeslarien bati galdetzera ezkerro, ez dago zer esanik.

Ta euskal-irratsaioak? Aitatu utsarekin, irakurle, ez al dezu alako naigabe bat sentitzen? Galdu baiziran.

Ta Olanotar Txominetzaz ari geran ezkerro, iru urtean astero-astero ain xamurki belarrirratzen zan "Jaiki jaiki" doñu lilluragarria nork ez du gogoan?



Ori guzia gogoan duanak, Txomin leiala gogoan bear du, ta garairik egokiena orain dan ezkeru, zerbaitxo laguntza eskeintzea, gure eskerrona erakustea ez litzake gaizki.

Gorasarre jator ortan indar-emalle bear degu; aurrerako ere poztu egin bear degu gure gizona. Gipuzkoako Batzokiak, ernai Euzko Abesbatzaren esanetara!

Zabaldu arpidetxoak ta eman zeuen aletxoak. Gipuzkoarrok, alaitu eta zoriondu ditzagun jaun prestu auek. Euzko Abesbatzari lagundu denok, artaldeko ardi jatorrenetako orri merezi duan saria emateko. Zorionak "Atarka" maitea, egin dezunagatik.

# Igandean, “Pedro Mari” Donostian

*Euzkadi, 1935-04-07*

---

Kanpion ospetsuaren “Pedro Mari” antzetzekotan gaituzu zarauz-tar antzezleriak. Ta nun uste dezu, irakurle? Donostiako Kursaal aundian, gizona.

Ta “Pedro Mari”ko geran ezkerro, zerbaitxo aitatzea ere ez da noski kalteko izango. Euskal-antzezkiun barrutian, lanik sendoen, aberkoiien ta biotz ikutzaliena dala askok aitortuko dizute. Etxabe zanak (G.B.) antzetzokiratu zuan erti-lan txalogarri onek jaso du gorantzarik asko.

Ain egoki moldatutako obra zoragarri oni akats azi samarra billatzen genion guk euskaldunok. Pagogañako “Pedro Mari” lerdnaren erdel-jariora etzitzaigun atsegin.

Nola izango zitzaigun ba, lenengo atalean erderarik etzekiala berak aitortzen bazigun?

Gaur ordea besterik dezu. Euskal-gaitan ain maixu jatorra degun Zinkunegitar Josebaren luma gozoa dala bide, lengo akats eta utsegite guziak ezereztuak ikusten ditugu. Ben-benetako “Pedro Mari” degu gaur antzetzokian; “Pedro Mari” bikain guria, “Pedro Mari” apal ta euskaldun garbia. Zer gozo atsegiñak diran bere mintzaldiak, zer biotz ikuitzalleak! Izan ere berezitasun gogorra dizu gure Zinkunegik. Zer joskera apañak bereak!

Ta Zarauzko Lizardi Antzokian iru aldiz erakutsi bear izan zan erti lan eberkoi au, ainbat txalo ta goralpen jaso zituan antzezkiun aipagarri au, igandez, ta arratsaldeko iru t’erditan, Donostiko Kursaal aundian antzetzuko da. Beraz, irakurle aldiskide orrek, ondo dakizu orain. Egokiera au ez galdu Jaungoikoagatik!

Txartelak artu lenbaitlen ta esan zeure lagunai ere. Aurreko aldean dezun argazki ortan “Pedro Mari” dezu, Baigorriko neska-txakin batera

Igandean, ordea, obetago ikusi zenezake. Zoaz Kursaalera esandako orduan. Konporme? Ea ba!

## Ateraldi bapoa

*El Día*, 1935-04-14

---

Ezagutzen duten guziak berdin esango dizute: Goikoetxeko Joxe Erramun gizon xelebrea dala; baña bai parrandero eldu xamarra ere, e? Kontuan euki ba!

Beste gauza bat. Orain Joxe Erramunek 70 urte dauzka bizkarrean, ta umore ona palta etzaiolarik ere, ez dauka orratik garai batean bezelako ibil pozik. Adin ortara ezkerko geientxoena makurtzen dira, ta gure gizon au ere oso etxekoi daukagu orain aldian. Ez da arritzeko! Eziñak asko errenditzen baiditu emen!

Aurten ogeita sei urte, San Ixidro egunez Beamako Erdoizta ballaran izana zan. An pestak nola oi diran, konbirau joana zan dakigunez.

Maiko lanak patxara ederrean egin ondoren, eliz aldera joatea ere bear bearreko zuten. Gure Joxe Erramun ordurako bapo mol-datua zegon arren, berriz ere edan galaniz zan, ta mutil ardotik bapo baliatua, demontretan!

Azpilkaldean bolatoki legea, ta erromeri zale guziak al zutena inguratzen saiatzen ziran an.

–Iru par lau ezetz!

–Baietz! Bazeak erreala!

–Ik nai al dek Joxe Auxtin?

–Ez, Errupiñori egin zeot

Denak ziran jokalaria, denak arduratsu ta larri!

Alako batean ardoz bete-bete eginda inguratzen da bolotokira gure Joxe Erramun. Edanaren geiegikeriz toteldu zitzaigun dexente.

Arraiotan, ikusi du Amatsako Juli bolariai begira dagoala. Tripili-trapala urreratu da beregana, ta orma balitz bezela atzeko aldetik, zaarra zaarra, zera egiten asi etzaio ba?

Jesus motellak! Bi begiak irten bearrean erreala noiz eskuratuko zebillen Juli bueltatu da ta ala dio amorru bizian:

–Baña i, narrats zikin ori, zer arraio ari aiz atzetik txixagiñen?!

–Ago ixillik, kaiku, santa sekula ez diat oraindik atzetik txixik egin da...

Egun artako pestarik ederrena uraxe izan zan Beaman. Ango algarak!



Uztapide, Basarri, Indalezio Oranguren Eibarren 1949

# Jaunaren Berpizkundea

*El Día*, 1935-04-21

---

Gaurko egunaren oroipena kristau guzien artean sendoki gordezten dana da. Nola aztu diteke izan ere zero edestiz ornitutako Pazko goiz alde lilluratsua? Ezin inolako moduz.

Gure uritxo paketsutako kanpai-eresi aintzagarriak, alaitasun berdingabeen zutiturik, oldozmen sakon biribilletara garamazki. Igarlean esanak oso-osorik bete dira.

Egun bi atzetik, samiñaldi, garraztasun, naigabe, eramanki-zunik beltzen, illunen ta latz mingarrietan arkitzen zan seme Jaungoikoa, Kalbario tontorrean bi gaizkille bildurgarriren erdian gurutziltzatu zuten ura piztu bait da.

An, goi tontor artan, berari egiten zizkioten isekak, ematen zizkioten eztenkada latz ikaragarriak gogoratzen ditugu baitere. Gurutze altzoan zeuden Jesusen Ama Maria, Maria Cleofas, Maria Magdalena ta Juan Ebanjelarien egoera nolako unea ote zan? –diogu geurekiko. Jauna Juanengana zuzendu, ta Ama biotz biguñia erakutsirik, “Orra or zure Ama” ziotsan aldi ura ere oroi-menean darabilkigu. –“Sitio”, “Egarri naiz” –zion azken unetan Jesusek. Eta ozpiñetan bustitako belaki edo esponja bat aoratu diote judu traketsak. Illundu zan lurralde zabala, orobat eguzkia. Pixkabat proatu zuanean, indartsu zesan: “Guzia egiña dago”. “Aita, zure eskuetan uzten dut nere gogoal!”.



Ta aldatu gaitean gaurkora.

Gudari taldeak illobia inguratzen du; prestu ta indartsu dau-de beren eginbearrerako. Goizaldi dirdiratsu ontan ordea, ta soldaduak gutxien uste duten garaian, Jesus illobittik egatzen da, ta gudari trebeen ernaitasuna itsumenera aldatu da. Piztuerako dizdira argitasunak itsu lez utzi ditu.

Zarra ta larrialdi ikaragarri artatik noizbait oneratu diranean, sazerdoteangana dijoaz abian berri ematera. Jesus berpiztu dala diote.

Berri orrek guziz nastu ta zoraturik utzi zituan, ta bereala batzarturik eurak, gudariak alegia lotan zeuden bitartean, apostoluak illobiratu, korputza ebatsi ta eurakin batean eraman zutela zabaltzeko agindu zieten. Bai diruz ederki ordaindu ere. Berri onek ordea, jendea esnarazi zuan denboraz; etzuten sinisten iñolaz ere.

Lo zaudenak nola ikusi zituzten apostoloak gorputza eramaten? –galdetzen zuten askok. Arrazoi zuten noski.

Egun zoragarri onek, irakurle, onelakoxe oldozmenetara ekarri gaitu, ta zeru-lurren jaun ta jabe berpiztua gogoz ta arretaz gurtuaz, samiñaldi ta naigabe beltzen ondorengo alaitasun ta zorion au gogoratuaz, eskaritxo batekin aurkezten zauri mingarriak estali ziñuten Jaungoiko orrek ainbat ta ainbat eraman, pekatariogatik gurutzean il, eta gaurko egunez piztu ziñan orrek, egizu arren, gaurko mundu nabarmen ondatu au piztuarazteko modua. Egizu, arren, nazio artean noiz baño noiz lertuko dabillen olatu zakar ori baretzeko modua. Egizu aingeruen abestia gogora dezagula: “Aintza Jaunari goietan, ta pakea asmo onetako gizonai lurrean”.

# Agur adiskide

El Día, 1935-04-26

---

Baionatik eltzen dan *Eskualduna* izparringiko orrialde batean, ustez ustegabeko izpar samin naigabetsu bat arkitu degu, ta biotzaren erdi-erdian zulatu gaitu. Ez gendun asko pentsatzen.

Senpereko izparkariak, irakurle, ematen digu estuasun au. Gipuzkoan ain ezagun egiña gendukan Matxin\* bertsolari zoli bizkorraren eriotza aitatten digu, Matxinen il berria ematen digu. Berrogei t'amaseigarren udaberrian aldendu zaigu, euzko baratzan edergarritzko tokia bereganatua zeukan lorea. Udaberri mingotza aurtengoa, udaberri ondatzallea gure lurrean. Mendiz andikaldeko anaien malkotan alkartzen dira gureak. Ezin degu aztu Matxin; ezin itz negarti bi zuzendu gabe geldi. Ez, ezin iñola!

Orain urtebeteko ibilkera bururatzen zait bat-batetan.

Euzko aberri berdingabeari bira ematen genbiltzalarik, Kanboko erri paketsuan geldiuene azi xamarra egin bearrean gertatu gaituzu. Eldu geranerako bertako euskaltzale ta abertzale aintzagarriai esku luzaka gaituzu. Erriko trinketeen sekulako euskal pestak ditugu. Sartu geranarekin batera, bertako alaitasun ta egarri bizia nabaritu ditugu. Lepozgain da jendez esandako plaza. Matxin ta Larralde ezagunak, bertsotan. Bestea motela ez dalarik ere, Matxinen nagusitasuna aixa nabaritu degu. Zer jardun gozoa eurena, zer txaloak angoak!

Matxinek abertzaletasuna du bere janari; gauza ederrik entzun diogu:

Guri mugak yartzea  
ez dago ongi egiña;  
kentzea izango litzake  
geure atsegina...

---

\* Matxin Irabola, Senepere 1879-1935.



Matxinen bertsoak biotz ikuitzalleak izan dira beti, ta egun artako trinketeko txaloak entzun bazenituzte, bi bider esango zenduteke. Bere abots goxoa ta bere doñu eztiak... Iñola ere ez azteko unetxoa geureganatu zigun.

Azkenengo bertsolari sariketa gogoan izango dezute, noski; nik ala uste beintzat. Ba, Donostira inguratutako 20 bertsolaritatik bigarren saria beretzat izan zan, baña... Matxinek bertsotako zuan doai ta erreztasunik etzan ikusi Poxpoliñetan.

Egun artan Matxinek lan txarra zuan bertsotan ondo egiteko. Dakizuten bezela, Donostian epailleak izendatutako "bozean" abestu bear zan, ta aruzko anaiak egun artara arte etzuten iñoiz erabili egun artan bearrezkoa zan doñurik. Alaz guziz ere ordea, Matxinek bigarren saria eraman zuan.



Lauaxetak sarri idatzitakoa gogoratzen zait. Ostikolari edo pelotari on bat agertzen danean, izparringiko orrialde osoa artu izan dala bere goralpenetarako; baña euskal idazle on bat, edo euzko olerkari on bat danean, ez dala ori gertatzen; utsean gelditzen dala, ez duala iñork aitutzen.

Irakurle, idazle ta olerkariarekin ori gertatzen bada, bertsolariarekin ez dago zer esanik. Zuk ordea, irakurle maite orrek, Matxinen oroitza gorde bear dezu; ezagutzen zenduan ta ezagun onik ez dezu nolanai aztu bear. Oñetatik gorañoko euskaltzale ta abertzalea gendun, "Haur Prodigua" idazleak esan digun bezela.

Aitagure bana ba guziok bere gogo alde. Bego goi-ostatuan. Egun aundira arte, adiskide!



## **Eman zizkion ederrak!**

**El Día, 1935-04-28**

---

Altzola ballara, irakurle, Aiako erri orri dagokiona da, ta bertako bizilagunak, zuek oldoztuko dezuten bezelaxe, euskaldun uts utsalak dira; ez dute beste kutsu kokkorrenik ere.

Ballara ontan jendea arditara jarria dago. Artzantza ugalduegin da goi oietan.

Gure Ebaixto ere orain bi urterarte nekazaritza utsean aritzen zan, ta orain bi alderdiak artzen ditu. Ardi mordo ederra dauka, arraiotan!

Izan ere, etxez goikaldeko zelaia ardi leku aparta da. Larre ona izaten da antxe.

Ba, irakurle, igande goiz batean estuasun gogorra igaro zuan Ebaixtok. Esango dizut zer zan.

Goiz meza entzunda txistuka inguratu zan Ebaixto bere etxe atariruntz. Iritsi zanerako, auzoko mutikoak eta etxeakoak alkarrekin jolasean zebiltzala ikusi zuan, ta bera ere tartean sartu zan, ipui batzuk esan, ta salto biurri batzuk egiten erakutsi bear zielata. Amorratua baizan saltoan.

Ala zebiltzalarik, an dijoakie kapel aundiko zaldun itxurako bat. Bere biote luze ta bastoi kokkatuarekin, urrutira ezagutzen zan ingurutakoa etzala. Eliz-ataritik Ebaixtoren etxe atarira begira zeudenak antzeman zioten kastillano purrukatua zala. Ingi-neroa izan bear zuan gorera jakin zanez.

Ebaixtori gogor eraso zion erderaz, ta ari erderaz jardun edo gure astoari arrantzeraz jardun, oso alde gutxi da. Gure señoitoak saio aundia egin zion, baña alper alperrikakoa guzia.

Ebaixto ere estutzen zan ordea. Alako gizon tankera alderatu ta zekizkian bi erdel itzak esan gabe gelditzea ere etzerizkion ondo.

Kapel ta bastoidunarenak entzun zituanean, gorri-gorri egin da an bota zizkion zekizkianak...



Aberatsen oitura zan bezela, eliz aldera inguratu zan, lagunakin zerbait itzegin ta txurrut bat egiteko asmoz. Lagunak an zeuden erne asko, ta inguratu zanerako sekulako galdeak egiten asi zitzaizkion.

–Motellak, gizon dotorea baukan gaur ondoan! –zion Auxtiñek.

–Ez dek gezurra –zioten besteak.

–Gurekin itzegitea lotsa ere badek orain –zion albotik Antonio Joxek.

–Jakin bear diagu zerbait, koplari utzita –esan zuten geroxeago danak.

Zer esan dik edo zer erantzun diok. Etzian oso tralla motza beñepein.

–Ni, egia esan, lenean gelditu nauk; etzeot ta ezertxore ulertu.

–Baña euk ere zer edo zer esangoion ordea?

–Dakitan guzi guzia.

–Zer esan diok ba?

–“Mekauen la brontze” esan zeot. Zer esango nitxeon ba, euskeraz tutik etzekian da? Ori entzun duanean denbaroz aldegin dik, arraiok ezpaitu!

Bearko!

## Ereintza

*Argia*, 1935-05-12

---

Gure Arantzadi bizkorrak azkenik argitara eman zuan liburuak izan auxe darama. Bere 350 orrialdeak arretaz ta kontuz irakurriak ditugu, ta ori egin ondoren, geuk nabaritzen deguna garbiro adieraztea oldoztu dizugu; ta ori lortu al izateko, ain begiko ta gogozko degun *Argia* aukeratu degu.

Arantzadi jaunak, irakurle, gauza ikaragarriak agertu zezazkean esandako liburu orretan. Berrogei urte ontan abertzaletasunak izan dituan gorabera ta balantzak, Euzkadin gogai edo idea ori aldeztu duten Jeltzale zar lenengoai galdetzen asita, Euzkadi-ko erri aundi ta txikitan berrogei urte auetan gertatutakoaz galdetzen asita, toki batean eta bestean. Jeltzale batek eta besteak zenbat zertzelada ta zenbat arrasto ez lituzke emango? Zenbat lotsagarrikeri ez litzake jakingo? Mingain luzetxoak ere badituzu ordea, ta askok dan baño geiago esatea baditeke, ta orain argitaratzen danak usteletik zerbait eukiarren, gerora egi-egiak dirala irakurle askok uste dezateke, Arantzadi yaun ber-berak aurreitzetan esaten digun bezela.

Orregatik ba, Arantzadi jaunaren liburuak daramazkian 350 orrialdeak bere begiz ikusitako gertakizunez osatzen dizkigu; besteren atarira ingura gabe, bera jabetzen da guziazaz.

Ta zer agergarri aintzagarriak dauzkan! “Kizkitza ez dan beste inork ezin eman zezakean onelako berririk” –zion lengo egun batez Barazar idazle txukunak. Ez da gezurra!

Maixu zarra degu Kizkitza. Etsai guzientzat ain luma bildur-  
garria duan yaun onek ongi baño obetoago dakizki abertzaleta-  
suna jaio berri zaneke zertzelada oro. Ar batek zulatuta bezela  
gelditu gera Arostegi ta Olasagastiren auzi beltz negargarriak ya-  
kinda; orobat egille beraren muga igarotzeak, etxetik aldentzeak,  
guraso elbarriak bakardadean utzi bearrak, guzia ikus ondoren,  
oiek dituk gizonak! –esan degu geurekiko.

Tristuraz gañeztu gaitun zatitxoa ere arkitu degu Ereintzan. Denbora artako elizgizonen jokera. Jaunaren ordezkarien itsumena, arantzik ezagutu ez duan euzko lore berriai zioten goibela.

Artzai jatorra degu Kizkitza, Sabin aundiaren esanetara lenen lenengotik zintzo makurtua, alkarri zuzendutako idazki ederretan ikusten degun bezela.

1894garren urtetik asi ta 1912garrenerarte abertzaletasunak igaro duan kalbarioa *Ereintza*-n ikasi zenezake ondoen.

Euzko martirien berriak ere jakingo dituzute: Aita Renteria-ren *Enara gaxoak* biotzondokoa emango dizute. Irakurri, irakurri *Ereintza*.

Yaunak nai beza gure Arantzadi argia luzaroko izatea.

# Pagoetako gurutzea

*El Día*, 1935-05-28

---

Otsik asko atera bazaio ere, zerbait dalakoan, adiskide. Arrigarri-takoa baidezuz Pagoeta gallurrean zutitutako gurutze done ori.

Baña... zutitu al dute ba? –galdetuko dezuz.

Orra, ez dago beintzat gauza aundiaren paltan. Asko beze-la, garagarrillaren lenengo igandea noiz iritsiko ernai zaudena bazera, lasaitu ziñezkeala esango nizuke. Gure langilleak azken egintzak ematen ari dira; beraz gurutzea bukatua dagoala esan genezake. Ikusten duten guziak zoraturik biurtzen dira; ain dezuz ederra, ain dezuz zoragarria! Esan bearrik ez dago. Zortzi metro ta erdi gora ta lau zabal dituana derrior bear ikusgarria.

Geiago zer dedan?

Enetxua, egitarau nagusirik ezin izparringiratu oraindik. Gurutze altuan meza ematea lortuko balitz edo gotzai edo obispoan-gana zuzentzekoak gaituzuz egun auetako batean. Artzen degun erantzuna baiezku ala ezezku dan, egitarau edo programa nagusia argitaratzean ikusi zenezake.

Beste zerbait ere aurreratu nai nizuke. Ona zertxio jai izango diran:

Goizean bederatzi eta erditan, Gurutzearen onespenu. Ondoren meza.

Gero, gurutze altzoan agurtza ta gañontzeko otoitzak esango dira. Ori bukatzean, Zarauzko Euzko Gaztediko gazte bizkorak aurriskua aterako dute gurutz alboko zelai zabalean.

Ordubatean, bazkaria Saberri basetxean. –Ee? Ori ere jakin bear dezuz?

Etzaitz estutu, ontara geran ezkerre esango dizuz-eta.

Zuku jatorra lenengo, basarri erara jarritako eltzekoa urrena, piper ederrez inguratuta txuleta bana, arroz-esnea, akeita edari bizigarri ta guzia, 5 laurleko edo pezetan dena. Zer nai dezuz geiago?

Arratsaldeko lau t'erditan, berriz, izlari ta bertsolari denetik izango dezu. Entzutekoak izango dira Saberriko pagadian esaten diran egi biribillak.

Ezpatadantzariak ere badituzu.

Zeñek esan bear zuan ontaraño iritsi zitekeanik? Alaxe da ba, ta aurrera onezkero. Zure lagun, adiskide, anai ta gañontzekoai esaiezu zer asmo diran, ta utsik gabe etorri ditezela, gero damurik izan ez dezaten.

Esango diezula? Ondo da. Ikusiko degu.

Gipuzkoar mendizaleak, ai zer egokiera dezuten. Goizetik arratserañoeko egun bat mendiari eskeintzeko era oberik ezin etorri. Garagarrillaren 2an Pagoetara guziok.

Goazen mendirik mendi  
euzkotar gazteak...

# Adiskidetasuneko izketaldi antzera

*Euzkadi, 1935-05-29*

---

(Donostiko Euzko Gaztediko  
etxe-zai jatorra dan Iñakiri)

Aspalditik nizun zaletasun auxe. Zurekin izketalditxo bat egin gabeko onik ez, arranetan. Gaur natorkizu ba, Iñaki maitea.

Baña nola uste dezu? Sakeak neuregan artuta, nere txanda dala adierazi naiz. Zurekin batu naizenetan, zernai esateko askatasun osoa izan dut; gaur ere, adiskide mamia, tankera berdiñez ingura natzaizu. Lengo lepotik bai dut burua.

Zeri eldu pentsa eziñik ez natzaizu luzaro egongo. Zirt ala zart, bereala egitea zait atsegiñen. Gaur berriz gai asko ta egokiak dauzkagu. Biotzondoa geien bat urratzen diguna aitatu nai nizuke. Urrengoan gertatuko al zaigu.

Biotzondo urramena lortu duan zera ori zertxeo izango dan zuk badakizu. Len ere sarri itzegiñak gaituzu beratzaz. Euskera-tzaz, esan nai nizuke. Euskera aitutzen dizudanean, berriz, aber-tzaletasuna ere ez da urruti bear duana. Alkarri esku emanda ibili bear dutenak dira. Ori gertatzen ote da? Zuk badakizu galdera orri erantzuteko lain. Ez dut beraz astirik galduko.

Mugetatik irten gaitean pixkabat; komeni zaigula derizkiot. Poloniaruntz zuzendu begiak. Iru nagusingana makurtu bear zuen Polonia gaxoak. Alemania, Austria ta Errusia ditu buruja-beak. Izakera gordin neketsua berea.

Guziak nagusi zakar traketsak, baño Alemania batez bat beintzat. Nazio aundi batek beste bat ondoratu ta azpiratzea ol-dotzen duanean, len zeukaten yakintz edo kultura arras galduarazi ta berena ezartzea oi du lenengo lana. Alemania ere ez izaki itsu ozkilla, ta bere menpe zeukan Polonia zatiari orixe egin nai izan zion.

Poloniar kultura galdu ta germandar uts-utsa txertatu. Polonia germanotartzea nai ta ezkoa zegon, abertzaletasun ben-be-

netakoa izan ezpalitz. Poloniar abertzaletasuna ordea, ez izan itzezko utsa, egintza marduletakoa baizik. Oiek balio berriz, dakizun bezela. Alemaniak zuen asmoa garbi-garbi ikusten dana da. Beren kultura aberatsa, apaña, ederra ta aintzagarrria zalarik, besten txiro ezereza berez lurperatuko zuala. Aixa egiteko lana zutela.

Alemaniak enbiro jo, ta Poloniak euki!, erantzun zion. Poloniaren kultura aul xaxtarra izan balitz, Alemaniak ezartzen zion kultura baño beeragokoa izan balitz, gerta zeikean gertatzekoa. Polonia ondatu egingo zan betiko.

Batekoz bestera ordea gauzak. Alemaniak aguro antz eman zuan. Bide ortatik jota ezin zitekean ezer egin ta irabazi, ta orretxengatik neurririk gogor ta latzenak artu bar ziran. Indarrez jokatatu bear zuten nai ta ez, ta alaxe ekin zioten bero-bero.

Polako izkuntza betiko zaurituko zuen ostika ematen asi ziran ustez. Eragotzi zuten eskoletan geiago zabaltzea. Gudarostetan ere bai, ta elizetan ere ber-bera egiten asi ziran. Azkenik, beste bi lege pozoi izkurri zituzten: Bata, erri barrutitako billera ta batzarretan Polako izkuntza eragotzi, bestea Poloniarrai lurrak kendu ta aleman maizterrai ematea. Ori duk esku aldaketa!

Polonia zearo germandar kutsuz ornitu zedin, "Hakatista" deritzazko alderdi bat ere sortu zizuten. Izen au bere sortzailletatik dator. Hansemann, Kenneman ta Tiedaman baiziñun bera sortu edo irasi zutenak.

(Jarraitzeko)



## **Adiskidetasuneko izketaldi antzera** (Amaia)

**Euzkadi, 1935-05-30**

---

Orrelaxe izan zendun ba Polonia. Elizgizon jator asko izandu ta orri eskerrak. Silesia arrunt galdua zendun. Aundiki mota guziak alemanduak zeuden, ta erria ere bide ortara zijoan, baña Silesia oso katolikoa zalarik, elizan zuten beren babes, ta eliz-barruti-ko gizatasun agermenez bide onetaratu ziran; benetako Polonitar egin ziran.

Errusiaren menpeko Polonia zatia ere alatsu ibilia dezu.

Beren izkuntza ixilka erabili bear izaten zizuten. Bizileku bakanetan, inork salatuko etzituen lekutan egiten zituzten beren izkuntzazko ikastaroak. Baso-mendietan ere bai sarri; erritik kanpo beintzat. Jaiegunetan ta aske zituzten unetan, ezkutuka egiten zituzten euren egitekoak. Poloniar abertzaletasuna zigor artean azaldu zan, beti arantz minkorrez inguratua. Aiek euren kultura, izkuntzan alde egindakoa ez degu inoiz aztu bear; baña beldur naiz...

Ikusten dezenez, guk askatasunik asko badaukagu. Jaien jaiero zabalkundeko itzaldi ta billerak daukagu. Bost milla ta amar milla euzkotar noiznai biltzen gera. Aberri-egun aundi oietan irurogei milletaraño iritsi izan gaituzu.

Egunetik egunera gure alderdiko lixtak geitzen dijoaz. Ta euskera? Nola daukagu? Iraungo al du?

Azkenik ori galdetzerano iritsi gera. Euskerak iraungo ote duan galdetzerano. Ez degu len esandakoen antzik.

Erritik aldegin, etxe bakanetan, zelai zabaletan, jaiegunak ortarako artuta geure elea ikasten, gure edestia irakurtzen, ikastarte edo "bakaziotan" artaraxe jarrita, geure yakintza (kultura) lantzen ta sendotzen ez gaituzu gu bereala asiko Poloniaren gixa.

Aizu, ta len ez dizut esan. Esan bearrik ere ez daukat, zeuk ere ongi dakizu-ta. Badakizu gudate aundi aren ondorena. Badakizu ain zigortua izan dan Polonia nolatan askatu zan. Ezin luzatuko dizut geiago. Egun auetan beste berri bat ere jasoko zenduan. Poloniaren askatzallea zan Pilsudski il dala (Goietan bedi).

Izketan ari naitzazularik negargurez jartzen naiz. Geure ka-bitxo oni maiteki begiratzen baidiot. Idazle denak ni bezelaxe zotinka nabaritzen dizkitzut. Euskeraren ondamendia nabarituta, euskel-idazleak negarrez dituzu. Errietako izperkari geienak ere beren errietan euskera galtzen ari dala adierazten dizute. Berrogei milla abertzale batuta, ikuslerik ez dalako euzko-antzerkirik egin gabe gelditu bear izan dala jakingo dezu urrena. Euskal-liburu gutxi argitaratzen dala, ta guzia irakurleak urri diralako, esango dizute; egilleak galdu egiten dutelako. Ta dena orrela; dena galera, dena ondamendia. Au ikusi ondoren, egintzak atzera utzita itzez puzturik gabiltzala ikustean, Aitzkorri begira erneki jarri-rik, ain olerkari sendo ta lañope zakar ontan ain negarti agertzen zaigun Jauregitar Koldobikarekin batera esango dut:

Ai! baña noizpait beren semeak ilko balute  
Euskera beren etxean,  
lotsaren lotzaz sartu,  
Aitzkorri, sartu betiko  
zure burua lurpean!  
Euskal mendiak!,  
ez egon zutik ama il duten  
erri gaiztoen aurrean.

# Pagoetako jaialdiak

*El Día, 1935-06-07 / Euzkadi, 1935-06-08*

---

Goizeko seirak dira guk oea utzi degunean; zer egun dan ez daukagu aztuta.

Baña, obeto adieraztearren edo... bat-batean, bun! lertu da lenen suziria.

Gauz asko datozkigu burura. Egun au ez izaki Pagoeta bakarrik gogoratzekoa. Bedoña ere anai eskean degu, ta guri, jairik atsegiñenak euskal jaiak zaizkigunori, alakoxe zerbait sortzen zitzazigun aruzko deia uka bearrean giñala gogoratuta. Oraingoa onela gertatu da ba, ta onuzkero ez dago bueltik ematerik.



Ta goazen geurera. Pagoeta gañeko uneak ez ditugu guk ere aldi batean oroimenetik nolainaitan aldegittekoak. Ez diegu utziko iñola.

Igande goizeko zortzirak dira. Euzko Etxeako atari aurea abertzalez estalia dago. Egoaize puntua, arranetan! Euri zalantza ezpain askotan. Etzaio ardura ordea. Artarañoko zaletasuna dago goi-gaillurak zanpatzeko. Zortzi egun aurretik asita ezpaizendun beste konturik errian.

Mendigoizale bi suziriak dantzatzen aurretik. Pillarmonikaren bizitasunez lilluraturik, eten ezin alako mendizale illara atzetik. Euzko ikurriña guzion goiburu. Ene, ta zein ederra dan! Zenbat eta gorago orduan da ederrago, Gorritxo atariruntz igotzerakoan bezin ederra etzaigu iñoiz iruditu.

Ezpatadantzarien jazkera ere bestetan ez bezela irudi zaigu goi-zelaitan barna. Ura zoramena gurea!

Amarrak inguruan jo degu goia. Gurutzeari begira gaude koldurik. Gu ez giñan arritzen, lendik ikusita gendukalako; baña lenengo aldiz aurkezten ziranak... "Au dek gauza!" –zioten ao batez. Ikusgarria da izan ere!

Amaikak eta laurden inguru bere onespena. Laurkingo erre-tore jaun txalogarria dan Zubeldia jaunak onesten du. Benetako onespena uraxe!

Bukatu bezin laister meza degu. Len esandako jaun bera me-za-emalle, ta Uri Buru Batzarko lendakari prestua dan Zinkunegi jauna laguntzalle. Etxabe jatorra buru dutelarik zumaiar abesla-riak abesten.

Abesten bai, ari esaten zaio abestea-ta. Gidari aparta da gero Etxabe ori. Zertarako balio ez du orrek... Ori buru dalarik, gu ere "primerako" abeslari izatera biurtzen gaituzu. An bildutako guziak gartsuki abesten zuten.

Biotza ikuitzen zigun angotxe elizkizunak.

Gain artan giñalarik, zerutik gertu ote geunden oldozten ge-nizun. Arreta bizi ta debozio sutsuz nabaritu genitun, Pagoeta-ko arkaitz-artean belaunikatutako millatik milla ta bosteunera tarteko euskaldun sinimentsuak. Elizik ederrenean bezelakoxe ixiltasuna zendun. Len esandako zumaiarrak abestutako "O Sa-lutaris"ekin, lenez gain ere zoratu bearrean ginduzun. Uraxe bai ederki! Ai zer elementuak dauden albo erri ortantxe!

Baña beldur naiz. "Euskal Gaiak" atal osoa ezin artuko dut neretzat. Biar jarraituko dut jaien berria emanaz. Ordurarte ba irakurle zintzo ori.

# Pagoetako jaialdiak

*El Día, 1935-06-08 / Euzkadi, 1935-06-08*

---

Laurkingo erretore jaunak itz bi zuzendu zizkigun gotzaiak agintzen zuana eta eragozten zuana agertuaz.

Gotzai agurgarriak, irakurle, goi ura elizkizun utsetarako uzten zigun aske, gañontzeko pestak beste nunbait bear zuten, ta orduan guk zarauztar abertzaleak, Saberriko pagadia aukeratu genduan gañontzekotarako.

Goiz partetik bezela arratsaldetik ere kristau zintzo antzera jokatzeko esanaz bukatu zituan Zubeldia jaunak bere itzak. Meza ondoren berriz, an bildutako guziak gogoz ta biotzez "Iñaki" abestu zuten, ta gutxitan entzun degun bezela gañera. Ederki!

Gero jakiña, euzko ikurriña aurretik gendularik, Saberrira guziak. Zizak biltzeko ai zer taldea antxe! Billa saiatuak baziran baña ez arkitu ordea. Ori da okerrena!

Ta Saberriko bazkaria?

Etziran antxe sukaldari amutsak. Danok zorutzen gelditu giñan. Danetik zan ugari, ta dana ondo jarria. Oraindik ere euzko basetxea bezelakorik ba al dago jateko?

Ipui, bertso ta abar alaitasun osoan igaro genduan maiko unea. Maian asko izaten baigera alai.

Gero ziran komeriak. Itzaldi ta gañontzekoak egin bear zirala ta... euri bisutsa zirtzilla ugaltzen.

Kanpoan etzegoan asterik, ta antxe mandio gañean astea erabaki genduan. Baña zein sartu an?

Lepo-ezurreraño bete zan bereala ta beste lau alako jende kanpoan. Denbora kaskarra zalarik ere arratsaldetik jendea erruz ingura baizan!

Dakizuten bezela, Tolosatar Iñaki jauna genduan izlari. Ai zer ederki mintzatu zan!

Euzko edestiakin asi zitzaigun, ta aurreko zarrak lenen eman zuten oinkadarik okerrena ta txarrenetakoa Kastillako erregea

emengo erregetzat artzea izan zala esan zan. Etzuten askatasunik galdu, egia da –dio izlariak–, baña galtzeko lenengo arrixku bidea orixe izan zan. Gure aurrekoan burrukak ta negargarrikeriak agertzen ditu, Napartar ta Gipuzkoarrak neurtu ziranekoak eta abar... Eguneroko berriak adierazten ditu, ta abertzaletasunaren asmo ta ikurritz bikaña ere bai. Guzia bere babesera deituz bukatu du. Oso txalotua izan zan. Artu berriro nereak. Guk ere berriz geure aldetik alegiñak egin genitun ta azkenik Euzko Abendarena abestuz bukatu genduan.

Ta ia aztu zitzaidan. Gure ezpatadantzariak betiko gordintasunez agertu ziran, ta iñoiz alakorik ikusi gabeko basarritar zar asko ziralarik, pozez zorutzen geldituak ziran eurak aitortu zigutenez. Bejondaizuela, gazteak. Kalean ta mendian danean trebe zuek.

## **Etorrera**

Ori zan latzena. Euririk etzuan atertzen, ta mendi-bideak bapo labainduak ziran, arraiok ezpaitu!

Zilipurdika ta abar talo asko artu zan, baña... ardua gutxi. Denak pozez, denak gustora. Berriz joateko amorratzen, gizona! Alakorik!

An giñan geienoi komeni zaizkigu alako batzuk.

Bizi bagera urrengo urtean ere ez da errez izango etxean geldiarazten!

## Bildutako sortatxoak (NB)

*El Día*, 1935-06-20

---

Zerbait ikaragarria egin dutelakoan egongo dira. Bilbaoko *El Pueblo Vasco*-ko jendetza orrek dantzarako ez omen zuan soñu bearrrik lengoan. Iruñako billera eragotzi zutela jakinda, nola egon ezer ez balitz bezela?

Ai zer alderdiak eskuratu dituzuten. Geiago ez da noski aberzaletasunik danik ere entzungo. Benetako maluka baizan oraingo ori! Joan zan Euzkadi!



Erria erti-bidetik sendotzeko gizon politikak badauzkagu; la-guntzalle amorratuak beintzat. Euskerak gorakorik egitezkeroraintxe garai egokia. Bellido agintari dan arteko tarte auxe zaitu bear gaxoak. Gizon oietxek ere eskuak gustora igurtzitzen dituzte ba oraintxe. Guri dagozkigun gauzai atea itxi ta barrendik parra egin gogotik. Bide ori darabilkite aspaldian, ta bertatik benaz jarraitzeko asmoak dituzte ikusten danez.

Orixeren poemari ez diotela eskurik luzatuko, ez diotela la-guntzarik eskeñiko. Bapo zeok!

Poema ori idazteko olerkari gurena bear zan, lau aldetatik olerkari utsa zanen bat bear zan, ta Euzkadik zorionez euki ura ere. Euzko olerkian ezagutzen dan olerki lanik bikañena degu Lauaxetak dionez.

Baña adiskideak, gaur Gipuzkoa oso olerkari degu; Gipuzkoa sekulako poema bat idazten ari da. Bellido Aldundiko lendakari egin zanetik kanporatuko dan arterañoiko poema osatzen. Orixeren lana, apain, eder, sendo ta guri azalduko da. Beste ori berriz artarañoiko apainduririk emango etzaion arren, alde orotara erruz zabalduko dala ziur dakiguna da. Au guzia diputazioko laguntza gabe lortuko degu.

Orduan, orduan komeriak, konpañe!



Zarauzko Tradizionalista edo dalakoakin ere ez duk ba giro. Erria nasteko ta saltsa osatzeko ez dute denbora asko bear. Mutillak dira ortantxe!

Baña, zer nastu gero! Oien kaikukeriak dirala bide, abertzale-tasunak zenbat irabazten duan ez dago esaterik ere.

Iñor zanik ere gogoratzen etzan zelai batetzaz oroitu dira Zarauzko karlatarrak ta erriko alkate prestua aurean dutelarik, joan dira zelai ortara, artu du euren buru dan jaun orrek alako belar izpi bat, ta kirkilla atera naiaz intentzio guziz zuloa zirikatzen asi ez da ba?

Zer kirkil aterako ordea, irten zaie zakur zar bildurgarritako bat zulotik, eta... bai jendeak polañak dantzatu ere.

Orain ixtilluak. Estu ta larri dabiltz zuloa nola estaliko.

Iruan par lau baietzean zuek, e?

Atzekoakin lau ezetzean gu.

Gizatxarrok beti ezetzean zerate.

Bide, bide egiari.

Alzibar idazleak Portelakin itzegin duan kontua edo esaten zigun igandeko *El Pueblo*-n; Aberri-eguna illaren 30ean ziur ziur ospatu ditekela esan omen zion jaun orrek. Ilbeltzerako jartzen badute ere ez dio ajola.

Len asmoa zutenez gañera bertara asko ta asko joango dira su ta gar biurturik. Ori da oiek abertzaletasunari egiten dioten kaltea. Ai bide ortatik jarraituko balute!

Artalde ugariago ta sendoagoa izango giñake. Etsai zigorrak esnatu ditu iñoren menpeko ta jopu izan diran Europako aben-derri edo nazioak.

Gu erabakiaren zai gaude. Oso gertu! Deia danean, Iruñara ba guziok!



## Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1935-06-25

---

Agur, Otaegi zintzoa; agur agur pozkiaz beterik. Zerutar izar diz-dikor batek alaituta bezelatsu nabil barren poza ezin gordeaz.

Ta, zu adiskide miña, nolatan egongo ote zera! Poztu, alaitu, jaiki Tomas maitea. Badezu ainbat zio. Jaunaren ordezkari zaitugu gaurtik aurrera. Goi-jaun altsuaren gudarosteko goi mallako agintaritza artu dezu.

Kristau izena daramakigun guziok gaituzu Kristoren gudarostekoak, baña... iru etsai galgarriak beti gañean ditugu. Zorion jauregiko bideotatik irrist egin degu, munduko olatu zakarrari laguntzen gabiltz; etzaigu gerokorik bururutzen. Kristau izeneko askok erlijio aurka itzegiten dizute, ta ez itzezin bakarrik, baita lan egin ere premizkoa danean. Ta... katoliko benetako, ta kristau sutsu gerala diogun askok, mingañez baiezten deguna egikeraz ezezten degu osoro.

Zuzendari on baten bearrean gera, artzai zintzo bearrean.

Ongi etorria zaitzela ba. Zorionekoak Kristoren ordezkaritza ondo betetzen dakitenak, ta zorionekoak oiei jarraitzen diotenak. Meza berri ondoren ontan, esku gañetan muin dagizu zeure menpeko txiro dan onek.



Jimenez Fernandez jauna ez dago txantxetarako. Gizarte gaitan itzal aundikoa dala ondo erakutsi du jaun onetxek. Asko esan ta gutxi egite ortatik alderdi onik ez ote dan etorriko dio.

Kezkatsu ikusten zutenean, berriro Azaña igoko ote da ba? -galdetu zioten izparkariak.

Gobernuak orain daramakian bide ori baztertzen ez badu, luzera baño len noski. Ta Azañari laguntzera ez omen dira bere antzeko ezkertar amorratu sinisgabeko ta donge gaiztoak bakarrik joango. Langille arazo ta gizarte arazo zuzen ta sendo baten

egarri diran guztiak baizik. Ortantxe ezetzik ez genduke esango geronek ere.

Orain da benetako eskubitarren garaia, baña... miau!



Nazio arteko naspilla bildurgarria dago gaur egunean, baña oraintxe baño bildurgarriago zan orain illabete. Idazle oro gerra oiartzunak zabaltzen asi baizitzaizkigun. Gaur lertu bear du ta biar lertu bear du zalantzan guziak. Odol ixurketa gabe etzegoela konpontzerik zioten beintzat geienak.

Orain berriz nazioak esku ematen asi ote diran dirudi. Frantzia ta Ingalterra ere orain asi dira konpondu itxuran.

Bi naziotako ordezkari buruak diran Eden ta Laval lengo egunez batuak dituzu. Gai garrantzizkoak erabili zizkitzuten. Izparringi askoren iritzira, gauzak itxura polita artu du. Beren iker-taldia buka ondoren, Laval-ek itz auek esan zituan: "Anaitasunik jatorrenan bidez pake alde jokatzea erabaki degu, baña bakoi-tzak bere alderdiak zaitzeko bear diranak osatuta".

Alemania ere era berdintsuan dabil Ingalterrakin. Oso adiskide dirala dirudi. Garai batean nork esan! Or zer korapillo dabillan asmatzeko gu baño bizkortxeagoa nai litzake. Ni nagon beintzat ixillik!



Gure Mikel lañotsu dago ba.

Aberri-eguna garai txarrean jarri omen dute; urtegarai aldre-besa omen da orain.

Erritako pestak dirala ta ez dakit zer dala, beste aitzaki gabe beintzat. Bapo zeok!

Kataluñako "Unión Democrática"koak ere beren etorrera adiarazi ditek, ta pesta nardats batzuk diralata zalantzan ago. Ai zer mutilla, i!

Ikusi diran komeriak ikusita ori esango dek ba! Kontu txan-ponai, motell! Aberri-egunean Iruñaratu gabe ez al aiz geldituko

beintzat. Etzakela olakorik egin, bestela... entzungo dituk eureak eta bost.

Eup! Iruñara guziok!



Esango dizut ba dakidan añean. Aspaldian eske zera ta noiz-bait beteko al dut nik ere agindutakoa. Ez dezula ulertzen, irakurle?

Nere lagun batek, Pello Errotak il aurretik bota zuan azken bertsoa irakurri nai, ta ortara ni joan. Sendikoak eta apaiz jauna an omen zeuden Pelloren oe inguruan. Apaiz jaunak esan omen zion: “Len ere amaika entzunak gaituzu zure aotik ta oraintxe azkenengoa entzutea extimatuko genduke ba”

Goiko laguntzaz indarturik edo, abots triste batean abestu omen zuan:

Ona nere bertsoa  
azken azkenian,  
zer ein bear dezuten  
iltzen naizenian:  
“Aita gure” bat esan  
nere izenian,  
zerura dedin Pello  
zuzen zuzenian.



Nik onela entzun izan dut, adiskide. Artutako salneurrian dijoakizu. Bertsoa bukatuta bereala itxi omen zituan bere begi nekatuak, ta geiago ez ikusteko.

Goitan bego urretxindor zolia.

## Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1935-06-30

---

Bai, joango gera Jainkoak nai badu. Ermo ta trinko joan ere.

Oldozmen asko sortuko zaizkigu bat-batetan; ziur dakiguna da orixe. Izan ere edesti beltz illuna degu euzkotarrok. Une batzutan sendo ta bikain jokutzen ziran arren, urrengo aldian itsuskeririk makurrenak egiten zituzten. Etzuten neurrik izan; oso goitik ala oso beetik. Bai negargarria!

Gure aurrekoen izakera orrelakoxea zenduten. Abando zokoa berotu zuan izarra palta nunbait.

Esan dizutet lentxeago. Jainkoak ala nai badu, Iruñaratu gabe ez gera geldituko. Joango gera; gogoz ta benaz alare. Baña... ez Kastillako errege Alfonso VIIIgarrenak sortutako naspil ta guda zakar izengabeak goraltzera, ez Oñaztar ta Ganboatarren arteko burrukak txalotzera, ez Beamontetar ta Agromontetarren arteko odol ixurketak gogoraztera, ez, Jainkoaren izenean, Gipuzkoa ta Napparroan arteko jokera itsusi galgarri aiek berritzera, len esandako Abandoko izarra goiburu degularik, orko ta emengo anai oro, anaitasun ta maitasunean baturik, "Jaungoikoa ta Lege Zarrak" izenez ezagutzen dan ikurriz dizdirakorraren altzora markutzera baizik. Alkar ezagutzera goaz, lenengo ongi ezagutuaz, gerora ongi maita gaitezen.



Bilbaoko *El Pueblo Vasco*-k ateraldi ona oraintxe ere. Alderdi-eguna izendatzea eragotzi dutelako, bere barren poza ezin gorde izan du izparringi txatar onek. Orain *Euzko Eguna* ta *Euzkadi Eguna* idazten omen degu, ta berari lenengoa egokiagoa iruditzen omen zaio.

Baña, izen bat edo bestea izan, berdin omen da. Paltsokeriz badare, derizkioguna egingo omen degu.

*El Pueblon* miztu zitalagatik beintzat derizkioguna egingo degu. Guk ospatu egingo degu geurea, ta orrek zulatzen ditu. Komeriak dituk emen!



Españar agintari nagusienak Salamankan bilduak ziran igandez, Gil Robles ta Casanueva-n omenaldia baizan. Olakuetan geienean oi dan bezela, sekulako itzaldiak egin zituzten. Lerroux ta Gil Robles ziran mintzalari nagusienak.

Lerroux-ek sekulako gorantzak eman zizkion Gil Roblesi. Diputadu batzuk aitortu dutenez, Gil Robles bera ere arriturik gelditu omen zan alako gorantzakin.

Itzaldi orri sekulako garrantzia eman diote aruzko politika alderdiak. Erregezaleak eta Ceda ikaragarritzko aginkan dabiltz. Ezkerreko izparringiak berriz, eskubitar guztiagatik zapladarik gogorrenak dantzatzen dituzte. Ezkerren gurenda gañean dala diote.

Eskubiak buru diran erkal edo errepublika naiago duala esan du Lerroux-ek, ezkerrek agintari diran bakalkuntza baño.

Bada or galtzak bete lan.



Batzun iritzira odei illunak oraintxe ere. Gauza naiko biurri ote dan diote berriro.

Belgikan, lengo egunez M. Deveze ministro buruak itzegin zuan. Bazkalondoan zan. Goizean lau milla gudariri ikustaldia eman zien.

Jaun onek dionez, morrontza laburregia daukate gudariak. Muga edo frontierak ondo zaitu bear dira, ta ortarako beste neurri batzuk artu bear. 1914garren urteko komeria berritzerik ez da komeni.

Abisinia ta Italian artean ere derrior lertu bear omen du ba. Italia, Afrikako sortaldera indarra bialdu ta bialdu ari da.

Japon ta Txina ortxe dira ba aurrez aurrez. Japon aurreratxo ari da sartzen.

Ez dakigu zer ikusi bearko dan. Nazioak adiskidetu balira bezela asi dira ta denak gerrarako bear diran tresnak geitzen ari dira. Gudari morrontza azitzen gañera. Alemaniak ere derriorrekoko jarri du morrontza ori. Odolak illun, irakurle.



Gure eguna da, euzkotar orok besarkatu eta laztantzeko eguna. Euzkadi-eguna.

G. B. Batzarran esanetara makurtu bear degu. Arrokeri gabe, zalaparta gabe, gizatasunez, sendo ta bikain. An bilduko geran berrogei millatik irurogei milla arterañokoak, gure izkuntzan, euskeraz mintza al bagiñazke!

Zer erakusbidea! Zer abertzaletasuna!

Bilduko diran denari Zalduby-kin batera esango diegu:

Agur eta ohore  
Eskualerriari:  
Laburdi, Basa Nabar,  
Zibero gaiñari;  
Bizkai, Nabar, Gipuzko  
eta Alabari.  
Zazpiak bat besarka  
lot beitez elgarri!

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**El Día, 1935-07-07**

---

Gogozko adiskide degun Ziauriztar Doroteo sendagille ospetsua Euzkadi Buru Batzarreko lendakari izendatu dute.

Zama aundiko lanketa dezula esango dezu. Inork ez dizu ukatuko. Mallarik goienekoan jarriko bai zera gaurtik aurrera.

Abertzale zera, biotz zabaleko euskaldun jatorra. Aukeratu zaituztenerako bazekiten beste geiagok ere berri au. Lan mami-tua dezu len esan degun bezelaxe. Danen gogozkoa izatea opa dizut.

Aurrera, Doroteo zintzoa.



Zeanuriko erri paketsua ikertu genizun lengo egunean. Zer kabi atsegiña dan, ta zer txori doaitzuak diran! Pedro Donean aurrégunean giñan, ta orduantxe ere Zeanuriko txori zoliak sei seme eskeñi zizkion eliz doneari. Zer edertasuna angoa! Lumaz ezin ager beintzat nik. Zenbat elizgizon ote egun artan Zeanuriratuak?

Ai ziurtasunez erantzuten baneki! Nik ez konta ordea; oraindik batera nere begien aurrean ez da beintzat alako talderik jarri.

Izan ere, Zeanuri erri edeslaria degu. Besterik ez bezelakoa, noski. Bi milla biztanle gañeztea egiten du doi, doi ta... 268 erlijioso dauzka erriko seme-alaba eliz agindutara. 268 seme-alaba Kristoren gudarostean.

Luzatzeko bildur ez bağıña emango genduke berri ederrik.

Badira etxeak, zazpi seme-alaba izan ta guziak elizpeko egiñik. Egun zoragarri ortan bi gotzai agurgarri bildu ziran bertara. Gure barrutiko artzai leial maitea degun Mateo jaun agurgarria, ta Indiako txauburu aintzagarria dan aita Artaraz.

Yurreko semea berau, ta egun orretan ezin ba utsegin. Ez, ezin zitekean olakorik, ta pozkiaz inguratua zan jaioterriruntz.

Bazkal ordua zan. Gorputzarekikoak egiten asiak giñan ordurako. Bein bear da gure onduan norbaitek abertzaletasuna aitatu zuan, erri ortan abertzale asko ote zegon edo galdera egin. Luzaro pentsatzen egon gabetanik erantzun zion aldamenetik batek: “Erri ontan ez dago abertzaletasuna egiten saiatu bearrik –zion–, erri ontan abertzaletasuna berez sortzen dana da; jatorriz datorrena. Ez da atzerritar bat bizi esateko, ez da euskera beste izkuntzik erabiltzen, ez dira lengo oitura zar txalogarriak besteirik ezagutzen, ez da dantza txar bat egiten, ez da euzko abendaren kaltezko ezer sortzen, bere bereak diran zati guziak indartu baño”. Ango izketak zirtatekoa eragin zion ene barrenari. Alako erri asko ikusi al izateko doaia nai nuke. Euzko izkiak, euzko iragarkiak, euzko izkuntza, euzko dantzak, euzko ekanduak. Antxe dana geurea, ta, jakiña, alako tokitan lengo esaera zarra daukaugu bizi bizirik:

Euskaldun  
fededun.

Ainbat eta ainbatek artu dute bide ori. Arritzeko zenbakia da ikusten dezutenez.

Oraindik gaitz aundi gabeko saillak badauzka. Txikiegiak ordea tamalez. Ai, Euzkadi osotik alako berriak jaso al bagenezazke!



Errusiako gezneri edo enbajadoreak atzerri arazotarako Japonek izendatua daukan Hirrota ministroari biali dion asarre oarrrak sekulako esanak jarri ditu Tokio aldean. Etzuten olakorik uste.

Aldaketa batzuk egin gabetan etzuen artu nai ministroak idazki ori. Letra batzuk aldatu egin bear izan dira. Ministroak ez du ezer erantzun oraindik, baña diotenez Heinking-en geratu



diranagatik omen da. Muga edo frontierak indartzea komenio dala diote. Lan orri ekin bear zaiola.

Jarrai, mutillak! Zorioneko mugak! Ori konpondu eziña, edo... au konpondu eziña, ondo esateko!



Erroman *Camara de Comunes* deritzaionean itzaldi bat egin du lengo egunez Inghaterrako ordezkaria dan Eden jaunak.

Itzaldi oni ez diote oniritzi ordea Italiako izparringiak.

*Mensagero* ta *Tevere*-k ikaragarriak jartzen zituzten lengoan. Etzuten uste –ziotenez– Eden-ek Kamara ortan gauzak agertu ziotuan bezela agertu zezazkeanik. Ausardia bear omen da ortarako, ta aundi beltza gañera.

Laterri Batza edo “Sociedad de Naciones”engatik beste aibat ziotan. Onela ezin jarraitu omen diteke. Batza orrek bideak aldatu bearko omen ditu, edo bestela bestelakoak etorriko omen dira.

Ori ziurrago bai azkenean ere!

## Bildutako sortatxoak (NB)

Argia, 1935-07-07

---

Azkenean ere bete genduan geurea. Iruñian izan gera! Euzkadi-eguna ospatu degu. Eta nola gero!

Gure etsaiak etzuten alakorik uste, gure aurkalarri setatsiak etzeukaten egun ari zer izan zitekean idearik kaxkarrena ere. An-kapeko jendetza giñala zerizkioten. Jende argala, jende aul ere-zera. Aberri aundia ukatuta uskerizko ori goraltzen dutenak ezin bapoak izan. Badakizute Naparroan zorioneko *Dia*-k ainbat aldiz aitatzen duan aberri aundi ikusgarria zein dan; baita ukatzen duan aberri gaixo ori zein dan ere.

Nik dakidan ostaturale bat estu ta larri zan ba. Ostalaria er-neatua zegon aurreko egunean. *Diario* ta *Pensamiento*-n irakurle zintzo oietakoa izaki ta... or zegon komeria. Etzizuten papel oiek jende itxaropenik emango, Iruñara elduko ziranak, au da, “el-duko ziran pixka” txistuan atzetik dantzatuko ziran baserritar kankallu ajolagabeko batzuk izango zirala esan baño.

Ta orra gizonaren kezka. Irakurtzen zuanarekin, guzia egi zi-tekeanik ere ez ba iruditzen. Beste aldetik ere zerbait zerbaitxo entzuna baizeukan.

Luzaro egon zan zalantzan. Egun artarako jaki ta edariz or-nitu, jendearentzat etxea ongi antolatu ala ez. Eguna urreratzen ari zan bezela geitzen zitzaion kezka ere; ta... azkenik sortu zi-tuan bear ziranak. Badakizute zer gertatu zan? Arratsaldeko iru t'erditarako 900 bazkari eman bear izan zituan. Bederatzireun! Arratsean etzan asarre gure gizontxoa. Aurreskua ateratzeko ere gertutu zitekean aguro. Alako baserritarrak sarritan izatea nai luke ark.

“Hordas de casheros”, e? Baletxeok!



Abertzaletasunak betikoa orain ere. Bere sendotasun, kemen adoreaekin batera, gizatasun ta zuzentasunik arrigarriena erakutsi. Ez olu bat, ez deadar bat, ez ezer. Gizatasuna, apaltasuna ta agintarienganako begirapena. Ainbat millako, ainbateko taldea, ta bat ere ez jaina itsustu eta nardastu zezakeanik. Zergatik dan?

Ez dago esan bearrik. Bat bide okerrera, edo agintarien agindutara makurtzen ez dala ikusi ezker, besteri begira egon gabetandik, abertzaleak eurak eragotziko liotekelako ori egitea. Asmo gaiztoko ta gugana duten gorrotoa gorde eziñik ibiltzen dan jende orrentzat ez dago ezer geitu bearrik. Ainbat egunean izparringietatik somalak esaten, azken eguna iritsi ta beneno txarra besterik etzuten orriak zabaltzen ibilli diranai, gu nundik galduko ta zapalduko saiatu diran oientzat, Irujok ain egoki gogorazi zizkigun itzak dauzkagu. Zeru-lurren jaun ta jabeak, Kalbario gallurrean, goiko Aitagana zuzenduta esan zituanak: "Jauna, barka zaiezu, ez dakite zer egiten duten da". Iruñakoa ikusi zan. Ez daukagu ura dala ta berriketan luzaro ari bearrik. Aldeko ta aurkako, an ziran guziak badakite zer izan zan. Ain edeslari dan Iruña zarrak ere bai. Asmo onekoak aitortuko dute; gañontzekoena etzaio ajola. Euzko Alderdiak jarrai beza bide auetatik. Zuzen goaz, jaunak!



Atarrene atxurlari ona degu oso. Oraintxe ere ez du sail baldarra aukeratu. Gañeko loi txarrak kendu ezker buztin jatorra aurkituko duala derizkiot.

Euzkadin Euzko Abesbatza sortu ote ditekean edo zerbait aitamenez bazekarkian oñengo idazlantxo batean.

Aitatu utsarekin ere ene biotzak alaitasun gogorra zizun. Txinparta ortatik batasun sua sortu ditekela oldoztu nizun. Ai olako bat!

Lenez gañera, munduko arrigarriak orduantxe euskaldunak. Zer ospea Euzkadirena. Ez da eziñekorik. Eragin atxurrari.



Igaro diran ogei urte auetan Mejido-n izan da amaika gertae-ra. Zenbat burruka, zenbat matxinada! Irakurtzen degunez, gaur bertako lendakari dan Cárdenas jaunak, egun auetan nekazkespen edo erdarazko amnistia berezi bat ojuztatuko du, ta ogei urte auetako gorapenaz ta zioz espetxeraturik ta erbesteraturik daudenak ere guzia aske izango dute. Elizgizon asko dira era negargarri ortan daudenak. Ateak zabal izango al dituzte, noski!

Diotenez, gaur San Antonio Texas-en bizi dan Doipuru orde Ruiz Flores agurgarria ere aske izango da.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-07-14**

---

Ez dago eskubiderik ikusten ari gerana ikusteko. Ez dago eskubiderik ainbat sendi on paketsutara negar beltz itun naigabetsu au sarrarazteko. Onek ezin iraun dezake, onek bere neurriak bear ditu, bere osagarriak itz baterako.

Ez degu beste konturik entzuten. Olako maizterrai alako nagusik azken-agurra, despedida, eman diola. Olako sendi etxea libratu bearrean dala, olako gizon nagusiagandik zer entzungo beldurrak aidean dagoala. Euzkadiko baserritar oro dardarrean daude; izu ta larri esan nai nuke. Au izatera ta au ixtillua sortu dana bat-batean.

Au guzia ikusi ondoren, zerbaiti eldu bear ta euskaldunak iñoiz baño sutsuago ta gogorrago ekin diote bidegabeko jokera nabarmen onen aurka. Dakizuten bezela, len ere ez da denbora asko euren iritzia azaldu zutela. Maizter-lege berri au onirizteko zebiltzanean euzko aldunen iritzia beste aldetik zegoan. Euzko aldunak etzuten nai lege au Euzkadin betetzerik, etzuten nai euskaldunok lege onen menpeko ta betetzalle izaterik. Baña etzegoen euzko aldunen naian, angoenean baño. Lege orrek ere ez ditu alderdi guziak txarrak, baditu alakoxe zatitxo goxo antze-koak ere, ta orduan, Jimenez Fernandez lugin ministro zanean, gauzak beste modu batez ikusten ziran. Gogorrek gertatzen dira! Jimenez Fernandez Ceda-koa dezute, baño kristautasunari ta Eliz-buruari arretatsu ta gogoz begiraturik, bere esanetara zintzo ta apal makurtu nai lukeana. Lan zuzentza kristautasunezkoan egarri dan jaun bat dezute. Erori zan bera barruan zaneke go-bierno ori, ta ordez Ceda-n aldeko olatua nabaritzen da. Ain burukide altsua duten Gil Roblese sekulako agintaritzak artu ditu. Guda altsein edo *ministro de la Guerratzat* izendatu dute, edo izendatu da. Lengo gobernoan baño bi Ceda-ko altsein geiago dira oraingoan, ta len ainbat lan eder ta zuzen egindako Jimenez

Fernandez alderdikidea, ezer ez balitz bezela, atez kanpora utzi dute, ta aren tokirako Jimenez Fernandez-en etsai gogorren ta setatsuen jarri. Velayos sonatua dezute. Nekazariak goraltzeko ordeko bapoa. Katolikotasun asko darabilkigu itzez. Toki onean zegok gauza!

Geiago eziñean, euzko aldunak aldezkizun edo proposizio bat aurkeztu dute mai nagusira. Beste gauza bat ere euki bear degu gogoan. Aldezpen au izenpetu dutenak ez dira aldun abertzaleak bakarrik. Guztiz bidezkoa iruditu zaien beste aldeze batzuek ere tartean baditugu. Casas Iranzo, Jimenez Fernandez, Alvarez Guerra del Rio, Alvarez Mendizabal ta Pascual Leon ere gure gizonenakin batuta ikusi ditugu.

Justizi zale dan guziak izan bear du bidegabekeri oker orren aurka. Gure aberriz kanpora ere ikaragarriak ikusten dira. Emen baño aundiagoak. Baña... ementxe ere bada lanik asko. Gipuzkoako maizter oro dardarka daude. Irakurri degunez, Bizkaian iru milla maizter inguru zamatu edo amenazatu dituzte.

Nagusi aundiakiak diotenez, ta basarritarrari esan dietenez, "euren esanetara ta aginduetara makurtzen diran maizterrak, aurrera ere paketsu ta lasai bizi ditezke, baña... ori egin nai ez dutenak izango dute galtzak bete lan; kontuak atera lezazkete aurrez".

Emen gertatzen dana garbi dago. Auteskundeak gertutzen ari dirala somatu dute ta gauzak ongi antolatu bear. Ez dago beste koplik, ortan bukatzen da guzia.

Azken legeak dionez, bere zergak ordaindu ta gauzak ondo kunplitzen dituan baserritarrik ezin biali diteke nolana. Maizterra etxetik bialtzezkeru, nagusiak berak edo bere sendikoak joan bear dute ark utzitako lurak lantzeru. Ta Bizkaiko baserri-jabe millonarioak asmo oiek izango dituzte. Atxurrerako asmoak!

Zutiñik bakoitza bere lekuan. Egundo baño alkartuago bear degu oraintxe nekazariok! Arrika gogorrek datozkigu. Dena onean joaterik ezean, etzan Bazkun bearrik. Itxaropena izan gure aldunakin, gure gizonakin. Besterik eziñean, egon erabakiaren zai. Batu gogoz oraintxe, ta goazen aurrera, geure gallurreraño! Ez diteke luzaroko erasoia izan.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-07-21**

---

Oraintxe lertu bearrean izango dira; erabaki bearrean. Idazle gu-  
renen iritzira, onuzkero ez dago pakerik amesterik ere. Italiak eta  
Abisiniak txarrera jo bear dute; alkar neurtu egin bear dute.

Geu ere berriz, motel ta argalak geran arren, geure aletxoa  
azaltzen ez giñake lotsatuko. Jo ta su ekingo diotela uste degu.  
Eritrea ta Somalia inguruan irureun milla gudaritik gora dauzka  
Italiak jarriak. Gañontzeko izkillu edo armamentuz lepo-ezurre-  
raño gañeztua dago.

Ta oraindik ere jendea biali ta biali ari da Mussolini. Bere  
mutillak indartu ta poztu nai lituzke. Italiatik oñengo atera zan  
gudarosteari ere sekulako itzaldia zuzendu zion.

Jakiña, era etortzean, beldur gabe, indartsu, trebe ta koraje-  
tsu jokatzeko eskatuaz, soldaduak poztuaz ta goralduez, ta Ita-  
lian izena gogoan eukitzeko aginduaz mintzatu zan.

Abisiniak ere bere aldetik alegiñak egin bearrak dauzka ta  
ortantxe ari da ikusten danez. Milloi erdi bat gizon gertu jarriak  
dauzka izparringiak dionez, eta Rusiatik eta Alemaniatik bapo  
osatu da armamentuz. Errusian sekulako izkillu mordoak erosi  
dituztela diote, ta Alemanian egazkin edo aeroplano asko artu  
dutela zabaldu da. Baita ain galgarriak diran *gases axfixantes*  
edo dalako traste oiek ere. Oiek dituk mutillak!

Inglaterraren alegiñak alperrikakoak izango dira. Ez du iñor-  
txo baretu, ez du deusik lortu, lenean edo okerrago gelditu da  
arazoa. Frantziak berriz ez luke aurregi sartu nai; Inglaterrak eta  
Alemaniak azkena egindako konponketak min eman dio, ta orain  
ez dauka ezertarako zaletasunik.

Laterri Batza orrek bear dan gatzik ez dauka, ikusten danez.

Geienen iritzira beintzat ez da pakea egiteko diña, ez darabilki  
bear dan biderik; ez da nabaritzen gizatasunik.

Azken batzarrak gañean dira gauza erabakitzeko, baña itxaropen kaxkarra dago.

Bi aldeak daude amorratzen. Italia ta Abisiniak ekin bear diotela dirudi, ta oiek ekiten badiote, kontuak izango dira. Gaur ez dago “or konpon ditezela” esaterik; oker onek laister zabalduko ditu bere erroak. Exkiña batean zer gertatuko baidaude bestean zerbait egiteko.

Odei illunak ditugu, irakurle. Ez dakigu zer aterako dan.

Gauz onik ezin itxaron beintzat! Au mundu biurria, au gizonen arrokeria! Au aundinaia!



“Villanovatxo” agureak ateraldi bapoak egiten ditu oraindik. Gizon alaia degu auxe. Urtetan aurreratu xamarra egotea da samingarriena. Lengo egunez Kartajenan izan dezute zorionezko Royo au. Ta orain itsas ministroa dan ezkerro, eztimazio gogorra dauka ta izparlari oietakoak erruz inguratzen zaizkio.

Badakizute lengoan oietakoai zer esan zien?

Ezkertarrak matxinada zaletasuna ta separatismoa baztertzen ta urrutiratzen badituzte, gobernura igoko omen dira, baña... lengo bidetik jarraitzezkerro, Gil Robles-en semea gizon egin arte eurak aginduko omen dute.

Ori dek sasoia, ori!

Ordurako orde, gobernuak aztuko zaizka Royotxori, edo bes-tela, ez degu egun bitako gizona. Jaunak lagun bezaio!



Joan dan astean, maizter bialtze lotsagarriatzaz itzegiten genduan, eta gaur beste ikututxo bat eman bear diogu. Berarekin poztu gintezke.

Zer ote da ba? Zer aldaketa?, esango dezu bear bada zeurekiko. Zera, joan dan aste ortan leiaketa bizia izan dutela euzko alduinak, eta *Argia*-ko idazle txukun jakintsu dan “Jon Andoni”k makarrak atera dizkiela gauzai. Ura zan itzegitea ura! Bazuan etsai zakarra pranko, baña egia aurrera beti.



Azkenik, Gil Robles-ek ere ezagutu zuan arrazoizko eskaria zala, ta emendik aurrera jendeak legetara makurtu beariko duala agindu zuan. Ez dala iñor legez kanpora basarritik bialduko.

Gure eskerrik biozkorrena  
Tolosar aldun argia,  
zure lan bikain neketsu ori  
bai dala txalogarria.  
Orru ta marru etsai guziak,  
ta zuk patxara aundia;  
poztu dituzu baserritarrak,  
poztu da nezakaria.  
Okerrik gabe daramakizu  
bein artutako aria.  
Zorionekoa olako jaunak  
beragan ditun erria.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-07-28**

---

Geiegi arrotzea ere ez da ba ona izaten. Inñor lotsaraztera asitakoak eurak lotsagarri gelditzea ere txamar-txamarretan gertatzen dana da gero.

Ori gizonen artean izatea ez da arretarañoko arrigarri bat, baña erri oso bat, aberri bat autan artuta bera nundik oinperatuko, beragan duan gorrotoa garbien nundik agertuko, ta erria osatzen duten bizilagunei min nundik emango dabillen ura, gaur ezpada biar, derrior erori bearrean da. Bere neurri batetik gora arrotze orrek ez du gero inoiz alderdi onik ekarri.

Ez dakit onenbestez ezer adierazten dedan, baña... beeraxea-go ezartzen dedana irakurri ostean aterako dezute.

Aurreko asteko egun bat zan. Joan dan berrogei urte auetan abertzaletasuna dala bide gorriak ikusitako bat, gogai edo ideal zintzo, sendo bategatik etengabeko burruketan ibillitako jeltzale zaar bat, antxe arkitzen zan Zarauzko geltoki edo estazioan beti bezelaxe, apal ta erne. Goiz trenera irteteko oitura aspalditik baidu.

Bultzia eldu zanean, gizon bikain antzeko bat jaitsi zan ibiltokira. Nungoa zan ez dizugu esango, ez dakigulako, baña euskalduna etzala urrutira ezagun zuala bai.

–Trae *La Voz de Guipuzcoa* –esan zion neska koxkor izparringi saltzalleari, ta eskuratu zuanean, laurleko bat eman zion neskatxari, ta onek, txanponik etzuala ikustean.

–Joxe Mari! –deitu zion anaiari– ekatzak peztan txanponak, oni emateko.

–Vaya la educación que tiene esta criatura. Chi... chi... chi... había que verlo. Nada, que hay que empezar a rajatabla. Estamos en España y hay que hablar en español, ni media palabra más delante de mí.

Neskatxa gorri-gorri eginda gelditu zan, gaxoa.

Jeltzale zarrak entzun zuanean orregatik, obeto gorritu zan, ta bere aurrera joan da esan zizkion ordañak. “Indecente, mal educado y sinvergüenza”, etzan bein bakarrik entzunda joan. Gizarajoari damutu zitzaion ezer esana ta estazioa izan ezpalitz ez dakit zer gertatuko zitzaion. Kobratu bearko zituan irabazitakoak. Era berean dabiltz Zarautzen alakoxe mukizu batzuk. Aurrai euskeraz itzegindako emakume bat estu artu zuan lengoan oietako batek. Gero, gertatu egiten omen dira. Onenbesteraño azpiratuko ote gaituzte ba? Euskeraz egitea eragotzi bear ote digute ba? Geure errian geure izkuntza ez ote degu aske izango?

Ez, ez eta ez. Milla azpian ta kalte egingo digute milla alde-tara, baña gure ezpañetatik euskera urrutiratzerik eta uxatzerik ez dute lortuko. Iñor baño biotz obeagoak gera euzkotarrok. Datozela nai dutenak, datozela noiznai, baña dabiltzala gizon, dabiltzala jator; guk aientzat degun begirapena izan dezatela eurak guretzat.

Euskerak burua jasotzea Jaungoikoak nai du.

Euskera ondatzea nortzuk?

Geure tokian gaude, ta iñoiz baño zutiñago.



Españiko ta Frantziako politika berdintsu dabil. Laval-ek ere badu etsai pranko oraintxe. Otso gixa jaiki zaizkio ezkertarrak bere aurka. Bere aginpiderik ez dute ezagutu nai, bera buru dan gobierno orren legetara ez dute makurtu nai.

Españian ere era berean dira gauzak.

Auteskunde legea ta nekazari legea dabiltz gobernuaren eskutan. Berriz ere “Reforma Agraria” egin bear omen da, aldatu egin bear omen dute zerbait. Ezkerrak itsu-itsuan aldakuntza auen aurka jaikiko dira diotenez.

Korapillo moldoxorik atera bear du,



Euskal izkiak ugaltzen dijoaz. Langille purrukatu batzuk badauzkagu, ta eurai eskerrak erti bidean sakontzen goaz. Lauaxe-

ta zintzoa liburu berri batekin datorrigu. *Arrats beran* ezarri dio izenburutzat. Bizkaiko olerkari trebe onek egiten ditu alegiñak. Jakintsua degu benetan. Idazle, izlari, olerkari ta zer ez gure Lauaxeta. Danetara ikusi degu, ta danetara da goieneko. Ez degu ezagutzen oraingo olerki liburu ori, baña laister eskutaratzeko itxaropenez gera. Erosi zagun.

Zubimenditar Joseba ere ez da elbiak arrapatzen ibili bear duan oietakoa. Sortzen zaio aurreko lanik. Erri-olerkari jatorra degu auxe. Bere antzeko asko nai lituzke euzko elertiak.

Poema bat idatzi digu oraingoan. *Zumalakarregi* deritza. Egileak berak bialduta irakurtzeko zoria izan dut. Txalo bero bat dagiot bertatik ain lan egoki onurakorragatik. Zer zati gozoak dituan! Bertso tankeraz ta olerki kutsuz batutako lana dezute. Euskal gudalburu illezkorraren bizitza jakin nai duanak ez du liburutxo au irakurtzea bezelakorik. Euskera ulerterreza arkituko dezu. Ez diozu emango gaiztasunan aitzakirik.

Zumalakarregi-n goraberak  
iñork jakin nai baditu,  
liburu ori gabetanikan  
ezin diteke gelditu.

Zakuka bat zorion, adiskide.

## **Santa Engrazi tontorrean** (NB)

**Argia, 1935-08-04**

---

Gaur, irakurle, beste astetako aroa utzi, ta zuk aditzera izango dezun Santa Engrazi gañean bildutako sortatxo batzukin nator-kizu. Sortatxo goxo atsegiñak ote diran irudituta ekin diot lanari, baña neuretzat goxo ta atsegiñak izan arren, nere lotutasun ta doairik eza bide, bear dan bizitasunik emango ezpanie, ez lirake nere irakurleen gogozko izango, ta neretzat orixe mingarriena. Irakurleen gogoak asetzeari begiratzen baidiot geien bat. Idazten asten naizen guzian irakurleak datozkit aurreko aldera. Oien zailantza beti nere baitan.

Ea ba oraingoan asmatzen dedan. Zuen gogozko lantxoia izatea nai nuke.

Aurten bostgarren urtea dut goi zoragarri ori ikertzen. Bostgarren urtea euskal kutsu utsez estalitako goi arkaitz, baseliz, pagadi eder, basetxe txukun ta belardi orlegiak zanpatzen. Gain eder ori, gure erriaren len izakera gogorazten digun tontor ori, lenengo izanaldian bururatu zitzaidan izki edo letratxo batzuk egin nai izan ezkeru gai egokienetakoa nuela. Gure aurrekoen sinismena neurrigabea zala ikusten dut, ta elizatxo ura nun ta nola osatua dagon dakianak, nik bezela berdin-berdin ikusten du.

Aurrekoen sinismena bero ta gartsua zala jakiteko, beste milla alderditan ere señale pranko aurkituko genduke, baña gaur gallur onetzaz mintzatuko gera. Berak emango digu zer esan.

### **Goiz irteera**

Ta goiz irteera baño lenago aurreguneko trumoi ta tximistak aiatu bear ditugu. Aste guzian Santa Engrazi gora ta Santa Engrazi beera ibillita, ona emen komeri polita.

Auxe bear giñun orain. Bezpera eguna iritsi ta... alderdi ederra zeukagu. Laister erasoko zeok bota ta bota ta... noiz gelditu ez dik jakingo. Ta, badakik, euriarekin etzeok joaterik ta pentsatzerik ere.

Onelaxe irakurle, aurreguneko trumoi ta tximistak izketa auetarako bidea eman ziguten. Gu kezkatu giñan gogotik, baña gure aldran bada denborale kontuan ondo ulertzen duan bat. Lengo ortan bapo asmatu zigun beintzat. Igande goiza izan ditek ederrena argituko zuala zion. Ta arrazoi zuan, ikusi dezute nez. Eguna ezin ohea zan. Goizari eldu ta oñez joateko asmoak genitun, baña batzuk lotiak diralako besteak ordaintze ori ez da bidezko. Guk komeri ori genduala ikusi genduanean, errezena jo genduan, bultzia edo trenera, alegia.

Geltokiratu geranean, mendi-lagun bapoak aurkitu ditugu. Atxukarrota Joseba an aurkeztu zan idia baño gogorrako, ta bai ain mendizale purrukatu ta euskaltzale zintzo degun Olabeagatar Patxi ezaguna ere. Bere seme bizkorra dan Txaranbel ere batera zeramakian. Alako taldea osatzearekin, zer poza Basarrik.

Zestuarano joatea etzitzaigun asko kosta, baña andik gorakoa ez duk jolasa. Zazpi bat ordu laurden egin bear malda gora. Guretzat onena ori izaki berriz. Ez da ala, Patxi?

## **Meza nagusia**

Aizarnan sartu-irten bat egin bear genduala ta bertara jo genduan. Eldu giñanean ordea, apaiz jaunak goruntz ekiñak zirala esan ziguten. Guk ere ba, artu bear ziranak artu ta goruntz ekin genion. Oso garai politean iritsi giñan; meza nagusirako ederki beintzat. Oitura dan bezela ta argazkietan ikusi al izango dezuten bezela, lenengo ibildeuna izaten da; elizatxoari bira ematen zaio.

Zerutik urre ote dan irudituta ibiltzen da bat antxe! Zenbat oldozkizun jaiotzen dan!

Urdaneta, Altzola, Beama ta ainbat ballara ezik, ainbat erri aundi ere azpikaldera begiratzearekin ezin da obetago ikusten baidituzu. Ura edertasuna!

Agotetar Kepa agurgarria zan meza-emalle, ta Yeregitar Pantzeska ta Atxukarrota Joseba jarri ziran ondoren zegokiotenerako. Tomax txadon-zai ospetsua buru zalarik, oso poliki abestu zuten. Elizkizun ederra izan zan gogotik, eta elizakoak egin giñu-

nean, ura alaitasuna gurea! Bitartean beti izaten baidezu alakoxe kezkatxo bat. Baita bear ere kristauen artean.

### **Amaiketakoa**

Oitura polit bat bada Santa Engrazin. Aizarnako tarbarnariren bat an aurkituko dezute beti pago kerizpean. Gurdia edariz betea itxura danez. Ori derriorra izan ere euskaldunen artean. Ba auzotako gizonak aurkituko dituzu an, ta bat librako ogiarekin aurkezten zaizun bitartean, beste bat –zuria ala beltza nai dezu? –galdezka etorriko zaizu. Eskatzen dezun artatik kupira gabe emango dizute. Joaten dan guziari ori. Ardo ta ogi exkaxiz ez dezu aldegingo andik. Osatuko zaituzte bapo. Esan bezala ballarako gizonak egiten dute guztia. Euren gain izaten da, beraz. Zer gauzak!

### **Angelus**

Zeztuako txistulari bikañak, meza nagusi ondoren, alakoxe arin batzuk jotzea betiko egitekoa dute, ta aurtengo ontan izan da dantzari ariñik. Argazkiak adierazten dizute. Zein ederrak diran gure ekanduak!

Orain udara-bolara ontan, erri zokotako naspil, oitura narrats, jazkera arlote ta bizikera nabarmen naastua geure begiz ikusten degunok, udara bete ontan, gure erri ta uriak basamortu biurturik ikusten ditugunok, bertako zarata ta olatu zakarrari aldegiñik mendi gain aipagarriko garo usai xamurrak lilluraturik, euzkoera jatorrean dantzatzen zitzaizkigun gazteak, zer poz eta alaitasuna sortzen ziguten. Amabitako ezkillarekin batera, guziak geldituz *Angelus* erreztatzea bear-bearrekoa izaki. Erretore jaunak esan da gañontzekoak erantzun, zer edertasuna! Zorionekoa gure erria bide auetatik balebil! Santa Engrazin ez izatera oso leku gutxitan ikusten ordea. Tamala! Galtzen ari gera!

### **Bazkaria**

Ortan ere baldintza polita dago. Santa Engrazi basetxeak, au da, elizaren ardura duen maizterrak, Santio egunez bazkaria

emanarekin ordaintzen du urte guztiko etxe-errenta. Erri gizonak, elizgizonak, abeslari, txapelgorri, txistulari ta ortarakoxe taldea izaten dezu. Bazkari ikaragarria izaten da. Etxeko nagusi zarrari Plaxio deitzen diote, ta Txomin Agirrek *Garoa*-n agertzen digun Joanes artzaiaren tankerako bat dala esango nuke. Gizon sinimentsu ta zintzoa. Atzerri kutsurik ezagutu gabeko euskaldun uts utsa. Bertsolaria degu gañera. Zarretik badauka egun batean agortu ezin ala, ta berriak ere, bat-batetakoak ere, oso poliki neurtzen ditu. Aurten ere nerekin saiotxoa eginda gelditua da. Urte askoko osasun bekio Goi Jaunak.

Bapo bazkaldu, ango ta emengo gorabera ta gertaerak aztertu ondoren, berezi artara joanak geran ezkeru, Tomax txadon-zai edo sakristauarekin geure egitekoak egitea erabaki degu. Kanpoko belardiraño irteteko eskatu diot, eta bi bider esan baño len dator ain gizon leial txalogarria. Itzegin dezagun beratzaz; ikusi dezagun zer dion. Irakurri ba mesedez.

–...?

–Izen da urteak? Berealaxe.

Lizasotar Tomax deritzait, eta 72 urteko zama darabilkit bizkarrean. Ia gureak egin du; galdu gera oraintxe!

– Zaude ixillik Tomax, zaude ixillik, nik ezagutu zintudanean baño gazteago dirudizu-ta. Ori esango dezu, ba...

–¿...?

– Garbi esango dizut ba. Aurten betetzen da irurogeita bostgarren urtea. Aurten irurogeita bost urte etorri nintzan lenengoz meza abestera edo kantatzera, arkaitz-arte ontara, ta geroztik urterik utsegin gabe jarraitu dut.

–...?

– A, bai noski! Denbora txarrak, trumoi ta tximist asarreak nabaritu ditut gaurko egunez; baño... denbora txar ala on, beti mezetan or beintzat.

Ta zuk egiten didazun beste galdera orretzaz auxe esan bear dizut. Gure Jaungoikoak, Santio egunean oñen gañean izateko ta Santa Engrazira etortzeko doaia ta kemena beti eman didala.



Beraz ez daukat bera eskertzea besterik. Gaurko egunez ez dut egundo makaltasun da gaixorik izan. Orregatik jarraitu dut 65 urtetan utsegin gabe.

—...?

— Arrasto garbirik inork ez dizu emango ortan. 1500gn urtean erre omen zan Aizarnan agiri paperen kutxa. Ikusten dezunez, naizkoa danik eta ortakorik ziur-ziur ezin jakin diteke. Denbora aietan Iruñako gotzai edo obispo zan Adriani-tar Seberok bere barrutiko elizik zarrena zala esan oi omen zuan. Gañera parrokia zan au lenagoko denboretan. Aizarnazabalko Kasaindoko apaiz jauna etortzen omen zan meza ematera. Entzuleak ere etziran urre-urretik etortzen. Gaur egin zagun kontu Aizarnazabalen da Aizarnan elizik ez dagoala, ta au dala parroki bakarra.

Zenbat jende etorriko ote litzake mezagatik!

—...?

— Bai, baditu aldakuntza batzuk. 1896garren urtean berri-tu zan. Agirretar Gil jauna (G.B.) zan orduan Aizarnako erretore ta biok emen ibiltzen giñan egunero etorriaz pintaketan. Lanak bukatu giñunean, eliza txukundu ta berri-tu zanean, sekulako elizkizun bat egin zan. Euskaldunen artean aztu eziñekoa dan Agirretar Txomin apaiz jaun agurgarriak egin zuen itzaldia. Martiri izakeratzaz mintzatu zan, da oso gogozko izan zitzaien entzuleei. (Ikusten degunez irakurle, *Garoa*-ren egilea zuten izlari. Bego goain).

—...?

— Entzuten duten guziak arritzen dira. Zu bezelaxe zoratuta gelditzen dira. Ikaragarria da izan ere kanpai au. Baña onetzaz ere ez dago ezer asko esaterik. Ikusten dezun bezela, ganadurik ez dago ona igotzerik, gurdirik ain gutxiago berriz. Esakera bat da emen aurrekoetatik datorrena. Geure denboran beti ori entzun izan degu. Apategiko saiak\* jasotako kanpaia dala ori. Urte batean gogorra gertatu zan. Denborale itsusi batean, tximistak jo,

---

\* saiak?

bota ta alderantziz geratu zan, beekoz gora begira. Bere lekuan jartzeko lanari ekin zioten langilleai zenbat ur artzen zuan neurtu bear zutela gogoratu zitzairen. Asi dira barrunbera bota ta bota, ta... irureun pitxar ur artu zituan. Ori duk neurria, ori!

Izki edo letra batzuk ere baditu kanpai orrek berekin. Makiña-bat josulagun da gizon jakintsu izan da eurak aztertzen, baña iñork ez dio antzeman zer esan nai luteken. Kanpai onen oiartzu-na toki askotatik entzuten dana da. Lenago basarriko maizterrak iru aldiz igo bear izaten zuen goi ontara. Argizkillak, eguerdikoa ta illuntzekoa jo bear izaten zituzten.

Inguruko soroetako langilleak auxe zuten gidaririk ziurrena. Nik onenbestez bukatzen dizut kanpaialdikoa.

– ...?

(Au galdetu diodanean, par-irri bat irten zaio Tomaxi). Berrogeita bederatzirte bai beintzat ortantxe ere, oietxek bete dira ni txadon-zai edo sakristau egin nintzanetik. Au duk gizona, au nion nereko!

Alai asi ta alai bukatu zigun Tomaxek bere izketaldia, ta alkarri eskuak luzatu, estu estu egin, izan zuan apaltasun da borondateagatik eskerrak eman, ta “Jainkoak nai dezala urte askoan alkar emen ikustea”- esanez bukatu genduan geure saiotxoa. Txalo dagoit berriro ere nagon lekutik.

Kontu politik jakin degu. Onelako gizonak ez dira aitamen gabetanik uztekoak; au oldozturik, eta joan dan berrogeita bederatzirte auetan Tomaxek erabili duan zuzentasun eta eliz arduradun bezela egin dituan lan ederren sari agerikai bezela, sekulako jaiak antolatu dira Aizarnan. Tomaxi omena egin bear diote, ta omen ortara erri guziak erantzungo du zintzoki. Denak maitea baidute Tomax. Altzagatar Toribi jauna, Bidaniko erretorea dan Mujikatar Kepa jauna, Billabonako organista dan Gurrutzagatar Koldobika jauna ta Aizarnako erretore zintzoa dan Agotetar Kepa jauna dira jai antolatzeke izendatutako gizonak. Gauza txikirik

ezin zaitu genezake oiengandik. Tomax goraldua ta aintzaldua izango da egun ortan. Bai merezi ere olako gizonak!



Txistulariak ikertzen dabiltz; ateondo bakoitzean eresi txorta gozoa entzunarazten dute. Belarritarraño datorkigu ain oiartzun biotz ikutzalea!

Inguruko bidetxiorrak betean dator erromerirako jendea. Gu aldegin bearrean gera; etxeratu bearrean. Aizarnako iru apaiz jaun apal aintzagarriak aurrez aurre ditugu. Agotetar Kepa sermoilari bikain gurenari eskua luzatzen diogu, berdin Yeregitar Pantzeska ta Atxukarrota Joseba begiragarriai ere. Agur dagigute euzko basetxetako mutil bulartsuak. Agur dagigute euzko basetxetako neskatxa lirañak. Agur dagigute pagadi zoragarri artan bildu diran guziak. Agur gain Jaungoikoa! Zaude goian, zaude leen tokian bee lizunen eredu. Zorionekoak goi-zale diranak. Agur!

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Euzkadi, 1935-08-13**

---

Txantxak utzi ta bene-benetan asi bearrak gaude; bestela laño-taraño igoko geraldakoan asi ta leize zulo traketsetaraño jaitisiko gera. Betiko leloarekin natorrela esango dezu, apika. Nik ez dizut ukatuko. Alaxe nator.

Baña, lelorik garrantzikoena dala derizkiot; garrantziko gauzari bide egiteko ona da nik uste dedanez. Euskeratzaz mintzatu bear degu ba gaur ere.

Euzko Alderdi Jeltzalekoak geranez, alderdiaren gorabera ta jokera orri orpoz-orpo egoten gatzaizkio. Nundik nora ta zer gabil-tzan jakitea guztiz atsegin baizaigu. Zeiñi ez ori?

Ezin da gustorago gaude gure artaldean; egundo baño gogotsuago. Askatasun demokrazia edo dalako ori iñoiz baño gordiñago ta biziago agertzen da gure alderdi ontan. Eralguntzara begiratu besterik ez dago. Gure agintari autatze edo izendatzeak, gure batzarrak, gure billerak, gure oinkadak, gure izakera zer dan ezkutu batetik sentitzea aski esandakoa egiztatzeko. Iñon demokrazirik bada, euzko alderdian bai beintzat. Ditugun jokera danak goitaraño jaso ta ditugun arinkeri-utsegite ta bide txarrak ez aitatzeari ez derizkiogu ondo. Ez orixe! Beste alderdi politikoak ez dutena degu guk ori; guk esan egiten ditugu... argi ta garbi gañera. Ortara goaz oraintxe ere. Argi ta garbi esatera. Gure billera ta batzarrak aitatu ditudan ezkerro, negargarrikeri ta lotsagarrikeririk aundienak eurretan nabaritzen ditugula esan bear. Oraintxe urte bi edo Barrenso ro idazle gurenaren luma genduan lotsagarrikeri orren agertzalle. Barrenso roren luma Euzko A. Jeltzalearen batzar nagusi batean euskera txokoratu ta aberri elea oinperatu ta erdera buruarro ta panparroi agertzearen aurka. Amaika aldiz gordin asko esan zuan gure olerti-gizon aipatuak. Alperrikakoa ordea.

Aurten ere izan berria da batzar nagusia. Ondorengo iritziak jaso ditugu. “Eneko” idazleak agertu dizkigu. Euskeraz mintzaztea denbora alperrik galtzea, noski. Viva la Pepa! Euzko Alderdi Jeltzalearen batzar batean... Ikusi gabeko komeri orretzaz zertan luzatu geiegi? Geuk senti ditugunak esatea obe.

Guretatik iru aldun edo diputaduk itzegiten zuten. Gipuzkoarra euskaldun zintzoa dalarik, itz batzuk bederik euskeraz egitea oldoztu zizun batek. Gizarajoak etzuan luzaro jarduterik izan. –“Eee, en erdera, que estamos perdiendo el tiempo!” –zioten entzuleak abots aundian. Batekoz bestera jarri zitzaidan barren guzia. –Au ere ikusi bear al giñun?, –nion neurekiko. Zenbat gauza gogoratu zitzaizkidan! Ez dakit nik an euskeraz asi zan aldun jatorrak “perder el tiempo” egin zuan, baña Euzko Alderdian bost, sei, zazpi edo zortzi urte daramazkitenakin euskeraz itzerdi bat ikasi ez dutenakin, ta orretzaz gañera euskeraz asitakoari ori esaten ausartzen diranakin, oiekin bai “perder el tiempo” egiten degula.

Ez dituzte aurreko ixpilluak ikusten. Ez dakite Arana Goirik, Kanpionek, Monzonek eta ainbat gizon txalogarrik egindakorik. Ez dakite oiek euskeraz ikasi zutenik. Ez dakite... nai ez dute-lako.

Ainbat urtean abertzale ta  
euskeraz ez ikastea,  
artaz mintzatzen asten danari  
nolanai eragozte.  
Bide ortatik nai al dezute  
aberria gaizkatzea?  
Anai-arrebak, ori bai dala  
denbora alperrik galtzea!

Batzar nagusian euskeraz egitea “denbora galtzea” zan; nik diodan erritxoan, “perder el tiempo”

Bide ontatik, norako asmoak ditugu ordea?

Il nayago dot  
ikusi baño  
Aberriaren  
Amaya!



Aundia zan gero gure Loramendi zana. Olerti aroan noraño iritsiko ez zitzaigun?



Oraindaño argitaratu gabeko bere lan bat ikusi degu *Yakintza* aldizkingi dotorean. Ene iritziz, bere ederrentxoa deritzait. Igarle eta olerkari azaltzen zaigu benetan. Alegitar Lorentzo aita agurgarriari eskeñitako lana dezute. Eriotza gañean nabari zizun euzko-olerkariak. *Banoakizu* ezarri zion izenburutzat agurtu naiezko bertso saillari:

Korapildurik daukat mingaña,  
barrenai odol dario...  
Miñaren miñez utsik badare,  
urrundu bear natzaio.

Aundi natzaio, aundi dager ta  
urrunduko naiz berela;  
Yaunaren naiak elkartu nau ta  
untzak aritza bezela.

Agur, Euskal-erria,  
zugandik banoa;  
maite bazaitut ere  
maitago Yainkoa.

Euskaldun olerkizale ori, azkenengo *Yakintza* eskuratu gabe etzaitte gelditu, Loramendiren azken zatiak merezi dute irakurtzea. Guri negarra jaulki digute. Bego goi-atsedenean ain euskaldun doatsua!



Elizaren deadarrak, gotzai aintzagarriaren aginduak, alkatearen bandoak eta gañontzekoak udazaleak ez dituzte aintzakotzat artu. Igazkoak bezela dabiltz. Geienak igazkoak dira bai; ta... lengo lepotik burua!

Nabarmenkeri ta itsuskeri izen gabekoak ikusten dira gure kaletxotan. Orrenbestera iritsi zitekeanik ez genduan uste egiz.

Ene mundua ustelkeritan  
gañeztuta agertzen zaigu,  
iñoiz usterik ez gendun gauzak  
begiz ikusten ditugu.  
Guk euskaldunok al dala beintzat  
nola udara ta negu,  
aurreko asabak ziran bezela  
garbi bizi bear degu.

# EUSKAL GAIAK. Itzegiteko era

El Día, 1935-08-18

---

(Garatetar Joseba Mirenari)

Irakurri dut ezarri didazun guzia; pozez irakurri ere ordea.

Jel-baitazko adiskide orrek, beste idazkeratxo bat agertuko zenduala uste nuan artikuluaeren izenburua irakurrita. Izenpeari begiratuta berriz askoz sendoago geldi zeikean bat uste ortan.

Ez da ordea orrela gertatu, zearo batekoz bestera baizik. Gauza bat adierazi nai, puntutxo bat garbitu nai, bai al dakizu esangai berdiña izan arren, era batera esan edo bestera zer alde dagoan?

Yakin bear zenduke nere ustez. Zuk ezean, nola ba zenbait kokillek?

Okerra zuzentzen asi, ta len baño okerrago gelditu ote dan derizkiot. Olakoxe lanak egin dituzu oraingoan.

Astakeriak esaten dituanari astoa esanda ez da utsegite aundirik egiten. Astakeriak esan ditudala diozun unetik, astotzat artzen nazu ni ere. Gezurrak esaten dituanari gezurtia deitzea ez da artarañoeko okerra. Gezur gordin biribillak jaurti ditudala esaten didazun unetik, gezurtizat artzen nazu. Exkin geienak arrapatu dituzu. Oraindik ez zidan iñork orrelakorik idatzi; zeu zera lenengoa.

Baña zeu egiten ari zerala ikusi ezkerro, zorionak emango nitzizuke. Baña bai al dakizu zer erantzun eman dezun? Bai al dakizu zer jokera artu dezun?

Au guzia geroxeago agertuko dizut.

Itzegiteko era au aztertu bear degu.

Zio edo motibo azi xamarrak eman arren ere, ni ez nintzake ausartuko astakeriak esaten dituala izparringitik aberkide bati jaurtitzen. Billatuko nuke itz goxoago bat. Ez da misterio.

–Ori guzur biribilla da –ez nioke nik iñori esango, zuk neri jaurti didazun bezela.



–Ori ez da egia, konpañeo –edo era ortakoa, ez al da egokiago?  
“Ori guzur biribilla da” esan edo “ori ez da egia” esan alde aundia dago. Lenengoa mingarriagoa da askoz.

Ta, goian diodan bezela, gauza berdiña, puntu berdiña ager-tzen dute. Nere esanak biotza mindu dizula esaten dezu. Egia izango da, bestela ezin era ortan idatzi. Orain goazan arrazoibi-deak aztertzer. Badaukate premia.

Ta badakizu, itzegiteko erak esan nai duala.

Ekin daiogun arloari.

Lenen lenengo itz aukerabiltzkizu: “Atzoko *Euzkadi*-n ta lengo *El Día*-n irakurri neban zure idazlanak guztiz mindu eustan nire biotza”.

Asieratik ematen dezu okerreko oinkada. Ez dut uste *El Día*-n nere idazlanik irakurriko zenduanik. *Argia*-n izan zan, konpañeo, ta *Argia*-tik *Euzkadi*-ra aldatu zuten.

“Aurtengo batzar nagusijan gipuzkuar aldun batzuk oso eder-to mintzatu ziran euskeraz, egi utsa da, baña ez gitxijagua biz-kaitar aldun batzuk be euskeraz, baita ederto, euskeraz mintzatu zirala. Euskeraz mintzatzeagatik “denbora alperrik galtzea” dala aldun batek esan ebala, ori guzur biribilla da, ta andijagua zioten entzuleak aboa aundian esatea.

Aizu adiskide, zati mingotza ezarri zenduan auxe.

Irakurritakoa ez zenduan ulertu ezer, edo ta bestela maliziz zabilta. Bitakon bat.

Nik zer esaten nuan ordea batzar nagusiatzaz? Neure kontu, itz erdi bat baño ez.

Ona zer zan nik niona.

“Aurten ere izan berria da batzar nagusia. Ondorengo iritziak jaso ditugu. “Euzko” idazleak agertu dizkigu.

Euskeraz mintzatzea denbora alperrik galtzea, noski. Viva la pepa! Euzko A. Jeltzalean batzar batean ori...”

Auxe bakarra da nik aurtengo batzar nagusiatzaz esaten dedana. Neure kontu itz erdi bat baño ez. Gañontzekoak “Euzko” idazleak idatzi baizitun.

Zuk batzarrean an ziñan kontua ematen dezu. “Euzko” idazleak ere berdintsu esaten zuala uste dut.

Nun ziñan zu, ark argitaratu zituan iru edo lau artikuluri ez erantzuteko?

Garbi asko agertu zuan ark batzarrean gertatutakoa. Esaiozu ari, “denbora alperrik galtzea” batzarrean esan zala gezur biribilla dala. Esan, esan belarri ertzero. “Euzko”k iru bat artikulutan argi ta garbi agertu zituan *El Día*-tik batzarreko goraberak. Orduan ixillik ziñan zu, ta nik orain neure kontu “Viva la pepa” esaten dedalako biotza minduta ikaragarriak esanaz zatoz. Zenbaitek sare zabal aundia zabalduta ere ez du arrairik atxitzen, beste zenbaitek estu melarra bota, ta arraia izaten du.

Berdin gertatzen zaigula derizkiot. Ni motel da aul arkituko nazulakoan etorriko zera. Ni motel da aula naizela egia da, baño arrazoia danean, danik eta motelena ere bikain da sendo azaldu oi da. Or dago koxka!

Baña, gizona! Burua nun ibilli dezu?

Neurritz ain idazki motxa izanda, ainbat oker eta estrapusu nola egin diteken ezin dut ulertu; “zioten entzuleak abots aundian” ori nundik sortu dezu? Orixe da ba guzia azpikoz gora ibiltzea. Ori nik, Bizkaiko erri txiki batean gertatutakoagatik nion. Berriz ere esango dut orixe. Neure begiz ikusi nuan, da ez didazu gezurtatuko. Ez orixe!

Ez pentsa ni zirika naiak jarri naula ori esatera. Gipuzkoan gertatu balitz ere berdin esango nuan. Gipuzkoar aldun diputadu bat bere agurra euskeraz egiten asi zan erri txiki ortan, ta entzuleak, “Ee... que estamos perdiendo el tiempo. Hable usted en español...” zioten abots aundian.

Zuk, ikusten danez, ori batzar nagusian aldunen batekin gertatua dala ulertu dezu, ta toki onean zaude, irakurketa ederrak egin dituzu, arranetan. Ez gera alperrik jardun idazten, ainbes-

teko intentzioakin erantzun bear zigunak entenditu ez digunean. Jokera polita egin dezu. Nik idatzitakoak batekoz bestera agertu, ta orretzaz gañera derizkiotzunak esan; gezurti ta astotzat bota.

Au ere ikusi bear genduan, Jesus Jaungoikoa!

Nerekin eztabaida gutxi izango dezu. Bear bearrekoa bakarrik erantzungo dizut. Ez daukat txantxetarako gogo geiegi. Gauza bat erregutuko nizuke. Urrena ezer dezunean, zeuk ulertzen ezpadezu, beste bati emanda edo ondo sakonduta asi. Itsasorakoa lurrean da lurrekoa itsasoan ez jarri.

Euskeraz ikasten saiatu zeralako zorionak damaizkitzut, eta nere idazkiak ondo ulertzen ikasten dezunean berriz bialduko dizkitzut.

Otaño bertsolariak idatzi zuan:

Asko dakizularik  
gaizki zaude, Migel;  
ezin biurtu leike  
amorrairik igel.

Gauzak bere tokian. Garratzak izan arren, egiak egi. Fede onekoak erabaki bezate. Erabaki beingoan.

Lauaxetari ere zerbait esan bearra nago. Erantzungo zaio astiro. Luzeegi ezpalitz, gaur bertan; baña urrengorako utzita obe. Urrengo arte ba.

Jel-baitan, agur.

## Lauaxetari (NB)

El Día, 1935-08-23

---

Zuri ere izkitxo bi zuzentzekotan gelditu nintzan oñengoan; baña ez eztabaidari indar emateko, ez alkar zirikatzeke, geure tokitatik geure aletxoak esan, geure buruak bear dan eran jarri, ta lendik bilduta gauzkan alkartasun estuntza ortan iñoiz baño gogotsua-go jarraitzeko asmotan baizik.

Garate euskaltzale zintzoarekin gertatu zaidan komeri au, nere ustez, *Euzkadi* izparringian agertutako utsegite edo matxuragatik sortu da.

Ikusi nuen nik, *Argia*-n argitaratutako “Sortatxoak” *Euzkadi*-ra aldatu ziñula, edo ziñutela; baña jakiña... nik biali gabe *Argia*-tik artua zegoala ikustean, *Argia*-n bezelaxe egongo zala uste nuan; izkiz izki artua. Konpiantza ori nualako, ez nuan egun artan *Euzkadi*-rik irakurri.

Urrengo egunean ere, ordea, izparringia aurrez aurre arkitu nuan txoko batean, da goitik berañokoa ausnartzen asi nintzaion. Bereala konturatu nintzan zer oker zegoan. Nere idazkia ez zetorren *Argia*-n bezela.

Iru-lau errenkada palta zituan, da aiek gabetan zearo ondazten zan nere lantxo.

Gauza utsak asko egiten bait du zenbait garaitan!

Garatek *El Día*-n irakurri (*Argia*-n zan) esaten zuan.

Nik uste dut, *Euzkadi*-koa irakurri zuala arretatsu, ta, jakiña, lerro auek palta zitualako artu zuan artu zuan bezela.

Berez Garatek baño erru aundiagoa du *Euzkadi*-k, edo *Euzkadi*-koak. Ni ortan nago beintzat.

Ez dut esaten, Lauaxeta, zure errua danik. Biotz aundiko gizona zera, ta ez ziñan umekeri ortan sartuko. Ezin diteke ori.

Baña, garbi esanda, izparringiko okerra zan; langilleen “deskuidua” izango zan, noski. Ala bear legez jokatzera.

Garate mindu zan da aundi samarrak esan zizkidan; errurik ez nuala ikustean, mindu nintzan ni ere, ta aundi samarrak

erantzun nizkion. Euskal gaietan ni baño gorago dagoan batek esan zidan *Euzkadi*-koa bakarrik irakurrita, asko Garate-n iritzi-koak izango dirala. Garbi dago?

Garbitu bearrekoa zan egal auxe.



Lauaxeta

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-09-01**

---

Igandez Iruran giñan; Txomin Olano sonatuaren jaioterrian, Txomini eskeñitako eguna baizan igandekoa; bere omen eguna, alegia. Ainbat aldiz aitaturako omen orren txinpartatxoak jaulki ziranerako, Irurako errian estuasuna gogorra izan zan. Txomiñen jaiak Iruran ospatu bear zirala zioten kabi txarmangarri artako bizilagun orok.

Erri osoak maite baitu Txomin. Iruratarrak ez daukate saltzeko; benetan maite izatekoak dira izan ere olako landareak.

Elizkizun aparta egin zan. Nola ez... Sagarzazu, Olaizola, Olano ta Euzko Abesbatzako gazte talde batek abesteko asmoa artu bazuan? Nola ez, Irurako abeslari aldra bertan izanda?

Egiz eta benaz diogu, elizkizun laburragorik etzaigu iñoiz iruditu. Gustoko tokian beti ori gertatzen da. Konturatu orduko igesten duala gogozko une orrek.

Bazkaritako denboran ikusi zan Txomiñek Iruran duan adis-kidetasuna. Etxe bakoitzak bere ordezkaria biali zuala esan zitekean. An ziran Txomiñen kideko lagun danak, baita gaztetako ordezkariak ere. Uri B. Batzarreko lendakari prestuak oso itzaldi polita zuzendu zion, da bide batez Irurako abertzaleen izenean, idaz-luma eder bat eskuratu.

Onintza olerkaria ere izlari biurturik ikusi genduan; denerako balio duana duk auxe ere!

Olaizola, Zabalbeaskoa ta Sagarzazukin etzan giro igandean! Egundo olako sasoirik oiek zeukaten!

Urrengoan ere oiek iragartzen badira, jaialdiaren gurenda aurrez adierazi beldur gabe.

Urrutidazki asko irakurri zan.

Erromeri jator batekin amaitu zan Irurako erriak bere seme kuttunari eskeñitako eguna.



Doipuru, edo Aita Santua, Laterri Batza, lengo konponketak, lengo tratuak, guzia, guzti guzia alperrik.

Badirudi gizonak Jaungoiko izatera iritsi nai duala, badirudi Luzifer eta lagunak jokerak ari dirala. Mussolinik daramakian bideak ezin du kristaurik ase inolako moduz. Gerra bear du orrek derrior; denen gañetik, gerra. Frantziako ta Inglaterrako ordezkariak pake billa dabiltzala?

Ez dio ajolik. Ez dute olakorik lortuko. Guda bear da, guda!

Italiatarrak ez daude eskuak patrikan sartuta denborari begira egoteko. Millaka ta millaka alkandora beltxdun da gañontzeko, gudari dijoa Afrika aldera.

Itsasoz, legorrez, goitik eta beetik, danetik osatu dira oraintxe.

Italia kaxkarra da, txikia da, jendea berriz erruz, ezin kabitu. Eremu aundiak bear dituzte guztiak lasai bizitzeko. Orren billa dijoaz, terreno billa zuzenean. Beste modutara ez da konpondu bear.

Onez eta pakean konpondu ezkerok ez dago bere edestia edertzetik. Jaungoiko usteko gizon oiek ez daukate artarako ezer ospe eta goralgarririk. Ez daukate Napoleon-en kideko izaterik.

Ori bear dute: beren izena urrezko izkiz ikusi dedilla gizaldien buruan, beren buruzagitza denboran nazioari emandako goraldia, ta lortutako gurenda, abendaren bikaintasuna ta batez ere eurena, buruzagiona, munduaren aurrean agertu dedilla beti.

Bost ajola zaiek! Aurrera, indarrez denak azpiratu arte. Ai, gizonen arrokeria! Ai, gizonaren aundinaikeria! Ai, gizonen zentzugabekeria!

Ta zertarako?

Kokillenak, exkaxenak, aulenak eta txepelenak egiten duana egiteko. Ordu batetik bestera guzia galtzeko, geiago ikusi ez duten eran begiak ixteko, entzungo ez duten eran belarriak estaltzeko, itzegingo ez duten eran mingañoak toteltzeko, ibilliko ez diran eran anak gelditzeko, beste edozeñen gixa lurperatzeko.

Ortarako orrenbeste arrokeri, ortarako orrenbeste burujasotze, ortarako orrenbeste panparroikeri?

Ai, gizonen itsumena! Ai, ludiaren galbide beltza! Zorrilla aundiaren olerki bat datorkit gogora. Zer erakusbide ederra, entzun al izan ezkeror!

¿No son reyes en su tierra?  
¿Por qué pasan esa sierra,  
talando el solar ajeno?  
¿No les basta su terreno  
para sus fiestas de guerra?

Alemaniatatik asko itzegiten da aspaldian. Hitler orixe ere ez dago ortxe eskallondoan gelditzeko.

Katolikoantzat ate guztiak itxiak daude; ez daukate ezer egi-terik. Erlijioa, Jaungoikoa ta guziak baño len Alemania da aientzat. Artarañoxe itsutu dira. Diktadore auk guziak bide kaxkarra daramakite; ez dakigu au azkena izango duten. Urrengo batean itzegingo degu onetzaz.



## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-09-01**

---

Berri pozgarria benetan gure belarri ertzetara iritsi dan au. Iruña barrutiko gotzai edo obispo euskaldun bat, edo euzkotar bat autu dute. Olaetxea jaun agurgarria da zeregin astun ontarako autua.

Euskalerrirako bear diran gotzaiak euskaldun jatorrizkoak izatea legezko gauza da. Gaur egun danak bertako berri jakingo du, eta gauzak jakiñean egin edo ezjakiñean egin alde asarrea dago. Berri onek biziro poztu gaitu ba. Euskal barrutitan euskal gotzaiak ditugu.

Jaunak lagun bekio Olaetxea jaunari bere zeregin astunetan. Biotzez orixe opa diogu.

### **Komunistak**

Komunista auek gogorrek dira ikaragarri, eta gauz txar guztiak indarra dutelarik, komunismoa ere gero eta sendoago eta indartsuago ari da egiten. Errusia alde ortatik laguntza gogorrek dauzkate. Aurrera egiten dute nunai. Txina alde ortan sarrera gogorra dute oraingoan. Gobernoa jo eta ke asi da su au itzaliko dualakoan; baña ez dakit zer gertatu bear duan. Orain itzali arren ere, urte gutxi barru eurak buru, ziur asko.

Burrukaldi gogorra ari dute ikaragarri, egunkariak diotenez. Sechuan deritzan probintziaren iparraldean gobernoaren indarra irten da buru estualdi gogor baten ondoren; baña beste aldeitik, Hollung gaiztoaren taldea lan aundiak egiten ari da Sanghai, Tinchih eta Sali uriak bere eskuetan dituztela. Zabaltzen ari dira!

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-09-15**

---

Beljikako berri itunak elduko ziran, noski, irakurle maiteon belarri ertzetara. Negargarrizko gertakari illun tristea izan da aurreko aste ortan. Leopoldo erregea ta Astrid erregiña berebil edo automobillean irtenak ziran pixka bat ibiltzeko asmoz.

Txoperra eurekin zuten arren, Leopoldo erregea zijoan berebiltzai; alabearrean, zugaitz batengana sartu zan aurrez-aurre, ta ango txikiketa ta marraskillotsa etzan makala. Erregea ta txoperra zaurituak gelditu ziran, erregiña berriz tarte gutxi barruan il zan. Belgika osoa negar batean utzi du berri onek. Gogozkoa eta maitea zuten euren erregiña.

Ikaragarrizko elizkizunak ospatu dira. Illeta arrigarritakoa izan da. Goiz goizetik asi zan Bruselasko erria kaleratzen. Bederatzitarako bertako ta albo erritako jendez gañeztu ziran bazter guziak, jauregi aurre artan ibiltzerik ere ez omen zegon ordu ortan. Elizgizonik aundienak antxe ziran, bai erri ta naziotako agintari geienak ere. Aita Santuak ere bere ordezkaria biali zuan. Mikara gurgarria zan izen aundi orrekin. Itz emana zegon bezelaxe, Leopoldo erregeak berak artu zuan elizkizun guzietan tokirik nagusiena. Kussnach-en, au da, okerra gertatu zan toki berean ere, mezatxo bat atera zan Astrid erregiñaren gogo alde. Belga talde batek ain gogoz artu zuan arazo au, berealaxe aldarea antolatu bai ta... Stenbrugge-ko Beneditinoan burua artu ta esan bezelaxe egin zituzten euren elizkizunak. Jende askok ikertzen du galbideko leku au. Lore sorta txuri batek adierazten du erregiña nun galdu zan.

Irakurle, Belgika samiñaldi gogorrean dago, Belgika beltzez estalia dago, ain maitea zuten erregiña galdu baizaiote. Goian bego.



Alemanian katolikoak daramakiten bide aranzkorratzaz gutxi edo asko itzegiten nuan aurreko sortatxo batzutan.

Nik ura argitaratu ta egun gutxitara an batu ziran Alemanian eliz-ardura duten burukide aintzagarri guziak.

Lengo igande batez ango eliz guzitan irakurri zan Hitler-en irakaskintzan aurkako idazki sakon bat. Izan ere arritzekoa da Hitler eta jarraitzalleak daramakiten bidea. Katolikotasunan etsairik gordiñenetakoak auek ditugu gaur egunean.

Esan dizuetan idazki ori, Alemaniako elizetan irakurritako ori, Fuldako batzarrean Alemaniako janzkordun edo kardenal, Gongotzai ta Gotzai denak izenpetua dago. Denon artean sortutakoa dute beraz.

Alemaniako eliz-agintari agurgarriak idazki ortan agertzen digutenez, ez dira beldurtzen elizak ziñezkatasun edo paganismoarekin darabilkian burrukarekin, eliz donea, ziñezketasunagatik len ere garalle irten baizan, aurrera ere berriz ber-bera egingo baitu etsai anker guziak jaikiko diranagatik ere. “Ez gaitu paganismoak beldurtzen, ez gaitu paganismoak kezkatzen –diote eliz-jaun aintzagarriak–, gure erria, gure aberria bide ontan ikusteak, gure aberria azken malla ontara jaiختهak, orrek, orretzek kezkatzen gaitu”.

Gizonarengana baño len Jaungoikoarengana makurtzea eskatzen du aitatuko pastoral orrek, eta beragatik nazi alderdiak darabilkian jokera kondenatu egiten du.

Zati batean, izenez ez bada ere, M. Alfred Rosenberg-engatik esaten du naikoa. Kalte aundiak egin ditu gizon otz asmo txarreko onek. Liburu batzuk baditu bereak; bai nabarmenak ere! Katolikotasunan eta Erroman aurka agertzen da beti. Gaizkille aundia auxe, benetan.

Esan bezala ba, izenez aitatzen ez badute ere, beronentzat zuzendatutako zati bat pastoralak badauka, nabarmen dago. Izparringi katolikoantzat askatasuna, izparringi katolikoak argitaratzeko baimena eskatzen dute dei larriz. Asko egin bailiteke izparringi bidez!

“Sendo ta trinko bakoitza bere lekuan –diote elizgizon pres-  
tuak– guzia eruapenez, guzia astiro artuta, guk ez degu mun-  
dutarren matxinada motarik bear, eskuak izkilluz edo armaz  
gañezkatuta egiteko matxinada ez da gurea, zuzen eta apalki  
gogo anima aldezko matxinada baizik”. Gutxi gorabera, 25 millo  
katoliko omen dira eliz-buruak antolatutako idazkiaren mamia  
senti dutenak.

Alemanian bero ta gartsu agertzen zaizkigu sinismentsuak.  
Elizaren ikurriz garbia garalle izango da beti. Lengo olatu zaka-  
rrak ere baretu ziran egi berdingabearen aurrean, eta oraingoak  
ere ortara etorriko dira, egiaren aurrean makurtzera. Zorionekoak  
Kristoren ordezkariak neke samiñetan daramakitenak! Oiek bai  
olatu legunak artuko dituala!



Aita Laburu entzutetsuak egundoko itzaldi bat egin du Do-  
nostiko Buen Pastor deritzan eliz ederrean. Betikoa: Aita Laburu  
iragarri ezker ez dago jende paltik, txindurriaren gixan agertzen  
da. Eliz sonatu ori ere asi ordua baño ordu erdi bat lenagotik  
betea izan bear zuan. Geiago eziñean ordea. Aberats, txiro, aundi  
ta txiki, denetik erruz.

Gai aparta zuan, eta bai apain erabilli ere, arranetan. Egun-  
kariak eman digute itzaldi orren berri, eta orori ondo iruditu zaio,  
Laburun guziak oi diran bezelaxe. Jendeak erabat onera joko  
zualakon, poztu giñan.

Baña andik egun gutxitara katoliko zintzo oietako baten as-  
moak jakin genitun. Etzuan txar aundirik egiteko asmorik. Base-  
rritar pillak bat ostikoa emanda etxetik bialki, maizter mordo bat ez  
zerurako eta ez lurrerako utzi.

Zer da ba ori egitea?



Zalantza bizian egon ondoren, azkenean Donostiratzea oldoz-  
tu genizun, eta oñean nion bezelaxe, tokirik egokitxoenetako

bat artu, ta ogerlekoak zer egingo zuten kezki gabe, bapo mol-  
datu giñan.

Bazan bestelakoa pranko ere. Igandeko ori arri gogorra izan  
da toki batzutarako. Konpianzik geienekoak, ainbat milla laurle-  
ko bere alde zeukanak galdu baizun.

Abildadea bazeukatela, ta oker ura ez gertatzera, lenenego  
izango zirala? Ez dakigu, baña ez degu ezetzik ere esango. Baña,  
mutillak, joko kontu ori zelebrezkoa duk. Xuai, xuai, poliki poliko  
ortatik.

Donostiko jai ori  
ederra guztia, bai!  
Iñor baztartzetikan  
guk ez genduke nai.  
Maite degu Orio,  
baita ere Pasai.  
Guziak txalotutzen  
genitun guk lasai.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-09-22**

---

Euskaltzaleen Biltzarrak bere batzarra izan berria du; Auñamen-diz andikaldeko Atarratzen bilduak dira gure gizon txalogarriak. Aurreko aberkide euzkotar zintzoak ere antxe biltzen ziran.

Billera ortara onuzkaldetik joan diranak pozez txoratzen etxe-ratuak dituzu. Igarotako igande ortan Aitzol idazle aipatuaren artikulu bat irakurtzen genizun *El Día*-n. "Lenago –dio idazleak– ogei bat euskaltzale biltzen ziran Euskaltzaleen Biltzarrak bere eguna iragarrita. Orain, Atarratzeko Udaletxean sartu nai luteken eunkako talderi toki egin eziñik ibili bear". Au duk aldakuntza!

Eliz abestien gozo xamurtasuna ere agertzen digu Aitzolek. Kanturako ezta izaki ango izkelgia! Geuk ere aurrez aurre ikusia daukagu orixe.

Umeen sariketa ere izan zan. Epaikariai euren euskal ale-txoak agertzea zuten egin bearrekoa; euskal idazkiak antolatzea, alegia. Askok idatzi zuten euren sortatxoa. Elizalde, Jauregiberri, Eizagirre, Oxobi ospetsuak eta abarrek itzegitea euren gain artu zuten, baña bai bear kuna ondradu bete ere. Ura arrazoi astin-tzea!

Aurtzaro osoaren ezpañetan euskera dabil mendiz aruzkal-detik. Euskera len ere erabiltzen zuten, baña ezeren garrantzi apurrik eman gabe. Gaur euskerarekin batera euzko aberria da-rabilkite, muga guzien gañetik bizi ta trinko dakusgun abenda zarraren aitamenak sarritan asi dira, ta urte gutxi barru, guk darabilkigun amets bera erabilliko dute. Euskerarekin batera Euzkadi gaizkatu ta zoriontzea, Arana Goirik ezarritako ikurritza gallentzea, Jaungoikoa ta Lege Zarrak euzkotar guztien goiburu izatea. Orduan, aruzko ta onuzko anaiak uztarpe batean jarrita-ko orduan, amets esan dedan ori, egi ez ote da biurtuko?

Zuberoar emakumeak gurenda artean saiatuko dirala aginduak ditugu. Burruskaldi gogorrek datozen arren, ez dirala ikararitu itz emanak.

Gora emakume biozkor oiek! Gora, Bidasoz aruzko gaztedi bulartsua! Zorionak, eta aurrera Biltzarreko jaun prestuak. Badakizute nola jokatu!

Aritz eder bat bada  
gure mendietan,  
zazpi adarrez dena  
zabaltzen airetan.  
Frantzian, Españian,  
bi alderdietan...  
Hemen hiru ta han lau,  
bat da zazpiretan!



Uzturre euskal idazle trebe txalogarria Ondarretako ostatua utzi bearrean dala jakin degu. Poztu gaitu gogotik berri orretzek. Gazte zintzo ta leiala ziñez gure Uzturre; eredu artzekoa derizkiot. Zenbat alegin Euzkadi ta euskera alde!

Gai diran askok milla aitzaki jartzen dizute aberriarentzat ain onurakor liraken lanak aginduta. Denborarik ez, leku illuna, zeregin asko... beti badizute beintzat nunbatikako esamesa. Ez da Uzturre gaztearekin olakorik gertatzen. Aske danean, errian danean, kanpoan edo kartzelan danean, nunai, noiznai, beti lanean bere kemen, indar, lezaken guzia Euzkadiri eskeñitako lan neketsuan, gizonak bizitzeko gañontzean dituan zeregin astunen gañetik egin bear dan lan ortan, egundo irabazirik ez duan lan-keta zamatsuan.

Zein idazle apain egokia gure Uzturre! Zer esakera ederrak, zer joskera gozo ezetikial!

Ondarretako espetxe zulotik argi dizdikorra ager digu. Tolo-sarrak bere omenez zerbait egiteko asmoa dute. Aspaldi irabazia izango du. Tolosak bere maitasun eta eskerrona azaldu bear dio,

baita Euzkadi osoak ere. *Argia*-ko idazle denok goraldtu bear degu gazte au. Errenderiko “Andoni”n asmoa aukerakoa degu. Guzior laguntzaz idaz-luma eder bikain bat eskeintzea zior “Andoni”k. Zer derizkio Euskal Idazle Batzak?

Utzi bear dekala  
gaizkille zokoa.  
Len ere ez uan ik  
merezitakoa.  
Or ere egin duk bai  
eure egitekoa...  
Bejondaikala lagun,  
luza bostekoa!



Lazkano pelotari gazteatzaz ere itz bi egin bearrean nazute. *Argia*-ren irakurle askok izango dezute zarauztar trebe onen entzutea. Aldi ontan bere izena egan baidabil!

Diodan aldi au labur samarra izaki ordea, ta bateon batzuri Lazkanotzaz esaten dan guztia berri irudituko zaizute.

Euskal plazetara pelotari gisaz irten berri dan landare gazte bat dezute gure Maren. Ogei urteko mutil gorputz egoki, luze, lerdena.

Atzelari agertzen zaigu bere pelota jokaldietan, eta ikusten duten geienai gogozko egiten zaie gure mutilla. Askotan gozo ta legun artzen du pelota, ta era duanean bai atzera dantzatu ere. Jotzalle aundietakoa datorrela diote. Zarauzko Cineman joko ederrik egin du aurtengo udan.

Lengo arrats batez, Ulazia lagun artuta Peru ta Txarari irabazteko din izan zan. Lauretan ongiena berak egin zuala zioten ikusle guziak. Etorkizun aundikoa degu Lazkano auxe itxuraz, konporme!



Irekin nauk orain Maren adiskide.



Beste ikusle askoren artean, ni nauk bat irekin txoraturik nagoana. Zarautz ez duk pelotari erria, gure ezagueran ez duk izan artaraño nabarmendutakorik. Ire itxaropenez gatxaudek guziok; ortatikantxe janez ikusi nai augu.

Ea ba, Maren! Zaitu gorputza, zaitu eure burua. Abil gizonki, sasoi dukan artean orain ori egiten dukalarik, sasoiak iges egingdakoan areta gizonago agertuko aiz-ta. Aurrera, Maren maitea!

Zuzen, artu dukan bide ortan!

Eure argazkia *Argia*-n agertzen duk. Nere irakurleak begirapenez artuko aute; adi adi egongo dituk ire jokera begira.

Aurrera!

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**El Día, 1935-09-29**

---

Gipuzkoako erri txiki batean bai omen zan mutil koskor zelebrea. Aren ateraldiak, eta aren itzegiteko era!

Íñorengatik bildur ikarik ez, noski, ta geientxoenari erantzun berdiña antolatu. Gizonetan eta jaunetan denetan jokera bat. Denak ika ta to-ka artzen omen zitun. Erretore jaunak amaika galdera egiten omen zizkion:

–Ta eskolan ezer ikasi al duk Joxe, maixuakin ondo konpon-tzen al aiz edo?

–Nik eskolan gogor ikasten diat, baña maixu ergel orrek gorro-tuan artua natxaukak eta belarrondoko ederrik ematen zidak.

Era ortantxe, irakurle. Apaiza izan edo ez izan, denak ika ar-tzen zituan Joxek.

Lotsagarrikeri gordiña zala ura, geiagorik ezin iraun zitekeala ta gurasoen etxera aurkeztua izan bear zuan apaiz jaunak.

–Baña, gizona –zesaion Joxeren aitari–, zer erakusten diozute ordea zuen mutikoari? Bazter guziak i ta to'ka irentsi bear ditu. Jendea arritzen da beintzat orrekintxe. “Ori edukazioa”! –diote entzuten dioten guziak.

Orrela ezin diteke. Neri ere amaika lotsa eman dit aspalditxo ontan, geiagorik eraman ezinda etorri natzaizute gaur. Ia Jaun-goikoagatik zuzentzen dezuten ba. Emaiozute gaur artualdi estu bat.

–Bai, bai, gure kontu, Don Ramon. Lotsak emateko bestetako ez da-ta, txatxu geldo ori.

Mutilla etxeratu zanean, bi matralleko artzea zuan lenengo saria. Ta gero gerokoak.

–Apaiz jaunari “jauna” ta “beorri” esan bear zaiok beti, erge-la! Goguan artu gero: “Jauna” ta “beorri”, “jauna” ta “beorri”. Ia orain eorrek nola esaten dukan!

Malko aundiak ixuriaz zabaldu zuan aua:

–“Jauna ta beorri”.

–Olaxe. Baña kontu gero nik berriz lengo kejik izan. Gixaixo orrek igarriko diok!



Andik egun batzutara ikusi du apaiz jauna egurasten dabillela, ta lena goguan duala, an dijoakio mutikoa. Bere aurrera eldu danarekin batera asten da:

–Jauna ta beorri. Jauna ta beorri, jauna ta beorri...

–Baña, Joxe, zer ari aiz? Zer duk ordea gaur, zeñek erakutsi dik erretolika ori?

–Aitak esan zidak iri esateko.



Txapaprieta, Alba, Lerroux, Gil Robles, au gora ta au bera ibilli dira bolaratxo batean ta azkenik zera... lengoa, mutil koskorrena ber-bera gertatu da. Aitaren egiñagatik ark berean jarrai. Azkenean ere ika bukatu apaizarekin.

Emen ere, izparringi batean au ta bestean ura irakurri arren, zenbait politiko ainbat iritzi izan arren, azkenean ibilli ibilli egin bai, ta... lengoak buru, lengoak nagusi. Ajolik digun?

Ikaragarririk ez. An bat jarri, bestea jarri, zai egonda ez dago ezer, emen egin bear da emen!

¿Qué dice, qué dice?

Lena berrize.



Inglaterran ministro batzarra egin berria dute. Eden ez beste guziak azaldu omen ziran batzar ortara, ta euren ordezkari Hoare jauna Nazio Batzako batzar sonatuan egindako itzaldiaren aldeze agertu. Guziak batera Hoare goralduta dute, danak berarekin bat daude.

Nasketa ikaragarri ontan dena illun ta goibel agertzen da, baña... Ingalterra gertutze onek ez al du alakoxe aldakuntzatxo bat eragin? Italia aldean len gatz ziran aletxoak ez al ditu azukre biurtu?

Ni ortan nago.

# Nere Bordatxotik

*Argia* 1935-10-06

---

## **Mujikatar Nikola margolari bikaña, Amerikako euskaldunak ta ango bizikera**

Gure Mujika ospetsua erretiratu zala jakin ordukoxe, asmo aue-  
txek etorri zitzaizkidan bat-batetan: “Gizon orrek *Argia*-ren ira-  
kurleentzat alakoxe zati goxoren batzuk eukiko dizkik ba. Bai,  
nai ta nai ez bear dizkik, eta apaltasunez aurpegi eman deiodan”.  
Oldoztu ta egin.

Lenengoz ikusi nuan unean, nere esku luzatzeak eta ongi eto-  
rri egin ondoren, galdera orixe izan zuan: *Argia*-ren irakurleen-  
tzat zerbait esango ote zueneko galdera.

Nik uste bezelaxe eskuratu nuan baietza.

–Itzegin esaten didak, Basarri?

Ba, motel, luze itzegin be irekin –erantzun zidan bere berga-  
rar izkera kutsuarekin.

Tartea artutako eguerdiarte batean antxe naiz Mujika sona-  
tuarekin aurrez aurre. Bere gogoko gelatxo politean, bere lanto-  
ki ixil atsegiñean aulki bat artu bai, ta egitekoak egitea oldoztu  
dut.

Euzkadiko ta Españako idazlerik bikañenetakoak ainbat go-  
raldu duten gizona, bere lan ikusgarri ta erti izakera txalogarria-  
gatik ainbat goralpen jaso duan gizona, gaur egunean ainbateko  
izenaren jabe egin dan Mujika, ementxe dut, ementxe gertu ger-  
tu, galdera guziaz zintzoki erantzun naian.



Astera goaz:

–Nundik irtenda, edo... zein uritara joan ziñan?

–Parisen artu nuan ontzia, ta Nueva York-a jo nuan zuzenki. Iritsi nintzainerako lagun bapoa arkitu nuan Jaunari esker. Uri aundi ortan bizi da emendik dijoazen euskaldun denen zaitzallea; ori da euzko artaldeko artzaia inguru aietan. Bizkaiko semea da. Balentin Agirre deritzaio. Buruz azkarra izan, txolarte onak zaitu, lanketa egokia eldu, ta... orain zearo aberastuta bizi dan gizona da. Ikaragarritzko jatetxe bat dauka an, eta emendik dijoan jende guzia bertara biltzen zaio. Diru aldaketa edo kanbio guziak berak egiten ditu. Berarekin egin nitun nik ere nere tratuak. Emengoaren truke ark eman zidan arako bear nuan dirua.

Esan bezela, aspaldiko urtetan ura da euskaldunen gidaria; ezer laguntzik nai duana arengana zuzentzen da, guzia baitaki. Uzkudun burrukalaria ere antxe egoten zan; ez egon bakarrik, bere joko-sarrerak, bere proaketak egiten zituan tokia ere ikusi nuan. Baita Amerikan burrukaldia irabazitako esku-larru edo guanteak ere ikusi nitun; denak erakutsi zizkidan Balentiñek. Uri aundi ikusgarri artako kaleetan ere ibilli giñan. Ango etxeak eta gañontzeko obrak arrigarriak dira. Aiek gauza tentelluak! Lepoa gogortu zitzaidan beti goruntz begira. Zeruraño eldu bear dutela dirudite ango bizitokiak!

Balentiñen jatetxe edo hotel artan, gutxienez eun bide-kutxa edo baul ikusi nitun. Nortzunak ziran galdetu ta, mendi lanetan zebiltzan mutil euskaldunenak zirala erantzun zidaten. Urtean bein edo jaisten omen dira errira ta orduan illabeteko atsedena-rekin edo tankera ortan.

Bateko aspo-soñu, besteko abesti, txistulari, denetakoak omen duazkate. Ango alaitasuna ta kantotsa sinistu ezin alakoa izaten omen da. Urrutitik maiteago izaten aberria!

Beste geiagok bezela nik ere andik irten bearra nuan, beste alderdi batera joan bear bainuan! Andik egun bi ta erdiko bidea zegoen tokiraño. Boise deritzan erriraño.

Nik ingelesez batere ez jakin berriz. Agirre orde denak eza-gutzen dute, ura danekin konpontzen da, ta begirapen aundia diote an.

Geltokira edo estazioara joan giñanean, lengo euskaldun askori egin ziona egin zidan neri ere: paturatu egin nindun. “Boise” izki aundiaz paper txuri batean idatzi, ta nere txapelari erantsi zion. Artaka txartel-zulatzalleak bazekiten zein erritan edo gelto-kitan biali bear ninduten. Ikusten dezenez, Boise-ra paturatuta joan nintzan. Taloi zuria txapel gañean nuala.

– Ta zer moduzko tokia edo zer erri modu da Boise ori?

– Ortxe 25 bat milla biztanle izango ditu. Toki ederra da berez. Emen erki edo probintzitan banatutako lurraldeak dira.

– Ederki, ederki, Nikol. Euskaldun asko ikusi al dezu alderdi aietan?

– Euskaldunak? Boise-n bertan badira lau milla, ta astiro emango dizkitzut euren berriak. Ango euskaldunen ugalmena nundik edo nola sortu zan esan bear dizut.

Emen Bizkaitik emezortzi mutil gazte joan omen ziran aruntz, ta guztiak, gutxi edo geiago maitasun-miñak joak. Adiskidetasun apur bana egiñak beintzat. Ara joan da lanari ekin zioten gogor, ta urte batzuk igaro zituztenean, beren buruak itxura antzean ikusi zituztenean, egiñarekin ederki baliatzen ziran, lanerako poz bizian zeuden. Badakizu zer asmo artu zuten?

Gaztetako adiskideai, Bizkaiko landare politai deitzea erabaki zizuten. Oldoztu ta egin.

Lekeitiora eskutitz bat idatzi zuten; guzien izenpeak an agertzen ziran. Batek olako neskatxi aitatzea nai zuan, besteak askori; era ortantxe emezortzi neskatxa izendatzen zituzten, ta angu berri onakin poztuta edo neskatxak ere joatea erabaki zuten. Ea, Ibarrangelua, Natxitua, Lekeitio ta abarrekoak ziran emakume oiek. Joan ziran, ezkondu ziran, seme-alaba ederrak izan zituzten, geroztik ara nolako kontuak.

– Gañontzean, zer bizikera edo zer ogibide dituzte?

– Ardi kontuan ibiltzen dituzu an gienak. Denak esanda ere oker aundirik ez. Esan dizut an dena laterriz banatua dagoala. Laterri koxkorrak dira. Boise erria Idaho izeneko laterriari dago-kiona da.

Gobernoak an oso maite ditu euskaldunak, laguntza aundiak egiten dizkiete.

Neguan otz ikaragarria izaten da, ta udaran bero kixkalgarria. An nik ezagutu ditudan euskaldunetan, gutxienekoak ere amabost milla ardi izango ditu. Badira 35 millatik 40 milla arte dituztenak. Artalde oien ardura emengo mutil euskaldunak dute. Bakoitzak 30 edo 40 morroi izaten dituzte, ta den-denak euskaldun utsak. Mutil oiek urte guzia mendian igarotzen dute euren ardiakin, ta ango jendeak, amerikanoak ez du irauten ango bero-otzakin. Ez dira gauza mendi-lan ortarako, ta orregatik gobernoak oso gogozko, oso begiko ditu euskaldunak. Ango elurteak asarreak izaten dira.



Guzia batean geitxo iruditu zait, irakurle. Datorren astean jarraituko diogu arloari.

Kontu politak dira, ezta?

Oraindik zer esan asko gelditzen zaio Mujika bizkorrari. Dena baterako mokau aunditxoa degu.

Bere lauki batzuk azalduko dira urrengo *Argia*-n ere. Ikusi eta irakurri *Argia*.

## Bildutako sortatxoak (NB)

*El Día*, 1935-10-18

---

Tarte txiki batean poztasun asko nabarituak gaituzu lengo egunez. Gure goiz janaria dan *El Día* eskuratu eta "Xaltxero" idazlearen ezti tantotan mara-mara nebillelarik, Euskal-irratsaio gaiz idatzitako errenkadatxoa arki nizun.

Laister asteko modutan ote diran edo...

Berriak artzeko gu baño leku erosoagoan bizi da idazle ori, ta orrenbeste esan duanean zerbait izan egingo da.

Urtebete ontan mira ederra iritzi diogu, ain irratsaiozale geranok, euskeraren oiartzunik aurrerapenezko radio bidez ez entzunaz.

Zaletasun miñez irrikitzen gaude. Irratetxetik edatzeko ain egoki osatu zuan zatia entzun nai diogu gure olerkari atsegiñari.

Ua, ua emendik otsa!  
Abil azkar, pizkor, abotsa!  
Gure izkuntzan agur laztana  
ludiko euskaldun danorengana  
ortxe dijoa.  
Ua... Ua!



Billanoba Royotxo edo dalako agure au ez daukagu txantxetako gizona. Ministro izateari utzita, bein betiko politika zelaitik baztertuko zalakoan geunden, ta... toki ederrean. Ortarakoxe zeok, noski!

Joan dan igandez ere pin asko jokatua da, arraiok ezpaitu!

Zaragozako Cine Monumental izeneko areto apain zoragarrian itzegiña da. Baña ez bakarrik, lagunak ere bazitun.

Alonso, Romero Radigales, Velayos, Cid... Etzan, noski, lagun paltaz.



Auek denak itzegin zuten, eta “Agrario” izeneko alderdikoak diralarik, geientxoena lugintza gaia erabilli zuten.

Oiena ez izaki ordea ezer ondoren zetorrenarekin erkatzeko, Billanobak zuen papel berezia. Mutilla duk ba auxe ondo itzegiten!

Igandean ere ondo azaldu zuan. “Radikalekin ezin egon nindeke –zion–. Kataluñako araudi edo estatutuan aldezeak diralako. Ceda-n ezin egon nindeke, aberki zale edo (regionalistak) diralako, aberki zalea ez naizelako utzi diot ministro izateari, ta “Agrario” alderdia da guzien gañetikoa, alderdi ontan dago askal-tasun edo demokrazia, emen gizatasuna, emen guzia.

Zorrilla ta Salmeron bizi balira, Agrarioak izango lirake gaur”.  
Entzun dezute?

Ez dago gero txantxetakoa gure Royo. Ildakoak bizi balira zer izango liraken ere badaki.

Olako gizonak bear ditu Españiak.

Euzkotarrak lasai biziko giñake. Ezetz?



Bere alderdiko areto baten askundea zalata, Kanbo buruki-deak itzaldi bat egin zuen igandez Sitges-en. Liga-ko ministroa agintaritzan zergatik ezarri duten adierazi zuan.

Azken aldera itz auek esan zitun: “Denbora gutxi barru ezer okerrik gertatzen ezpada beintzat, ikuskizun aundiak dauzkagu. Kataluñan eta Españian erri auteskundeak izango dira; Udalak (ayuntamentuak) autorkidunan gogozkoak izan bear dute ta, gertu Liga-ko alderdikideak! Arpegi eman bear degu nunai, gure bidea argi ta garbi dan ezkerro, gure jokabideak orbanik ez duan ezkerro, aurrera sendo ta kementsu! Gogor oraingoa!

Betoz ba auteskunde oiek! Betoz lenbaitlen!

Zenbat eta beranduago datozen, orduan da arrazoi geiago emango diegu matxinadazaleai!”

Auteskunde gaiz euzkotarrak ere ber-bera diogu. Kanbokin gaude ortan.



Udazken betean gaude. Uda txarraren aitzakirik ezin eman-go degu, oberik egundo ez da ezagutu-ta. Udazken bera ere ezin da ohea ager zaigu. Maats biltzalleak giro obean gutxitan jardun dira. Sagar zaleak berriz ez dira asarre. Ia amar duro gurdiko ta olako giroak gañetik. Arto-babarrun biltzalleak irripartsu nabaritu ditugu. Urte ona izaki aurtengoa.

Udazken, udazken... Zu adiskide izateak zenbat balio duan nork neurtu?

# Mujika margolaria ta Amerikako euskaldunak <sup>(NB)</sup>

Argia, 1935-10-27

---

Alakoxe azalpen txiki batzuk egin bear dizkizutet lenengo. Izparringi ontan ikusi al izango dituzuten Mujikaren lauki edo kua-droak, bata Bizkaiko Izpazter erriari dagokion basetxe bat dala, ta bestea Naparroako Urepel erriarena dala adierazten dute.

Lenengo aitazten dedan lauki ori, ango euskaldunak aitatzat ezagutzen duten Artxabaltar Jon ospetsuak erosi zion Mujikari.

Bigarrena berriz, Gernikako seme goragarria dan Basabe entzutetsuak artu zion. Basabe aita lekaide edo praille frantziskotarren anaia da jaun ori.

Zatitxo bat etzan nik nai bezela azaldu oñengo idazlantxoan. Nik adierazi nai nuana au zan: Alegia, an Amerikan, Mujika ibili dan alderdietan, emen erki edo probintzitan bezela, laterri edo estadu kokkorretan banatutako lurraldeak dirala. Garbi al dago?

Nik orixe nai nuke, gauzak argi ta garbi zalantzarik gabe denak ondo ulertzeko eran.

Neure azalpentoak egin ditudan ezkerro, aurreko asteko arloari jarraitzea onena. Ikusi, ikasi, irakurri Mujika bizkorrak dio-na.



–Beraz, gobernoak maite ditu euskaldunak?

–Bai, esan nizun bezelaxe, oso maiteak ditu, baña, jakiña, zerbaitegatik izango da. Ez eurak buruarro alperrak balira.

Ortan, emen ez bezelako gizonak dira an; bata besteaganako maitasun ugariagoa, biotz zabalagoa, begirapen aundiagoa da. Premiz danari, bearrean danari lagundu egiten zaio, ta ez emen bezela, zenbat eta ondatuago, zenbat eta galduago, gobernoak eta gañontzekoak orduan da alaiago. Ori ez. Ezaguera geiagoko jendea da, jende obea.

–Gaur gaur bezela, bizitza eroso al daramakite ango euskaldunak?

–Ez artaraño. Len askoz lasaiago ta obeto bizi ziran an ere. Izan ere, gogorra gertatu zan, arranetan!

Orain zazpi urte, ardi bakoitzak 17 dolar balio zitun, ta gaue-tik goizera, ez ez eta ez bai, 6 dolar besterik balio ez izateraño jaitsi da ardia. Badakizu zer ipurdikoa artu duten orrekin?

Ta guzia, lau bankero traste maltzurren jokoa. Pentsatuko dezun bezela, ardiak alako beerakoa egin zuanean, ango euskaldunak oso estu ta larri ikusi zituzten euren buruak, eta azienda guztien jabe bankoak egingo zitzaizkiela etsita zeuden. Ez orratik! Alako estuasunean ikusi zituanean, euskaldunen larritasunaren berri jakin zuanean, ango gobernoak eskertu ezin alako laguntzak egin zizkien; artaraxe pixkabat sendatzeko ta lasaitzeko modua egin zuten. Baña alaz guztiz ere, ez dago denbora bateko konturik orain. Len askoz egokiago izaten ziran.

Bankeruen kontua aitatu ezkeru, su ta gar jartzen dira ango euskaldunak. Urde oiek ondatu dituzte.

–Euren burukideak izango dituzte ba, e?

–Artxabaltar Jon da ango euskaldunen aita burukidea. Berrogei milla ardi eukiko ditu gutxiñez. Onek asko laguntzen die gañontzeko euskaldunei. “Au da gure aita!” –diote ango anaiak. Ez daukate buruzagi txarra. Urte askotarako izatea Jaunak nai dezala.

Urangatar Antonio, Iriondotar Ruperto, Mandarietatar Ixidro, Izurzatar Benito ta beste geiago ere jabetasun aundiak dituztenak dira.

Denak euskaldun uts-utsak dira. Emengo baserritarrak dira, aspalditxo joanak, eta ango gaztelerak, erderak ez du ostaturik aiengan. Dena inglesa erabiltzen da. Orregatik ba ez dira batere beartu.

Ainbeste ta ainbeste euskaldun agurtu dedalarik, bakarra ikusi dut euzkotar erdeldunik: Amezketatar Joseba deritza, Bilbaoko semea bera. Ango euskaldunak *maketo* deitzen diote.

Ta orain dator polita. Ainbat eta ainbat euzkotarretatik bakarra erdelduna, ta bakarria abertzaletasuna ezagutzen duana.

–Zein?

–Erdeldun orixe. Abertzaletasun dotriña dakianik ori bakarrik ikusi dut. Emengo astekariak artzen ditu. Baita *Euzkadi* eguneroko izparringia ere. Oso jeltzale sutua da, baña ango euskaldunak *maketo* deitzen diote.

Euskeraz baleki lan aundiak egingo lituzke, baña erderarekin ez dago ezer pentsatzerik ere.

–Kontu polita ezpada ba...

–Ni, Tomax eta Benito Izurza durangoarrak an duten ostatu eder apañean egon nintzan. Zenbat bide-kutxa edo baul, zenbat erropa ikusten nuan antxe ere. Arritzeko tankeran ordea! Denak mendiko artzai euskaldunenak ziran. Aiek errira jaxtean ez da atsegin izango, aiek menditik atsedernaldia igarotzera erriraten diranean, esan didatenez, Boise-k ez du ematen Idaho laterri edo estaduari dagokion errria, Gipuzkoa edo Bizkaia baizik. Antxe euskerak indarra, noski! Euskaldunenak lau hotel ikusi nituan.

–Bromatxo politak igaroko ziñuten ba e, Nikol? Emendik araño joan eta an alako anai mordoakin bildu... Ez dago esan bearrik, alaitasunak bear buru.

–Aurreko guda edo gerra aundian arrixkatu ziranen oroitzazko jaiak urtero ospatzen dira Amerikan. “Fiesta de los legionarios” deitzen zaio erderaz. Pesta ori, ain zuzen, ni an nintzala, Boise-n ospatzea erabaki zuten eta antxe ospatu zan.

Burutapen bat izan nuan da bera egiztatuta ikusi arteko onik ez.

Orduan margoztu nuan aurrekaldean dezun lauki au.

(Joan dan asteko *Argia*-n argitaratu zan euzko basetxea erakusten dit, ango euskaldunekin batera margolari edo pintorea ikusten zan ura).

–Sekulako taldeak, egundoko jendeak joaten ziran erti-lan au ikustera. Lan auetan ondotoxo ulertzen dutenak ere izan oi ziran;

ta txoratuta gelditu ziran danak; etzekiten ni nola zoriondu. Ango izparringiak ere goralpen geiegizkoak eman zizkidaten geroztik.

Begirakiozu aurreko oni. (*The Idaho Morning* izeneko izparringia eskutaratzen dit, ta Mujikaren argazkiakin batera, len esandako basetxea ta abar an ageri ziran garbi-garbi. Orretzaz gañera, idazlan sakonak, Mujika lañotaraño jasotzen zuten idazlanak).

–Egia esatera, Basarri, merezi baño geiago jaso ninduten.

–...?

–An apaiz euskaldunak bear luteke; zuk ez dakizu nolako premia dagon. Emen bezelako zaletasunik ez da elizarako, emen añako indarrik ez du sinismenak, eta euskaldunak ere oztu egi-ten dira, zoritxarrez. Elizara joan joango lirake, baña apaiz euskaldunak bear aiek lengo oñera ekartzeko.

Beste utsune bat ere aurkitu dut an. Euskaldunen diruarekin dendari asko aberastu da alderdi aietan. Ostatuak eta dituztenak badira, baña dendariak oso gutxi euskaldunetan. Mendiari bakarrik begiratu diote.

Amaika aldiz aitatu diet an egon naizen bitartean: Zuek, euskaldunok, emen bazkun bat bear dezute, zeuena dan alkartasunezko bazkun edo Kooperatiba bat. Azken aldera sarri xamar aitatzten zuten eurak ere, ta denbora asko baño len zerbait antolatuko dutela derizkiot. Bear luteke orixe.

–Ta zeu, ongi irten al zera aruntz joatearekin?

–Bai, ni oso gustora nago. Esate baterako, eramandako lauki edo kuadro denak saldu nitun, eta gerorako eskatua ere badut lan mordo bat. Laister ekin bear diot an eskatu zizkidatenak antolatzen.

Alde guzitara gonbidatua negon beti; bazkari bat ordaintzen ez didate utzi, alajaña!

Esaten dizut, ni pozez eta ezinda gustorago nago aruntz agertuarekin. Berriro joateko gertutu bear dut orain.

–...?

–Andik irten bear nuan baño egun bi lenago, apari bat egin bear genduala ta bildu giñan adiskide denak. Alaitasun ederrean egin genduala ezin ukatu. Azkenean, zegokidan bezela eskerrak emanez itz batzuk egitera jaiki nintzan, eta Iparragirrereren zatitxo onekin bukatu nuan nere jarduna:

Errialde guztietan  
leku onak badira,  
baña biotzak dio:  
Zoaz Euskalerrira!

–...?

–Malko aundiak ixurtzen zituzten anai aiek. Negar mardula egiten zuten.

“Ez da Donostiarik gure lurrean bestetan”, idatzi zuan Otañotar Pedro Marik. Zein egi aundia!

Gure agurra anaiari!

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**El Día, 1935-11-12**

---

Urumeako pelotatokiak etzeukak atsegin. Españar politikero denak or sartu bear dutela, arraioa!

Sartu, ta... derizkioten astakeri guziak esan. Batek Gernikako latetxe edo parlamentuagatik burura etorri ala jaurti. Besteak, Iñaki deunagatik beste ainbat egin... onela, adiskide, emengo jaun da jabe egin, euren deskarga egin, eta ostera Madrid alde artara espoja baño arroago.

Olakoxe laguntzalleak dauzkagu; beti gutzaz oroitzen diranak, erri onek zer egingo duan adi adi daudenak, zeruetaraño igota ikusi nai gaituztenak. Ta zorion au guzia lortzeko ematen digute botika ederrik.

“Bi muturretan itxitako kale sastarrean sartuta zaudete, irten zaitezte Jaungoikoagatik, gure alderdiari diputadu bat eman zaiozute, ta orduan Vasconia-ren zoriona eskutan daukazute”.

Zortzialdira beste bat: “Utzi zazute klerikalismoan gonapean bizitze ori, urrutiratu zazute elizanganako aitamen gezurrezko ori, jesuiten morroi izateari utzi zaiozute, izan zaitezte gizon azkarrak, gizon sendoak, ezker alde ontara jo zazute arraun leian, ta eun urte ontan dezuten egarria aseta ikusiko dezute”.

Au maitasuna digute, Jesus Jaungoikoa! Oien esanak beteko bagiñu seguru giñake.

Gaur ere bada Urumean zer ikusia ta zer entzuna. Calvo Sotelo edo dalako ori da gaurko itzontzia. Onek bai erlijioa goralduko duala. Ikusi al dituzute zabalkundeko paperak?

Gurutze aundia erdian dutela atera dizkigute.

Alkar ezagutuko ezpagaña bezela!

Lenago zer esan zuten ezpageneki bezela. “Oiga, usted, nosotros somos...”

Et, et, et, alkar ezagutzen degula ta kito.

Pero...



Naikoa degula. Bete gabe.



Yendea galtzetan estu da gogotik. Straperlo arazo onek itillu txarrak ekarriko ote dituan edo diote askok. Korteak galdu, sakanatuko dirala, edo... ta gero, jakiña, berriro korteak osatzeko auteskundeak egin bear, eta ezkerak bat egiñik nola dauden, oiek garalle nola irtengo ote diran susmurrak dirala ta zer egin ere...

Onela, era ontan asiak daude, aspalditxo ontan jaun da jabe izandako ollaxko auk.

Kanta kokorra asi dute nere ustez. Ezkerak gañean dirala konturatzen dira, ta aginpidera iritsi ta zer egingo dituzten, Jesus!, pentsatzen jarri utsarekin ondoeza eginda bezelatsu gelditzen dira.

Baña goazen arrazoitara.

Nola artu dute ezkerak indar ori?

Ezkerak ez dute indarrik berenez artu, zeuek eman diozute.

Agintari-buruak zeraten bolara ontan zer egin dezute langilleen alde?

Zer laguntza egin diozute beekoai?

Ministro bat izan zenduten tajuzkoa.

Lugin arazoa artu zuan berekin, eta katoliko bezela Aita Santuan agiriak eskutan zituala ekin zion lanari. Zuek ain katoliko zintzoak izanda, etzenduten ontzat artu, ostiko batez biali zenduten, eta aren tokirako aurkalaririk aundiena jarri. Lengoak batera egindakoa zearo bestera aldatu bigarrenak. Komeri auk, Jimenez Fernandez eta Velayos-en artean gertatuak dituzute. Gaur zer?

Langilleak egundo baño okerrago, ta nekazariak megar gordin batean kalegorratuta, ainbat urtean izandako basetxetatik lege trakets bategatik bota dituztelako. S. Martin tristeak eman dizkiotzute aurten Euskalerrari ere.

Askatasun apurran egarri ziran errientzat Royo Billanoba jarri zenduten zuzendari bezela. Estatutorik ez duten lurraldeai estatutoa emateko, ta ez dutenai askatasun geiago eskeintzeko, noski. Ortarakoxe zeok.

Ta orrela nai dezute alderdi aundi indartsua izatea. Langille ta nekazariak lurperatuaz, erriai euren eskubidea ukatuaz, ate danak itxiaz, eta ori naikoa ez dala, Donostira etorri ta nai dituzutenak esanaz.

Etzeok toki txarrean! Utikan!

Euzkadik jakingo du nola jokatu. Bai orixe.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**Argia, 1935-11-17**

---

Iruretagoyenatar Patxi *Zaporra* zarran aditzerarik bai al dezute? Berealaxe esango dizuet zein eta nolakoa dan.

Zarauztar oso osoa dezute; bertan jaio, bertan azi, ta bertan bizi dana. Gaur egunean askoren arrigarri da Patxi. Bizkar gañean damazkian 54 urterekin ere ikusi egin bear da orren pelotako gozotasun eta egokitasuna.

Argazki edo erretratotan ikusi izango dezutenez, kolore gorri-gorriakiko gizon lerdan kementsua da.

Gaztetan ere alaxe izan bear zuan, mutil sendo bulartsua. Garai batean bai omen zuan indarra pranko; errian gutxi bezelakoa zan Patxi, bere kidekoak diotenez.

Pelotarako itsumen osoa zuan gaztetan ere. Pelota ezagutu zun ezkerro, bera gabeko onik ez du izan gure Patxik.

Amaika ezpartzin edo abarketa urratua ta amaika errita asarre entzuna, berak sarri aitortu izan digunez.

Patxi gazte-denboran pelotan ikusi ta, makiñatxobat arritu oi zan, ber-berak aitortu digunez.

Ortxe amabost-amasei urte zituan garaian, ikustekoa zan, noski. Denbora artan puntaz bolara gogorra omen zan, eta euskaldun artean ain ezaguna dan Orioko Enbil zarrak amaika alegin egin omen zion gure Patxiri, lanketa artan jarrai zezan, pelotatik bizi zedin, baña... milla eragozpen biderditan. Xextuak bialiaz eta abar laguntzen zion Enbil-ek. Etzuan gutxi maite, alajañetan! Ortarako, jakiña, nork berak bear alakoa. Gairik ikusi ez balu etzan Enbil ala saiatuko; baña Patxigan etorkizun mardula nabaritzen zuan, gai bikain egokia arkitzen zuan, eta orretxegatik ziran aren alegiñak.

Zer izan zendun garai artan aurrera ez jarraitzeko? –galdetu nion lengo batean Patxiri.

–Beartsu jendeari zer gertatzen zaion jakingo duk, noski! –erantzun zidan. –Eskoletan ere makiñabat izaten dituk maixua-  
ren arrigarri. Zenbait ikaslekin txoratuta gelditzen duk maixua.  
“Etzazutela mutilla eskolatik aldendu edo erretiratu arazi, lagun-  
du zaiozute aurrerako bidetan, etorkizun ezin ohea dauka, karre-  
ra ikaragarria aterako du oartu baño len, etzaitezte iñozoak izan,  
lagundu akiozute mutillari; bultza akiozute aurrera”.

Au sarri gertatzen dana duk, Basarri. Ta badakik: errez esa-  
ten duk “bultza akiozute aurrera”, baño eltzean egosteko baba-  
rrunantzat aña sortu ezin duanak, atxurren bat bizkarrera eman  
eta orduan bultzatzen zioz aurrera.

Neri ere au berau gertatu zitzaidaken. Oso sendi edo pamily  
beartsukoa nauk jatorriz, eguneroko egiñarekin izaten giñun guk  
zerbait. Etzitxeon ezpartziñak urratuaz plazetan denbora alperrik  
galtzerik. Gure etxean jo bearra izaten ukan, ta or ibilli nindu-  
kan bein itsasoan eta bein legorrean. Badakik lenengo jatea dala.  
Itsasoan irabazirik etzanean, baserrira jotzen nikan nik. Noiznai  
arrantzale niñukan, noiznai morroi, ta noiznai peoi.

Pelotari irteteko atarramentu onak! Toki onean zitxeon gure  
pesta!



Berrogeita amalau urte dauzka gaur Patxik. Sendi ederra azi-  
ta dago.

Geltoki edo estazioan du bere lantokia, ta gustora da bere  
izatez.

Ta pelotan?

Pelotan? Badaki oraindik gazte askori zer egin. Sasoi ona  
daukazula ta ez asi ain errez azpiratuko dezulakoan.

Ez degu uste Euzkadi osoan bera austeko edadekorik, adiñe-  
korik egongo danik ere!

Txindurri, Gezala ta gañontzekoak ez dira motelak, baño Pa-  
txik tamaña ederrean menderatu zituan.

Gizon onen adore ta trebetasuna ikusirik, Zarauzko kiroltzaleak omenaldi bat egitea oldoztu dute. Patxiri egun aundi bat opaldu bear zaiola, ta au il onen ogeita laugarrena izango da. Zarauztar geienak egun ortan Patxiren ondoan izango diralakoan gaude.

Merezi du olako gizon batek erritarren agerpena. Ai zer eguna daukagun! Zorionak, eta urte askotarako zaitezela lagun zar ori!

Patxi Zaporra,  
bai gizon jatorra!

## Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1935-11- 24

---

Milla bederatzireun da irugarren urteko udazkenaren azken ki-muak. Sabin eriotz agiñean, eta Sukarrieta, aldiz apaintzen ta al-diz ituntzen duten zugaitzak iñoiz ez bezelako samiñaldiak urra-tu ta makurtarazten ditu.

Gaztain zarren ostozabal kerizgarriak beiak jo dituzte geia-go ez zutintzeko; egoaizearen arroaldiak ere ez ditu esnaraziko; lokatz loitan, buruz bera sarturik betiko ezkutatzea zaiote gogoz-koen. Inguruko lizar, aritz ta pago lerdanak jario berdiña dute.

Izadi oro illuntzera zirudian unean, Sabiñek azken arnasa eman du. Bere ilberria edatu da euzko aberrira. Asko euren go-zamena bear bezela agertu eziñik; aberkide bakan urriak, negar zotin etengabeen.

Il  
nayago dot  
ikusi  
baño  
aberriaren  
amaya.



Zenbat eta zenbat, Sabin ero galdutzat zeukatenak; zenbat Sabin il zanean jarraitzallerik biziko etzala uste zutenak.

A, gizajoak! Etzeuzkaten alper gaiztoko usteak!

Ziñopen oroipen da gogorapenak, ziñopen izakera ta iraka-tsiak il ondoren bururatzen dira geienbat; orduan sortzen zaizka-laguntzallerik mardulenak, orduan gudaririk ausartsuenak.

Guzia? Guzia, illezkorrek diralako.

Izadiaren azkenerarte erriaren oroimenean izango diralako.

Zubimendi olerkariak egoki esaten digu Sabiñetzaz:

Il ziñan, Sabin, gure irakasle,  
gazte maitekor, gizon maitale.  
Il ziñan zoritxarrean!  
Baña gorputza il bazan ere  
gogoa dabil egazka bere  
Aberriaren gañean.

Euzkadi zarra etzaigu ilko,  
zuk piztu zendun beti-betiko  
aske dedin ludi ontan...  
Zu ere, Sabin, biziko zera,  
euzko semeak bizi bagera,  
euskaldun biotz danetan!



Zuk, Sabin, zenbat etsai maltzur biotzgabe izan etzendun!  
Zenbat eruapen urrikgarri! Zenbat naigabe ta neke eraso!  
O, Sabin, guk ezin oldoztu ere!  
Orduko euskaldun askok erotzat artzen ziñuten.

Orduko agintari burua Cánovas de Castillo zan Espaiñi aldean.

Santa Agedako ezkotegian arkitzen zan euzkotar ori egunen batzuk igarotzen.

Euzkotar buruarroak ingura zitzaizkion Bizkaitik, ta zu ero nastu bat ziñala esan zioten.

Emengoak baño bizkorragoa izakita, erantzun gordiña eman zien Cánovas-ek:

“Etzazute sinistu. Gizon ori ez da eroa, orrek asko ta urrutira ikusten du”.

Zenbaterañoak emengoen itsumena!



Gaurko agintari-buruak eta buru izan naikoak sarri etortzen zaizkigu. Geure etxera etorri ta derizkiotenak esan.

Bizien mundutik illenetara joana zeralako, zugatik ez duala ezer esango, baña zure jarraitzalleen aurka geiago eziñekoa izango dala esan digu txatxu batek.

Zure jarraitzalle diran euzko aldunai ez diela iñoiz eskurik luzatu ere. Au guzia gurutze aundia buru gañean zintzilik duala esan du, uzkurtzaren izenean, noski.

Zure jarraitzalleak izan kongresoan masallekoak artutakoak, zure jarraitzalleak izan, Aita Santuan irakatsiak orpoz-orpo aldezten dabiltzanak, zure jarraitzalleak izan, azkena kristau ikasbidean alde eskaerarik gogorrenak latetxean egin dituztenak... eta Sabin, orra nolako eskerrak azkenean.

Iñork baño eskubide geiagorekin itzegingo dute igandez zure oñordekoak. Bazter guziak abertzalez lepoz gainduta ikusiko dira.

Itzetik ortzera an erabiliko zaituzte, Sabin. Zu gabe ezpaigera ezer. Zuk guzia Jaungoikoagatik zala esan zeniguzun.

Guk, Jaungoikoagatik eta zugatik ari gerala esango dizugu.

Agur, Sabin, gero arte!



## Okerrak zuzentzen? (NB)

*El Día*, 1935-12-14

---

Urumeara egin zun azken bixitarekin abertzaletasunari indar ematea besterik egin ez duala badaki Calvo bizkorrak. Azken godo au ez degu gizon illuna. Jakintzaz ornitutako landarea degu, ta Donostian zabalduetako sareak gustoko arrairik atxitu ez duala ikusi ondoren, askoz onura geiago ateratzeko asmoz Madriden zabaldu ditu sareak. Bietan uts ematea arritzekoa da orratik! Azkenengo ontan irabazi geixeago izango zualakoan geunden geroni ere. Berak beti itzetik ortzera darabilkian kai inguruan zabaldu baizitun bere tranpazko tresna oiek.

Gure Calvo ezagunegia izaki ordea; or dago okerra. Aruzko itsaso ura nundik nora jasoko ta goralduko ibiltzen dan arrantzalea da, baña, edesti edo istori aunditxo darabilki berekin. Az-tutzen ez dana gañera.

Orain lau bost urte zakarraldi aundi bat izan zuan ain maite kutuna duan aruzko ur sail gardenak, eta arpegi emateko erarik egokien eta bearrenean Frantziako barraraño aldendu etzan ba?

Arrantzale bikaña, arranetan!

Orain berriro baretzen asi danean (bere ustez, e?) egundo baño arroago datorkigu.

Aberastasunetan gañeztutako aundiki onek, aruzko eta onutzko itsasalde guziak bere menpe nai lituzke. Lendik ondotxo oitua izaki.

Len ere ikusi degu  
beste orrenbeste,  
guganako gorrotoak  
aizatzen zaituzte;  
azken "godoak" ez du  
olakorik uste.  
Kantabriko olatuak  
zapalduko dute!



Bikain jokatu dira gero gure aldunak. Ez daukagu ordezkari-tza txarra euzkotarrak.

Goizetik gabera abertzaletasunarekikoak egingo zitulata asi zan, zazpi urte buruan jaun da jabe izan zan Calvo-ren lagun aztu eziña (G.B.).

Aren jarraitzalle zintzo bezela, bide berdiñez nabaritu degu gure Calvo ere.

Nolako afanez azaldu zan aurreko ostegunean!

Jesus Jaungoikoa! Danak irentsi bear zitula zirudine. Baña... zer egin zuan?

Maira aurkeztu zan aldezkizun edo proposizioa baztertu egin bear izan zuan, besterik ezertxo ere ez.

Zer zala uste zuan gure irukotea?

Egiarekin atzera egingo zuten ozkillak zirala ote zerizkion? Toki onean zebillen, gizarajoa!

Ai mutillak! Egiak nonai ematen dik ondo. Askotan entzutea mingotz izaten duk, baña egia beti egi!

Monzon, Irujo ta Agirrek ondo zekiten etsai bazkun artakoen-tzat egia mingotz eta gatzmindua izango zala, bazekiten Madride-ko legetxean euzko nazioaren goralpenak egiteak txixtu, orruak irabaziko zituala. Baña, zer?

Esateko ordua iritsi zan, eta gure gizonak gordin-gordin jaurti zituzten jaurtitzekoak.

Ai, aurreko zarrak orrela egin balute!

–Gu zuek bezin Españarrak gera –esaten zuten aiek Madri-deko legetxean.

–Zuek gu bezin Españarrak izanda –erantzun zien angoak–nola dauzkatzute zuen semeak España dependitzera gudaritzara biali gabe?

Zuek, gu bezin Españarrak, eta España aldezteko guk bakarrik jarri bear al ditugu semeak eriotz arrixkuan?

Sabin sortu zan arteraño onelakoxe itsumena zan emen; orretxegatik arrapatzen zituzten ain errez lazoan, onelaxe galdu gendun geure jabetza.

España zatitua baño España gorria naiago duan jaun orrek,  
gure diputaduai eskua luzatzea ain gaizki derizkion jaun orrek,  
etzuan onelakorik uste.

Gure gizonak Urumean esan zituztenak eta geiago esan dute  
Madridenten. Ori duk bikaintasuna!

Zezen-pesta egoki antolatua zeukan Calvok. Dotore toriatuko  
zitula ta arroturik zegon.

Toriatzalle bezela bazun  
gizon orretzek erronka,  
plaza erdira an atera zan  
ezpatarekin albaka.  
Lastur aldeko zezen biziak  
eman zioten adarka.  
Kapa utzi ta aguro asko  
ezkutatu zan baldarka.



Mujikatar Nikol margolari sonatuaren entzutea badezute,  
noski. Ertilari bizkor onek bere erakusketa bat egingo du Do-  
nostian. Gaurtik, au da illaren amalautik aurrera, bere erti-lan  
bikain goralgarriak ikusi ditezke Euzko Pizkunde-n.

Amabost lauki edo kuadro daramazki zein baño zein guziak.  
Arratsaldeko zazpi t'erditatik aurrera noiznai une egokiak dituzu  
egun batzutan. Igandean bueltatxo bat egingo bazendu, etzaizu  
damutuko, irakurle.

Ene euskaldun biotzekoa,  
une apartak dituzu.  
Arren mesedez eskatzen dizut  
ondo gozatu itzazu.  
Pizkunderaño joan gabe beintzat  
etzera geldituko zu,  
gure Nikolen yayotasuna  
antxen ikusiko dezu.

## **Bildutako sortatxoak** (NB)

**El Día, 1935-12-20**

---

Berako seme entzutetsua dan Pio Baroja, pipermindu antza senti degu lengo egunez. Madrideko izparringi edo periodiku batean sekulako artikulu bat idatzi du beintzat.

Igandean argitara oi ditudan ipui antzeko edestitxoak alde batera utzi, ta neure azalpentxo batzuk egin nai nituzke gaur –esaten digu lenengo izkitan–. Nigatik asko esan ta asko idatzi da bazterretan –jarraitzen du esanaz– baña zenbat eta zenbat bidegabekeri, zenbat tentelkeri!

Euskaldun txarra dala, ta orretzaz gañera erlijioaren aurkari gogorrenetakoa dala adieraziaz idatzi omen dute norbaitzuk. Ta, jakiña, ori gezurtatu nai ba gure Pio ospetsuak.

Ta nola uste dezute?

Berak argitara eman dituan liburuan zabalkunde edo propaganda agiñaz, alajaña.

Bi nobela euzkotar bai omen dira berak idatzita. Ta irakurgai oiek, Frantzerara, Doixtarrera, Inglesera, Italiaerara, Holandese-rara, Sueko izkuntzara ta ez dakit zenbat geiagotara aldatuak omen daude, ainbat aletara biurtuak.

Ainbat naziotan eskoletako umeen irakurgai bere lan oiek izan omen dira, ta urruti oietako jakintsuak bere obratzaz idatzi dituzten aurreitzetan ez omen da euskaldunen aurkakoa danik aitatzen, zearo batekoz bestera baizik. Oso erri-maitaletzat artu omen dute guziak.

Ez dute guk bezela ezagutzen! Gizon argi ta jakintsua dalarik, edozein tontok arrapatzeko moduko tentelkeriak esaten dizkigu ordea beti.

Ikusten dezutenez, oneraño beste iñor bezin euzkotar zintoztat agertzen zaigu; idatzi duanarekin ori erakutsi nai izan du beñepein.

Aurreraxeago ara zer dion gure gizonak.

Erdikako abertzale batek, elerti edo literatura gaiz oso erdel-  
duna, zearoko erdelduna dala, ta... milla katramilla jarri omen  
dizkio; ez omen du goraldtu, ta au dio:

¿Qué puede ser un escritor vasco del lado de acá de los Pirineos  
más que castellano? No va a ser gallego, ni catalán.

Euzkotar ustzat bere burua daukan batek au idatzi ote leza-  
ke? Katalan eta gallego izkuntzari iseka ori egitea ezer ez dalarik,  
euskera aitatu gabe utzi ote liteke?

Edota... *Nun berria, Giza Soña, Pistia, Garoa, Kriterio de Bal-  
mes-en euskeralpena, Biotz-Begietan, Biotzkadak, Bide Barriak,  
Arrats beran, Barne Muiñetan, Nere Bidean, Txindor* ta idazleari  
une batean gogoratzen etzaizkion euzko liburuzko kontaduri ai-  
pagarri ortan elerti kutsuz besterik ez ote? Ganadu, itzai ta ardi  
kontua besterik ez ote?

Euzkotar zintzoa dala derizkion batek ezin dezake orrelakorik  
idatzi, baña mingaña batera ta biotza bestera darabilkien arroi-  
purdiak guzia egin lezaketete Barojak eta bere moduko batzuk egi-  
ten duten bezela, berdin-berdin.

Euskera gaur baño malla arloteagoan zalarik ere, elerti gaiz  
gaurko laurdena azaltzen etzalarik ere, Vinson, Humbolt eta bes-  
te ainbat jakintsu kanpoko bera nundik goralduko ibilli ziran;  
ta gaur edozein izkuntzatakoakin erkatzeko moduko olerkari ta  
idazle ugari ditugunez, urtero urtero ainbateko liburu berri sorta  
pillatzen degunean, Baroja batek au idaztea ere!

Utikan, euskaldun usteldu ori! Zeure burua garbitzen asita  
len baño narratsago uzten dezu-ta! Utikan, urrutira!

Ene ama maitea,  
ai, ama euskera,  
zeure semeak sartu nai  
zaituze lurpera.  
Ez dute lortuko ori  
gu bizi bagera.  
Zeure ondoan gaituzu  
ta goazen aurrera!



Badakizute Abisinia gaiz Hoare ta Laval-ek euren konponketa egin dutela. Besteak egitea palta ordea. Or zeok koxka!

Euren konponketa agiri ortan irakurtzen danez, Abisiniak sekulako saillak eman bear dizkio Italiari. Tigre probintziaren sor-kaldeko eremu edo terrenoak utzi bear dizkio Italiari, oien artean Aduako uria ere bai. Orretzaz gañera, Ogaden probintziaren erdia eman bearra dauka Hoare ta Laval-en arteko tratu orrekin konporme izatezkero.

Au guzian truke, Abisiniari zer eskeintzen diotela uste dezute? Eun kilometroko zati bat, itsasorako irteerakin. Besterik ez.

Au, Hoare ta Laval-en asmoan lenengo ikuitua da; ondoren tralla ikaragarria du. Gai auetan adituak diranak diotenez, irureun milla aneurkin laukitu edo kilometro kuadrado lur anurakor eman bear zaizkio Italiari.

Nola nai dezute au ontan konpontzea? Negus-ek ezetz erantzuteakin nor arrituko da? Arrazoi du berekin.

Len ere eman zale izan balitz, etzan gudarik izango; eskatu ala eman ezker, pakea dago beti.

Abertzale jator bezela, "lenago il" esan zuan Negus-ek; bera ta bere menpeko erria ortara joango dirala uste degu.

Bakoitza bere tokian  
ezin egon umil;  
auzoa ondatzera  
korri azkar, mutil!  
Ditunak kendu ondoren  
al baldin bada il;  
gaurko mundu arroa  
orrelaxe dabil.



Erakusbide ederra benetan aurtengo negu illun eta naigabetsu onetan euzko abertzale zintzoak azaldu dutena. Gizonik maitatuena eta gogozkuena izan oi da bere lan egite ederrez edo bere maitasunez beste batzuek ondo jartzen dituana, eta ez itza eta pitza erabilli, oritasunezko gauza asko agindu eta ondorenen ezer ez. Gaurko egunian garbi ikusten dan gauza ori da, guztiok dakizuten bezela. Sozolistuen itzaldi bat naikua da, or entzungo dezute "langillientzat maitetasuna guk degu eta ez bestek, nai eta naiez langille guztiok onera etorri bear dute beren buruak lasaitzeko bear dan neurrijan lana egin eta ontasanian bizitzeko eta bear diran aginteak artzeko". Orrela beste gauza asko.

Gu euzkotarrok bertako bazkide ez geradenok omen gero "kabernikolas" atzeratuak, noski, eta besterik ez bezelakuak. Egia aitortuko diogu, gu besterik ez bezelakoak gera abendaz, izkuntzaz, oituraz, jolasez eta guztira. Baña kabernikolas nortzuk diran ikusten, guri pakian utzi eta beste batzun billa asi biarko dute.

Basarri  
(Euzkadi, 1931-12-30)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

ISBN 978-84-7907-716-7



9 788479 077167